


BAKARRIK DAUDEN ADIN TXIKIKO ATZERRITARREN EGOERA EAËN





**BAKARRIK DAUDEN
ADIN TXIKIKO
ATZERRITARREN
EGOERA EAEN**

Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia

Arartekoaren aldetik:

Iñigo Lamarca, Mercedes Agúndez, Julia Hernández, Faustino López de Foronda,
Valentín Martínez-Acha, Fermín Barceló, Itziar Barrenkua, Miren Ortubay, Teresa Llantada,
Idoia Llano, María José Aguirre.

Kolaboratzailea ikerketan:

Isabel Berganza Setien.

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

Azaleko irudia: EPS, S.L.

Paper ekologikoa.

L.G: VI-309/05



BAKARRIK DAUDEN
ADIN TXIKIKO
ATZERRITARREN
EGOERA EAEN

AURKIBIDE OROKORRA

Grafiko eta taulen aurkibidea	13
Txostenaren aurkezpena	17
Sarrera: Txostenaren testuingurua, metodologia eta egitura	23
1. Esparru juridikoa	33
1.1. Arau esparrua	33
1.1.1. Hitzaurrea	33
1.1.2. Nazioarteko Araudia	35
1.1.3. Barne Araudia	37
1.2. Eskumenen esparrua	39
1.3. Adingabe atzerritarra, eskubidedun subjektu modura	41
1.3.1. Aplikazio esparrua	41
1.3.2. Adingabeen eskubideak	42
1.4. Adingabe atzerritarra babes subjektu modura	46
1.4.1. Aplikagarria zaion lege sistema	46
1.4.2. Jarduketa printzipioak esku hartzean	49
1.5. Bakarrik dagoen adingabea eta atzerritarrentzako erregimena	50
1.5.1. Planteamendu orokorra	50
1.5.2. Administrazio eskudunen jarduera ildoak bakarrik dauden adingabe atzerritarren atentzioan	52
1.5.3. Adingabe atzerritarren egoerari eta horiekin esku hartzeari ukitzen dieten beste kontu batzuk	60
2. EAEn harreran hartutako bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren ezaugarriak	65
2.1. Arabako Lurralde Historikoa	65
2.1.1. Harreran hartutako adin txikiko kopuruaren gaineko datuen garapena	65
2.1.2. Artatutako adina eta jatorria	68
2.1.3. Adin txikikoen egoera administratiboa	69
2.1.4. Artatutako gazteek egindako jarduerak eta emantzipatzeko aukerak	70
2.2. Bizkaiko Lurralde Historikoa	72
2.2.1. Harreran hartutako adin txikiko kopuruaren gaineko datuen garapena	72
2.2.2. Artatutako adina eta jatorria	76

2.2.3. Adin txikikoen egoera administratiboa	77
2.2.4. Artatutako gazteek egindako jarduerak eta emantzipatzeko aukerak.....	78
2.3. Gipuzkoako Lurralde Historikoa	82
2.3.1. Harreran hartutako adin txikiko kopuruaren gaineko datuen garapena	82
2.3.2. Artatutakoen adina eta jatorria	83
2.3.3. Adin txikikoen egoera administratiboa	83
2.3.4. Artatutako gazteek egindako jarduerak eta emantzipatzeko aukerak.....	84
2.4. Adin txikiko atzerritarren ahotsa: ibilbideak, itxaropenak, beharrak	85
2.4.1. Beren esperientziaren kontakizunak (38 kasu).....	86
2.4.2. Nabarmentzen diren elementu komunak	105
3. Erakundeen erantzuna	113
3.1. Harrera zentroen ikuspegi globala.....	113
3.2. Arabako Lurralde Historikoa	118
3.2.1. Erabaki erakundeak eta esku-hartzen duten zerbitzuak (Arabako Foru Aldundia).....	119
3.2.2. Premiei erantzunez sortutako zerbitzuak, programak eta tresnak	121
3.2.3. Zabaltzen Zentroaren azterketa	124
3.2.4. Adin txikiko horiei zuzendutako baliabideak zenbatzea eta premien bilakaera	128
3.3. Bizkaiko Lurralde Historikoa	132
3.3.1. Erabaki erakundeak eta esku-hartzen duten zerbitzuak (Bizkaiko Foru Aldundia).....	132
3.3.2. Premiei erantzuteko sortutako zerbitzuak, programak eta tresnak	135
3.3.3. Zentroen azterketa	139
A) Zabaloetxe Zentroa eta emantzipazio-etxebizitzak.....	141
B) Gabriel M ^a de Ibarra Zentroa.....	149
C) Etxe funtzionalak.....	151
D) Sagrada Familia Zentroa	161
3.3.4. Adin txikiko horiei zuzendutako baliabideak zenbatzea eta premien bilakaera	166
3.4. Gipuzkoako Lurralde Historikoa	169
3.4.1. Erabaki erakundeak eta esku-hartzen duten zerbitzuak (Gipuzkoako Foru Aldundia).....	169
3.4.2. Premiei erantzuteko sortutako zerbitzuak, programak eta tresnak	170
3.4.3. Zentroen azterketa	172
A) Larrialdiko Harrera-Zentroa - Urnieta.....	172
B) Martuteneko Egoitza	177
3.4.4. Adin txikiko horiei zuzendutako baliabideak zenbatzea eta premien bilakaera	181

3.5. Espedienteen lagin baten azterketa	185
3.6. Foru Aldundietako arduradunek nabarmendutako zailtasunak eta aukerak	189
3.7. Adin txikikoen balorazioa izandako arretari buruz	194
4. Balorazio orokorra. Atzemandako arazo nagusiak	201
5. Arartekoak administrazioei egindako gomendioak	213
6. Txosten hau egiteko erabili diren informazio-iturriak	239
6.1. Harrera-zentroetarako eta zerbitzuetarako bisitak	239
6.2. Ahozko iturriak: elkarrizketak eta bilkurak.....	240
6.3. Kotsultatu diren dokumentazio-iturriak.....	242
7. Eranskinak	260
1. eranskina: Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren zentroetako bisitaldiak. Aztertu beharreko elementuak.....	261
2. eranskina: Adin txikikoekin izandako elkarrizketak. Esparruak.....	262
3. eranskina: Espedienteak aztertzeke fitxa (informazio-hustuketa).....	265
4. eranskina: Bakarrik dauden atzerritar adin txikikoen egoeraren jarraipena lurralde bakoitzean, 2000. urtea (Arartekoak Eusko Legebiltzarrari aurkezturiko urteko txostenetik).....	266
5. eranskina: Bakarrik dauden atzerritar adin txikikoen egoeraren jarraipena lurralde bakoitzean, 2001. urtea (Arartekoak Eusko Legebiltzarrari aurkezturiko urteko txostenetik).....	273
6. eranskina: Bakarrik dauden atzerritar adin txikikoen egoeraren jarraipena lurralde bakoitzean, 2002. urtea (Arartekoak Eusko Legebiltzarrari aurkezturiko urteko txostenetik).....	281
7. eranskina: Elkarrizketatutako 38 adin txikikoen jasotako harreraren gainean egindako balorazioak (testigantzen laburpena).....	294

GRAFIKO ETA TAULEN AURKIBIDEA

1. grafikoa:	Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren garapena Araban (1997-2004)	66
2. grafikoa:	Egoitzadunen kopurua hilabete bukaeran (Zabaltzen, 2003-2004)	66
3. grafikoa:	Sarrerren eta irteeren hileroko mugimenduak (Zabaltzen, 2003-2004)	67
1. taula:	Irtetearen arrazoiak (Zabaltzen, 2003-2004).....	67
4. grafikoa:	Artatutako adin txikikoek irauten duten epea (Zabaltzen, 2003)	68
5. grafikoa:	Artatutakoen adina (Zabaltzen, 2003)	68
6. grafikoa:	Artatutako adin txikikoen jatorria (Zabaltzen, 2003)	69
2. taula:	Agiriak tramitatzea eta lortzea (Zabaltzen, 2003-2004).....	69
3. taula:	Trebatzeko jarduerak eta ikastaroak (Zabaltzen, 2003).....	70
4. taula:	Lan esparruak (Zabaltzen, 2003)	71
7. grafikoa:	Zabaloetxen artatutako bakarrik dauden adin txikiko atzerritar berrien urteko eboluzioa (1996-2004)	72
8. grafikoa:	Hilabete bakoitzaren bukaeran Zabaloetxen bizi ziren adin txikikoak (2003-2004)	73
9. grafikoa:	Sarrerren eta irteeren hileroko mugimenduak (Zabaloetxe, 2003-2004)	74
10. grafikoa:	Irtetearen arrazoiak (Zabaloetxe, 2003).....	75
11. grafikoa:	Irtetearen arrazoiak (Zabaloetxe, 2004).....	75
12. grafikoa:	Artatutako adin txikikoek irauten duten epea (Zabaloetxe, 2003)	76
13. grafikoa:	Artatutakoen adina (Zabaloetxe, 2003)	77
14. grafikoa:	Jatorrizko herrialdeak (Zabaloetxe, 2003)	77
5. taula:	Agiriak tramitatzea eta lortzea (Zabaloetxe, 2000-2004).....	78
6. taula:	Trebatzeko jarduerak eta ikastaroak (Zabaloetxe, 2003).....	79
7. taula:	Lan esparruak (Zabaloetxe, 2003).....	80
8. taula:	Zabaloetxe Zentroaren mende dauden emantzipazio pisuetan bizi diren adin txikikoak (2003-2004)	80
9. taula:	Trebatzeko jarduerak eta ikastaroak (Urduña, 2003).....	81
10. taula:	Lan arloa (Urduña, 2003).....	81
11. taula:	Emantzipazio prozesuak (Urduña, 2003).....	81
15. grafikoa:	Gipuzkoan hilabete bakoitzaren bukaeran artatutako adin txikikoak. Urnietako eta Martuteneko Zentroak (2003-2004)...	82
12. taula:	Irtetearen arrazoiak (Gipuzkoa, 2003).....	83
13. taula:	Agiriak tramitatzea Gipuzkoan (2003-2004).....	83
14. taula:	Prestakuntza jarduerak (Urnietako, 2003).....	84
15. taula:	Prestakuntza jarduerak (Martutene, 2003)	84
16. taula:	Emantzipazio prozesuak (Urnietako eta Martutene, 2003).....	84

17. taula:	Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrentzako bakarrik edo zati handiengan bideratutako egoitza zerbitzu sarea (EAE, 2004)....	115
18. taula:	Zentroetako langileriaren datuak (EAE, 2003-2004)	116
16. grafikoa:	Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Gaietarako Sailaren eta adin txikikoei arreta eskaintzen dien unitateen organigrama	120
17. grafikoa:	Esku-hartze prozesu orokorra (Arabako Foru Aldundia)	123
19. taula:	Arreta-premien bilakaera Araban (1996-2004)	129
20. taula:	Arabako kolektibo horren premiei erantzuteko erabilitako baliabideen bilakaera (2000 - 2003).....	130
21. taula:	Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren arretarako aurrekontuak eta partidak (Arabako Foru Aldundia, 2003 eta 2004 urteak)	131
18. grafikoa:	Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailaren organigrama. Adin txikikoen arretan esku-hartzen duten zerbitzuak eta unitateak.....	134
22. taula:	Zabalotxe Zentroaren mende dauden emantzipazio-etxebizitzetan bizi diren gazte atzerritarren bilakaera (2003-2004)	148
23. taula:	Arreta-premien bilakaera (Bizkaia, 1996-2004)	166
24. taula:	Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren premiei erantzuteko erabilitako baliabideen bilakaera (Bizkaia 2000-2003)	167
25. taula:	Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren arretarako aurrekontuak eta partidak (Bizkaiko Foru Aldundia, 2003 eta 2004. urteak)	168
26. taula:	Arreta-premien bilakaera (Gipuzkoa, 1996-2004).....	181
27. taula:	Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren premiei erantzuteko erabilitako baliabideen bilakaera (Gipuzkoa 2000-2003)	182
28. taula:	Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren arretarako aurrekontuak eta partidak (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003 eta 2004. urteak).....	184
29. taula:	Dokumentazioa bideratzerakoan igarotzen den bitarteko epeen batezbestekoa (78 espedienteen datu-hustuketa. Lurralde Historikoak, 2003)	186
30. taula:	Dokumentazioa bideratzearen gehienezko eta gutxieneko epeak (78 espedienteen datuen hustuketa. Lurralde Historikoak, 2003)	187

TXOSTENAREN AURKEZPENA

Babesik gabeko egoeran dauden adin txikikoen artean badago ezaugarri eta behar diferentzialak dituen talde bat; adin txikiko atzerritar arduradun gabeena. Azken urteetan Ararteko erakundeak arreta berezia eskaini dio adin txikiko horien arazoari eta, hain zuzen ere, Lurralde Historiko bakoitzean berariaz horientzat ezarritako zerbitzu desberdinetan duten harrera-egoerari.

Duela hamar urte, gure Erkidegoko babes-zentro guztiak bisitatu zirenean, eta *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza-zerbitzuak* izeneko aparteko txostena egin zenean, errealitate oso ezezaguna zen hori. Ondoren, pixkanaka, beren familiak jatorrizko lekuetan utzi eta gure artera agiririk gabe iristen diren nerabeak eta gazteak geroz eta gehiago dira. Adin txikikoak, Haurren Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenari jarraiki, erakunde-babesaren xede izan behar dute.

Orain arte behintzat, hartutako gehienak Marokoko mutilak izan dira. Irsten diren guztiak ez dira adin txikikoak, hezur-proben bidez edo, ondoren, agirien bidez egiaztatu daitekeen bezala. Gainera, beren proiektua oso argia izan ohi da: beharrezkoa den hizkuntza edo hizkuntzak ikasi, paperak eskuratu, lehenbailehen lanean hasi, beren familiei laguntza ekonomikoa bidali... Proiektu hori aurrera eramateko hautatutako lekua faktore desberdinen araberakoa izan daiteke: batzuentzat hau bitarteko bidea besterik ez da, baina beste batzuk hemen geratzea eta bizitza autonomo bat abiaraztea erabakitzen dute.

Egia esan, babes-erakundeak –gure kasuan, hiru foru aldundiak- ez zeuden errealitate berri eta geroz eta ugariago horri behar bezala eta modu egokian erantzuteko prestatuta. Hori horrela, oro har berariazko baliabideak sortzen joatea hautatu zen –larrialdietarako zentroak, edo harrera zentroak, beraiantzat bakarrik-; horietako batzuen harrera-gaitasuna, geroz eta gehiago, gainditu egiten da. Zenbaitetan, baita ere, errealitate horretatik komunikabideetan isla izan duten gatazkak edo egoerak ondorioztatu dira, eta kezka eta alarma sortu dute gizartean.

Ez da erraza erantzun egokia artikulatzea. Eta kontraesanak ugariak dira: adin txikikoak dira, baina, maiz, jadanik bizi izan dute bizitza autonomo bat; lehenbailehen lan egin nahi dute, baina hori hemen ez da posible adin jakin bat izatera iritsi arte, eta, gainera, zaila da prestakuntza profesionala falta bazaie edo komunikazio-hizkuntza menderatzen ez badute. Behar horiei behar bezala erantzuteak, erakunde batzuk egiten badute eta beste batzuk berriz ez, lehenengoentzako eskaera –eta baliabide– hazkuntza nabarmena suposatzen du.

Lehen esan dugun bezala, azken urteetan Ararteko erakundeak arreta berezia eskaini dio arazo horri. Horren ondorioz, harrera-zentroak bisitatu dira aldizka, ofiziozko

espedientean izapidetu dira administrazio erantzuleen aurrean, tutoretza, hezkuntza, dokumentazioa, erroldatzea edo polizi jarduera bezalako gaietako irizpideak aldatzeko proposamenak egin dira, foru-agintarietako eta zerbitzuetako arduradunekiko bilkurak egin dira, kasu jakin batzuk ebazteko izapideak egin dira, gatazka-egoeren aurrean esku hartu da...

Horren guztiaren berri eman da, urtero, Eusko Legebiltzarreko ohiko txostenetan. 1998. urtetik, 2005eko martxoan aurkeztu den 2004. urteko txostenera arte (lkus urteko txosten bakoitzean, 1.1.5. atala, *Babesik gabe dauden haurren eta nerabeen arretari buruzko jarraipena*).

2003. urteari dagokion txostenean, adin txikiko atzerritar arduradun gabeiei eskainitako kapituluaren amaieran, *Datorren aparteko txostena* izeneko epigrafearen pean, hemen aurkezten den txosten monografikoa prestatzeko intentzioa iragartzen zen jadanik: “Arrazoi desberdinak direla eta (urteotan bildutako informazioa, babes sistemek kolektiboaren beharrei era egokian erantzuteko dituzten arazoak, instituzioetan eta gizartean eragindako kezkak...), hemendik gutxira erakunde honek ohiz kanpoko txosten bat egingo du, egoera zehatz aztertzeke eta behar diren hobekuntzak planteatzeko.”

Hori da aparteko txosten honekin bilatu nahi dena: egoera sakontasun handiagok eguneratzea eta aztertzea, adin txikikoen arretaren ikuspegi orokor bat eskaintzea eta, bereziki, gomendio moduan, erakunde honen iritziz beharrezkoak diruditen hobekuntzak planteatzea.

Hori ondoko hauei esker izan da posible:

1. Aurreko bost urteetan bisitaldien eta ofiziozko jardueren bidez bildutako informazioa.
2. Txosten hau egiteko *ex profeso* gauzatu den ikerketa eta informazio-bilketa. Funtsean, ondoko hauen bidez:
 - Bisitaldi berriak harrera-zentro eta -zerbitzuetara.
 - Elkarrizketak zuzendarietako, hezitzaileekin eta adin txikikoekin.
 - Espedienteen berrikuspena.
 - Zentroek eta foru aldundiek emandako datuen ustiapena.
3. Beren ezagupenengatik, esperientziagatik edo gaiarekiko inplikazio zuzenagatik hautatutako eta deitutako pertsonekin izandako bilkurak.

Gure eskerrik beroenak datuak emanez eta iradokizunak eginez lagundu diguten pertsona eta erakunde horiei guztiei. Espero dugu txosten hau baliagarria izatea zuen lanean eta erantzukizunetan.

Gure iritziz, erakunde-erantzunaren egokitasuna eta gure gomendioak bete-betean bete direla hobekien erakutsiko lukeen ebaluazio-adierazlea ondoko hau izango litzake: adin txikiko atzerritar arduradun gabeak ez izatea albiste egunkarietan, eta gure eskailera-bizilagunak izatea eta, besterik gabe, horiei agur egitea, beste edozein bizilaguni bezala.

Hori izango litzake benetan gizarte ireki, solidario eta integratu bat eraikitzen ari garela erakutsiko lukeen seinale hobereana.

Gasteizen, 2005eko maiatzaren 20an

ARARTEKOA
Iñigo Lamarca Iturbe

SARRERA

TXOSTENAREN TESTUINGURUA,
METODOLOGIA ETA EGITURA

• Testuingurua:

Orain dela nahiko denbora gutxi hasi gara bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak hartzen gure babes-zerbitzuetan: 1996. urtera arte ia ez zeuden, lehen urteetan (1996-2000) kopuru txikia izan zen eta 2001. urtean adin txikiko horiei emaniko harrera-kopuruak hazkunde nabarmena izan zuen. Urte horretatik aurrera, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei emandako harrera nahiko handia izan da eta mantendu egin da.

Babes-erakundeek –gure kasuan, Foru Aldundiek– egoera berri bati egin behar izan zioten aurre. Lurralde bakoitzean harreraren artatutako adin txikikoen kopuruen artean dagoen aldea handia da: 2004. urtean, esaterako, Araban 50 izan ziren eta Bizkaian, aldiz, 228. Alabaina, epeak eta erritmoa ezberdinak izan diren arren, joerak antzekoak izan dira: harrera-beharren hazkundera eta adin txikiko horietara bereziki bideraturiko zentroak antolatzea.

Arartekoak, 1998. urtetik aurrera behintzat, adin txikiko hauen arazoan jarraipen sistematikoa burutu du, bereziki, hiru lurraldeetako harrera-zentroetan aldizkako bisitaldiak eginez, Foru Aldundietara eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailera bideraturiko ofizioko txostenen bidez eta administrazio horien arduradunekin bilerak eginez. Jarraipen horren berri eman da aldizka Eusko Legebiltzarrari zuzendutako txosten arruntetan. Ondorengoak izan dira txosten horiek:

- **1998**ko urteko txostena: Martuteneko adin txikiko atzerritarren harrera-zentroan egindako bisitaldiaren (1997. urtean zabaldutako zentroa) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean adin txikiko horien tutoretza hartzeko edo ez hartzeko jarraituriko irizpideen gainean egindako esku-hartzearen gainekoa (Ikus: 1998ko Txostena, 58. orria).
- **1999**ko urteko txostena: bakarrik dauden adin txikikoen gaineko funtzionamendu-irizpideei buruz Gipuzkoan ezarritako protokoloaren eta adin txikikoentzako egoitza-unitate zehatzak sortzeari buruzko Loiuko (Bizkaian) San Jose Artesano Zentroaren birmoldaketa-planaren gainekoa (Ikus: 1999ko Txostena, 62. orria).
- **2000**ko urteko txostena: lurralde bakoitzean izandako garapenaren gainekoa, datuak, bisitaldien emaitzak, antzemandako arazoak, hobekuntza-ekimenak eta -proiektuak eta abar adierazita. (Ikus: 2000ko Txostena, 46. orritik 53ra bitartean, edo txosten honen 4. Eranskina).

- **2001**eko urteko txostena: lurralde bakoitzean egindako aldaketen gainekoa; bereziki aztertu zen Bizkaiko egoera, urte horretan harreran hartutako adin txikikoen kopuruak hazkunde handia izan baitzuen bertan (2000. urtean 52 ziren eta 2001ean, berriz, 349). Hazkunde horren eraginez, Urduñako zentroa ere hasi zen erabiltzen bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren talde horri harrera emateko. (Ikus: 2001eko txostena, 74. orritik 82ra bitartean, edo txosten honen 5. Eranskinean bildutako aipatu atalaren erreproduzioan).
- **2002**ko urteko txostenean datu berriak aztertu ziren eta lurralde bakoitzean egindako bisitaldien eta gauzaturiko egintzen berri eman zen. Txosten horretan, gainera, antzeman ziren arazo nagusiak bildu eta azaldu ziren:
 1. Aldundi batzuek adin txikikoen dokumentazioa bideratzeari dagokionez erabili zuten irizpidea (9 hilabete igaro arte ez martxan jartzea) eta horrek dakartzan ondorio kaltegarriak.
 2. Hezkuntza-administrazioaren lankidetzak eskasa adin txikiko horien eskolatzearazoak behar bezala konpontzeko.
 3. Babes-sistemaren eta erreforma-sistemaren arteko lotura.
 4. Adin txikiko horien emantzipazio-prozesuetan aurrerapausoak lortzera zuzendutako baliabideetan (batik bat egoitza-baliabideetan) izandako mugak.
 5. Hezur-probetan izandako atzerapenak.

Osasun-laguntzarekin, gizartearekiko harremanarekin, polizia-ekintzekin, instalazioen mantenuarekin, hezitzaile-taldeek ezegonkortasunarekin eta beste hainbat arloekin lotura duten arazoak.

Ikusi ahal izan dugunez, orduan nabarmenduriko arazo horietariko asko berriz hartu dira ardatz gisa txosten monografiko honetan.

Garai hartako analisia edo egoera hobeto ezagutzeko, begiratu 2002ko txostena, 75. orritik 88ra bitartekoak, edo txosten honen 6. eranskinean bildutako aipatu atalaren erreproduzioan.

- Azkenik, **2003.** urteari buruzko txostenean:
 - Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei eman beharreko harreraren testuinguruaren eta horrek dakartzan arazoek gaineko laburpena egin zen bertan.
 - Arartekoak urte horretan gauzaturiko egintzen gaineko informazioa eman zitzairen bertan Bizkaiko Foru Aldundiari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari.
 - Erakunde honek Estatuko fiskal nagusiaren 3/2003 Aginduaren aurrean duen jarreraren berri eman zen bertan.
 - Urte horretan harrera-zentroetan egindako bisitaldietan bildutako zenbait datu eman ziren bertan.
 - Aparteko txosten bat egingo zela iragarri zen bertan; txosten hori da hemen aurkezten ari garena.
 (Ikus: 2003ko txostena, 51. orritik 55era bitartekoak)

Aipatu ditugun ataletako azkenekoan zehaztuta gelditu dira Arartekoa aparteko txosten hau burutzera bultzatu duten arrazoiak, baita bere helburuak ere: egoera sakon aztertzea, arazoen ikuspegi osoa eskaintzea, beharrezkoak diren hobekuntzak planteatzea.

• Metodologia

Azken urteetan egindako jarraipenari esker, nahiko sakon ezagutzen genuen harreran harturiko adin txikiko atzerritarren errealitatea. Beraz, txostena egin ahal izateko, datuak eguneratu (errealitatea aldakorra baita eta etengabe garatzen ari baita) eta arazoak eta proposamenak antolatu eta sistematizatu (horietako batzuk aurretik planteatuta zeuden) behar ziren. Gainera, zenbait eragileren “ahotsak” bildu nahi ziren, ez soilik erakundee-tako arduradunenak eta zentroetako zuzendarienak, gehienetan biltzen direnak, alegia. Horren guztiaren ondorioz erabili dira txosten honetako metodologia eta egitura.

Beraz, urtetan bildutako esperientzia abiapuntu gisa erabili da eta, horretatik abiatuta, informazioa osatu eta eguneratu egin dugu iturri gehigarrien eta txosten hau eratze aldera egindako datu-eskaeren bidez. Funtsean, ondorengo hauek izan dira:

- 1) **Datuak eta informazioa eskatu zitzaizkien** Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundien Gizarte Ekintzako Sailei eta, Gipuzkoako kasuan, Giza Eskubide, Lan eta Gizarteratze Departamentuari eta Gizarte Politikarako Departamentuari. Horiei guztiei 12 puntu planteatu zitzaizkien eskema komun bati jarraiki (Ikus: txosten honen 3. Kapituluaren sarrerako zatia).
- 2) **Harrera-zentroetako zuzendaritzei datuak eskatu zitzaizkien**, erkaketa eta datuak elkarrekin aztertzea ahalbidetzen duten irizpide eta tresna komun batzuei jarraiki (bereziki taulak eta koadroak).
- 3) **Lurralde bakoitzean bisitaldiak egin ziren bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei harrera ematera bideraturiko zentro eta harrera-baliabide guztietan.**

Bisitaldi bakoitzean ondorengo urratsak egin ziren, egoeraren arabera beharrezko egokitzapenak eginda:

- Zuzendariari elkarrizketa egitea, aurretik eraturiko galdeketa-orri zabal bati jarraiki.
- Zentroaren edo egoitzaren instalazioetan bisitaldia egitea.
- Hainbat talde edo txandatako hezitzaileei elkarrizketa egitea, baita beste lan batzuek arduratzen diren langileei ere.
- Harreran hartutako adin txikikoei elkarrizketa egitea (batzuetan guztiei, beste batzuetan batzuei, bertan zeudenei).
- Zentroaren barneko antolakuntzaren eta bere jarduera-irizpideen gaineko agiriak eta protokoloak aztertzea edo/eta biltzea.
- Zenbait adin txikikoren txostenak aztertzea, datu horiek baliatu ahal izateko.

Bisitaldien aurretik eta *ex profeso*, informazioaren bilketa sistematikoan lagun zezaketzen zenbait tresna eratu zen; tresna horien erabilgarritasuna zentroetako batean

egiaztatu zen eta egiaztapen horren arabera, tresna horiek berriz aztertu eta zuzendu ziren modu orokorrean erabiltzen hasi aurretik.

Tresna horietatik gehienak datu-etaulak (langileei buruzkoak, zentroaren oinarritzko datuen gainekoak, eta abar), behaketa-gidak eta kontrol-orriak dira eta horiek, ziu-rrerik, ez dira interesekoak txostena irakurtzen duenarentzat. Beste batzuk, berriz, interesgarriak izan daitezke eta eranskin gisa barneratu ditugu. Ondorengoak dira:

- “Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren zentroetako bisitaldiak. Aztertu beharreko elementuak” (1. Eranskina): zuzendaritzei eta hezitzaileei egindako elkarrizketetan eta instalazioetan egindako bisitaldietan baliagarria izan zen.
- “Adin txikikoekin egin beharreko elkarrizketak” agirian adin txikikoekin egindako 38 elkarrizketetan erabilitako erreferentziatzko elementu komunak daude bilduta (2. Eranskina).
- Espedienteetako informazio-hustuketa egiteko erabilitako fitxa (3. Eranskina).

Azpinarratu beharra dago zentro bakoitzean bildutako informazioaren zati bat soilik erabili dugula hemen deskribapena eta analisia egiteko (3. Kapituluak, 3.2.3., 3.3.3. eta 3.4.3. atalak: “Zentroen analisia”). Informazioaren beste zati bat, aldiz, baliagarria da txostenaren zenbait kapitulu osatzeko edo adibide gisa erabiltzeko.

Testua behin betiko argitaratu aurretik, zentro edo egoitza bakoitzaren zuzendaritzari edo lan-taldeari igorri zitzaizkion berari zegozkion atalak (goian zehazturiko atalak), beharrezko jo zitzaizkion xehetasunak azpinarratzeko edo zuzenketak egiteko aukera izan zezaten. Bizkaiko kasuan, bere eskaerari erantzunez, Gizarte Ekintzako Sailaren haurtzaro-arloko arduradunei ere bidali zitzaizkien. Beraz, hemen bildutako testuan (baina zehazturiko atalei dagokienez soilik) zerbitzu bakoitzaren zuzendaritzak, lan-taldeek edo arduradunek egindako proposamenak barneratzen ahalegindu gara. Kontuan hartu behar da txostenaren helburua ez dela zentro edo baliabide bakoitzaren ebaluazioa egitea –ardura hori Foru Aldundiei dagokie, baliabidea kudeatzen duen erakundea edo elkartearen zein den gorabehera–, arazo komunak antzematea eta zehaztea, eta zentro horietan aplikagarriak izan daitezkeen hobekuntza-proposamenak egitea baizik.

- 4) **Hobekuntza-proposamenak eztabaidatzeko bilerak egin ziren;** bilera horietara hogeita bat pertsona deitu ziren, zenbait zerbitzutan bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren harreraren gainean duten ezagutzaren eta arlo horretan izandako parte-hartzearen eraginez aukeratu ostean, hainbat bizipen, ikuspegi edo erantzukizun-maila izate aldera. (Ikus: Parte-hartzaileen zerrrenda, 6. Kapituluak, 6.2. Atala. Ahozko iturriak: bilerak).

• Egitura

Txostenaren oinarritzko egiturari dagokionez, eskema argi eta erraz bat aukeratu dugu:

- Zer da legeak adin txikiko horiei dagokienez eskatzen duena eta noren eskumena da erantzukizunak betetzea (1. kapituluak. *Testuinguru juridikoa*).

- Zenbat eta nor dira adin txikiko horiek, zein ezaugarri, behar eta itxaropen dituzte (2. Kapituluua. *Euskal Autonomia Erkidegoan harreran hartutako bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren ezaugarriak*).
- Nolako erantzuna eman zaie adin txikiko horiei lurralde edo/eta zentro bakoitzean (3. Kapituluua. *Erakundeen erantzuna*).
- Zein dira erakundeen erantzunean antzemandako arazo nagusiak (erantzuna, legeak ezarritakoa eta adin txikikoek behar dutena alderatuta) (4. Kapituluua. *Balorazio osoa. Antzemandako arazo nagusiak*).
- Arartekoak zein gomendio egiten die administrazioei, dagokion ikuspegi eskubide-bermatzailetik abiatuta eta antzemandako arazoak gainditzeko helburuarekin (5. Kapituluua. *Gomendioak*).

Txosten honen ardatza den oinarrizko eskema honek ondorengo zati osagarriak ditu:

- Sarrerako zatia (Txostenaren Aurkezpena eta Sarrera hauxe).
- Zati osagarria (Txostena [6. Kapituluua] eta gehigarri batzuk [7. Kapituluua] eratzeko erabilitako informazio-“iturrien” zerrenda.

* * *

Sarrera hau amaitzeko, txosten honen muga batzuk azpimarratu nahi ditugu:

- Garrantzi handiko zenbait eskumen, haurren eta nerabeen babesa, hezkuntza, osasuna edo erreforma, esaterako, euskal administrazioei dagozkie. Pertsona horien egoera juridikoarekin lotura duten beste zenbait (esaterako, dokumentazioa edo ingurua) Estatuko administrazioaren eskumenekoak dira. Arazoak nabarmendu eta gomendioak egiterako orduan, euskal erakundeek esku-hartzeko ahalmen handiena duten arazoak hartu ditugu kontuan, Arartekoak ere kontrolatzeko aukera handiagoa baitu horietan.
- Azpimarratu dugun moduan, txostenaren helburua zenbait eragileren “ahotsak” biltzea izan da: erakundeetako arduradunenak, zentroetako zuzendaritzenak, hezitzaileenak, horiekin batera diharduten beste langileenak, harreran hartutako adin txikikoenak, eta abar. Baina, zenbait arrazoiren eraginez, ezin ahal izan dira bildu, behintzat modu esplizituan, prozesuan esku-hartzen duten eta haien ikuspegia ere eskain diezaguketen beste zenbait eragilerenak: Atzerritarrentzako unitateenak, Adin txikikoen Fiskaltza-renak edo polizia eta osasun arloetako zerbitzuenak, esaterako.
- Interesgarria litzateke, halaber, harrera-ezaren inguruko egoerak edo familia mailakoak hobeto ezagutzea edo egoera horiek abiapuntutik ezagutzea, jatorrizko lekuetatik, alegia. Gai horiek modu tangenzialean baino ezin izan ditugu landu txosten honetan, txostenaren helburu nagusia hemengo harrera-egoerak aztertzea baita.
- Datuak eta informazioak eguneratzeari dagokionez, eta etengabe aldatzen ari den errealitatea dela kontuan hartuta, 2004. urtea amaitu arterako datu nagusiak barneratu ditugu. Emandako beste datu batzuk, esaterako, zentroen egoeraren gainekoak, bisitaldiari dagozkio (urte horren erdi aldera). Kasu batzuetan, geroago, deskribaturiko

errealitatea aldatu duten zenbait ekimen sortu dira (baliabide berriren bat sortzea, besteren bat lekuz aldatzea, programa jakinen bat martxan jartzea, eta abar). Aurrerago egindako jarraipenetan barneratu beharko dira ekimen horiek.

ESPARRU JURIDIKOA

1. ESPARRU JURIDIKOA*

1.1. Arau esparrua

1.1.1. *Hitzaurrea*

Adingabeak babesteko erakundeak eta adingabeak babesteko araudiak izugarri aldatu dira azkeneko urteotan. Horri, gainera, gauza berri bat gehitu behar diogu, hots, babesik gabe eta familian deserrotuta dauden adingabe atzerritarren presentzia. Errealitate berri horretaz arduratu eta kezkatzen ari dira babes erakundeak eta haurren defentsan lanean ari diren beste erakunde batzuk.

Adingabeak dira migrazio prozesuen protagonista berriak. Bakarrik dauden gazteen presentzia gauza berria da azkeneko urteotako migrazio mugimenduetan, Europara beren seniderik gabe etortzen diren haur eta nerabeei, hots, biztanlerik ahulenei ukituz.

Fenomeno honi ikuspegi bikoitzetik heltzen zaio. Batetik, ezin da haurren eta nerabeei berez dituzten eskubideak aitortzetik bereiztu eta, bestetik, atzerritarren, migrazio fluxuen kudeaketa eta kontrolerako politiken berezko neurri murriztaileak betearazi eta aplikatzeari lotuta ere badago eta, horrela, bakarrik dauden atzerritar adingabeen presentziak Espainian eta Europan egoitza baimenik izan lezaketan etorkinen kopurua nahi ez den modura gehitzen da.

Adingabeak berariazko eskubidedunak direla aitortzea giza eskubideen unibertsalizazioarekin, positibazioarekin, orokortzearekin eta nazioarteratzearekin ekindako eta eskubideen titular diren subjektuak zehaztuz gauzatuz joan den prozesu historikoaren ondorioa da. Adingabeak beraientzat beren beregi aitortutako eskubidedunak dira, eta aitorten horrek eskubideen titularitatea ez eze eskubide horiek arian-arian baliatzeko ahalmena ere adierazten du.

1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala erabakigarria izan da prozesu honetan. Adingabeak babestu eta dituzten eskubideak beren beregi aitortu beharrak 1959ko Haurren Eskubideen Adierazpen Unibertsala ekarri zuen. Gerora, 1966ko eskubide zibil eta politikoen Nazioarteko Itunean, pertsona oroentzako berdintasunezko eta bereizkeriarik

* Atal honen amaieran erabili diren araudien laburduren glosategia sartu da, aurkitzea errazteko.

gabeko eskubideak berretsi ziren, eta gai honi zuzenean ukitzen dion prezeptu bat erantsi zen, hauxe, alegia: *“Haur orok eskubidea dauka, arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, nazio zein gizarte jatorri, maila ekonomiko edo jaiotza kontuei aditu barik, adingabe izateak eskatzen dituen babes neurriez baliatzeko, bai familiaren aldetik bai gizartearen eta Estatuaren aldetik ere.”* Ekonomia, gizarte eta kultur eskubideen Nazioarteko Itunean, 1996koa hau ere, (1976tik daude indarrean biak), 10. artikuluan, berariazko erreferentzia egin zitzaion *“familia, amatasuna eta haur eta nerabeak ekonomia, gizarte zein lan esplotazio mota orotatik babesteari.”*

Egun, haurren oinarrizko eskubideen sustapenaren eta babesaren nazioarteko bitarteko juridiko nagusia 1989ko azaroaren 20ko Haurren Eskubideen gaineko Nazio Batuen Konbentzioa (CDN) da. Espainiak 1990ko azaroaren 30ean berretsi zuen Konbentzio hori. Espainiako Konstituzioak (EK) 39.4 artikuluan haren aplikazioa onartzen du, espresuki, hauxe diotenean: *“haurrek beren eskubideak zaintzen dituzten nazioarteko akordioetan jasotako babesa izango dute.”*

Aldi berean, lehenago esan denez, Estatuak immigrazio eta atzerritarrei buruzko politikak garatzen ari dira, migrazio fluxuak kudeatu eta kontrolatu nahirik. Politika horiek, sarritan, haurren babesaren kontra doaz, jada indargabetuta dagoen Fiskaltzaren 3/2002 Instrukzioan gertatu zen bezala, *“Espainian legez kanpo sartu nahi duten adingabe atzerritarrak, juridikoki babes gabek ez badira, beren sorterrietara itzularaztearen egokitasunari buruz”* aritzean, *“16 urtetik gorako adingabeak 48 orduan aberrirratzea ahalbidetzen”* baitzen, edo egun indarrean dagoen *“Maroko eta Espainiaren arteko elkar-ulertzeko memoranduma bakarrik dauden adingabeak aberrirratzen laguntzeko”*, non Espainian babes sistemetan dituzten bakarrik dauden adingabe marokoarrak sorterrirratzea ahalbidetzen duen. Bi bitarteko horiekin ondo ikusten da atzerritarrei buruzko politiken helburuak eta adingabeak babesteko araudietan jasotzen diren helburuen desberdinak direla.

Bestalde, bakarrik dauden adingabeek emigratu eta, beraiekin, babes erakundeak gainezka egon daitezen beldurra ere oso zabalduta dago, adingabeek emigratzeko dituzten arazoak eta motibazioak helduenen berdinak izango baliran ... Beldur horiek ahantzazartzen digute familia dela (kultur aldagai guztiekin) herrialde guztietan adingabeak zaindu eta *“babesteaz”* arduratu behar duena, eta babes gabekia bera babestea merezi duen egoera dela, nazioarteko, estatuko eta autonomia erkidego mailako hainbat eta hainbat arau testutan aitortzen denez.

Aurreko kautela horiek babes bermeak murriztea ekar lezakete, babes egoera onartzea atzeratuz eta, horrekin, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak Espainian geratzeari berehala aditu eta ebaztera behartzea espresuki aurreikusten duen lege antolamendua urratuz.

Adingabe atzerritarrez arduratzeko baliabide eta bitartekorik ez izateari dagokionez, Europako Batasuneko Estatuak behartuta daude *“egoera juridikoa dela delarik, nazioarteko legeetako xedapenetan ageri diren beharrezko babesa eta oinarrizko zaintza ematera”*, eta sorterrira zein onartzeko prest dagoen hirugarren herrialde batera itzularazi nahi badituzte, *“heltzean adingabea hartu eta artatzeko baldintza egokiak eduki behar dituzte, adingabearen beharren arabera, adinari eta autonomia mailari*

begiratuta”, hirugarren herrialdeetakoak diren eta bakarrik dauden adingabeei buruzko Europako Kontseiluaren 1997ko ekainaren 26ko Ebazpenaren arabera. Batasuneko herrialdeek, arau horrek dioenez, gutxieneko bermeak eman behar dizkiete adingabe horiei, besteak beste, haien identifikazioa lortzen saiatu, babes zentroetara sar daitezzen eta osasun arreta jaso dezaten erraztuz; azken batean, adingabe horiei oinarritzko atentzio eta zaintza neurriak emango dizkiete.

1.1.2. **Nazioarteko araudia**

Nazio Batuetako Biltzar Orokorrak Haurren Eskubideen Konbentzioa onetsi zuenetik eta, bereziki, Espainiako Gobernuak Konbentzio hori handik urtebetera berretsi zuenetik eta, gerora, 1991n indarrean jarri zenetik, esparru juridikorik eraginkorra izatera heldu da, nazio zein nazioarteko mailetan haurrei beren eskubideak izatez bete dakizkien behar diren legezko xedapen guztiak ziurtatzen baititu. Bertan adingabeen eskubidearen printzipio orokorra, hots, “adingabeei ukitzen dien jarduketa eta erabaki orotan adingabearen interes gorena nagusituko dela” bermatzea lehenetsiko dela dio. Printzipio hori CDNko 3. artikuluan jasota dago:

“Gizarte ongizateko erakunde publiko zein pribatuek, auzitegiek, administrazioko agintariek zein erakunde legegileek haurrei buruz erabakitzen dituzten neurri guztietan haurren interes gorena lehenetsiko da, beste ezeren gainetik.”

Ondorioz, adingabe atzerritarren araubide juridikoak interes gorena betetzea eta babestea izan behar du jomugan, jatorrizko herrialdea zein duen arabera, (CDN, 2. art.) zein administrazioaren aldetik irregular dagoelako (CDN, 4. art.) bereizkeriarik egin barik.

Haur eta nerabeen babes publikorako eskubidearen irismena orokorra da. Gure kasuan adingabe guztiei aitortzen zaien eskubidea da, nongoak diren zein nola dauden begiratu barik: “*Familia ingurunetik aldi batez zein betiko kanpo dauden haurrek, zein familia ingurunean gera daitezzen komeni ez zaienenk, Estatuaren babes eta asistentzia berezia jasotzeko eskubidea izango dute.*” (CDN, 20. art.).

Gainera, Estatuak “*edozein abandonu, esplotazio edo gehiegikeria, tortura zein bestelako tratu txar edo zigor krudel, anker, iraingarri, zein gatazka armatu motaren biktima diren adingabeak*” “*haurren osasuna, bere buruaren errespetua eta duintasuna sustatuko dituen giroan*” birgaitzeko neurri egokiak hartu behar dituzte (CDN, 39. art.). Estatuak haurrak babestu behar dituela esaten denean beste pertsona baten zaintzapean dauden haurren kontrako edozein indarkeria edo zaintzarik ezeko egoera ekidin behar dela esan nahi da: “*Batasuneko kide diren estatuak haurrak edozein kalte, edo gehiegikeria fisiko zein mental, axolagabekeria edo tratu zabar, tratu txar zein esplotazio motatatik babesteko legegintza, administrazio, gizarte eta hezkuntza neurri egokiak hartu dituzte...*” (CDN, 19. art.).

Debekatuta dago edozein pertsonari tratu krudel, anker edo iraingarririk ematea, bai 1966ko irailaren 19ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean, bai torturaren eta bestelako tratu edo zigor anker, bidegabe edo iraingarrien kontrako 1984ko abenduaren 10eko Konbentzioan.

Adingabeen babesaren nazioartean, aipatutako testu horietan ez eze, babesaren esparru juridikoa osatzen duten nazioarteko itun eta bitarteko ugaritan jasota dago.

Besteak beste, honako hauek:

- 1951ko Ginebrako Konbentzioa, Errefuxiatuen Estatutuaren gainean.
- Errefuxiatuen Estatutuaren gaineko New Yorkeko Protokoloa, 1967ko urtarrilaren 31koa.
- Nazio Batuetako Mandatari Nagusiaren Errefuxiatuentzako Zuzentarauak (ACNUR), 1997ko otsailekoak, bakarrik dauden adingabeen asilo eskariak zelan bideratu behar diren argitzeko.
- ACNURen Eginbide Onen Eskuliburua eta bakarrik dauden adingabeei buruzko Save the Children.
- Aberrigabeen Estatutuaren gaineko Konbentzioa, 1954ko irailaren 28an New Yorken egin zena.
- Giza Eskubideen Europako Konbentzioa, 1950eko azaroaren 4koa.
- 1999/46 ebazpena, Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren Giza Eskubideetako Batzordeak onetsia; 4. atalean Batasuneko kide diren Estatu guztiak haur eta emakume etorkinak prostituzioaren eta esklabotasunaren pareko beste praktika batzuen bidezko esplotaziotik babesteko neurri egokiak har ditzan gonbidatzen ditu, helburu horiek erdiesteko nazio mailako erakundeak antolatzeke aukera ere aipatuz.
- Irakaskuntzaren esferako bereizkerien kontrako borrokari buruzko konbentzioa, 1962ko abenduaren 14koa.
- Hagako ituna, Agintarien Eskumenen gainean, eta Adingabeen Babesaren alorrean aplikagarria den Legea (Haga 1961), Espainiak 1987an berretsia.
- Europako Ituna, adingabeen zaintzari buruzko erabakiak betearaztea onartzearen gainean (Luxemburg, 1980-05-20), Espainiak 1984an berretsia.
- Hagako Ituna, gurasoen erantzukizunaren eta haurrak babesteko neurrien aitormen, betearazte, lankidetzaren, eskumen, lege aplikagarriaren gainean, 1996ko urriaren 19koa, Espainiak 2003ko apirilean sinatu eta berresteko dagoena.
- Beijing Arauak: Nazio Batuen Gutxieneko Arau Bateratuak, Adingabeen Justizia Administrazioarako (Nazio Batuen 40/33 Ebazpena, 29-11-85).
- Nazio Batuen Arauak, preso dauden adingabeak babesteko (I.5 lerroaldea, A/RES/45/113, eranskina, 45 UN GAOR Supp (No 49A), 205 or., UNA/45/49 (1990))
- Haurren Eskubideen gaineko Konbentzioaren protokolo fakultatiboa, haurrek gatazka armatuetan parte hartzeari buruz, New Yorken 2000ko maiatzaren 25ean egina.
- Haurren Eskubideen gaineko Konbentzioaren protokolo fakultatiboa, haurren salmentari, haurren prostituzioari eta haurrak pornografian erabiltzeari buruz, New Yorken 2000ko maiatzaren 25ean egina.

Europa

Europako Batasuneko araudian honako hauek azpimarratuko genituzke:

- Europako Batasunaren Gutuna, langileen oinarrizko eskubideen gainekoa, 1989ko abenduaren 9koa, adingabeen lanean bete behar diren lan baldintzak finkatzen dituen.

- Europako Parlamentuaren A3-0172/92 Ebazpena, Haurren Eskubideen Europako Gutuna onetsi zuena; gutun horretan lehendik eskubideen aitortpenari buruz dauden arauen testuak jaso ez eze, haurren eskubideak babesteko Ombudsman edo arartekoen ezarpena bezalako bermeak ere eransten dira eta, orobat, gurasoen eta agintari publikoen eginbehar eta erantzukizunak zehazten dira. Gutunean, halaber, adingabearen interes gorenaren printzipioa ere onartzen da: “familia, administrazio zein epaitegietako haurri buruzko edozein erabakik haurren interesak defendatu eta babestea lehenetsiko du.”
- 97/C 221/03 ebazpena, 1997ko ekainaren 26koa, Europako Kontseiluarena, hirugarren herrialdeetakoak diren eta bakarrik dauden adingabeen gainean. Lehenago ere aipatu dugun araudi honek bakarrik dauden haurrak, harrera, egonaldi eta itzulerari dagokienez, nola tratatu behar diren, eta asiloa eskatzen dutenen kasuan zer-nolako tramiteak egin behar diren zehazten du, Estatuek barruko zuzenbidera erantsi behar dituzten gai honetako jarduketara ildoak finkatuz.
- Europako Batasuneko Oinarriko Eskubideen Gutuna, Niza (2000).

Hona hemen gai honetan den Europako beste araudi bat:

- C148/37 Ebazpena, Europako Parlamentuarena, 1986ko ekainaren 16koa, Ospitaleratutako Haurren Europako Gutun baten gainean.
- Europako Kontseiluaren Gomendioa, 1990eko otsailaren 1ekoa, haurren eskubideen gainean.
- A3-314/91 Ebazpena, 1991ko abenduaren 13koa, haurrek Europako Batasunean dituzten arazoen gainean.
- Kontseiluaren 2201/2003 Arautegia, 2003ko azaroaren 27koa, ezkontza eta guraso erantzukizunen gaitetako eskumen, aitormen eta ebazpen judizialak betearaztearen gainean.
- EBren Ebazpena, Asilo Prozeduretarako gutxienerako bermeen gainean, 1995.

Europako Kontseilua:

- Europako Kontseiluaren 1286 gomendioa, 1996ko urtarrilaren 24koa, haurrentzako Europako estrategiari buruz.
- Europako Kontseiluaren 1121 Gomendioa, 1990ekoa, haurren eskubideen gainean.

1.1.3. **Barne araudia**

a) **Haurren babes erregimena**

Hara zer dioen Espainiako Konstituzioak, 39.4 artikuluan: “*haurrek eskubideak zaintzen dizkieten nazioarteko akordioetan aurreikusten zaien babesaz gozatuko dute.*” Espainiako lege antolamendua, beraz, haurrentzako berme gehiago sartu eta eskubideak aitortzen dizkieten aldarazpenak jasoz joan da.

Maiatzaren 13ko 11/1981 Legea, Kode Zibilean, filiazio, guraso botere eta ezkontzako araubide ekonomikoari buruzko aldaketak egiten dituen, eta azaroaren 11ko 21/1987

Legea, Kode Zibileko eta Auzipetze Zibileko Legeko adopzioari buruzko artikulua batzuk aldarazten dituena, oso garrantzitsuak izan dira eskubideen alorrean, eta haur zein nerabearen interesik gorena lehenestea zabaltzeari dagokionez.

Berrikiago, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak, Adingabearen Babes Juridikoaren gainekoak (LOPJM), Kode Zibila eta Auzipetze Zibilaren Legea partzialki aldarazten duenak, aurrerapen handia ekarri du, aurrerantzean gaiari buruzko araudizko garapenak egitea eta herri administrazioen esku hartzea gidatuko dituzten jokabide ildoak finkatu baititu. Legearen muina adingabeen interes gorena da, adingabeen eskubideen nazioarteko kontzeptzioa beretuz. Lege honek eskubideak aitortu ez eze, gizarteko babesgabezia egoeretan jarduteko printzipioak ere arautzen ditu, herri agintaritza guztiak, beren beregi adingabeekin zerikusirik duten erakundeak, gurasoak, senideak eta herritarrak, oro har, lotzen dituen babeseko esparru juridikoa eraikiz.

Adingabeekin zerikusia duten estatu mailako arauekin amaitzeko, ezin da 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, aipatu barik utzi (LORPM), Adingabearen Erantzukizun Penala araupetzen baitu. Lege honek haurren babesaren gaineko araudiaren printzipioak eta adingabeen epaitegietan eta Zigor Kodean eskumen eta prozeduren alorrean izandako aldaketak jasotzen zituen.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak (LVAPIA), haur eta nerabeei nazioarte, estatu zein autonomia erkidego mailetakoa beste bitarteko batzuetan aitortzen zaizkien eskubideak jaso, eta EAEko herri administrazioak, pertsona horien eskubideak sustatu eta babestera begira, haiek dituzten eskubideak izatez gauza daitezzen zer egin behar duen gidatzen duten printzipioak finkatzen ditu.

b) Atzerritarren erregimen juridikoa

Atzerritarren erregimen juridikoari dagokionez, adingabearen dokumentaziotik Bata-sunetik kanpoko adingabe atzerritarra dela ondorioztatzen bada, edo dokumentaziorik ez badauka, 4/2000 Legea aplikatu behar da; 4/2000 Lege hori 8/2000 Legeak eta atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunen eta gizarteratzearen gaineko 14/2003 Legeak (LOEX) aldarazi dute; 35. artikulua aipatu behar da, bereziki, babesik gabe dauden adingabe atzerritarren egoera juridikoa arautzen baitu, eta agintariak adingabe horiek artatzera eta dokumentazioa ematera behartuta daudela baitio. Abenduaren 30eko 2393/2004 Errege Dekretuak (92. art.) onetsitako aplikazio arautegia, 864/01 Errege Dekretuak (62. art.) onetsitakoa indargabetuz, zer jardunbideri jarraitu behar zaion garatzen du. Adingabeari dokumentaziorik ematerik ez badago, uztaillaren 20ko 8565/2001 Errege Dekretuak (6. art.) araututako Aberrigabeen Arautegia aplikatuko da.

Adingabearen dokumentaziotik Batasun barruko atzerritarra edo Batasun barruko inoren senidea dela ondorioztatzen bada, otsailaren 14ko 178/2003 Errege Dekretua aplikatuko da, Europako Batasuneko kide diren estatuetakota eta Europako Ereku Ekonomikoaren gaineko Akordioan parte diren beste Estatu batzuetako herritarrak Espainiara sartu eta Espainian egotea arautzen du.

Adingabe atzerritarrek ere asiloa eska lezaketenez, Asilo eskubidea eta Errefuxiatu izae-ra arautzen dituen 9/1994 Legeak aldarazi zuen 5/1984 Legea eta otsailaren 10eko 203/1995 Errege Dekretuaz onartu zitzaion aplikazio Arautegia aplikatuko litzazkieke; 15.4 artikuluan, adingabearen asilo espedientea (eskaria ez) tramitatzen denean tutoreak aurrean egon eta haren ordezkari modura arituko dela dio eta, horrela, asilo prozeduran ere lagundu beharko lioke.

Azkenik, 2004ko zerga, administrazio eta gizarte mailako neurriei buruzko Legearen hirugarren kapituluan jasotzen den bereizkeriaren kontrako araudia aipatu behar da, "Tratu berdintasunaren printzipioa aplikatzeko neurriak" delakoa (BOE 313, 2003ko abenduaren 31koa), zeinetan Kontseiluaren 2000/43/CE Zuzentaraua (LCEur 2000\1850), 2000ko ekainaren 29koa, pertsona guztiei, arraza zein etniari aditu barik, tratu berdina eman behar zaielako printzipioaren aplikazioaren gainekoa, eta Kontseiluaren 2000ko azaroaren 27ko 2000/78/CE Zuzentaraua, enplegu eta okupazioan tratu berdina izan dadin esparru orokorra finkatzeari buruzkoa eransten baitira.

1.2. **Eskumenen esparrua**

Aldi berean adingabe eta atzerritar izatea honelaxe islatzen da eskumenen alorrean:

a) **Adingabea izatea**

Gurasoek, tutoreek edo zaintza egokitu zaien pertsonak dute haur eta nerabeak hazi eta hezteko oinarrizko ardura eta, hartara, osotasunez gara daitezen beharrezko bizi baldintzak bermatuko dizkiete, ahal duten neurrian.

Herri administrazioek adingabeak hazi eta heztearen arduradunek zeregin hori ondo bete dezaten zaindu behar dute. Gainera, herri administrazioek, beren eskumenen esparruan, adingabeak gizarte eta lege aldetik babestu behar dituzte.

Adingabearen babesgabezia halakotzat jotzea eta babestera zuzendutako neurriak ezartzea autonomia erkidego bakoitzean dauden babes erakundeen zeregina da, konstituzioz eta estatutuz, eskumenak Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean zelan banatuta dauden ikusita (EK, 148 eta 149. artikulua).

Euskal Autonomia Erkidegoak, Autonomia Estatuaren 10. artikuluan aurreikusten denaren haritik, eskumen eksklusiboa dauka gizarte urgazpenean, adingabeen babeste eta zaintzarako erakunde eta establezimenduen antolaketa, erregimen eta funtzionamenduan, gizarterapenean eta haur eta gazteei buruzko politikan. Euskal Autonomia Erkidegoa eskuduna da, beraz, gizarte politikan eta, hor, erkidegoan norbanako eta taldeentzako ongizatea eta garapena sustatu eta gizarte ingurunera egokitzea lortu nahi duten baliabideak, jarduketak, prestazioak eta ekipamenduak sartuko lirarteke. Haur eta nerabeen babesa funtsezkoak dira gizarte ongizateko politiketan.

Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/83 Legeak Foru Erakundeei esleitzen die, 7.c) 1 eta 2 artikuluan, beren lurraldeen barruan erakunde erkideek gizarte

urgazpenean eta haur eta gazteei buruzko politiketan ateratzen dituzten legeak betetzea, haien ekintza zuzenaren kalterik gabe. Aldundiek, eskumenen transferentziaren ostean, haur, gazte eta familien babesari buruzko zereginak betetzen dituzte, bakoitzak bere lurralde historikoan.

Era berean, Tokiko Araubideko Oinarriei buruzko 1985eko Legeak udalerriek beti gauzatu behar dituzten eskumenen artean, “*gizarte zerbitzuak eta sustapen eta gizarterapen zerbitzuak betetzea*” aipatzen du. 26.1 c) artikuluan dio “*20.000 biztanletik gorako udalerriek, nolanahi ere, gizarte zerbitzuen prestazioa edukiko dutela.*”

Gizarte babesaren alorrean, Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legeak herritarren berariazko babes sistema finkatzen du, haien gabezia eta beharrak, eta bereziki lan merkatuan sartzeko arazorik handienak dituzten kolektiboak, asetzeko. Lege honek gizarte zerbitzuak oinarritzko eta espezializatueta sailkatzen ditu, eta eskumenak administrazio desberdinen artean banatzen ditu. Gizarte zerbitzuei buruzko zereginak zehazten dituen uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuak gizarte zerbitzuen legea garatzen du, gizarte zerbitzuen alorreko zereginak Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen artean partituz. Aldundiei (3. art.) babesik gabeko haurrentzako zentro eta zerbitzuak esleitzen dizkie.

Azkenik, Haur eta Nerabeak Zaindu eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak (LVAPIA), 103 eta hurrengo artikuluetan, Gizarte Zerbitzuen Legean aurreikusitako eskumenen banaketa jasotzen du, eta autonomia erkidegoko administrazioari adingabeen epaitegiek erabakitako neurriak betearazteko eskumena esleitzen dio, LORPM aplikatuz. Horrela, lege hau aplikatzeko bideratzen diren jarduketak publikoak eta arauen garapenak Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek egingo dituztela dio, bakoitzak osasun arreta, hezkuntza, gizarte zerbitzu, kultura, hirigintza, herritarren segurtasun, barruko merkataritza, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa, publizitatea eta beste esparru batzuetan zer eskumen dituen kontuan hartuta.

a1) *Eskumenen banaketa EAEn, arrisku zein babes gabezia egoeran dauden haur eta nerabeen babesari dagokionez*

Bai Eusko Jaurlaritza bai aldundi eta udalak eskudunak dira iritzia publikoa haur eta nerabeen eskubideen defentsan sentibilizatzeko.

Eusko Jaurlaritzak, Gizarte Gaien Sailaren bitartez, legegintzarako ekimena eta arautegietarako ahalmena bideratzen ditu eta, beraz, haur eta nerabeekin zerikusirik duten jarduketak eta gizarte zerbitzuen plangintza orokorra, herri administrazioko eta gizarte zibileko erakunde desberdinen arteko koordinaketa, alorrean politika homogoneoa izan dadin bermatzeko, nazioarteko adopzioaren sustapena eta erakunde laguntzaileak gaitzea eta, haur eta nerabeen Euskal Behatokiaren bidez, babesaren esparruan garatutako jarduerak ebaluatzea bere zereginak dira.

Foru aldundiek babes gabezia larriko egoeran dauden haur eta nerabeak beren ardurapean dituzte, eta atentzioko zerbitzu eta zentroak zuzenean zein zeharka kudeatzen dituzte.

Udalek, berriz, babesaren arduraren arrisku egoerarik dagoenean daukate. Aldundiek, gainera, prestakuntza eman eta jarraipena egiten diete harrera eta adopzioz eskatzen dutenei eta haien familiei.

a2) *Eskumenen banaketa EAEn, arau-hausle adingabeei dagokienez*

Eusko Jaurlaritzak, Justizia Sailaren bitartez, legegintzaren ekimena eta arautegietarako ahalmena esleituta dauzka, LORPMren garapenari eta aplikazioari dagokienez, gizarte eta hezkuntza atentzioaren alorrean. Horretarako, arlo horretako jarduketan plangintza orokorra eta adingabeen epaileek erabakitzen dituzten neurriak betearaztea bere ardurapean daude, horretarako zerbitzuak eta zentroak zuzenean zein zeharka kudeatuz edo neurri judizial jakin batzuk ituntzen dituen zerbitzuak eta zentroak baimendu, erregistratu, ikuskatu eta ebaluatuz. Gainera, epaileei laguntzeko talde psikosozialen jardura ere koordinatzen du.

Foru aldundiek Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean aritzen dira neurri judizialek babes zerbitzuek esku har dezaten gomendatzen dutenean. Udalek ere, beren eskumenpeko lurralde esparruan, neurri judizialak aplikatzen laguntzen dute, neurri horiek beren komunitatearen eremuan garatzen direnean.

b) **Atzerritarra izatea**

Adingabe hauek, atzerritarrak direnez, berariazko erregimena daukate beren egoera juridikoari dagokionez. Estatuak eskumen eskusiboa dauka naziotasun, immigrazio, emigrazio eta asilo eskubide alorretan (EK, 149.1.2 art.), baina Europako Batasuneko politikak eta araudiak gero eta eragin handiagoa dauka horretan. Europako Batasuna, Amsterdameko Ituna 1999ko maiatzean indarrean jarri zenetik, eskuduna da immigrazio eta asilo politikak garatzeko. Bereizkeriaren kontrako borroka ere Batasunaren eskumeneko izatera igaro da, eta Schengen multzoan sartu da; Schengen Europako Batasunaren esparruan muga erkideetan kontrolak ezabatzeari buruzko akordioa da. Azkenik, Europako Konstituzioak (Erroma, 2004), printzipioz 2006ko azaroaren 1ean indarrean jartzekoa denak, asilo, immigrazio eta kanpoko mugen kontrolerako politika erkidea garatzea aurreikusten du.

Estatuko Administrazioa da, beraz, adingabe atzerritarrari egoitza baimena emateko eskuduna; dokumentazioa Gobernuaren ordezkartzen bidez tramitatu behar da.

1.3. **Adingabe atzerritarra, eskubidedun subjektu modura**

1.3.1. **Aplikazio esparrua**

Adingabeak babes subjektu ez eze, eskubide subjektu ere bada eta, horrela, ez zaie soilik adingabeen kanpoko ingurumariari aditu behar, beren nortasun eta heldutasunari ere begiratuko zaie, beren nortasuna egoki gara dadin sustatu eta ahalbidetzeko (EK, 10.1 art.).

CDNrentzat adingabea *“hemezortzi urtetik beherako pertsona oro da, aplikagarria zaion legearen arabera adin-nagusitasuna lehenago iritsi ez badu.”* (1. art.).

Kode Zibilaren arabera (KZ), adingabeak 18 urtetik beherakoak dira (KZ, 315 art., eta EK, 12. art.), betiere burujabetu barik badaude (burujabetzeko guraso ahala edo ahal judiziala dutenen baimena behar da, KZren 314 art. eta hurrengoak), edo beren herrialdeetako legearen arabera adin-nagusitasunera heldu ez badira (pertsona fisikoei dagokien lege pertsonala beren naziotasunak zehazten duena da, KZren 9.1 art.). Horrek esan nahi du, oro har, hemezortzi urtera arte izaten dela pertsona adingabe, bere herrialdeko legeak adin hori baino lehen nagusitzat jo ezean. Naziotasuna zehaztuta ez dagoen kasuetan, hots, dokumentaziorik ez dutenean, KZren 9.10 artikulua aplikatuko da, non bizitokiko lege pertsonala aplikatuko dela esaten baita.

Printzipioz, herrialderik gehienek hemezortzi urtetan finkatu dute adin-nagusitasuna. Zaila da atzerriko lege batzuetan jasota egon litezkeen salbuespenak ezagutzea, eta prozeduran zehar frogatu beharko lirateke (KZ, 12.6 art.).

1.3.2. **Adingabeen eskubideak**

Konstituzio Auzitegiak esana du adingabeek eskubide berberak dituztela, naziotasuna edozein dutelarik. Adingabeek eskubide estatus ukaezina daukate, adingabe izate hutsarengatik dagokiena eta, beraz, ez da naziotasunarekin zein beste edozein elementurekin zerikusirik duen desberdintasun edo ñabardurarik sartzerik onartzen. Maiatzaren 29ko Konstituzio Epaitegiaren 141/2000 Epaiak, 5. oinarri juridikoan, hauxe dio: *“Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa, Haurren Eskubideen Europako Gutuna eta urtarrilaren 15eko 1/96 Lege Organikoa dira “adingabeen estatus juridiko ukaezina, nazioko lurralde barruan, EKren 39. artikuluan eta, oso bereziki, 4. atalean xedatutakoa garatuz. Ondore horietarako, adingabearen estatutua ordena publikoko araua da, ezbairik gabe, eta herri agintaritzak guztiek ezinbestean bete behar dute.”*

LOPJMk espresuki jasotzen du adingabeek estatus juridiko ukaezina dutela: *“Adingabeek Konstituzioak eta Espainia parte deneko Nazioarteko Itunek, bereziki, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak aitortzen dizkieten eskubideak, eta lege antolamenduan bermatutako gainerako eskubideak izango dituzte, sorterrri, naziotasun, arraza, sexu, gutxitasun edo gaixotasun, erlijio, hizkuntza, kultura, iritzi zein pertsona, familia zein gizarte mailako beste edozein ingurumarirengatik inolako bereizkeriarik egin barik.*

Lege hau, legea garatzeko arauak eta adingabeei buruzko gainerako lege xedapenak Espainia parte deneko Nazioarteko Itunekin eta, bereziki, Haurren Eskubideei buruzko 1989ko azaroaren 20ko Nazio Batuen Konbentzioarekin bat etorritz interpretatuko dira” (LOPJM, 3. art.).

Adingabe atzeritarrei aplikagarria zaien erregimen juridikoak haurrak zaintzeko nazioarteko akordioetan aitortutako eskubideak hartu behar ditu kontuan. Bereizketa hori funtsezkoa da etorkin atzeritarren eskubideak aitortzeaz ari garenean. Atzeritar helduek

ez dituzte bertoko helduek dituzten eskubide berberak, eta dituzten eskubideak titularitatean eta baliapenean modulatuta daude, duten egoera administratiboaren arabera, eta udalerrri batean erroldatuta dauden ala ez arabera (EK, 13 eta 23. artikulua, Konstituzio Auzitegiaren epaiak, besteak beste, 107/84, 99/85, 115/87, LOEXen I. goiburua). Eskubideen erabateko titularitatea izateko, espainiar naziotasuna eduki behar da (EK, 13. art.). Adingabe atzerritarrak, ordea, haurrei eta nerabeei buruzko lege eta nazioarteko itunetan aitortzen zaizkien eskubideen titular direnez, beren erregimen juridikoa atzerritar helduena baino zabalagoa da (EK, 39.4 eta 96. artikulua).

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren edo dauden adingabeek (LVAPIA) honako eskubide indibidual eta kolektiboak aitortuta dituzte:

Herritar guztiei aitortzen zaizkien oinarrizko eskubideen titular dira, hala nola, bizitzeko eskubidearen eta osotasun fisiko eta psikikorako eskubidearen, nortasunaren garapen aske eta osorako eskubidearen eta berdintasunerako eskubidearen titular.

Era berean, eskubide hauek izango dituzte: ohorerako, intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidea; nortasunerako eskubidea; informazioa jasotzeko eskubidea; ideologia-askatasunerako eskubidea; parte hartu, elkartu eta batzarrak egiteko eskubidea; adierazpen askerako eskubidea; eragiten dieten erabakietan entzunak izateko eskubidea, eta beren eskubideak defenditzeko eskubidea.

Azkenik, osasunerako eta osasun arreta eman dakien eskubidea, kulturarako eta babes soziokulturalerako eskubidea, astialdi aktiborako eskubidea eta ingurumenerako eskubidea ere badituzte.

Adingabe atzerritarrei dagokionez, honako eskubide hauek nabarmenduko genituzke, bereziak direlako:

1- **Gizarte prestazioko eskubideak:**

a) **Hezkuntzarako eskubidea.** Bereizkerien kontrako borrokari buruzko Konbentzioan jasota dago, irakaskuntzaren esferan, 1962ko abenduaren 14an, baita CDN 28. artikuluan, LOPJM 10.3 artikuluan, LVAPIA 22, 23, 24 eta 25 artikuluetan, LOEX 9. artikuluan eta 2393/04 Errege Dekretuaren bidez onetsitako aplikazioko bere arautegiaren hamalagarren xedapen gehigarrian ere.

Hemezortzi urtetik beherako pertsonak, beren egoera juridikoa dena delarik, oinarrizko hezkuntza, doakoa eta derrigorrezkoa jasotzeko eskubidea daukate, eta beka eta laguntzen sistemari heltzekoa. Erroldatuta badaude, derrigorrezkoaren osteko hezkuntzarako eskubidea ere izango dute eta, nolana ere, dagokien titulazio akademikoa lortzeko eskubidea ere bai.

Arautegi berrian espresuki aurreikusten da erroldatuta badaude espainiarren baldintza berberetan hel diezaioketela unibertsitatekoa ez den derrigorrezko hezkuntzaren osteko irakaskuntzari, eta dagokien titulazio akademikoa lor lezaketela, beren adineko espainiarren baldintza berberetan. Arautegiak, beraz, adingabeen hezkuntzarako eskubidea

zabaltzen du, egoera juridikoa dena delarik, baina erroldatuta egon behar dutelako muga erantsiz, hezkuntzarako eskubidea ezergatik mugatzerik ez dagoen eskubidea den arren.

Babesik gabe dauden adingabe atzerritarrei dagokienez, arautegi berriak, egoitza baimenik ez izateak babes erakunde eskudunak haientzat egoki irizten dien hezkuntza jarduera edo egitaraueri heltzeko oztopo izango ez dela aurreikusten du (2394/04 Errege Dekretuak onetsitako Arautegiaren 92.5 artikulua). Hau da, zaintzapean dauden adingabe atzerritarrek ez dute mugarik, printzipioz, hezkuntza eskubideaz baliatzeko, erroldatuta egon zein ez.

Azkenik, garrantzitsua azpimarratzea hezkuntzarako eskubideak guraso, zaintzaile eta tutoreentzako betebeharra dakarrela: adingabeak eskolatu behar dituztela, alegia.

b) **Osasuna babestu eta sustatzeko eskubidea.** CDN 6 eta 24. artikuluetan, 10.3 LOPJM 10.3 artikuluan, LVAPIA 18, 19, 20 eta 21. artikuluetan eta LOEXen 12.3 artikuluan jasota dago.

CDNren 24.1 artikuluan dioenez, hurrek ahalik eta osasun mailarik gorenaz gozatzeko eta gaixotasunak sendatu eta birgaitzeko tratamenduetarako zerbitzuak eskueran izateko eskubidea dute. 2. puntuaz azpimarratzen du parte diren Estatuak eskubide honen aplikazioa ziurtatuko dutela eta, b) atalean, nabarmentzen du estatuak behar duten atentzio sanitario eta mediko guztia eman dakien ziurtatuko dietela haur guztiei.

LOEXen 12.3 artikulua eskubide hori espresuki jasotzen du: “Espainian dauden hemezortzi urtetik beherako atzerritarrek osasun asistentziarako eskubidea izango dute, espainiarren baldintza berberetan.”

c) **Estatuak eskaintzen duen beste edozein zerbitzu publikoz baliatzeko eskubidea.** LOPJMren 10.3 artikuluan jasotzen da, arrisku egoeran zein herri administrazio eskudunaren tutoretza edo zaintzapean dauden adingabe atzerritarrek, Espainian legeztatuta bizi ez arren, zerbitzu publikoez baliatzeko eskubidea izango dutela baitio.

Halako eskubideak bermatu ahal izateko, baliabideak behar dira. Gainera, eraginkor izango badira, eskubidearen eduki generikoa haur edo gazte atzerritarren beharrezan zehaztetara egokituko dituzten berariazko baldintzak eskatzen dituzte. Adingabearen eskubideak sustatuko dituzten konpentsazio neurriak behar dira, adingabea gizarteratuko bada. Neurri horiek hezkuntza eta osasun alorretako barruko araudian eta nazioartean sinatutako itunetan dioena betez erabakiko dira.

2- **Nortasuna babesteko eta naziotasunerako eskubidea.** CDN 7, 8 eta 30 artikuluetan, eta LVAPIA 11. artikuluan jasota dago.

Eskubide honek izen bat eta naziotasuna izateko eta jatorria ezagutzeko eskubidea ekarri ez eze, Estatuak eskueran dituzten bitarteko guztiak erabiltzera behartzen ditu, adingabeak nortasun hori gal ez dezan. Adingabeek beren kultura eta erlijioarekin harremanetan egon behar dute.

Adingabe atzerritarren kasuan, eskubide horrek agintariek adingabe atzerritarra bere izen, adin, naziotasun, jatorri, sorteri, kultura eta nortasunaren osagai diren beste hazpegi batzuen bitartez ezagutzera behartuta daudela esan nahi du. Naziotasunerako eskubidea ere badauka, gainera. Ezin du aberrigabeko gisa egon.

3- **Entzun diezaioten eskubidea.** CDN 12. artikuluan, LOPJM 9. artikuluan eta LVAPIA 16. artikuluan jasota dago.

Adingabeek, nahikoa zentzudun direnean entzun diezaieten eskubidea daukate. Adingabeen bilakaeraren beraren ondorioz eskubidearen mugapenak murrizpenez interpretatuko dira, eta pertsonaren adinerako egokiago diren interpretazio prozedura eta bitartekoetara joz arinduko da muga hori.

4- **Defentsarako eta berme juridikoetarako eskubidea parte diren prozeduretan.** CDM 12. artikuluan, LOPJM 9. artikuluan, LVAPIA 17. artikuluan eta LORPM 17. artikuluan jasota dago.

Adingabeek eskubideak lege antolamenduan eta prozedura administratibo zein judizial orotan aurreikusten diren bitarteko guztiekin defenda dakizkien eskubidea dute. Beren kabuz balia dezakete eskubide hori, legezko ordezkariaren bitartez, Ministerio Fiskalaren bitartez zein defendatzaile judizialaren bitartez, kasuan-kasuan. Polizien atxiloketen kasuetan ezarrita dauden bermeetarako eskubidea ere badaukate. Ahalik eta kalterik txikien egin diezaien modura atxilotuko dituzte, eta atxiloketa kontsulatuko agintariei jakinaraziko zaie, Espainiatik kanpo bizi bada, zein adingabeak edo bere lege ordezkariak eskatzen badute.

5- **Beren eskubideen eta ukitzen dieten ingurumarien berri eman diezaieten eskubidea.** CDN 17. artikuluan, LORPM 17. artikuluan eta LORPM 58.1 eta LVAPIA. 5 b) artikuluan jasota dago.

Adingabeek beren eskubideak ahoz edota idatziz jakinaraz diezazkieten eskubidea daukate; beraiek ulertzeko moduko hizkuntza batean jakinaraziko zaizkie, hizkuntza argi eta errazaz, beraien maila eta ulermenera egokituta eta, behar izatekotan, hezkuntza beharri- zan berezietara moldatuta ere. Gainera, prozedurari eta beste kontu interesgarri batzuei buruzko informazioa ere eskuratu ahalko dute. Atxilotu badituzte, zer leporatzen zaien eta zer eskubide daukaten jakinaraz diezaieten eskubidea daukate, hori guztia abokatua eta adingabearen zaintza edo babesaren ardura daukaten pertsonen eta, halakorik ezean, Ministerio Fiskala aurrean dituztela.

Adingabea LORJMn aurreikusitako zentro batean sartzan badute, epai bidez ezarritako neurria betetzeko, zein prozeduran zeharreko badaezpadako neurri modura, zentroan sartzan, zer eskubide eta betebeharrak dituen, zein barnerapen araubidetan dagoen, zelakoak den antolakuntza orokorra, zelan funtzionatzen duen zentroak, zer diziplinazko arau dagoen, eta zein diren kexa edo errekurtsioak jartzeko bitartekoak jakinaraziko zaizkie, berak ulertzen duen hizkuntza batean; informazio hori idatziz ulertzeko arazorik balu, beste edozein bitarteko egoki baliatuko litzateke, jakitun gera dadin.

6- **Kalte egin liezaiekeen edozein ekintza edo ez-egiteren kontra babes ditzaten eskubidea.** CDN 9. eta 20 artikuluetan, LOPJM 11 eta 12. artikuluetan eta LVAPIA 50. artikuluan jasota dago.

Adingabea babestea legez bereziki herri agintariei dagokien betebeharra da, beraiek baitira haien eskubideen gauzapena bermatu behar dutenak.

Herri agintariak garatzen dituzten ekintzek ezin diete, inola ere, adingabeei kalterik egin eta, horregatik, ezin diete atzerritarren araudia urratzeagatik aurreikusi diren zehapenak edo neurriak, hala nola, barnerapena ezarri.

7- **Estatuan bizitzeko baimena emango dien dokumentazioa izateko eskubidea.** LOPJM 10.4 artikuluan eta LOEX 35.4 artikuluan jasota dago.

Administrazio baten zaintzapean dauden adingabe atzerritarrek egoitza baimena jasotzeko eskubidea daukate. Eskubide hori aurrekotik eratortzen da, hots, Estatuak adingabeak babestera eta kalterik inola ere ez egitera behartzen dituen eskubidetik.

8- **Ukitzen dieten neurriak hezitzaileak izan daitezen eskubidea.**

LOPJM 2. artikuluan eta LORPM 54.3 eta 56ko 7. artikuluan jasota dago. Babesik gabe dauden zein erantzukizun penalik duten adingabeei buruz hartzen diren neurriak hezitzaileak izango dira.

1.4. Adingabe atzerritarra babes subjektu modura

1.4.1. Aplikagarria zaion lege sistema

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak Espainian irregularki, bakarrik, inolako seniderik gabe daudenak dira.

Adingabe hauek babesik gabe daude, laguntzarik ez daukatelako eta adingabe batek eraman behar duen bizitza ez daramatelako. Bakarrik, seniderik gabe etorri izanak, babesgabezia adierazten du, gurasoen zein tutorearen zaintzarik gabe daudelako, bereizketa egoera horrek gizarte eta psikologiaren aldetik sortzen dituen desorekekin. Adingabe hauek atzerritarrak direnez, atzerritarren araudia aplikatzen zaie, baina batez ere adingabeak direnez, babes sistemari buruzko xedapenak aplikatu behar zaizkie.

Gure lurraldera bakarrik heltzen den adingabe atzerritarra, beraz, gure lege antolamenduak ematen duten babesaren mende dago; Administrazioa berehalako atentzioa ematera eta Espainian geratzeari buruz ebaztera behartuta dago, espresuki.

Babesgabeziaren lege egoerak, KZren 172. artikuluan xedatutakoaren arabera, babesgaietan eskuduna den erakunde publikoak tutoretza bere gain har dezan dakar: *“Bere lurraldean adingabeen babesaren ardura eman zaion erakunde publikoak, adingabe bat babesik gabe dagoela egiaztatzen duenean, legez haren tutoretza hartu behar du ...”*.

LVAPIAren 4. atalean, 56. artikuluan eta hurrengoetan, aldundiek babesik gabe dauden adingabeen aurrean zer egin behar duten finkatzen da, honakoa adieraziko duen administrazioaren ebazpena eman ahal izateko egingo diren tramiteak araupetuz: “*Babesgabezia egoera, legez tutoretza gain hartzea eta egoki irizten zaien neurriak*” (LVAPIA, 58. art.).

Babesaren alorrean, nazioarteko eta nazioko bitartekoetan aitortzen den ohiko bizitokiaren irizpideari segitzen zaio. Garrantzitsua da adingabeen babesari buruz aplikagarria den legearen eta agintarien eskumenaren gaineko Hagako Ituna, 1961eko urriaren 5akoa aipatzea, nazioartean ohiko bizitokiaren irizpidea finkatu zuelako; Espainiak 1987ko maiatzaren 22an berretsi zuen. Itun horretan dienez, adingabearen ohiko bizitokiko agintari judizial zein administratiboak izango dira adingabearen pertsona zein ondasunak babesteko neurriak hartzeko eskudunak (1. art.), eta barruko legeak neurri horien hartzeaz, eteteaz eta ondorez aurreikusitako neurriak hartuko dituzte (2. art.).

Ez dira asko izan itun hori berretsi duten herrialdeak. Espainiak, bestalde, parte diren Estatuetakoko bateko naziotasuna duten adingabeei aplikatuko ziolako murrizpena jarri zion. Alabaina, gerora, haurrak babesteko beste bitarteko juridiko batzuk berretsi dira, ohiko bizitokiaren irizpidea jasotzen dutenak, hala nola Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa bera. Barruko araudiari dagokionez, LOPJMk dio Administrazioak ematen duen babesa, Espainiako lurraldean, arrisku egoeran edo babesik gabe dauden adingabe etorkin guztiengana hedatu behar dela, naziotasunari eta adingabearen ohiko bizitokia den ala ez begiratu barik (1. art.). Kode Zibilak, halaber, abandonatutako adingabe edo ezgaituei eta naziotasunik ez daukaten edo zehaztu barik daukatenei dagokionez, ohiko bizitokiaren legea aplikatuko zaiela aurreikusten du (KZ, 9.6 eta 9.10 artikulua).

Ohiko bizitokia esaten denean zer esan nahi den argitzeko, Hagako 1961eko Itunaren azalpenen txostenean, “*adingabearen bizitzaren izatezko muina*” den tokizat jotzen da, hots, ohiko adjektibo erabiltzen denean ez da ulertu behar toki jakin batean denbora tarte zehatz batez egotearen zentzu zorrotzean, adingabea bizi den tokia baizik.

Adingabe atzerritarra, nazionala bezala, arriskuan edo babesik gabe egon daiteke. Halakoetan adingabearen garapen pertsonal edo sozialarentzat kaltegarriak izango diren faktoreak egoten dira, baina ez da tutoretza berehalakoan gain hartzeko premiarik. Familiarekin bizi diren adingabeekin gertatzen da gehiago, hots, bakarrik ez daudenekin. Halakoetan babes erakundeek ere ekintzak bideratzen dituzte, eta jarraipena egiten da adingabearen bilakaera baloratzeko.

Adingabe atzerritarrak, bera baita txosten honetan hizpide, babesik gabe dagoenak eskatzen du tutoretza. Babesgabezia egoera “adingabeak behar duten laguntza moral edo materialik gabe geratzen direnean, legeek adingabeak zaintzeko finkatzen dituzten babesezko betebeharren jarduna ez betetzea, edo jardun ezinezko edo desegokia gertatzen denean sortzen da” (LVAPIA, 56. artikulua eta KZ, 172.a).

Babesgabezia egoerak babes gaietan eta babes neurri egokiak hartzeko eskudun den herri administrazioak tutoretza bere gain hartzea dakar (LVAPIA, 57. art. eta KZ, 172. artikulua eta hurrengoak). Egoera eta ingurumariak ezagutu eta behar diren badaezpa-

dako neurriak hartzera xedatzen dira. Babesgabeziaren gainean ebazteko hiru hilabeteko epea egoten da (LVAPIA, 58. art.). Babesgabeziaren larritasunarengatik adingabea premiazko egoeran balego, osotasun fisiko zein psikikoari dagokionez, eta berehala esku hartu beharko balitz, behin adingabeari entzun ondoren, eta betiere gertakariak ondo frogatuta baleude, administrazioaren ebazpen bat emango litzateke, babesgabezia adierazi eta tutoretza gain hartzeko, eta haur edo nerabeari asistentzia ziurtatzeko behar diren neurri guztiak hartuko lirateke.

Adingabe atzeritarren babesaren gaian sarritan kexatzen dira administrazio eskudunak tutoretza bere gain hartzeari buruzko ebazpena hartzen asko luzatzen delako. Adingabea dokumentatzeko zailtasunak argudiatzen dira. Babesgabezia egoera adierazten duen eta tutoretza gain hartzea dakarren espedientea ebazteko jarraitu behar diren jarduketan artean, ez da ageri adingabeak “behar bezala identifikatuta” egon behar duenik, eta “adingabeari entzun egin behar zaiola” baizik. Ez da, beraz, babes erakundeak tutoretza bere gain hartuko duela erabakitzeke beharrezkoa den tramitea, zeren, LVAPIA 56, 57 eta 58. artikuluen eta KZ 172. eta 222.4 artikuluen arabera, nahikoa baita Babes Erakundeak “adingabe bat babesik gabe dagoela egiaztatzea.”

Arrazoi horrengatik atzeratzea ez da adingabearen interes gorenarekin bat etortzen, ez eta adingabeen babesari buruzko araudiarekin ere, prozesua abiarazi eta adingabea hezkuntza egitarauetan jarraitasunez sartzeari kalte egiten diolako.

Ez da, halaber, adingabearen interes gorena errespetatzen udalerriko erroldan izena ematen atzeratzen direnean. Aldundiek adingabearen inskripzioa eska dezakete, dituzten dokumentuekin, erakunde honek behin eta berriro esan duen moduan, horrek udalerriko eta beste administrazio batzuetako baliabide publikoei heltzea eta Norbanakoen Osasun Txartela tramitatzea erraztuko baitie (TIS). Txartelarekin biziokiarengatik dagokion anbulatorioan familia medikua jarriko zaio, historial medikoa eraman dezan, eta kalitatezko atentzioa berma dakion. Behin behineko txartelak edo premiazko bideko atentzioak ez ditu berme berberak ematen.

Tutoretzaren etenari dagokionez, KZ 276 eta 277 artikuluetan eta LVAPIA 62 artikuluan jasotzen diren eten zioak bete behar dira. 62. artikulua horretan, besteak beste, zio hauek aipatzen dira: *“neurria eragin zuten ingurumarien etena”* edo *“beste Babes Erakunde batera aldatzea.”* Azkeneko kasu honetan, *“aurretiaz adingabeari entzungo zaio eta, ahal dela, eramango den tokian aurreikusi zaizkion atentzio eta babes neurrien egokitasuna egiaztatuko da.”*

Autonomia Erkidegoko araudiak zaintza eteteari buruz jasotzen duen arauketak, baka-rik dauden adingabe atzeritarren kasuan, oso-osorik sartzten ditu adingabearen interes gorena eta entzun diezaioten duen eskubidea. Ondorioz, geroago xehekiago aztertuko den moduan, Arautegiaren 92. artikulua, egoitza baimendu zaion adingabea aberri-ratzeari dagokionez, tutoretza eten beharko dela dio, aurreko bermeak betetzen badira soilik gauzatu ahalko baita.

Azkenik, Immigrazioari buruzko Euskal Planak (2003-2005) atzeritarrak gizarteratzeko prozesuan inplikatu guztiak kontuan hartuko direla dio. Horrek alderdi askoko egokitzea eskatzen du, kulturartekotasunari tokia eginez. Era berean, aldundiek onetsitako haur

eta gazte babesgabeentzako planek adingabeen beharren ikuspegia eta haien eskubideen bermea jasotzen dituzte, baliabideak sortzeko eta babes sistema antolatzeko ardatz modura. Azken batean, baliabideak kasuan kasuko behar berezietara egokitzea eskatzen duen esku hartzea norbanakoen arabera moldatzeko printzipioak agintzen du. Aniztasun handia dago adingabeen atentzioan, bertoko adingabeekin gertatzen den moduan, aurrekariei, heldutasun maileri eta gizarteratzeko indar edo ahalmenari dagokienez, eta horrek dakarrena da babes sistemek adingabe bakoitzaren beharrei erantzun behar dietela eta, adingabe atzerritarren kasuan, kultur jatorriaren eta dauden beren beregiko ingurumarien berezitasunei ere aditu behar zaiela.

Amaitzeko, babes sistemek adingabeen erabateko garapena bermatu behar dute eta, horrek sistema haien beharrak asetzeko egokitu behar izatea dakar. Dagoen babes sistema arrotzago egiten zaio adingabe atzerritarri bertokoari baino, zeren normalean ez baitie haien kultur erreferentziei eta beharrei erantzuten. Adingabeen eskubideen aldeko “nazioarteko akordioek” arabera moldatutako babes sistemak bakarrik dauden adingabe atzerritarren inguruabar berezietan aditzea eskatzen du.

1.4.2. *Jarduketa printzipioak esku hartzean*

Haur eta nerabeen alorrean egingo den edozein jarduketarako printzipioak haien eskubideen arauditik eta haiek legez babesten saiatzetik datoz. Printzipio hauek haur eta nerabeek dituzten beharrezko desberdinei erantzuten saiatzen dira, eta beste esku hartze batzuen aldean, haur eta nerabeekin, etorkizun duina eskaini nahirik, bereziki zelan esku hartu behar den argitzen da. Erantzukizun horrek zentzua ematen die jarduketa guztiei, eta inplikaturako guztiak bat datoz horretan. Ondorioz, jarraian aipatuko ditugun printzipioek herri administrazioei ez eze, adingabeekin zerikusirik duten erakunde pribatuei, guraso, tutore eta zaintzaileei eta herritar guztiei ukitzen diete.

Esparru-printzipioa adingabearen interes gorenarena da. Printzipio hau funtsezko jarraibidea da bai arauen interpretazioan eta aplikazioan, bai adingabeen ukitzen dieten erabaki guztietan. Adingabeen eskubideen babesa eta izatezko eskubideak izan ditzaten osotasunezko politikak garatu behar izatea eskatzen du, ezereen gainetik.

Zehaztapenean, adingabeen eskubideez gain, familia, gizarte eta kultur berezitasunen araberrako norbanakoen beharrezkoak ere hartu behar dira kontuan, baita zentzuz adierazitako haien iritzia eta gurariak ere. Printzipio horrek lehentasuna dauka, familia berriro biltzeari begira ere, zeren, oro har, haurarentzat onena bere familian eta gizarte ingurunean egotea dela baitio, betiere hori adingabearen interes gorenaren kontrako ez bada.

Adingabeak eskubide subjektu direla onartzea oso urrats garrantzitsua da, babesa bermatzen baitie. Eskubideen berariazko titularitateak, modu autonomoan ulertuta, gizarte eta lege aldetik babesteko bermeak ezartzea dakar. Autonomiaren printzipioarekin lotuta eskubideak arian-arian berenganatu joatearen printzipioa dago, adingabeak, adinean aurrera joan ahala, gero eta gaiago baitira beren eskubideez baliatzeko. Horrela, entzun diezaieten eskubideak, edo osasun gaietan baimena emateko eskubideak irismen desberdina daukate, adinaren arabera.

Bereizkeriarik ezaren printzipioa beharrezkoa da adingabeen eskubideak bete daitezen bermatzeko. Adingabeen jaiotza, adin, arraza, sexu, gaitasun fisiko edo psikiko, osasun egoera, hizkuntza, kultura, erlijio, sinesmen, ideologia zein beste edozein ingurumari pertsonal, ekonomiko zein sozialengatik inolako bereizkeria modurik izatea ezabatu behar dela esan nahi du horrek.

Beste funtsezko printzipio bat adingabearen biziraupena eta garapena ahalik eta gehien bermatu behar direla da. Adingabearen osasun fisikoa ez eze, intelektualki, emozionalki eta gizarte eta kultur alderdietatik gara dadin bermatu behar da. Garapena oso kontzeptu zabala da eta alderdi guztietatik zaindu eta sustatu denean baino ez dugu dagoenik esaterik izango.

Adingabeek ez dute denbora helduen bezala ulertzen. Beraientzat itxaronaldiak izugarri kaltegarriak izan daitezke nortasuna, hezkuntza eta garapena bideratzeko orduan. Administrazio zein epaitegietako prozedura guztiak –administratiboak nahiz judizialak– azkar eta berehalakoak izan daitezen funtsezkoa da herri agintarien jardueran, baina bereziki adingabeei buruzko kontuetan.

Prebentzioa behinenekoa da adingabeen garapena eta etorkizuna bermatzeko. Adingabearen bizi baldintzak hobetzea dakar, haur eta nerabeei eta beren garapen pertsonal eta sozialari eragin liezaieketen gehiegikeria, bazterkeria edo babesgabezia egoerei aurre hartuz. Gainera, osotasun printzipioaren arabera, halako egoerei, agertzen direnean, egoki erantzun ahal izateko, adin, sexu, jatorri, aurrekari eta kultura beharrezkoak aditu eta dauden baliabide, zerbitzu eta prestazioak baloratuko dira.

Bai herri administrazioak bai erakunde pribatuak inplikaturik daude haur eta nerabeen eskubideak bermatzen. Erakundeen arteko eta erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren printzipioaren helburua esku hartze eraginkorra lortzea da, haur eta gazteei atentzio koherente eta antolatua emanez, baliabideak zentzuz erabilia.

Intimitaterako eskubidearen ondoriozko erreserba printzipioak datu pertsonalen babesari buruzko 15/99 Lege Organikoa derrigor aplikatzea eskatzen du, informazioaren eta dauden fitxategi edo erregistroen isileko tratamendurako.

Azkenik, CDNn eta nazioarteko beste testu batzuetan jasotzen den eta LVAPIAn 8. artikuluan sartu den aurrekontu-lehentasunezko printzipioa azpimarratu behar da; printzipio honen arabera, EAEko herri administrazioek, besteak beste, haur eta nerabeen sustapen, atentzio, babes, prestakuntza, astialdi eta gizarterapen jardueretako baliabideak bideratzea lehenetsiko dute.

1.5. **Bakarrik dagoen adingabea eta atzerritarrentzako erregimena**

1.5.1. *Planteamendu orokorra*

LOEX eta garatzen duen Arautegia dira Batasunaz kanpoko etorkin atzerritarren eskubideak, sarrera eta egoera juridikoa arautzen dituztenak, eta hor adingabeak ere sartzen dira. Araudiak berariazko erregimen juridikoa ezartzen du bakarrik eta babesik gabe

dauden adingabe atzerritarrentzat, eta LOEXen 35. artikuluan arautu eta lehenagoko Arautegiko -864/01 Errege Dekretua- 62. artikulua ordezko oraingo Arautegiko -2393/04 Errege Dekretua- 92. artikuluan garatzen da.

Atzerritarren araudiak aldarazpen ugari izan ditu eta, garbi dago, beraz, nolako zaila den atzerritarren politikak immigrazioak planteatzen dituen errealitate eta beharretara egokitzea. Atzerritarren egoera juridikoari buruzko aldarazpen nagusia urtarrilaren 11ko 4/2000 lege organikoak ekarri zuen, non atzerritar etorkinen eskubideak lehenengoz jaso eta araubide juridikoari baitarapen sozio-ekonomiko eta kulturalaren helburua erantsi zitzaion. Lege honi hainbat lege aldarazpen egin zaizkio, finkatzen zituen eskubide eta bermeak murriztuz, eta aplikatzeko bi arautegi ere erantsi zaizkio, lau urteko tarte laburrean.

Aurreko araudia (7/85 LO), ordea, migrazio fluxuak kontrolatzera zuzentzen zen, sarrera eta egoitza oso zorrozki kontrolatuz, eta atzerritarren zehapen erregimenari oso toki garrantzitsua emanez, batez ere atzerritarrak kanporatzera begira. Legeak ez zituen adingabeen eskubideak jasotzen. Gerora 155/1996 Errege Dekretuz onartutako Arautegiak soilik sartu zuen aitorten hori. Horrela, 12. eta 13. artikuluetan haurren eskubideen gaineko Nazio Batuen 1989ko Konbentzioaren aplikazioa eta LOPJM 10.3 artikuluan adingabe atzerritarrei aitortzen zitzaizkien eskubideen aplikazioa jaso zituen. Arautegiak babesik gabeko egoeretan babesa eman ziezaieten eta dokumentazioa izan zezaten eskubideak finkatu zituen, baita itzulerari buruz bete behar ziren bermeak zehaztu ere.

Nazioarteko eta estatuko zuzenbidearen bilakaerak haur eta nerabeak babestearen alorrean eskubideak aitortzera jo du eta hori, zeharo ez bada ere, atzerritarren arauetan ere islatzen ari da. Alde horretatik, adingabe atzerritarren egoera juridikoa bideratzen duen araudiak adingabeak gizarte eta hezkuntza aldetik hezteko dituen beharren eta adingabearen interes gorenaren printzipioei jarraitu beharko lieke.

Bakarrik dauden adingabe atzerritarren arauketak batez ere LOEX 35. artikuluan jasotzen da, non babesik gabe daudenei egoitza baimena emateko prozedura ezartzen baita. Finkatutako prozedura argi eta garbi bereizten da gurasoekin bizi diren adingabeentzat aurreikusten den arauketatik. Abiapuntutzat hartzen da familiaren dokumentazioa irregularra izan arren, familiak dokumentaziorik ez izate hutsak ez duela, ezinbestean, babesgabezia egoerarik izango denik ondorioztatuz behar.

Adingabeen egonaldia ukitzen diotelako aurreikusten diren beste kasu batzuk adingabe atzerritarrak herri administrazioek zein beste erakunde pribatu batzuek, edo adingabeen guraso ahala edo zaintza dutenez bestelako pertsona batzuek sustatu eta finantzatutako egitarauen ondorioz aldi batez kanpora joaten direnekoak dira. Egitarau horiek adingabeak eskolatu, tratamendu medikoak jaso ditzaten zein oporretan egon daitezen helburuz antolatzen dira (93 2393/04 Errege Dekretuaren 93. art.), desberdinak, funtsean, aldi baterako egonaldia izaten direlako dira.

Bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuetan, LOEX 35. artikuluan arautu eta 2393/04 Errege Dekretuaren 92. artikuluan garatzen den lehenago aipatu den prozedurari segituko zaio. Bakarrik dagoen atzerritar adingaberik dagoela jakinez gero aplikatzen da. Herri agintariek burutu behar dituzten jarduketak finkatzen ditu, baita nola lortu behar den, izatekotan, Espainian egoteko baimena.

Jarraitu beharreko jarduketok administrazio desberdinei (estatukoa eta autonomikoa) eta Ministerio Fiskalari ukitzen diete; Ministerio Fiskalak adingabearen interesak zaindu behar ditu, beti. Beharrezkoa da, beraz, inplikaturako administrazio desberdinen arteko koordinaketa, esku hartzea eraginkorra izan dadin bermatzeko.

Horretarako, Haurren Behatokiaren –Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioari atxikia– Lan Taldeak (Herrizaingo, eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren, erkidego eta hiri autonomoen eta gizarte erakundeen ordezkariak osatzen dute eta Espainian adingabeekin zer egin behar den eta haiek gizarteratzeari buruz aritzen da), 2003an, “Bakarrik dauden Adingabe Atzerritarren Protokoloa” onetsi zuen. Protokoloak 2393/04 Errege Dekretuko indarreko 92. artikulua ordeztu duen 864/2001 Errege Dekretuaren 62. artikulua ekintzak, administrazio desberdinen eskumen direnak, garatzen ditu.

Bakarrik eta babesik gabe dauden adingabe atzerritarrek, lehenago azaldu den moduan, herri agintarien babesa jaso behar dute eta, hartara, arrisku edo balizko babes gabezia egoerarik hautematen duen pertsona zein agintari orok berehala sorotsi eta gertakaria agintariei zein eragilerik gertuenei jakinaraziko die.

Herri agintariak eta zerbitzuak behartuta daude edozein adingabek behar duen atentzioa ematera, beren eskumeneren esparruan sartzen bada jardutera edo, bestela, dagokion erakundera bideratzera, bai eta gertakariak adingabearen legezko ordezkari jakinaraztera edo, behar izanez gero, Ministerio Fiskala jakinaren gainean jartzera ere (LOPJM, 13. eta 14. art.).

Adingabe atzerritarren kasuan, esku hartze publikoa gauza batzuetan ez da gainerako adingabeekin egiten denaren berdina, atzerritarren arauditik eta arestian esandakotik ondorioztatzen denez.

Jarraian araudiari eta protokoloari adituz, behin gure hirietan bakarrik dagoen adingabe atzerritar bat dagoena jakin eta gero, burutzen diren jarduketa nagusiak jasoko dira, kontuan hartuta zer eskubide dituzten eta zein jarduera printzipiori segitu behar zaien.

1.5.2. *Administrazio eskudunen jarduera ildoak bakarrik dauden adingabe atzerritarren atentzioan*

1. *Bakarrik dagoen adingabe atzerritarra aurkitzea*

Segurtasun Indar edo Taldeek itxuraz adingabea den pertsona bat bakarrik zein legezko ordezkari ez dituen pertsona helduekin aurkitzen badute, Ministerio Fiskalari jakinaraziko diote, zer adinekoa den zehazteko froga medikoak egin diezazkieten agin dezan.

2. *Adina zehaztea: adingabetasuna egiaztatzea*

Babes zerbitzuek, Segurtasun Indar eta Taldeen laguntzarekin, dagokion froga egin, bakarrik dauden Adingabeen Erregistrora adingabearen datuen gaineko kontsultaren erantzunaren zain geratu ala gauza biak batera egitea erabakiko dute.

Horretarako, Espainiako Poliziak, Ertzaintzak zein Udaltzaingoak adingabearen hatz markak hartuko dituzte. Lehenengoek Erregistrorako kontsulta egingo dute eta, erregistratuta ez badago, datu berriak sartuko dituzte. Adinez nagusia dela egiaztatzen badute ere datuak sartuko dituzte, beste identifikazio prozesurik abia ez dadin.

3. *Adingabeen babeserako erakunde publikoari berehala jakinaraztea*

Behin adingabea aurkitu dutenean, adingabeen babes erakundeari berehala jakinaraziko zaio, jakitun egon daitezen, plazaren aurre-esleipena egin dezaten eta, behar den kasuetan, berehalako atentzioa eman dezaten, adingabea den ala ez egiaztatzen den bitartean.

Adingabea aurkitu duten autonomia erkidegoko adingabeen babeserako zerbitzuek egingo diote kasu. Sarritan fisikoki zein psikologikoki penagarri egoten direnez, berehalako eta premiazko atentzioa behar izaten dute.

4. *Itundutako osasun zentrora eramatea*

Itundutako osasun zentrora eramango dute adina zehazteko frogak egin diezazkioten (eskumuturren hezur-neurrien frogak, eta abar), eta plaka erradiologikoen emaitzak ezagutzera.

CEAREk 2002an “Txostena. Bakarrik dauden adingabeen adina zehaztea Espainian” goiburupean egindako lanak dioenez, *“adingabearen adina zehazteko hezur frogak baino ez dira erabiltzen, hots, ezkerreko eskumutur eta eskuaren erradiografia; emaitzak zaharkitutako taulekin alderatzen dira, bestelako inolako azterketa klinikorik gabe (elkarrizketa, miaketa, haztatzea, eta abar). Halako frogen emaitzen errore tarteak bi urteko gorabeherakoa izan daiteke eta, beraz, zalantzazko eraginkortasuna daukate, batez ere, norbanakoaren adina 16 eta 18 urte artean badago”*.

NBEk adina zehazteko prozedura bat baino gehiago konbinatzea gomendatzen du, jaiotza urtea gutxi gorabehera ondorioztatu ahal izateko. Diotenez, *“ebaluazioan itxura fisikoa eta heldutasun psikologikoa hartu behar dira kontuan, eta azterketetan erabili behar diren metodoek ez diote pertsonaren duintasunari ukitu behar.”* Halaber, *“azterketa orok haurraren onerako errore tarteak hartu behar du kontuan, eta adina kalkulatzeko goitik jo litekeela ere gogoan izan behar du, adin kronologikoa neurtzeko omen diren ebaluazio bitarteko asko berez zehaztasunik gabeak direlako.”*

Jardunbide onen adierazpen den “Bakarrik dauden haurrak European” egitarauaren dioenez (ACNURen eta “Save the Children” erakundearen baterako ekimena), *“adina zehazteko orduan zalantzaren onura eman behar zaie. Adina zehazteari ezinbesteko irizten bazaio, haurraren etniaren morfologia ezagutzen duen esperientziadun pediatra independente batengana joko da. Azterketak ez dira bortxaz egingo, eta pertsonaren kultura errespetatuz egingo dira. Garrantzitsua da argitzea adinaren zehaztapena ez dela zientzia zehatza, eta errorerako tarteak nabarmena dela.”*

Hezur-neurrien froga, lehenago esan denez, ez du emaitza zehatzik ekartzen. Froga hori egiten zaien gehien-gehienei 17 eta 19 urte arteko adina ateratzen zaie. LOEXen oraingo 35. artikulua interpretazioari buruzko Ministerio Fiskalaren 2/2001 Instrukzioaren arabera, *“froga medikoek ez dute inoiz adin zehatzik ematen; nolabait esparru zabala finkatzen dute beti, eta muturretan kokatu ohi da, oso errore tarte txikiarekin, pertsonaren benetako adina; beraz, bestelako daturik ezean eta adingabea ala adinez nagusia dela zehaztera begira, esparruko beheko mutur modura finkatutakoa dela hartuko da.”* Hartara, adingabeen babes pertsona bat heldua dela ziurtatzerik ez dagoen kasuetara ere hedatuko da.

Adingabea osasun zentrora eraman eta adina zehaztu arte han edukitzeak, EKren 17. artikulua dioenez, pertsona horri berehala jakinarazi behar zaio egoeraren zergatia eta zer eskubide dituen, eta ezin izango dute horrela behar-beharrezkoa den denbora baino luzaroago eduki. Froga bermerik onenetan egin ahal izateko, garrantzitsua da osasun zentroek larrialdi erradiologikoen zerbitzua eguneko hogeita lau orduetan izatea. Frogak egiten atzeratzeak galera ugari sortzen dizkie adingabeari eta babes erakundeari.

5. Froga medikoen berri Adingabeen Fiskaltzari eta adingabeen babes erakunde publikoari ematea

Froga medikoen emaitzek adingabea dela badiote, Ministerio Fiskalak adingabea babes zerbitzuen eskuetan utziko du. Bakarrik dagoen adingabe atzerritarra babestu beharra dago.

6. Adingabearen identifikazioa

Adingabea bere ustezko sorterriko kontsuletzeko bulegoaren aurrera eramango da, identifikatu eta familia aurki dezaten edo, bestela, identifikatzerik edo familiarekin elkar-tzerik ez dagoela egiaztatzeko. Adingabearen identifikazioa Espainiako Poliziak egiten du, babes erakundearen laguntzarekin.

Dokumentatze prozedura adingabearen duintasunaren errespetuari eta nortasunaren garapen egokiari adituz egingo da. Europako Kontseiluak 1997ko ekainaren 26an bakarrik dauden adingabeez emandako ebazpenean espresuki aurreikusten da *“kontu eta zuhurtzia handiz saiatu behar da adingabea bakarrik dagoen eta nor den berehala zehazten (3.1 art.).”*

Estatuko administrazio orokorrak behar diren gestioak egingo ditu dagokion enbaxada eta kontsuletxeetan, adingabeen senideak aurkitzeko edo, bestela, adingabe horien ardura beren gain hartuko duten sorterriko babes zerbitzuekin harremanetan jartzeko.

7. Balorazioa eta bermeak adingabearen itzuleraren aurrean

Adingabearen itzuleraren egokitasunaren balorazioa egiteko eta gauzatzeko eskumena Estatuko Administrazioak dauka, EKren 35.3 eta 149.1.2. artikuluen arabera, *“adin-*

gabeen babes zerbitzuek aurretiaz egindako txostenari adituz.” Legeak ez du txostenaren edukiaz eta izaeraz ezer aipatzen. Alabaina, babes zerbitzuak dira babesgabezia egoera adierazten duten eta legezko zaintza beren gain hartzen dutenak eta, hartara, funtsezkoak dira bakarrik dauden adingabeen defentsan.

Legezko zaintza babes zerbitzuaren eskuetan utzi bada, zerbitzu horrek zaintzaren etena adierazi behar du, arestian aipatutako araudia beteko badu (*KZ, 276 eta 277 artikulua, eta LVAPIA, 62. art.*), non, motiboen artean, besteak beste, *“neurria eragin zuten ingurumariak amaitu edo beste erakunde batera lekualdatzea”* aipatzen diren. Beste erakunde batera eramango badute, *“aurretiaz adingabeari entzun beharko zaio eta, ahal dela, toki berrian aurreikusitako atentzio eta babes neurriak egokiak direna egiaztatuko da”*. Kontuan izan behar da herri agintariek gai honetan egin behar dutena gidatzen duten bi printzipioen artean, hots, familia berriro elkartzearen (LOEX, 35.3 art.) eta adingabearen interes gorenaren (LOPJM 2. art.) azkenekoa nagusitzen dela. Espainiako arartekoak behin baino gehiagotan esan du *“sorterrira itzularaztea ez dela helburua, berez, adingabearen interes gorenerako egokiena dela egiaztatzearen mende dagoela, eta hala den ala ez kasu bakoitza banaka aztertu eta ebaluatu eta gero soilik zehaztu ahalko dela.”* Indarreko araudian printzipio hori onartzen da, *“adingabearen interes gorenaren printzipioaren arabera, sorterrira itzularaztea adingabea izatez familiarekin berriro elkartzeko edo sorterriko adingabeen babes zerbitzuek ondo zaintzeko baldintzak emango balira soilik erabakiko litzateke”* baitio.

Bestalde, prozeduraren une honetan oso garrantzitsua da adingabeak entzun dezaten duen eskubidea errespetatzea.

Sorterrira itzularaztearen mugei dagokienez, aurreko araudiak irmoki finkatzen zituen sorterrira itzularaztearen mugak, 155/1996 Errege Dekretuaren 13. artikuluan. Garatzeko, Estatuko administrazioak ebazpen bat eman zuen, 1998ko azaroaren 11n, Herrizaingo eta Kanpoko Gaietako Ministerioekin batera, non babesik gabeko adingabe atzerritarrak sorterrira itzultzeari buruzko jarraibide orokorrak argitu baitziren; babesgabezia egoera legedi zibilak dioena dela aitortu ez eze, *“adingabe horiek ezin izango dira, inola ere, Espainiako lurraldetik kanpora bidali”* ere badio, argi eta garbi. Oraingo araudiak ez da orduan bezain irmoki zehazten, *“neurri hau ez da bidezkoa izango adingabearen osotasunarentzat arriskutsua izan litezkeela, berak zein bere senideek jazarpenik jasan lezaketela jakinez gero”* baitio.

Adingabeak itzularazteari buruzko erabakian, beraz, printzipio hauek hartuko dira kontuan, baina deigarria da LOEXen hain argi eta espresuki ez jasotzea eta bai, ordea, lege hori garatu duten arautegietan eta CDNn, eta aplikagarriak diren giza eskubideen beste itun batzuetan eta arautetan ere bai, hala nola, Europako Kontseiluaren 1997ko ekainaren 26ko ebazpenean; berme horiek erabat indarrekoak eta aplikagarriak dira, beraz.

Itzularaztea adingabearen interesari eta familia berriro elkartzeko duen eskubideari adituz hartuko da, betiere jatorrizko familian baitaratu eta heziko dela bermatzekotan; familiak hartu beharko du haren ardura. Beraz, adingabearen ingurune osoa xeheki aztertu beharko da. Horrela, sorterrian familiaren egoera adingabearentzat arriskutsua dela, berari zein senideei jazarpenik ekar liezaiekeela sumatzen bada, ez da hara itzularaziko, batez ere zenbait herrialdetan, esaterako, Marokon, eta hortik datoz gure

adingaberik gehienak, haurrak izatez babesteko politikarik ez dagoela kontuan hartzen badugu, zeren, horrek, beste aurreikuspena, hots, sorterriko babes zerbitzuak adingabeaz arduratzearena bideraezin bihurtzen baitu. Ez dago automatismoetarako tokirik, kasu zehatzak ebaluatu behar dira. Ondorioz, garrantzitsua da familiaren egoera baloratzea eta familia adingabea itzultzearekin ados egotea, adingabearen iritzia entzutea eta, nolana ere, osotasun fisikoan kalterik jasan ez dezan ziurtatzea. Aberriratzea ez da zehapena, eta kanporatzea bai. Kanporatzea atzerritarren araudian, besteak beste, atzerritarrak Espainian irregularki daudenean egiten dituzten uraketak zigortzeko aurreikusten den zehapenen artean dago. Kanporatzea eta adingabeak aberriratzea oso desberdinak dira zeren, itzularaztean, adingabearen interes gorenari aditzen baitzaio, eta esandako bermeak bete behar baitira.

Ministerio Fiskalari dagokio aipatutako berme horiek bete daitezen zaintzea.

Ministerio Fiskalak atzerritarren kontuetan zer egin behar duen hizpide duen 3/2001 Zirkularren, eta 2004ko azaroaren 26an indarrean jarri den Ministerio Fiskalaren 6/2004 Jarraibidearen arabera, *“aberriratzea ez da kosta ahala kosta lortu behar den helburu absolutua; baliteke beste interes batzuk ere jokoan egotea, hala nola, adingabearen bizitza, osotasun fisiko edo psikikoa, eta adingabearen oinarrizko eskubideen errespetua, adingabearen interes gorenaren balantzari, azkenean, gure lurraldean gera daitezen aldera eragin liezaioketenak.”*

Hainbat erakundek, hala Amnistía Internacional edo Human Rights Watch-ek, eta Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeko kontalari berezia den G. Rodríguez Pizarro andreak egindako txostenek* salatu dute Espainiako eta Marokoko agintarien aldetik tratu txarrak izaten direla kanporatze, kanporatze sistematiko eta muga eremuetan abandonatutako zein kalean bizi diren adingabeen babesgabezia testuinguruetan.

2002ko ekainean, Nazio Batuen Haurren Eskubideen Batzordeak, Espainiak CDNren 44. artikulua arabera aurkeztutako txostenaren azterketan, jada bazioen *“bakarrik dauden atzerritarrak, gehien-gehienak marokorarrak, zer baldintzatan zeuden izugarri kezkatzen zutela”*, eta bereziki kezagarriak *“poliziak sorterrira kanporatzen zituenean hurrei ematen zizkien tratu txarren salaketak (...), haurrak familiengana zein sorterriko gizarte urgazpeneko erakundeetara itzul zitezten saiatu barik kanporatzea” begitantzen zitzaizkiola, eta gomendatzen zuen “agintariek egoera hori hobetzeko premiazko neurriak har zitzaten, hala nola, kanporaketa irregularrak saihestea eta tratu txarren salaketak eraginkortasunez ikertzea.”*

* Amnistía Internacional-en txostenak, “España. Crisis de identidad. Tortura y malos tratos de índole racista a manos de agentes del Estado” (Ind. AI: eur. 41/01/2002s) eta “España: Los menores extranjeros no acompañados están en riesgo”, 2003ko azarokoa. Human Rights Watch-en txostena “España y Marruecos. Callejón sin salida: abusos cometidos por las autoridades españolas y marroquíes contra niños migrantes”. Sos Arrazakeria Federazioaren duela gutxiko txostena “Menores en las fronteras: de los retornos efectuados sin garantías a menores marroquíes y de los malos tratos sufridos”. G. Rodríguez Pizarro kontalari bereziak egindako txostena, Giza Eskubideen BATzordearen 2003/46 Ebazpenaren arabera, eta kontalari horrek Gobernuari 2004ko ekainaren 3an helarazitako komunikazioa.

2004ko martxoan, arraza bereizkeriak ezabatzeko Batzordeak, Espainiako Estatuak Konbentzioaren 9. artikulua aplikatuz bidali zuen txostenari, 2004ko martxoaren 12ko dataz egindako oharretan, babes zentroetako baldintzak hobetzeko eta adingabeen itzulerari buruzko araudiaren errespetua bermatzeko gomendatu zion Espainiako Estatuari.

Azken batean, erakunde askok eskatzen dute adingabeen itzulerari buruzko bermeak bete daitezzen, eta gehiegikeriarik izan ez dadin zain dadin, eta funtsezko bihurtzen da adingabeen eskubideen defentsarako.

Bakarrik dauden atzerritar adingabeak Marokora itzularazteari dagokionez, sorterrira itzultzeko jardueretan oso garrantzitsuak izan diren bi bitarteko azpimarratu behar ditugu:

- 1) “Memorándum de entendimiento entre el Reino de Marruecos y el Reino de España sobre repatriación asistida de menores no acompañados”, Madrilen 2003ko abenduaren 23an sinatu zena, non bi herrialdeek elkarlan estuan aritzeko borondatea agerrarazi zuten. Hor sartzen diren neurriak batez ere adingabea sorterrira itzultzera xedatzen dira: *“delako Estatuko kontsulatuko agintariak adingabearen naziotasuna frogatuko duen dokumentazioa luzatuko dute, berehala, eta sorterrira itzultzea erraztuko dute, mugako agintarien eskuetan utziz.”* Bakarrik dagoen adingabea beste herrialde batera muga postu batetik sartzean aurkitzen dutenean, *“harrera Estatuko agintariak, loturazko ofizialak gertakaria behar bezala egiaztatu ondoren, berehala jatorriko herriko mugako agintarien eskuetan utziko dutela”* ere badio.

Marokok hainbat neurri abiarazi ditu adingabeen emigrazioa saihesteko, hala nola atzerritarrek Marokora sartu eta Marokon bizi daitezzen, eta emigrazio eta immigrazio irregularren gaineko 02-03 Legea. Lege horren arabera, irregularki emigratu eta Marokora itzularazten duten 18 urtetik beherako pertsona urraketa egiten ari da eta zigor lezakete. Bi herrialdeen artean eta Marokoren aldetik adingabe atzerritarren emigrazioa ekiditeko abiarazi diren neurriak batez ere ordena publikokoak dira. Memorandumaren beste zati batzuk ez dira horiek bezala praktikan jarri, esaterako, *“bi alderdien arteko konpromisoen arabera, Sail eskudun guztietako ordezkariekin beren beregi eratu den batzordea arduratuko da adingabe guztien harrera eta gizarterapenerako laguntasun egitasmoetan oinarritutako baldintzak ezarri eta ebaluatzeaz, eta Batzorde honek Batzorde Iraunkorraren irizpenaren mende jarriko ditu, bereziki, bi aldeek egitasmo horiek eta adingabearen gizarte eta hezkuntzazko interes gorenari buruzkoak elkarrekin finantzatzeko proposamenak”* dioen aurreikuspena. Halako neurrien helburua babes izaten da, eta horiek dira adingabeen atentzioan nagusitu behar direnak.

Azken batean, memorandumak aberriratzea errazten du, baina ez du adingabe marokoarra izatez babestuta egongo denik bermatzen. Marokok ez dauka adingabe hauek tutore egokiengana itzul daitezzen edo zaintzeko gaitasun eta borondaterik duten erakundeetara bidal ditzaten bermatuko duen sistemarik. Espainiatik hara aberriratzten dituztenean adingabeek Marokoko poliziarengandik tratatu txarrak eta abandonua jasateko arriskuan jartzen dira, arestian aipatutako txostenetan diotenez eta, beraz, Marokoko agintariak adingabea babestu eta zainduko dutelako berme handiagoak eman beharko dituzte. Bestela, adingabea egoera okerragora bidaliko

litzateke, osotasun fisikoa ere arriskuan jarriz, eta hori giza eskubideen eta haur eta nerabeen babesaren gaineko arauen kontra joatea litzateke.

Arraza bereizkeriak ezabatzeko Batzordeak, arestian aipatutako oharretan, adingabeen harrera zentroetako baldintzak, batez ere Ceuta eta Melillakoak kezkarriak zirela ere adierazi zuen.

Amaitzeko, adingabeen eskubideen defendatzaileek eta gobernuko eta gobernuz kanpoko erakundeetako ordezkariak Marokon adingabeak babesteko dauden instalazioak dagoen eskaera asetzeko gutxiegi direla eta, gainera, gehienek adingabeen zaintzari buruzko nazioarteko estandarrak betetzen ez dituztela salatu dute.

- 2) Beste bitartekoa “Fiskaltzaren 3/2003 Instrukzioa” da; izandako oihartzunarengatik aipatu dugu hemen. Instrukzioarentzat, bakarrik zeuden 16 urtetik gorakoak ustez emantzipatuta zeuden, hots, beren buruaz eta ondasunez adinez nagusi baliran arduratzeko gai ziren, aurkakorik frogatu ezean. Izatezko emantzipazio horren ondorioz ez ziren babes gabekotzat jotzen eta, hartara, ez ziren babestu behar eta aberrira itzultzea zegokien.

Instrukzio honek adingabeen eskubideak bermatzeko erakunde desberdinen (Arartekoa, Herriaren Defendatzailea) aldetik eztabaida eta zalantza ugari agerrarazi zituen arraza bereizkeria ezabatzeko Batzordearen gomendioetan; Estatuko arartekoak Estatuko fiskal nagusiarri indarrak gabe uzteko ere eskatu zion, zuzenbidera egokitzen ez zela iritzita. Kritika asko eta denetarikoak jaso zituen harik eta 2004ko azaroan “bakarrik dauden adingabe atzerritarren tratamendu juridikoaren gaineko” 6/2004 instrukzioak indargabetu zuen arte.

Azkeneko instrukzio honetan, Ministerio Fiskalak atzerritarren kontuetan egin behar duenari buruzko 3/2001 zirkularrean bezala, legezko tutoretza Espainiako lurraldeetan babesik gabe dauden adingabe guztiei dagokie, nongoak diren berdin delarik. Beraz, hemezortzi urteko adingabe atzerritarren emantzipazioa modu sinesgarrian frogatzerik ez dagoen bitartean, adingabe modura hartu behar da.

Arautegi berrian hauxe dio: *“egoitza baimendu izanak ez du adingabea aberriratzeari oztokatuko, gerora artikulua honetan aurreikusi den modura egin ahal bada”* (92. art.).

Lege aurreikuspen berri hau beteko bada, lehenago esan bezala, tutoretza bukatutzat eman beharko da.

8. Adingabearen egoera juridikoaren erregularizazioa

Administrazioak babesik bako adingabeen egoitza baimendu behar du, eta beren egoeraren frogagiriak eman behar dizkie.

Printzipiorik behinena adingabearen interes gorena denez, prozedura lasterra ezarri behar da, aipatutako printzipioaren kontrako alferrikako berandutzeak saihesteko. Dokumentu-

tazioaren datari eta eskurapenari buruzko zalantzak kaltegarriak zaizkio gizarterapen, laneratze eta hezkuntza prozesuetan.

Tutoretza daukan babes erakundeak Estatuko Administrazioari egoitza baimena eskatuko dio, adingabea babesik gabe dagoela egiaztatzen duenean, bederatzi hilabetez itxaron behar barik, ohi bezala. Egoitza baimenak irabazizko jarduerarik egiteko baimena ere ekar lezake, 16 urtetik gorakoak direnean.

Araudian aurreikusten da *“adingabea babes zerbitzu eskudunen eskuetan ipini zenetik bederatzi hilabetera adingabeak dokumentatu beharko direla.”* Horrek esan nahi du adingabeak, bederatzigarren hilabetean, dokumentazioa eduki behar duela. Alabaina, Txosten honetan ikusten denez, kasurik gehienetan bederatzi hilabete horiek erruz gainditzen dira. Estatuko arartekoak ere egiaztatu du, 2004ko txostenean *“oso hedatuta dago gutxienez 9 hilabetez itxarotea adingabearen egoitza baimena eskatzeko, eta horrek galera larriak sortzen dizkio, normalizazioa, gizarterapena eta laneratzea atzeratu eta, bitartean adinez nagusi bihurtzen badira, egoitza baimena eskuratzea oztopa liezaioke.”*

Batzuetan atzerapena adingabeak pasaporterik edo indarreko identifikazio dokumenturik ez duelako gertatzen da, eta Espainian dokumentuzko egoera erregularizatu nahi duen atzerritar orok eduki behar du.

Adingabeak pasaporterik edo indarreko identifikazio dokumenturik izan ez eta, gainera, lortzerik ez duenean, LOEX 34.2 artikulua aplikatuko zaio, non identifikazio dokumentu bat eskuratzea aurreikusten den (inskripzio zedula). Baina, horretarako, dagokion mandatarari diplomatikoa edo kontsuletzeko bulegoak dokumenturik eman ezin diola frogatu behar du, egin arren erantzun ez zaion eskabidearen notarioaren aktaren bidez. Mandatarari diplomatikoaren ezezkoa jaso duenean, edo besterik gabe erantzun ez zaionean, inskripzio zedula emateko eskaria luzatu ahalko da, egoitza baimena eskatzeko beharrezkoa baita.

Baimena lortzen atzeratzea izugarri kaltegarria da hezkuntza ibilbiderako, sortzen duen zalantzaren ondorioz. Prestakuntzako edozein atzerapenek eragina izango du lan etorkizunean. Gainera, tramitazioaren arintasuna motibazio iturri garrantzitsua da. Tramiteak betetzeko zailtasunak, beraz, adingabearen interes gorenaren printzipioari adituz gainditu eta interpretatu behar dira.

Egoitza baimenaren ondoreak adingabea babes zerbitzuen eskuetan jarri zen unetik hasiko dira (LOEX, 35.4 art.), hots, adingabea babes bakoa zela jakin zen unetik zeren, LOPJM 13.1 eta 14 artikuluen arabera, agintari eta zerbitzu publikoek edozein adingabebei behar zuten berehalako atentzia eman behar izan baitiote.

Eskaeran atzeratzeak, adinez nagusi izatearekin batera gertatzekotan, espedientearen artxibatua eta bere kabuz abiarazi behar izatea dakarkio pertsona horri. Babes erakundearen babesik gabe, egoera irregularrean eta lanik egiterik gabe geratuko litzateke. Administrazioaren tutoretzapean dauden eta adinez nagusi bihurtzen diren atzerritar hauen egoera ezohikoa da: *“adingabeak babesteko erakunde eskudunaren zaintzapean dauden adingabeen kasuan, egoitza baimen hori lortu barik adinez nagusi bihurtzen badira,*

eta erakunde horrek errazago gizartera daitezzen atondutako ikastaldi eta jarduketan egokitasunez parte hartu badute, erakundeak, ezohiko ingurumariengatik, egoitza baimen iragankorra eman diezaieten eskatu ahalko du, eta LOEX 40 j) artikuluan xedatutakoa egokituko zaio.” (2393/04 Errege Dekretua, 92.5 art.).

Aurreikuspen hau arautegiari erantsi zaion gauza berria da, Estatuko arartekoak halakoe-tan ingurumari ezohikoengatik egoitza baimenak tramitatu eta emateari komeni zela esanez gomendio ugari egin ondoren, zeren kasu horietan, egoitza eskaria tramitatzea hain luze jotzeak, adinez heldu izatera iritsi eta tutoretzaren etena baitzekarren.

Azkenik, 2393/04 Errege Dekretuaren 72.3 artikulua arabera, adingabe atzerritarrek egoitza iraunkorrerako eskubidea daukate, baldin eta, adinez nagusi izatera heltzen direnean, juxtu aurreko bost urteetan segidan erakunde publiko baten tutoretzapean egon badira.

Era berean, LOEX 40 j) eta 41 k) artikuluetan lan merkatura iristeko erregimen mese-degarriagoa aurreikusten da.

9. Jakinarazpena Ministerio Fiskalari

Garrantzitsua da Ministerio Fiskalak konstituzioaren eta estatutuaren bidez adingabeen interesak zaintzeko esleitura daukan zeregina gogora ekartzea. Administrazioak Ministerio Fiskalari jakinarazi behar dio zer egin duen. Jakinarazpen hori, beraz, adingabearen interesak zaintzera xedatuko da.

Ministerio Fiskalaren jarduketa zein den argitzen duten indarreko jarraibideak Ministerio Fiskalak atzerritarren kontuetan egin behar duena zehazten duen abenduaren 21eko 3/2001 Zirkularrean, LOEXen oraingo 35. artikulua interpretazioaren gaineko ekainaren 28ko 2/2001 Instrukzioan, eta bakarrik dauden adingabe atzerritarren tratamendu juridikoaren gaineko azaroaren 26ko 6/2004 Instrukzioan jasota daude.

1.5.3. Adingabe atzerritarren egoerari eta horiekin esku hartzeari ukitzen dieten beste kontu batzuk

- *Dokumentaziorik bako adingabe atzerritarrak ustezko delitugile modura atxilotzen dituztenean*

Itxuraz adingabeak diren dokumentaziorik bako pertsonak Instrukzio Epailaren esku ipini behar dira, zer adinekoak diren zehazteko eginbideak agin ditzan (Prozedura Kriminalerako Legea, 375. art.).

Kasu honetan ere ez dago zehapen espedienterik abiarazterik, atzerritarren legean aurreikusitako edozein motiborengatik eta, bereziki, kanporatzearekin edo badaezpadako barnerapen neurriarekin zigor litezkeen motiboengatik, adingabeen gaineko araudiak agintzen baitu. Horretarako, aurretiaz eta berme egokiek, adinduna den ala ez zehaztu beharko da.

Adingabetasuna zehazten bada, legeak gure lurraldean bizi den edozein adingaberentzat aurreikusten dituen babes eta laguntza neurriak eman behar dira (LOPJM, 1. art.).

Aberriratzea, kasu honetan, epaileen baimenaren baldintzapean geratuko da (RD 2393/04 Errege Dekretuaren 92.4 art.). Aberriratzea baimentzeko epaile eskuduna dagokion adingabeen epaitegiko titularra izango da (LORPM 2.3. art.). Espedientean Ministerio Fiskalarentzako jakinarazpena agerraraziko da.

Bestalde, adingabeak ohiko bizitokia Espainiatik kanpo daukanean, atxiloketa dagokion kontsuletzeko agintariei jakinaraziko zaie; adingabe atzerritarren ohiko bizitokia Espainia denean ere kontsuletzeko agintariak jakinaren gainean jarriko dira, adingabeak zein bere legezko ordezkariak eskatzen badute (LORPM, 17.1 art.).

- *Adingabe atzerritarren legezko egoitza*

2393/04 Errege Dekretuaren 92.4 artikuluan, espresuki aurreikusten da, espainiarren zein Espainian lege barruan bizi diren atzerritarren edo legez erakunde edo herritar espainiar zein espainiarra izan barik Espainian lege barruan bizi den atzerritar baten tutoretzapean dauden Espainian jaio ez diren adingabe zein ezgaituentzat, “*egoitza baimena eskuratuko ahalko dutela, Espainian gutxienez bi urtez segidan egon direla eta beren guraso edo tutoreek arautegian familia berriro elkartzeko eskatzen diren bizitzeko leku eta baliabideen eskakizunak betetzen dituztela frogatzen bada.*”

- *Adingabeen barnerapena*

Adingabe atzerritarrak ezin izango dituzte barnerapen zentroetan sartu, adingabeen babes zerbitzuen eskueran jarri baizik, 1. instantziako epaileak Ministerio Fiskalaren onespentxostenaren ostean baimenik eman, eta guraso edo tutoreak zentroan egon eta batera egon gura dutela adierazi ezean. Gainera, familiaren batasuna eta intimitatea bermatzeko moduko moduluak egongo dira (2393/04 Errege Dekretuaren 153.8 art.).

- *Tutoretzapean egon diren adingabeei espainiar naziotasuna ematea*

Kode Zibilak bi urtez jarraian tutoretzapean egon diren eta gutxienez urte beteko egoitza frogatzen duten adingabeei espainiar naziotasuna ematea aurreikusten du (KZ, 22.2 c) art.).

Ondorioak

Giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak gero eta berme handiagoz jasotzen ditu adingabeen eskubideak. Gure lege antolamenduak, beren beregi, adingabeen eskubideak zaintzen dituzten nazioarteko akordioak zuzenbide aplikagarri modura dauka.

Adingabeak eskubide-subjektuak dira, eta erakunde eskudunentzat babes-subjektu izan behar dute, babesgabezia egoeran zein arriskuan baldin badaude. Eta hori horrela da denentzat, nongoak diren berdin delarik.

Herri agintaritzek, erakunde pribatuek, herritarrek... adingabearen interes gorenaren ildotik jokatu behar dute. Irizpide horrek gidatuko ditu jarduketa eta erabaki guztiak. Atzerritarren araudia, beraz, printzipio orokor horren arabera berrikusi eta interpretatu behar da, eta administrazio desberdinen arteko jarduketa protokoloek ere printzipio hori bete dadin bermeka jasoko dituzte.

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin estatuko, autonomia erkidegoko, tokian tokiko administrazioek, polizia taldeek, Ministerio Fiskalak ... esku hartzen dute, eta horretan lankidetzaz, koordinaketa eta eraginkortasun printzipioek garrantzi berezia hartzen dute, adingabeen eskubideak bermatu behar direnean, babesgabezia egoeretan babestu behar zaienean, eta osotasunezko garapena eman behar zaienean, autonomiadun herritarrek izan daitezten, beren eskubideez baliatzea izan dezaten eta gizarte barruan egon daitezten. Eskubideak bermatzeko erakundeak, hala nola, ararteko, zein adingabeen erakundeak oso betekizun garrantzitsua jokatzen ari dira adingabe horien eskubideen defentsan.

Bakarrik dauden adingabe atzerritarren presentziak elkarlanean aritzeko ahalegina egin dezaten eskatzen die administrazio desberdinei, babesgabeziako benetako egoerak aurkitzeko eta, aurreikusitako bermeak betetz, erantzun egokia eman ahal izateko. Atzerritarrek direla kontuan hartuta egiten ari diren gauzetan ez dira adingabe horien eskubideak errespetatzen ari. Espainiako agintariek, eta beste Estatu batzuetako agintariek, adibidez, Marokokoek, adingabe atzerritarrei buruzko esku hartzeak nazioarteko lege antolamenduan aitortu zaizkien eskubideak betetzera egoki ditzaten falta da.

Glosarioa:

CDN: Nazio Batuen Konbentzioa, 1989ko azaroaren 20koa, haurren eskubideen gainean.

EK: Espainiako Konstituzioa, 1978koa

KZ: Kode Zibila

LOPJM: 1/1996 Lege Organikoa, adingabearen babes juridikoaren gainean, eta Kode Zibila eta Auzipetze Zibileko Legea partzialki aldatzeko.

LOEX: 4/2000 Legea, 8/2000 Legeak eta atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunen eta atzerritarren gizarteratzearen gaineko 14/2003ko Legeak aldarazia.

LORPM: 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, adingabearen erantzukizun penala arautzen duena.

LVAPIA: EAEko 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko.

**EAEn HARRERAN HARTUTAKO
BAKARRIK DAUDEN ADIN TXIKIKO
ATZERRITARREN EZAUGARRIAK**

2. EAEN HARRERAN HARTUTAKO BAKARRIK DAUDEN ADIN TXIKIKO ATZERRITARREN EZAUGARRIAK

Bigarren atal honetan, gure Erkidegoan bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrekin lotura duten datu esanguratsu batzuk agertu nahi ditugu: azken urte hauetan, haien garapena zein izan den, eta bereziki, 2003ko eta 2004. urteko hilabeteetan harrera zentroetan izan dituzten sarrerak eta uzteak; adinari eta jatorriari dagokionez dituzten ezaugarriak; haien egoera administratiboa arautzeko helburuari dagokionez, egin dituzten pausoak eta izan dituzten lorpenak; burutu dituzten Trebakuntza mailako jarduerak eta emantzipaziorako aukerak... Horri guztiari buruzko datu eskuragarriak eskainiko ditugu, lurraldez lurralde, erkaketa egiteko aukera ematen duen eskema jarraituz.


Laugarren atalean, modu laburrean, elkarrizketatutako adin txikikoen ahotsa jasoko dugu: lehenengo, kasuz kasu, haien testigantza laburtuko dugu; bigarrenik, sarritan errepikatzen diren zenbait elementu azpimarratuko ditugu eta, gure ustez, horiek lagungarri izango zaizkigu aurreiritzi jakin batzuk aztertzeko edo haien itxaropenak eta beharrak zein diren hobeto ezagutzeko.

2.1. Arabako Lurralde Historikoa

2.1.1. *Harreran hartutako adin txikiko kopuruaren gaineko datuen garapena*

Arabako Lurralde Historikoan, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren garapenari dagokionez (1. grafikoa), hazkunde handiena 2002. urtean gertatu zen: aurreko urteko kopurua hirukoiztu egin zen. 2003. urtean ere, adin txikikoen kopuruak hazkunde nabaria izan zuen (30etik 50era arte); 2004. urtean, mantendu egin zen. Hala ere, beste lurraldeekin alderatuz gero, kopurua baxua dela azpimarratu behar da.

1. grafikoa: Bakarrik dauden adin txikiko atzeritarren garapena Araban (1997-2004)




Iturria: Zabaltzen Zentroa

Azpimarratu behar da Arabako datuetan neska adin txikikoei emandako harrera ere jasota dagoela; 2003. urtean harreraren hartutako 50 pertsonetatik 46 mutilak izan ziren eta 4, berriz, neskak.

Arabako dagoen zentroan hilabete bukaerara arte geratu ziren adin txikikoen kopurua aztertuz gero, argi ikus daiteke 2003. urtean zehar, urtea igaro ahala, kopurua handituz joan zela. 2004. urtean, aldiz, lehenengo hilabeteak igarota, bertan bizi ziren gazteen kopurua txikitu egin zen, eta nolabaiteko egonkortasuna sortu zen.

2. grafikoa: Egoitzadunen kopurua hilabete bukaeran (Zabaltzen, 2003-2004)




Iturria: Zabaltzen Zentroa

Grafikoko datuak Zabaltzen Zentroan dagoen plaza-kopuruarekin lotzen baditugu, zenbait hilabetetan adin txikikoen kopurua zentroak duen edukiera (12 plaza) baino handiagoa izan dela ikus daiteke. 2003. urteko urritik aurrera, Carlos Abaitua aterpetxea erabiltzeko aukera izan zen. Bertan, 5 plaza erabili izan dira gehienez, nahiz eta ohikoena 2 edo 3 plaza erabiltzea izan den. Eskaera kopurua handituz gero, ez da baliabide hori erabiltzea bazterten.

Ondorengo grafikoak zentzoko sarrerak eta uzteak agertzen ditu hilabetez hilabete. Ikus daitekeen gisa, sarrera eta uzteak elkarren artean orekatzen dira. Sarrera kopuru handia izaten den hilabeteetan, uzte kopuru handia izaten da, hilabete horretan bertan edo hurrengoan.

3. grafikoa: Sarreren eta irteeren hileroko mugimenduak (Zabaltzen, 2003-2004)



Iturria: Zabaltzen Zentroa

Zentroa uzteko bi arrazoi nagusiak adin-nagusitasuna eta ihesaldia dira; beste arrazoi batzuk, berriz, noizbehinkakoak izaten dira: epailearen barneratze-neurriak, beste zentro batera aldatzea edo familia-harrerak.


1. taula: Irtetearen arrazoiak (Zabaltzen, 2003-2004)

Arrazoiak	2003	2004
Adin-nagusitasuna	9	19
Ihesaldia	12	14
Epailearen barneratze-neurria betetzea	3	1
Zentro aldaketa	-	1
Familia-harrera	2	-
Bestelakoak	6	1
GUZTIRA	32	36

Iturria: Zabaltzen Zentroa

Adingabe hauen mugigarritasuna dela eta, zentroan igarotako denbora aztertzea interesgarria da (4. grafikoa). Portzentaje handiena zentroan astebete baino gutxiago igarotzen duten adin txikikoena da (%41,2); baina 6 hilabete baino gehiago irauten duten adin txikikoen ehuneko ere azpimarragarria da (%39,2). Hau da, zentroetan hartzen diren adin txikikoen kopuru handienak ez du ia denborarik ematen bertan edo denbora nahiko luzea igarotzen du.

4. grafikoa: Artatutako adin txikikoen irauten duten epea (Zabaltzen, 2003)




Iturria: Zabaltzen Zentroa

2.1.2. Artatutakoen adina eta jatorria

Harreran hartu diren gazteen adinari dagokionez, adin txikikoen kopuru handi batena ezezaguna da (%32); beraz, 10 pertsonatik 3ren adina ez dugu jakiten. Bestalde, adina ezagutzen den kasuetan, tartea 15 eta 18 urtekoa izaten da. Multzo handiena 17 urte dituztenenek osatzen dute (%26), nahiz eta adinez nagusiak direnen eta 16 urte dituztenen multzoa ere azpimarragarria den (%18 bi kasuetan). Harreran hartutako adin txikikoen adina 16,8 urtekoa da batzaz beste.


5. grafikoa: Artatutakoen adina (Zabaltzen, 2003)



Iturria: Zabaltzen Zentroa

Adin txikikoen jatorriari dagokionez, gehienak marokoarrak dira: 10 pertsonatik 5 handik datoz, Saharatik datozen pertsonak kontuan hartu gabe. Afrikako iparraldea kontutan hartuz gero, adin txikikoen %74 dator handik. Gainontzeko jatorrizko herrialdeak oso ugariak dira baina horietatik datozenen portzentajea txikia da (kasuaren arabera adin txikiko bakarra, bi edo hiru).

6. grafikoa: Artatutako adin txikikoen jatorria (Zabaltzen, 2003)



Iturria: Zabaltzen Zentroa

2.1.3. Adin txikikoen egoera administratiboa

Kontuan hartu beharreko datu bat dokumentazioa bideratu eta lortzeari dagokiona da, adin txikikoen bizitzan duen garrantziaren eraginez. Nabarmentzekoa da izandako dokumentazio-eskaera urria, batik bat urte berean harreran hartutako adin txikikoen kopuru osoarekin alderatzen badugu: 2003. urtean, harreran hartutako 50 kasuetatik, 6k bakarrik eskatu zuten pasaporte edo egoitza-baimena. Baina datu horiek adin txikikoen mugigarritasun handiarekin lotu behar dira: zentroetan denbora gutxi igarotzen badute, ezingo dute dokumenturik bideratu. 2004. urtean, egoitza-baimenaren eskaera eta eskaintza ugaritu egin ziren.

2. taula: Agiriak tramitatzea eta lortzea (Zabaltzen, 2003-2004)

Agiriak	2003	2004
Pasaportearen eskaerak	6	6
Pasaporte lortutakoak	3	8
Egoitza-baimenen eskaerak	6	15
Egoitza-baimena lortutakoak	3	13
Lan-baimenen eskaerak	2	-
Lan-baimena lortutakoak	2	-

Iturria: Zabaltzen Zentroa

Eskatutako eta lortutako dokumentazioari buruzko datuak aztertzeko garaian, ondoz ondoko pausoak eman behar direla kontuan hartu behar dugu, dokumentu bat lortzea hurrengo agiria lortzeko giltza izaten baita. Beraz, adin txikiko batek bere jatorrizko

herrialdeko pasaportea lortu beharko du lehenik. Horrek egoitza-baimena eskatu ahal izatea ahalbideratuko du eta, gehienetan, lehen baimena eskuratzeak lan-baimena bideratzea ekarriko du. Oro har, baimen bat lortzeak beste bat eskatzea eragingo du.

2.1.4. **Artatutako gazteek egindako jarduerak eta emantzipatzeko aukerak**

Zabaltzen Zentroan, adin txikikoek gauzatu dituzten jarduerak hiru esparrutan bana ditzakegu: alfabetatzea (gaztelera ikasteari dagokiona), lan-trebakuntza eta heziketa orokorra, hizkuntzak eta bestelako jarduerak. Kontuan hartu behar dugu adin txikikoek aldi berean trebakuntza mailako jarduera bat baino gehiago burutu dezaketela. Adibidez, gaztelaniako eskoletara joaten dira, lan-jarduera batean trebatzen diren bitartean. Heziketa orokorreko eta hizkuntza arloko jardueren eta beste hainbaten artean, Gurutze Gorriak antolatzen dituen sukaldaritza lantegiak barneratu dira. Lantegi horien helburua adin txikikoek janaria prestatzen eta sukaldeko etxeko-lanak egiten ikas dezaten lortzea da, beraz, jarduera hori ezin da lan-trebakuntzaren arloan barneratu.

3. taula: Trebatzeko jarduerak eta ikastaroak (Zabaltzen, 2003)

Trebatzeko jarduerak eta ikastaroak	Adin txikikoen kopurua		Adin txikikoen kopurua
Gurutze Gorria Alfabetatzea	19	Alfabetatzea	55
Herri Kultura Zentroa Alfabetatzea	18		
Norabide Alfabetatzea	6		
HHE Alfabetatzea	12		
Herri Kultura Zentroa (Gizarte Zerbitzuetako ikastaro osagarria)	1	Lan heziketa	25
Gasteiz LHIK	8		
Pedro Anitua LHIK	6		
SARTU Balio anitzeko Lantegia	4		
Micaela Portilla Lantegi Eskola	2		
Brikolaje lantegia (Ignacio Ellacuría)	2		
FOREM. Soldadura	2		
Sukaldaritza lantegia (Gurutze Gorria)	19	Hezkuntza orokorra, hizkuntzak, bestelakoak	27
Federico Baraibar eskolatzea (Institutua)	4		
CEBAD	1		
Hizkuntza-eskola ofiziala	2		
Abetxuko ekimen etxea	1		

Iturria: Zabaltzen Zentroa

Azpitarratzekoa da hiru arloetan dagoen partaidetza handia, batez ere alfabetatze-jardueretan, baita horietan dagoen eskaintza-kopuru handia ere. Bestalde, nabarmentzekoak dira gauzatzen diren jarduerak eta egintzak, sukaldaritza lantegia edo hizkuntza-eskolan parte hartzea, esaterako, beste lurralde batzuetan ez baitira horrelako jarduerak gauzatzen.

Lanari dagokionez, lanean hasiak ziren bi adin txikikoren datuak soilik eman ziren. Ez zen emantzipaziorako beste bideen gaineko daturik eman.

4. taula: Lan-esparruak (Zabaltzen, 2003)

Lan-arloa – Lan-esparruak	Adin txikikoen kopurua
Eraikuntza: Pladurra	1
Micaela Portilla Lantegi Eskola	1

Iturria: Zabaltzen Zentroa


2.2. Bizkaiko Lurralde Historikoa

Hiru lurralde historikoetatik Bizkaian artatzen da bakarrik dagoen adin txikiko gehien. Datuak aztertzean kontuan izan behar da lurralde honetan dauden baliabideen errealitate desberdina. Zabaloetxe Zentroa lehen harrerako zentroa da eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin lotura duten adin txikiko atzeritarrak bakarrik daudenak zentro horretara eratortzen dira hasieran. Horregatik eta Euskal Autonomia Erkidegoan adin txikiko gehien artatzen duen zentroa delako, interes berezia du hor artatutako adin txikikoen datuak sakon aztertzeak. Arrazoi hori dela eta, eman zaio horrelako garrantzia kapitulu honetan datu horiek aztertzeari. Gabriel M^a de Ibarra Zentroko (2004ko ekainetik itxita) datuen azterketa, berri, ez da hain zehatza eta adin txikikoen jarduerak ditu ardatz.


2.2.1. Harreran hartutako adin txikiko kopuruaren gaineko datuen garapena

Zabaloetxe Zentroaz aritzean aipatu beharreko lehenbiziko datu esanguratsua artatutako adin txikiko kopuru handia da. Grafikoari begiratu gero, argi ikusten da Zabaloetxera 2001ean etorri zela bakarrik zegoen adin txikiko atzeritar gehien. Aurretik ere modu esanguratsuan ari zen kopurua hazten, baina inoiz ere ez urte horretan adina, aurreko urtean baino ia 300 adin txikiko gehiago hartu baitziren. Hazkunde ikusgarri horren ondoren, hurrengo bi urteetan, behera egin zuen adin txikiko kopuruak eta 2004an hazi zen berriro.

7. grafikoa: Zabaloetxeren artatutako bakarrik dauden adin txikiko atzeritar berrien urteko eboluzioa (1996-2004)



8. grafikoa: Hilabete bakoitzaren bukaeran Zabalotxen bizi ziren adin txikikoak (2003-2004)



Iturria: Zabalotxe Zentroa

Lehenengo harreraren ondoren, adin txikikoak Zabalotxen bertan egon daitezke edo zentroak babestutako emantzipazio pisuetara joan edo beste baliabide batera bideratu. Batzuetan adin gabeak utzi egiten du zentroa. 2003 eta 2004 urteetan Zabalotxe Zentroan edo horren tutoretzako pisuetan hilabete bakoitzaren amaieran zenbat adin gabe bizi zen ikusten badugu, kopuruak gora egin duela eta bikoiztu egin dela ikusiko dugu.

Era berean, zenbait hilabetetan egoiliar kopuruak behera egin du apur bat ikusten denez, baina beherakada hori koiunturala izan da beti, izan ere, ez da inoiz bi hilabetean jarraian egon beherakadarik.

Datu hau nahitaez lotu beharra dago Zabalotxek Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzarmen bidez finkatutako plaza kopuruarekin: 62 plaza, gehienez ere 87raino hazi daitezkeelarik.


62 plaza horietatik 54 zentroan bizi diren gazteentzat dira, gela kopuruaren arabera gaitasun hori baitu, eta gero beste 8 plaza daude emantzipazio pisuetan bizi direnentzat. 2004ko urtarilean, esaterako, 110 egoiliarretatik 76 zentroan bertan bizi ziren (aurreikusitako gaitasuna baino 22 lagun gehiago) eta 34 pisuetan (hitzarmenean adostutakoak baino 26 gehiago). Beraz, datuak ikusita adierazi beharra daukagu zentroa gainez eginda dagoela, nola instalazioei hala artatzen duen gazte kopuruari dagokionez. Egoera hori ez da berria, ezta salbuespena ere, aspalditik gertatzen da eta nahiko sarri gainera, ia ohikoa dela esan daiteke.

Harrera moduluak egiten du gehienetan gainez. Berez 18 plaza dituen arren, 40 adin txikiko eta gehiago ere eduki izan ditu artatuta, horrek dakartzan pilaketarekin eta laguntza egokia eskaintzeko zailtasunekin.

Bestetik, bakarrik dauden atzerritarren ezaugarrietako bat duten mugikortasun handia da. Horrela, bada, hilabete batzuetan asko sartzen diren arren, irten ere asko egiten dira. Irteera horietako batzuetan adin txikikoak bere borondatez uzten du zentroa, eta hezkuntza proiektua, baina hainbat arrazoigatik ere irteten dira: adin txikikoa adin nagusiko bihurtzen da eta zentroa utzi behar izaten du, beste baliabide batzuetara bideratzen da, beste zentro batera edo harrera pisu batera edo emantzipazio pisu batera, etab.

9. grafikoan ageri dira azken urteetan hilero izandako irteerak eta sarrerak. Ikusten denez, ia hil guztietan sarrera gehiago egon da irteerak baino. Irteerak eta sarrerak joera bera dutela ere ikusten da, hau da, bat hazi egiten bada, bestea ere hazi egiten da, proportzio berdinean ez egin arren.


9. grafikoa: Sarreraren eta irteeren hileroko mugimenduak (Zabaloetxe, 2003-2004)



Iturria: Zabaloetxe Zentroa


2003.ean urtearen azken hilabeteetan gehitu ziren nagusiki sarrerak, eta baita irteerak ere. Dinamika hori bera errepikatu zen 2004an. 2004ko irailean (eta 2003ko urtarrilean) egon zen sarrera eta irteera gehien.

2003ko datuetan zentratuz gero, irteera gehien (10. grafikoa) borondatez joandakoak izan ziren (%60,9), irteera gutxien, aldiz, adin txikikoak internamendu zentroetan sartu zirelako gertatu ziren (%0,5). Zentroa utzi duten 10 gazteetako 2 adin nagusikoak egin direlako joan dira, eta ondorioz, teoriarik, zentroa utzi beharra daukate. Ihes egindakoak eta beste zentro batera eramandakoak %8,9 eta %6,8 dira, hurrenez hurren.

10. grafikoa: Irtetearen arrazoiak (Zabaloetxe, 2003)

Iturria: Zabaloetxe Zentroa

2004. urteari dagokionez, sarrera (45) eta irteera (33) gehien irailean izan zen. Irteteko arrazoiak buruz, adin nagusiko bihurtu direlako zentroa utzi behar dutenen ehunekoa hazi egin da apur bat: %23tik 29ra igaro da. Dena dela, borondatez utzitakoak dira, orain ere, gehienak (kasuen ia erdiak). Ihes egindakoak ere gehitu egin dira.


11. grafikoa: Irtetearen arrazoiak (Zabaloetxe, 2004)

Iturria: Zabaloetxe Zentroa

Adin txikikoen sarrerekin eta irteerekin lotuta dago zentroan igarotzen duten epea ere (12. grafikoa). Artatzen diren adin txikikoen ia erdiek oso egun gutxi igarotzen dutela zentroan ikusten dugu: artatzen diren 10 lagunetik 4k hilabete baino lehen irteten dute, 2k astebete baino lehen.

Bestetik, hilabete baino gehiago egoten direnei dagokienez, horietako erdiak baino gehiago (artatutako mutiko guztien %56,2) 6 hilabete baino gehiagoz egoten dira. Hau da, sartzen diren adin txikiko askok ez du hilabete irauten, baina irauten dutenak, epe nahiko luzean egoten dira.

12. grafikoa: Artatutako adin txikikoek irauten duten epea (Zabaloetxe, 2003)



Iturria: Zabaloetxe Zentroa

Bestetik, Gabriel M^a de Ibarra Zentroak 30 adin txikiko artatzen zituen 2003 eta 2004 urteetan Zabaloetxe Zentrotik bideratutakoak. 2004ko martxoko gertakizunen ondorioz, egoiliar kopuruak behera egin zuen eta 24 izatera iritsi zen. Adin txikiko 24 horiek Bizkaiko Foru Aldundiak prestatutako etxe funtzioaletara eraman ziren 2004ko ekainean, orduan itxi baitzen Urduñako Zentroa. Lehen harrerako zentroa ez zenez, adin txikikoen egonaldiak iraunkorrakoak ziren: gehienek 6 hilabete baino gehiago egiten zuten.


2004ko abenduaren 31n 23 adin txikiko bizi ziren garai hartan irekitako hiru etxe funtzioaletan. Horietako batzuk Urduñan bizi izandakoak ziren, eta beste batzuk Zabaloetxetik zetozen.

Osora artatutakoen azterketa honetan, ezin gara neskez ahaztu. Kasu honetan, kopuruak aldatu egin dira urtearen arabera eta ez dago joerarik. 2000. urtean, esaterako, bi neska artatu ziren; 2001ean 13 neska; hurrengo urtean 10; 2003an 9 neska eta 2004an, ekainera arte, 6 neska etorri ziren beraiantzako aurreikusitako zentzora.

2.2.2. Artatutakoen adina eta jatorria


Zabaloetxen 2003an artatu diren pertsonen adinari dagokionez (13. grafikoa), aipagarriena adinik ez dakigun gazteen kopuru handia da: 10etik 3, hain zuzen. Hori logikoa da aurreko grafikoarekin lotzen badugu, izan ere zaila da zentroan egun gutxi batzuk bakarrik igarotzen dituzten gazteen adina jakitea, hezur probak ez badira berehala egiten.

Jakiten den adinei dagokienez, adin askotakoak daude, hasi 13 urtetik eta 18ra bitartekoak. Gehienak 16 eta 18 urte bitartekoak dira, artatutakoen ia %60 adin horretakoa da. Ez da horrelakorik gertatzen 13 urtez beherakoetan, horiek ez dira %1era iristen. Ofizialki adin txikikoak diren mutikoen batezbesteko adina 16,2 urtekoa da – lortutako agiriek edo hezur probek emandako datuen arabera-.

13. grafikoa: Artatutakoen adina (Zabaloetxe, 2003)

Iturria: Zabaloetxe Zentroa

Artatutako gazte gehienen jatorria, berriz, Maroko da. Horkoak dira 10 gaztetatik 9. Beste hainbat tokitakoak eta gutxiengoak dira. Jatorrizko bigarren herrialde nagusia Aljeria da, Afrika iparraldekoak dira, beraz, Bizkaian artatzen diren adin txikikoen ia %100. Ekialdeko Europatik adin txikikoen %2 eskas dator. Amerikari dagokionez, are eta gazte gutxiago dira horkoak (adin txikiko bakarra 2003an). Artatutako adin txikikoen profil hori ia bere horretan mantendu da azken urteetan (ikusi Arartekoaren urteko txostenak edo txosten honen 4., 5. eta 6. eranskinak).

14. grafikoa: Jatorrizko herrialdeak (Zabaloetxe, 2003)

Iturria: Zabaloetxe Zentroa

Bestetik, 2003an Gabriel M^a de Ibarra Zentroan artatutako adin txikikoei dagokienez, denak Marokotik zetozen mutikoak ziren eta 14 eta 18 urte bitarte zituzten, gehienek 17-18 urte zituzten arren.

2.2.3. Adin txikikoen egoera administratiboa

Egoera legala faktore garrantzitsua da, erabakigarria baita bakarrik dauden adin txikikoen bizitzeko eta gizarteratzeko aukerei dagokienez. Atzerritarren legearen arabera, erakunde

publikoien zaintzapean dauden adin txikikoek egoitza baimena izateko eskubidea dute, baita lanerako baimena ere, erakundearen ustez gaztearen garapenerako positiboak diren lanak egiteko baldin bada.

5. taula: Agiriak tramitatzea eta lortzea (Zabaloetxe, 2000-2004)

Agiriak	2000	2001	2002	2003	2004
Pasaporte eskaerak	29	118	52	56	60
Lortutako pasaporteak	25	107	36	36	71
Egoitza baimenerako eskaerak	21	204	27	46	59
Lortutako egoitza baimenak	12	41	69	37	33
Lan baimenerako eskaerak	12	37	10	36	20
Lortutako lan baimenak	12	17	30	14	24

Iturria: Zabaloetxe Zentroa

Datuak aztertzean kontuan izan behar da askotan dokumentuak urte batean eskatzen direla eta hurrengoan lortu. Hori horrela, 2001 nabarmentzen da pasaporte ugari eskatu eta lortu baitzen, baita egoitza baimen ugari egin ere. 2002an ere egoitza baimen ugari lortu zen (69), ziur asko aurreko urtean eskatutako batzuk emango baitziren. Baina zifra horiek ez dute irauten hurrengo urteetan. 2002an pasaporte, egoitza baimen eta lan baimen eskaerak izugarri gutxitu ziren.

2003an eskaera gehiago egon zen. Bereziki nabarmena da egoitza eta lan baimena lortzeko eskarien gorakada. Baina ezin da horrelakorik esan eman zirenei buruz, bi baimenetan beharakada izan zuen (beherakada horren arrazoia izan daiteke 2002an 2001ean baino eskari gutxiago egon eta, beraz, ebazteko horrenbeste baimen ez egon izana). Dena dela, datu horiek zuzen baloratzeko edo interpretatzeko, aztertu egin beharko liriteke aldi bakoitzean artatutako adin txikiko kopuruaren eta egin duten epearen arabera.

2.2.4. *Artatutako gazteek egindako jarduerak eta emantzipatzeko aukerak*

Adin txikikoei eskaintzen zaien arretaren barruan, Zabaloetxe Zentroak heziketa prozesu bat dauka eta hor prestakuntzarako, lan munduan sartzeko eta zentrotik emantzipazio pisuetara irteteko jarduerak daude.

Artatuko adin txikikoek egindako jarduerari eta prestakuntza ikastaroei dagokienez, hiru mailatan sailkatu ditugu:

- Lanbide heziketa, lanbide bat ikastea helburu duten jarduerak.
- Heziketa orokorra, Bigarren Hezkuntzari dagokiona.
- Alfabetizazioa, gaztelera ikasteko ikastaroak.

Kontuan izan behar da jarduera horiek bateragarriak direla, eta, beraz, adin txikikoak jarduera batera baino gehiagotara joan daitezke eta hala joaten dira, edo urtean zehar jardueraz aldatzen dute.

6. taula: Trebatzeko jarduerak eta ikastaroak (Zabaloetxe, 2003)

Trebatzeko jarduerak eta ikastaroak	Adin txikikoen kopurua		Adin txikikoen kopurua
Eraikuntza eta obra publikoak	37		
Nekazaritza	2		
Industria astuna eta eraikuntza metalikoak	1		
Egurraren industria	7	Lanbide Heziketa	112
Turismoa eta ostalaritza	5		
Automozioa	3		
Elikagaien industria	1		
Tailer okupazionalak	56		
Heziketa orokorra (DBH, Batxilergoa...)	3	Heziketa Orokorra	3
HHE	21		
Amigó eguneko zentroa	82	Alfabetizazioa	232
Gaztelera zentroan bertan	129		

Iturria: Zabaloetxe Zentroa

Partehartzerik handiena alfabetizazio jardueretan izan da, batez ere zentroan bertan dagoen gaztelera ikasteko jardueran, baita Amigó eguneko zentroan ere.

Lanbide heziketari dagokionez, partehartzerik handiena tailer okupazionaletan izan da. Tailer horiek Zabaloetxek berak eskaintzen ditu bere instalazioetan. Horren ondoren datoz eraikuntzarekin eta obra publikoekin lotutako ikastaroak, horiek kanpoan egiten dira.

Heziketa orokorreko jardueretan oso parte hartze txikia izaten da (3 adin txikiko 2003an). Adin txikikoak 16 urte baino gutxiago dituen kasuak izaten dira, derrigorrez eskolara joateko adina baita.

Lan munduan sartzeari dagokionez (7. taula), azpimarragarria da gazteek zenbat sektoretan egiten duten lan: 14 sektoretan guztira. Horien artean aipatzekoak dira jantzigintza, igeltserotza, lorezaintza eta nekazaritza sektorea.

7. taula: Lan esparruak (Zabaloetxe, 2003)

Lan esparruak	Adin tx. kop.
Jantzigintza	10
Iturgintza	3
Elektrizitatea	5
Ostalaritza	2
Garbiketa	4
Igeltserotza	12
Lorezaintza	9
Zurgintza	2
Soldadura	3
Egur eraikuntza	3
Metaleria	1
Merkataritza	1
Nekazaritza	9
Pintura	4
GUZTIRA	68

Iturria: Zabaloetxe Zentroa

Azkenik, zentrotik irteterako emantzipazioari dagokionez, bi bitarteko erabiltzen direla aipatu beharra dago. Bata, beste erakunde batzuen tutoretza pisuak dira. Bost adin txikiko Zabaloetxetik horrelako baliabideetara igaro ziren 2003an. Bestea alokatutako etxebizitzak dira. Etxebizitza horiek zentro beraren mende egoten dira maila handiagoan edo txikiagoan. Baliabide hori hartzen duen gazte kopurua haziz joan da azken urteetan. 2003aren hasieran 12 gazte zeuden horrelako emantzipazio pisuetan eta 2004ko abendurako 64 mutikok zerabilten baliabide hori.

8. taula: Zabaloetxe Zentroaren mende dauden emantzipazio pisuetan bizi diren adin txikikoak (2003-2004)

Hilabetea	2003	2004
Urtarrila	12	30
Otsaila	9	36
Martxoa	11	42
Apirila	12	48
Maiatza	13	51
Ekaina	17	55
Uztaila	18	61
Abuztua	18	66
Iraila	22	66
Urria	14	64
Azaroa	16	66
Abendua	30	64

Iturria: Zabaloetxe Zentroa

Urduñako Zentroan bizi ziren adin txikikoek egindako jardueri dagokienez, nola pres-takuntzako hala aisiako jardueretan, azpimarragarria da Lanbide Hastapenerako Ikastegietako (LHIK) ikastaroetan izandako parte-hartzea, baita helduen hezkuntza zentroetan (HHE) gaztelez alfabetatzeko izandako parte-hartzea ere. Azpimarragarria da, halaber, 9 adin txikikok inguruko elkarteetako kirol jardueretan hartu zutela parte.

9. taula: Trebatzeko jarduerak eta ikastaroak (Urduña, 2003)

Trebatzeko jarduerak eta ikastaroak	Adin txikikoen kopurua		Adin txikikoen kopurua
LHIK Soldadura	1		
LHIK Iturgintza	1		
LHIK Igeltserotza	7		
LHIK Ostalaritza	13	Lanbide Heziketa	34
LHIK Zurgintza	4		
LHIK Eskaiola	3		
LHIK Mekanika	3		
LHIK Lorezaintza	2		
Osabidezko hezkuntza ikastaroa	1		
HHE	12	Alfabetizazioa	12
Beste prestakuntza ikastaroak	2	Besterik	2
Atletismoa	3	Kirola	9
Futbola	3		
Gimnasioa	3		

Iturri: Gabriel M^a de Ibarra Zentroa

2003.ean lanean hasi ziren gazteei dagokienez, 9 hasi ziren eta hainbat arlotan gainera. Denak kontratuarekin hasi ziren lanean.

10. taula: Lan arloa (Urduña, 2003)

Lan arloa	Adin tx. kop.
Igeltserotza	2
Ostalaritza	4
Lorezaintza	2
Iturgintza	1
GUZTIRA	9

Iturria: Gabriel M^a de Ibarra Zentroa

Emantzipazio prozesuei dagokienez, 2003an 6 gaztek utzi zuten zentroa eta urrats hau eman zuten: 5 erakunde baten tutoretza pisu batera joan ziren, bakarra joan zen alokatutako pisu batean bizitzera.

11. taula: Emantzipazio prozesuak (Urduña, 2003)

Baliabidea	Adin tx. kop.
Tutoretza pisua (Goialde)	5
Alokatutako pisua	1
GUZTIRA	6

Iturria: Gabriel M^a de Ibarra Zentroa


2.3. Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Gipuzkoan, txosten honetarako datuak jaso zirenean, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrentzako bi harrera zentro zeuden: Urnietako larrialdi Zentroa, lehen harre-rarakoa, eta Martuteneko Zentroa, egonaldi egonkorragoetarako. Lurralde honetan artatutako adin txikikoen datuak aztertzean, kontuan izan behar da gazte guztiak hasie-ran Urnietako Zentroan egoten direla eta bakar batzuk bakarrik igarotzen direla gero Martutenekora.

2.3.1. Harreran hartutako adin txikiko kopuruaren gaineko datuen garapena

Gipuzkoa osoan hilabete amaieran artatutako adin txikikoen datuak hartuz gero, bi zentroak 2004an aurreko urtean adina okupatuta ez direla egon ikusten dugu. Adin txikikoen kopurua 2003ko urrian jaitsi zen, batez ere, larrialdiko artatzeetan sekulako beharakada egon baitzen.

15. grafikoa: Gipuzkoan hilabete bakoitzaren bukaeran artatutako adin txikikoak. Urnietako eta Martuteneko Zentroak (2003-2004)



Iturria: Urnietako eta Martuteneko Zentroak

Egoten diren batezbesteko denborari dagokionez, Martuteneko Zentroko datuak bakarrik ditugu, eta zentro egonkorragoa da hau. 2003an hortik igaro ziren gazteak 6,68 hilabete egon ziren gutxi gorabehera: eperik luzeena urtebete izan zen eta laburrena, berriz, bi hilabete inguru.

Irteeren edo bajen zergatiei dagokienez, gehienak ihes egindakoak izan direla ikusten da, ondoren datoz adin nagusiko bihurtu eta horregatik zentroa utzi behar izan zutenak.

12. taula: Irtearen arrazoiak (Gipuzkoa, 2003)

Arrazoa	Irteeren kopurua
Adin nagusia	22
Ihesak	89
Internatzeko neurri judiziala betetzeko	1
Zentroz aldatu	3
Senideekin harrera	0
Bestelakoak	0
Irteerak edo uzteak osora	115

Iturria: Urnieta eta Martuteneko Zentroak

2.3.2. Artatutako adina eta jatorria

Gipuzkoan artatutako adin txikikoen batezbesteko adina 16 urte da, baina zentroaren arabera adin horrek gora edo behera egiten du. Urnietan 2003an artatu zirenen batezbesteko adina 15,8 urte izan zen eta Martutenen artatutakoena 17,6 urte. Urnieta lehen harrerako zentroa denez, gazteagoak dira, aldiz, Martutenen adin nagusiko izatetik gertu daude gazteak.

Jatorriari dagokionez, Gipuzkoan artatutako gazteak, beste lurralde historikoetan artatutakoak bezala, Magrebekoak dira nagusiki. Maroko nabarmentzen da eta ondoren, urrun, Aljeria dago. 2003an artatutako 10etik ia 3 Magrebekoak ziren; Urnietan artatutako %73 hangoak ziren eta Martutenen artatutako 13 gaztetatik 12 ere bai.

Azpimarratzekoa da artatu ziren emakume guztiak, zazpi, Europakoak zirela (1 Kroaziakoa, 3 Errumaniakoak, 2 Frantziakoak eta 1 Portugalgoa).

2.3.3. Adin txikikoen egoera administratiboa

Egoera legala oso alderdi garrantzitsua da adin txikikoen prozesurako eta aipatu beharra dago 2004an emandako egoitza eta lan baimenak gutxitu egin direla, batez ere lehenbizikoak.

13. taula: Agiriak tramitatzea Gipuzkoan (2003-2004)

Agiriak	2003	2004
Pasaporte eskaerak	5	6
Lortutako pasaporteak	3	3
Egoitza baimenerako eskaerak	5	3
Lortutako egoitza baimenak	7	1
Lan baimenerako eskaerak	2	1
Lortutako lan baimenak	2	-

Iturria: Urnieta eta Martuteneko Zentroak

2.3.4. *Artatutako gazteek egindako jarduerak eta emantzipatzeko aukerak*

Adin txikikoek egindako jarduerari dagokienez, bi zentroetako egoera oso desberdina da. Urnietako larrialdiko harrera zentroan (14. taula) jarduera gehienak alfabetizazioan oinarrituta daude, eta adin txikiko denek hartzen dute parte. Lanbide heziketako jardueretara, aldiz, artatutako adin txikikoetatik 15 joan dira. Martutenen, aitzitik, 2003an artatutako adin txikiko denak joan dira lanbide heziketako ikastaroetara, espezialitate desberdinetan (15. taula). Esan beharra dago, bi gazte, Martuteneko zentrokoak biak ere, lanean hasi direla; bata, ostalaritzan eta bestea, okindegi bateko lantegian.

14. taula: Prestakuntza jarduerak (Urnietak, 2003)

Prestakuntza jarduerak eta ikastaroak	Ikasle kop.
Alfabetizazio gela	Denak
SARTU	6
LHIK	9
GUZTIRA	15

Iturria: Urnietako Zentroa

15. taula: Prestakuntza jarduerak (Martutene, 2003)

Prestakuntza jarduerak eta ikastaroak	Ikasle kop.
Sukaldaritza	2
Eraikuntza metalikoak	4
Soldadura	4
Iturgintza	2
Autoen txapa-pintura	1
GUZTIRA	13

Iturria: Martuteneko Zentroa

2003an gazteek izandako emantzipazio prozesuari dagokionez (16. taula), 24 mutikok hartu dute parte eta horietatik 16 Urnietako Zentroan bizi ziren, besteak Martutenekoan. Gipuzkoan dauden egoitza baliabide desberdinetara jo dute gazte hauek, edo banatutako pisuetara ere bai.

16. taula: Emantzipazio prozesuak (Urnietak eta Martutene, 2003)

Baliabideak	Gazte kop.
Sorabilla	1
Loiolaetxe	2
Besteak	13
Banatutako pisuak	7
Jesuiten zentroa	1
GUZTIRA	24

Iturria: Urnietak eta Martuteneko Zentroak

2.4. Adin txikiko atzerritarren ahotsa: ibilbideak, itxaropenak, beharrak

Zenbaitetan, biztanleriaren sektore jakin baten arazoak edo egoerak aztertzerakoan edo azaltzerakoan, eta bereziki sektore marjinal batez edo behar bezala antolatuta ez dagan sektore batez hitz egiten dugunean, iturri eta ikuspegi desberdinak hartzen dira kontuan, sektore hori osatzen duten pertsonenenak alde batera utziz. Txosten hau garatzerakoan erabiliko genuen lan-metodoa erabakitzerakoan oso ohikoa den praktika hori saihestu nahi izan genuen eta, horretarako, bisitaldia egiterakoan zentroetan hartuta zeuden adin txikiko kopuru garrantzitsu batekin edota horietan egon ondoren jadanik emantzipatuta zeuden horiekin elkarrizketa pertsonalak izatearen aldeko apustua egin genuen.

Guztira 38 elkarrizketa gauzatu eta transkribatu dira: 33 mutili eta 5 neskei egin zitzaizkien. Mutiletatik, 8 Bizkaiko balibideetan zeuden, 10 Gipuzkoako babes-zentroetan, 11 Araban eta beste 4 erreforma-zentroetan. Gehienak, elkarrizketa izan genuen unean, harrera-zentroetan edo –balibideetan bizi ziren, eta bertan egin ziren elkarrizketak. Baina jadanik emantzipazio-pisuetara pasa ziren zenbaitekin ere izan genituen elkarrizketak.

Ez da hartutako adin txikiko guztien lagin ordezkatzailerik bat; bai da, ordea, beraien lagin ordezkatzailerik bat. Elkarrizketatuak izateko hautatu genituenean zenbait faktore hartu genituen kontuan: zentroan denbora bat eramatea (ez izatea iritsi berriak); gaztelaniaren gutxieneko ezagutza izatea, elkar ulertu ahal izateko modukoa; hitz egiteko gogoia izatea edo, gutxienez, hitz egiteko oztoporik ez izatea... Zenbait kasutan beraiek izan ziren, ekimen propioz, elkarrizketatuak izatea eskatu zutenak.

Elkarrizketaren helburuen arabera, gehien interesatzen zitzaizkigun gaien inguruko aurretiazko eskema bat prestatu genuen; orain arteko ibilbidea; itxaropenak; harrerari buruz egiten duten balorazioa; etorkizunerako planak; hobekuntza-proposamenak;... (ikus Txosten honetako 2. eranskina). Hasiera batean elkarrizketak magnetofonoz grabatzea planteatu genuen, transkribapena errazagoa izan zedin edo esandakoa zehatzago jaso ahal izateko. Baina adin txikikoen erreparoa ikusi ondoren, magnetofonoa utzi eta elkarrizketak aurrera egiten zuen heinean oharrak hartzen joatea erabaki genuen. Hori horrela, hemen jasotako transkribapenak hartutako oharrei dagozkie.

Elkarrizketa bakoitzaren laburpenak eskaini aurretik, hona hemen zenbait ohar:

- Elkarrizketatuaren nortasuna ezagutzea saihesteko –edo, gutxienez, ez errazteko– izena (normalean inzialak ordeztua), jatorrizko herria, txikia bada, edo erraz identifikatu daitezkeen beste datu batzuk ez ematea erabaki dugu. Kasuren batean, daturen bat aldatu ere egin da, edo hartzen dituzten lurraldeari buruzko erreferentziak ezabatu egin dira.
- Ezinezkoa izan da elkarrizketak beti baldintza egokienetan gauzatea (lasaitasuna, intimitatea, hizkuntzaren ulermena,...). Hala ere, ia kasu guztietan aurkitu dugun prestutasuna, beren esperientziak kontatzeko irrika edo ekarpenak egiteko gogoia azpimarratu behar dugu.
- Beren testigantzak hemen islatzeko moduari dagokionez, ahal den neurrian, bakoitzaren espresio-moduak errespetatzen saiatu gara.

- Kapitulu honetan elkarriketaren zati bat besterik ez dugu jasotzen. Izan ere, egokiagoa iruditu zaigu beste zatia (harreraren egoerari buruzko balorazioei edo hobekuntza-proposamenei dagokiona), hurrengo kapituluaren amaieran sartzea (ikus 3.7. atala: “Adin txikikoen balorazioa jasotako arretari buruz”).

Hortaz, jarraian datorrena elkarriketaren laburpen bat da, jatorrizko herrialdean bizi zuten egoerari, honaino iritsi arte egin duten ibilbideari, eta beren itxaropenei edo etorkizuneko planei erreferentzia egiten dieten puntu horietan.

2.4.1. **Beren esperientziaren kontakizunak (38 kasu)**

B-1 kasua

F. J., 17 urte elkarriketa egin genion unean. Urtebete eta lau hilabete daramatza zentroan. Lehenago Bartzelonako zentro batean egon zen eta, ondoren, denbora batez, Kataluniako beste hiri batean, etxea lehengusu batekin konpartitzen. Hona etortzea erabaki zuen, zentro honetaz oso ondo hitz egin baitzioten.

“Bere familiak Iparraldeko portuetako batetara eramango zuen taxia ordaindu zion. Ondoren muga zeharkatu zuen, kamioi batean ezkutatu-ta, bakar-bakarrik”

Marokoren hegoaldeko dator, 2.000 biztanle dituen herrixka batetik. Bere herriko beste hiru gazte zentro honetan daude baita ere, edo zentro honetatik pasa dira. 7 senideko familia bateko hirugarrena da. Telefonoz hitz egiten du bere familia-rekin. Handik 15 urte zituenean irten zen. Une horretara arte eskolatua zegoen. Bere familiak Iparraldeko portuetako batera eramango zuen taxia ordaindu zion. Ondoren muga zeharkatu zuen, kamioi batean ezkutatu-ta, bakar-bakarrik.

Bidaiaren motibazioa oso argia da: “*Han ez dago lanik. Dirua behar dute ondo bizitzeko*”.

Spainiara iritsi zenean ez zekien gaztelaniaz hitz egiten. Hala ere, bere anai zaharrenak alfabetoa erakutsi zion eta, ondorioz etorri aurretik jadanik “*irakurtzen*” zituen liburuak. Ondoren Bartzelonako aterpetxean ikasi zuen gaztelaniaz hitz egiten.

Lagunak ditu zonaldean...

Ez die garrantzi gehiegirik ematen erlijio-gaiei. Nolanahi ere, diferentziak errespetatzen direla uste du.

Etorkizunerako dituen planei dagokienez, honela laburbiltzen ditu: zurgintza beste urtebetez ikastea, eta, ondoren, lan egitea. Izan ere, jadanik jardun da lanean uda batez, bai boluntario gisa eta baita zonaldeko zur-lantegi batean ere.

B-2 kasua

J. A., 17 urte 18 egiteko elkarriketa egin genion unean. Bi urte daramatza zentro honetan. Lehen 8 hilabete egin zituen Bartzelonako zentro batean. “*Ez nengoen gustura. Ez zuten ez paperik eta ez horrelakorik ere egiten*”. Hona etorri zen zentroaz oso ondo hitz egin zioten lagun batzuk ezagutzen zituelako.

“Hona etorri zen zentroaz oso ondo hitz egin zioten lagun batzuk ezagutzen zituelako.”

Fezetik dator. Bertan ikasten aritu zen 15 urte egin zituen arte. Orduan muga zeharkatu zuen. 9 senidez osatutako familia batetako gazteena da. “*Bizitza bilatu behar dut, lana, aukera gehiago*”.

Lehenik eta behin, ikasi egin nahi zuen, ondoren berehala lanean hasteko. Ondoren, errealitatea konplikatua izan da, nahiz eta une honetan eman-

tzipazio-pisu batera joatekotan dagoen, eta lana ahal bezain laster aurkitzea espero duen.

Hainbat adar profesionaletan trebatu da (elektrizitatea, klimatizazioa, aluminiozko aro-terria), praktikatan dabil eta oraindik ez du lan-eskaintzarik. Egoitza-baimena du.

Nahiko bizitza autonomia egiten du: musika-talde batean jotzen du, ez du harreman handirik bere kideekin, nolabaiteko ordutegi-askatasuna du, meskitara joaten da,...

Hezitzaileekiko harremanari dagokionez, batzuekin ondo moldatzen dela dio, baina beste batzuekin ezetz. Arazoren bat egonez gero zuzendariarengana jotzen du.

Lauko logela batean egiten du lo, beste hiru pertsonekin. Baina hori ez da arazoa berarentzat. Lo egiteko besterik ez du erabiltzen.

Bere familiarekin telefono bidezko harremana mantentzen du; astero hitz egiten du beraiekin.

B-3 kasua

H.k 18 urte zituen elkarriketa egin zitzaionean. 7 hilabete daramatza zentroan. Espainiara iritsi zenean, lehendabizi Almeriara joan zen; izan ere, bertan tomatte-bilketan lan egiten zuten lagun batzuk zituen. Handik Bartzelonara joan zen, eta bertan entzun zuen Bilboko zentro batean oso ondo egoten zela, horregatik erabaki zuen hona etortzea.

Rachidiatik gertu dagoen herri txiki batetik dator. Zazpi senidetatik zaharrena da; lau arreba eta bi anai ditu. Telefonoz hitz egiten du bere familiarekin. Beraiek dira deitzen dutenak; izan ere, beste herri batera igo behar dute deitu ahal izateko, beren herrian ez baitute telefonorik.

Espainiara etorri aurretik, bere gurasoen etxetik irten eta Nadorrera joan zen, Marokoren iparraldeko hiri batera, lan bila. Bertan lagunak eta lehengusu bat zituen, eta Rachidian ez zuen lanik bilatzen. Eskaiolista gisa aritu zen lanean, autobus baten azpian Espainiara iristea lortu zuen arte. Bere herrialdetik alde egitera hobeto ordaindutako lan bat bilatzeko irrikak bultzatu zuen, *“Marokon oso gutxi ordaintzen baitute, hemen hobeto”*.

Zentroko lorezaintza-lantegira joan ohi da, baina ez zaio gehiegi gustatzen. Berak eskaiolari buruzko ikastaro bat egin nahiko luke. Aldi berean, gaztelania-eskolatara joaten da, El Saltillo Zentroan.

Agiriei dagokienez, berak oraindik ez ditu lortu. Prozesua azkarragoa izatea nahiko luke. Lana ere ez da berak espero zuena bezain azkar bilatzen.

Zentroko edo pisuetako jendearekin erlazionatzen da, eta batez ere bereberrekin, bera ere berebera da eta.

Etorkizun batean bere sorterrira itzuli nahiko lukeen galdetu diogunean, berak erantzun du Marokon ez duela inolako etorkizunik. Bilbon geratzea gustatuko litzaioke, eta Marokora bisitan joan.

B-4 kasua

M.k, elkarriketa egin genionean, 17 urte zituen, 18 egiteko. Duela urtebete eta hiru hilabete iritsi zen zentrora. Rachidiatik gertu dagoen herri batetik dator.

“Lana ere ez da berak espero zuenak bezain azkar bilatzen. Bilbon geratzea gustatuko litzaioke, eta Marokora bisitan joan.”

Zazpi senidetatik bigarrena da, eta hemendik gutxira beste anai bat izango du. Noizean behin telefonoz deitzen die.

“Hara itzultzen banaiz, oporretarako izango da, eta kito”

Espainiara etortzea erabaki zuenean ikasten ari zen. Uda batean bere gurasoek dirua eman zioten Nadorrera lagun batzuk bisitatzea joateko. Bertan geratzea eta lana bilatzea erabaki zuen. Sei hilabete egin zituen han eta aldizka egin zuen lan. Espainiara joateko hainbat saiakuntza egin zuten. Lehenengo aldian, Marokoko polizia harrapatu zuen eta, jipoitu eta zenbait orduz bertan eduki ondoren, aske utzi zuten. Azkenean, autobus batean ezkutatuta Jaenera iristea lortu zuen. Zenbait egun iragan ondoren emakume marokoar batekin egin zuen topo; emakume hark dirua eman zion eta bere etxera eraman zuen. Bere gurasoak lokalizatu zituen, eta hauek, Marokora itzultzea nahi bazuten ere, Castellóko ezagun bati deitu zioten, bere etxean har zezan. Hori horrela, gizon horrek bere etxean hartu zuen. Baina berak ez zuen gehiago jasaten eta Bilbora etortzea erabaki zuen. Izan ere, Bilbon hau oso ondo zegoela esaten zion jendea ezagutzen zuen.

Marokotik alde egitea erabaki zuen hemen egon ondoren Marokora itzultzen jendea ikusten baitzuen, eta zein ondo bizi ziren ikusten zuen, autoekin jaisten zirela, eta Marokon ezin da ezer egin.

Egun soldadura-ikastaro batera joaten da goizetan, eta arratsaldetan herriko atletismo-talde batean entrenatzen du. Ez da irtetan asteburuetan, eta gehienbat zentroko zenbait pertsonekin edo atletismo-taldeko kideekin erlazionatzen da.

Zailtasunik handiena: agiriak; gehiegi luzatzen da prozesua. Paperak ez izateak eragin handia omen du bere gogo-aldartean, eta zailagoa egiten omen zaio bati lana egitea eta baita entrenatzea ere: *“Horretarako lasai egon behar baita”*.

Etorkizunean bertan geratzea espero du, lan on bat lortzea eta etorkizun ona izatea: *“Hara itzultzen banaiz, oporretarako izango da, eta kito”*.

B-5 kasua

M. A., 21 urte elkarrizketa egin zaion unean. Lehen zortzi hilabetez hartu zuen zentroaren mende dagoen emantzipazio-pisu batean bizi da. Beni Mellaletik dator. Han zurgintza-ikastaro bat egiten zuen. Bederatzi anai dira, eta bera zazpigarrena da. Bere aita egun erretirata dago, baina polizia izan da. Telefonoz hitz egiten du bere familiarekin.

“Nik gauza bera egin nahi dut, nire familiari lagundu nahi diot, ez dut nahi miserian jarraitzea”. Baina guztia errazagoa izango zela uste zuen.

Emigratzea erabaki zuen, herrira itzultzen zen jendeak etxe onak zituela eta ez zitzaioela ezer falta ikusten baitzuen. Familiaren bizitza aldatzen zen. *“Nik gauza bera egin nahi dut, nire familiari lagundu nahi diot, ez dut nahi miserian jarraitzea”*. Baina guztia errazagoa izango zela uste zuen, lana bilatzea erraza zela, eta benetan ez dela horrela gertatzen ikusi du.

“Pisuan askoz ere erlaxatuagoak gaude, lasaiago, bizitza beste modu batetara ikusten dugu”

Emigratzeko erabakia hartu zuenean 17 urte zituen, eta Tangerrera joan zen, muga zeharkatzen saiatzeko xedez. Lehenengo aldian Algecirasera iritsi zen, baina harrapatu egin zuten eta Marokora itzuli behar izan zuen. Berriro saiatu zen. Granadara iritsi zen, eta bertan polizia harrapatu zuen. Tarragonako zentro batean amaitu zuen. Bertan eman zituen sei hilabete. Goizetan katalanera ikasten zuen eta arratsaldetan eskolatara joaten zen, pertsona espainiarrekin batera.

Egun enpresa batean ari da lanean, baina ez du kontraturik, paperik gabe dagoelako.

Zentroz aldatu zuten, eta Reuseko beste batera eraman zuten. Bertan 2 edo 3 hilabetez egon zen, baina berak lanean hasi nahi zuen eta han adin txikikoa zela eta ondorioz ezin zuela lanik egin esaten zioten. Orduan Frantziara joatea erabaki zuen. Nizan egon zen hilabetez; mendian egin zuen lan, adar txikiak jasotzen zituen, ondoren saldu eta bizi ahal izateko. Anai bat du Almerian, eta, ondorioz, Frantzian hilabetez egon ondoren berarengana joatea erabaki zuen. Baina han oso baldintza txarretan bizi zen. Anaiak tomatea biltzen egiten zuen

Ez du lagun euskaldunik.

lan, eta beste mutil batzuekin bizi ziren, etxola txikietan. Oso goiz jaikitzen ziren, negutegiz negutegi lan bila joateko. Lana astean hirutan edo lautan aurkitzen zuten. “*Oso gaizki ordaintzen zuten lan oso gogorra egiteagatik*”. Gainera, “*lanik ez zegoela ikusten zutenean, guardiak etortzen ziren eta mutikoak harrapatu egiten zituzten*”.

Almeriatik joatea erabaki zuen, eta Tarragonara itzuli zen. Han Saloun lan egiten zuten lagun batzuk ezagutu zituen; patata biltzen jarduten ziren, eta beraiekin joatea erabaki zuen. Han Loizuz hitz egiten entzun zuen: “*ondo portatuz gero, bizi-modu ona eta lana; bestela, ezer ez*”. Horrela, hona etortzea erabaki zuen.

Berarentzat oso larria den arazo bat disolbatzailearena da. “*Marokon arriskatu nahi dutelako hartzen dute, zer egiten duten ez jakiteko, eta, gehienek, hona etortzen direnean, utzi egiten dute, baina beste batzuk ez. Beste batzuk guztiaz ahanzteko hartzen dute, denbora pasatzeko, baina galtzen ateratzen dira.*”

Pisuari dagokionez, lau marokoar elkarrekin bizi dira. Beraiek antolatzen dira etxeko lanak egiteko eta lanera joateko. “*Pisuan askoz ere erlaxatuagoak gaude, lasaiago, bizitza beste modu batera ikusten dugu*”.

Hemen jendeak guztiak gaiztoak direla uste duela dio. “*Normala da konfiantzarik ematen ez baduzu, eta hemengo jendeak galdu egin du konfiantza hori. Errua mutikoena da, hemengo jendea oso ona da*”.

Egun enpresa batean ari da lanean, baina ez du kontraturik, paperik gabe dago-elako. Lanean hasi zenetik dirua bidaltzen dio bere familiari. Beste bi anai ditu Espainian, bata Almerian eta bestea Bilbon.

Bere lagunak zentroan ezagutu dituen beste marokoarrak dira. Ez du lagun euskaldunik.

Hemen geratzeko asmoa du, bere familiaren egoera hobetu dadin.

B-6 kasua

O. L.k 20 urte ditu eta pisu alokatu batean bizi da. Marokoren iparraldetik dator, Nadorretik. Bere familia bertan bizi da. Bost anai-arrebatatik bigarrena da. Bere aitak baratze batean egiten du lan. Familiarekiko harremana mantentzen du, batez ere arreba zaharrenarekiko harremana, oso konfiantza handia baitu berarekin. Hemen dagoenetik jadanik joan da bi aldiz Marokora, eta uda honetan berriro joatea espero du.

Marokotik 17 urte zituenean irten zen. Alde egin zuenean bere osabarekin egiten zuen lan, zurgintza metalikoaren sektorean. Bere osaba beste hiri batean bizi zen, eta, horregatik, jadanik ez zen bere etxean bizi. Ez omen zuen Espainiara etortzeko asmorik, baina lanean ari zela ontzi batean lan egiten zuen gizon bat ezagutu zuen, eta honek nahi izanez gero muga ontzian zeharkatzen lagunduko ziola esan zion. Bere familatik arreba zaharrenak besterik ez zekien Espainiara joango zela, baina Espainiara iritsi zenean gurasoei ere esan zion.

Espainiara iritsi zenean ondoko hau galdetu omen zion bere buruari: “*Nola egingo dut nik hau? Ez dut inor ezagutzen... Nola egingo ditut nik paperak?*”

Cartagenara iritsi zen ontzian. Han Bartzelonarako autobus bat hartu zuen. Lau egun kalean eman zituen, parke batean bizitzen. Adin txikikoentzako zentro baten helbidea ematen dion aljeriar bat ezagutu zuen. Bertan bi hilabete egin zituen, baina ez zegoen gustura. Lau hilabete falta zitzaizkion adinez nagusi izateko, eta Bilbon paperak egiten zituztela entzun zuen. Hortaz, autobus bat

Espainiara iritsi zenean ondoko hau galdetu omen zion bere buruari: “*Nola egingo dut nik hau? Ez dut inor ezagutzen... Nola egingo ditut nik paperak?...*”

“*Nik ez dut inor hemen, nire nagusia eta zentroko zuzendaria bakarrik*”.

hartu eta Bizkaira etortzea erabaki zuen. Garellanora iristean, zuzenean joan zen poliziarengana. Han, poliziak adin txikikoa zela egiaztatzen zuten, pasaporteari esker, eta zentrorera eramanean zuten.

Zentrorera urrian iritsi zen eta apirilera joan zenean lanean ari zen, denbora batez zentroko lantegi batean jardun ondoren. Egun lehenengo lan horretan jarraitzen du, zurgintza metalikoko enpresa batean. Urtebete baino gehiago darama lanean. Bere nagusiari esker bilatu zuen alokairuzko pisu batean bizi da, Marokoko beste bi mutilekin batera.

Marokoko jendearekin eta bere laneko kideekin erlazioz aritzen da. Bere nagusiaren etxera ere maiz joaten da. Baina, hala ere, ondoko hau dio berak: *“Nik ez dut inor hemen, nire nagusia eta zentroko zuzendaria bakarrik”*.

Hemengo jendeak, hasieran, mesfidantzaz begiratzen ziola dio, baina *“ezagutzen nauenean eta pertsona ona naizela ikusten dutenean, lagundu egiten naute. Formala naizela ikusten dute. Jendea ez da arrazista, baina zutaz gaizki esaten ari direla entzuten dute, eta... Baina ezagutzen zaituztenean, oso ondo”*.

Bere etorkizunari buruz galdetzean, lehen Frantziara edo Alemaniara joateko asmoa zuela erantzuten du, baina orain ez du gauza bera pentsatzen, hizkuntza berri batekin hasi beharko luke... Honako hau dio: *“Orain hemen ondo nago, pozik nago, librea naiz, inork ez du nigan agintzen, baina, bestalde, zer egiten dut nik hemen bakarrik?”*.

B-7 kasua

Lau arrea ditu eta bera da zaharrena. Telefono bidezko harremana mantentzen du bere familiarekin, baina ez du harreman zuzenik: *“Asko gustatuko litzaidake. Haien falta sentitzen dut”*

H. R. etxe funtzional batean bizi da. Elkarrizketa egin zitzaion unean 4 hilabete falta zitzaizkion 18 urte egiteko. Praktikak amaitu ditu eta, LHZ batean ikasi ondoren, igeltsero-mutil gisa jarduten da. Orain baja egoeran dago, lesio bat dela eta, eta, kontraturik ez duenez, ez du ezer kobratzen. Egoitza-baimena du.

Zailtasun askoren ondoren, lesionatu arte lantegi izan duen enpresaren lan-eskaintza bat lortu du eta, horrela, lanerako baimena eskatu ahal izan du. 18 urte bete aurretik lortzea espero du.

2001eko uztailetik dago hemen. Lehendabizi Loiu egon zen, ondoren Urduñan, eta orain etxe batean. Bere ibilbideak Melillatik Bartzelonara eramanean zuten, eta handik Frantziara. Frantziatik, azkenean, Bizkaira. *“Bilbon paperak lortzen dira”*, esan zion lagun batek Bartzelonan.

Lau arrea ditu eta bera da zaharrena. Telefono bidezko harremana mantentzen du bere familiarekin, baina ez du harreman zuzenik: *“Asko gustatuko litzaidake. Haien falta sentitzen dut. Beraiek ere sentitzen dute nire falta”*.

Etorkizunari dagokionez, bere asmoak argiak dira: hemen lan egitea, igeltsero gisa, familia laguntzeko, dirua bidaltzeko. Paperak eta lana izanez gero, *“pisu bat alokatu eta bizimodua aterako nuke”*. Bestela, *“izorratuta”*.

Aletismo-elkarte batean parte hartzen du, eta oso pozik dago lagunak dituelako.

B-8 kasua

R.k. 16 urte ditu eta etxe funtzional batean bizi da. Marokoko herri batetik dator. Urtebete darama Bizkaian, baina duela asko alde egin zuen bere herrialdetik; 10 urte zituen Europara etortzea erabaki zuenean; *“bizimodua atera nahi nuen”*.

Ordutik Espainiako hainbat lekutan egon da. Almerian egin zen lanean, Alacanteko zentro batean ere egon zen, Bartzelonako beste batean eta familia batekin ere. Bartzelonan zentro batera joatea proposatu zioten, baina berak ez zuen nahi: *“Ez bazoaz zentrorra, berriro Marokora bidaltzen zaituzte”*, dio. Bizkaira etorri zen, hemen paperen arazoa konpontzen zutela entzun baitzuen.

Marokon familia bat du: bere gurasoak, lau anaia eta arreba bat. Erregulariki hitz egiten du beraiekin telefonoz. Inoiz ez da eskolara joan: *“ni, zuzenean kalera”*, dio.

Egun ikastaro bat egiten ari da LHZ batean; lehenengo ikasturtea amaitu berri du. Zentro horretan gaztelania-eskolak ere hartzen ditu. Oso pozik dago jarduerekin.

Bizkaira iritsi zenean zentro batean hartu zuten, eta bertan egon zen hiru hilabetez. Ondoren beste zentro batera joan zen, eta bertan bederatzita hilabete egin zituen, *“hasieran ez nuen zentro horretara joan nahi, eta behartu egin ninduten; baina gero oso ondo”*. Elkarrizketa egin genionean hiru aste zeramatzen etxe funtzional ireki berri batean. Oso denbora gutxi daramatela dio, eta ikusiko dela nola moldatzen den: *“Hezitzaileek ere askotan ez dakite, eta itxaroteko esaten didate, berria dela”*.

Hemen batez ere Marokoko beste mutilekin erlazionatzen da. Bere etorkizunari buruz galdetzean, ondoko hau dio: *“Hemen geratzeko nire familia ekarri beharko nuke, edo hemen geratu eta oportetarako Marokora joan”*. Oraingoz, uda honetan lan egin nahiko luke. Oraindik egoitza-baimena besterik ez du.

G-1 kasua

I. zentro batean bizi da elkarrizketa egin zaion unean. 16 urte ditu eta Marokoko landa-ingurune batetik dator, 1.000 biztanle inguru dituen herrixka bereber batetik. Bere familia bertan bizi da eta hilean behin hitz egiten du beraiekin. Sei anaietatik gazteena da.

Han sei bat hilabetez besterik ez zen egon eskolatua. Eraikuntzaren sektorean egiten zuen lana, peoi gisa. Tangerren egon zen hilabetez, muga zeharkatzea lortu zuen arte.

Hona iritsi aurretik pare bat hilabete egin zituen Granadan (*“jende asko”*; *“paperik ez”*; *“kanporaketak”*) eta aste batzuk Bartzelonan (lehendabizi aterpe batean eta ondoren zentro batean). Hona autobusez etorri zen, eta poliziarengana jo zuen.

Gaztelania ikasten ari da, lantegi batean praktikatan hastekotan dabil, argiketari gisa aritu nahi du, ... *“Lana egin nahi dugu”*, dio behin eta berriz.

Lagunak omen ditu herrian eta HHE zentroan.

Bere itxaropenak: *“Gaztelania-eskolak hartu nahi ditut, lantegiak, lan egin nahi dut”*.

G-2 kasua

M. A., 16 urte. Hamaika urte dituenetik dago Espainian, baina ez du inolako agiririk. Ordura arte bere amarekin bizi zen, Casablancatik gertu dagoen herrixka batean. Ia ez zen eskolara joan: *“ikasi nahi baduzu, dirua ordaindu behar duzu”*, dio. Hamaika urterekin laurogei egun eman zituen Tangerren eta hiru aldiz itzuli behar izan zuen Algecirasetik. Azkenean muga kamioi batean, *“gur-*

10 urte zituen Europara etortzea erabaki zuzenean; *“bizimodua atera nahi nuen”*. Ordutik Espainiako hainbat lekutan egon da.

Oraindik egoitza-baimena besterik ez du.

“Lana egin nahi dugu”.

Hamaika urte dituenetik dago Espainian, baina ez du inolako agiririk.

pilen gainean”, beste bi lagunekin batera zeharkatzea lortu zuen. Lagunetako bat hil egin zen bidaia hartan.

Algecirasen urte pare bat egin ondoren, Bartzelonara joan zen; hasieran aterpetxean egiten zuen lo, baina ondoren harrera-zentro batean jarri zen bizitzen. Marokora itzularazia izateko arriskuaren aurrean, hezitzaileetako batek dirua eman zion autobuserako: *“hobe ihes egiten baduzu”*. Horrela, Gipuzkoara iritsi zen. Hemen dago duela bi urtetik, harrera-zentrotik sartuz eta irtenez. Azkenekoz sartu zenetik hiru hilabete daramatza bertan.

Zentroa zergatik uzten duen galdetzen zaionean, ondoko hau erantzuten du: *“lagunak”, “gaua”, “trapitxeoa”,...*

Arazoak izan ditu Justiziarekin eta baita poliziarekin ere (atxiloketa oso bortitza). Zaintzapeko askatasuneko zigor bat betetzen ari da.

Bost urtez ez zuen inolako harremanik izan bere familiarekin. Familiak hilda zegoela pentsatu zuen. Azkeneko hilabeteetan beraiekin harremanetan jartzea lortu du, lagun bati esker. Bost anaia ditu; batzuk amarekin bizi dira eta beste batzuk aitarekin. Izan ere, gurasoak bananduta daude.

2003. urtetik hemen ere badu laguntza-familia bat; beraiekin bizi da asteburuetan. Agirien izapidetzean edo ikasketetan laguntzen die... Salbuespenezko egoera bat da eta berak asko baloratzen du: *“Nik hobeto sentitzen naiz beraiekin”*.

Goizetan gaztelania-eskolak jasotzen ditu (ordubete), nahiz eta kexu den: *“mutil horiekin (bere ikaskideekin) ezin da ezer ikasi”*. Lantegi batean hasiko da, eta mekanika ikasi nahi du, ondoren mekaniko gisa lan egiteko. Martuteneko Zentrorra joan nahi du.

Lagunak omen ditu Donostian. Lanean hasiz gero dirua bidaliko omen die bere gurasoei.

G-3 kasua

A.k 16 urte zituen elkarrizketa egin zitzaion unean. Marokoa da, Beni Mellaletik dator. Han bere aitarekin aritzen zen lanean, landan. Bost anaietan zaharrena da. Bera bakarrik irten da Marokotik. Etxera deitzen du, hilabetean behin gutxi gorabehera. Hona etortzea erabaki zuen, Marokon lan asko egiten delako eta diru gutxi irabazten delako. Gainera, hemen ondo bizitzen zela uste zuen.

Bere aitak eman zion hona etortzeko dirua, eta Nadorreraino lagundu zion

Patera batean etorri zen Espainiara Al Hoceimatik. Bere aitak dirua eman zion, eta Nadorreraino lagundu zion. Behin Espainiara iristean, izendatzen duen lehen-dabiziko lekua Granada da. Bertan egun bat eman zuen zentro batean. Ondoren Murtziara joan zen, han osaba bat baitzuen. Han lau hilabete egin zituen, baina ez zuen ezer egiten, beraz aurrera jarraitzea erabaki zuen, bizimodua ateratzeko helburuarekin. Gipuzkoara Italiarantz jarraitu zuen lagun batekin iritsi zen. Hiru hilabete daramatza zentroan.

Bera lanera etorri dela dio, baina agiriak lortzeko denbora asko behar dela, eta, gainera, bere gurasoentzat oso zaila da behar dituen agiriak igortzea. *“Paperak nahi ditut, lana egin eta nire familia ikusteko”*, baina prozesua luzeegia da.

Etorkizunari dagokionez, Alemaniaranzko bidearekin jarraitu nahi du. Han diru eta lan gehiago dagoela uste du, nahiz eta ez duen inor ezagutzen. European bizi nahi du, eta Marokora oporretan bakarrik joango da.

G-4 kasua

L., Errumaniarra da. 16 urte ditu. Bost anaietan gazteena da. Bere gurasoek supermerkatu bat daukate. Bera ikaslea zen Errumanean, nahiz eta batzutan bere gurasoei laguntzen zien dendan. Bizimodua ateratzeko handik joatea erabaki zuen. Bere gurasoek laguntza ekonomikoa eman zioten; bidaiarako dirua eman zioten. Bere herrialdetik apirilaren 30ean irten zen, eta bi aste daramatza zentroan. Autobusez etorri zen, eta Alemaniatik eta Frantziatik iragan zen, Iruñera iritsi zen arte. Han, frantziar batek bere etxera eramian zuen, eta ondoren poliziarengana. Belgikara nahi zuen joan, baina hemen bukatu du.

Bere gurasoekin hitz egiten du, eta haiek itzultzeko esaten diote, baina berak ez du nahi. Lan egiteko asmoz etorri da eta hori da bilatzen ari dena. Zentroan aste batzuk besterik ez ditu egin nahi, eta ondoren lan bila jarraituko du. Bere itxaropenak ez dira bete. *“Hiru bat egunetan lanean egongo nintzela uste nien, baina jadanik bi aste daramatzat hemen eta ezer ez”.*

Orain gaztelania-eskoletara joaten da. Taldeko errumaniar bakarra da, eta horrek pisu handia dakar berekin; ez da zentroko beste mutilekin ia erlazionatu ere egiten. Hezitzaileekiko harremana ona da.

Baina berak oso argi du zertara etorri den, eta zentroak ez dio eskaintzen hori. Ondorioz, zentrotik alde egin eta lana bilatzera joango da, ez daki oso ondo nola, ate joka agian.

Etorkizunean, hemen bizi nahi du, lana aurkitzen duen lekuan. Ez du dirurik bidaliko bere etxera, *“han nahikoa dute bizitzeko”.*

G-5 kasua

S.k 16 urte eta erdi ditu elkarriketa egin zitzaion unean. Duela sei urte irten zen Marokotik. Aljerian jaio zen, baina oso txikia zela Tangerrera joan zen bere amarekin eta anai-arrebekin. Zazpi anai-arreba dira. Zaharrena Aljerian bizi da, bere aitarekin; beste bat Madrilen bizi da; eta gainerakoak amarekin bizi dira, Marokon.

Tangerretik Algeciras aldera kamioi batean irten zenetik, ez da geldirik egon. Iritsi zenean, Madrilen zegoen bere lehengusu bat bila joan zitzaion. Berarekin egon zen ikasten. Ondoren Europarantz joatea erabaki zuen. Alemanian, Holandan, Belgikan eta Frantzian egon da, bere egoera berean zeuden beste adin txikiko marokoarrekin. Herrialde horietan, zenbait zentroan egon zen, batez ere zentro itxietan, baina egonaldi luzeak egin zituen baita ere kalean.

Espanian ere alde batetik bestera ibili da. Bartzelonan egon da, zentro itxi batean; Madrilen hiru aldiz pasa da zentro beretik; Valentzian ere egon da; Euskadin ere erreformarako zentro itxi batean egon da. Orain 2 hilabete daramatza zentro ireki batean, zaintzapeko askatasuneko neurri judizialarekin.

Marokon ez omen dago ezer, han urte eta erdi ikasi zuen, baina Europarantz etortzea erabaki zuen. Berak hau desberdina zela usten zuen, paperak izango zituela eta lana egiteko aukera edukiko zuela, baina ez da horrela izan. Oraindik ez du agiriirik.

Bere familiarekiko harremana ez da hautsi; bere amari telefonoz deitzen dio bi astean behin, gutxi gorabehera. Paperak eduki nahiko litzuzke, Marokora ama bisitatzera joan ahal izateko.

Gaur egun Marokotik Espainiara etorri nahi duten adin txikikoei dagokienez, beraren iritzi *“zer dagoen ez badakite, hobe han geratzen badira”.*

Belgikara nahi zuen joan, baina hemen bukatu du. Zentroan aste batzuk besterik ez ditu egin nahi

Tangerretik Algeciras aldera kamioi batean irten zenetik, ez da geldirik egon. *“Zer dagoen ez badakite, hobe han geratzea”*

Zentroan aspertu egiten omen da, eta zaintzapean sentitzen da.

Orain arte gaztelania-eskolak hartzen zituen, bai goizez, boluntarioekin, eta baita arratsaldez ere, HHE zentro batean. Orain lantegi batean hasiko da.

Etorbizuneko planen artean hemen geratzea, paperak konpontzea eta Irunen bizitzea aurkitzen dira.

G-6 kasua

M.E.H., 14 urte, 15 hemendik gutxira. 8 hilabete daramatza zentroan; hona larrialdietarako harrera-zentrotik iritsi zen.

Elkarrizketa egin aurretik gatazka bat izan du paga (*“15 euro eman behar dizkidate”*) eta ordutegia (*“larunbatetan hamaikak arte besterik ezin dut egon”*) direla-eta. Bere egoera kideenarekin –zertxobait helduagoak- alderatzen du; izan ere, horiek zenbateko hori jasotzen dute edo beranduago etxeratzeko baimena dute. Berak hori bera eskatu zuen, eta ez dago ados hezitzaile-taldeak emandako ezkoarekin: *“Beraiei nahi dutena egiten dute beti”*, egiten du protesta.

Litekeena da goiz horretan bertan izandako istiluak bere balorazioengan eragina izatea; izan ere, balorazio horiek oso kritikoak dira: *“errespetuz hitz eginez gero, ez dizute jaramonik ere egiten; oihu egiten badut, berriz, jaramon pixka bat egiten didate”* laburbiltzen du bere analisia. Lau tutore izan ditu azkeneko 8 hilabeteetan, eta guztiekin arazoak izan dituela dio. Hiru urtetan (horiek geratzen zaizkion 18 urte bete arte) *“erotu egingo naiz beraiekin”* dio azkenean.

“Hobeto bizi da gurasoekin”; “Ez dago zure gurasoak bezalakorik; maitasuna ematen dizute”.

Eskolatuta egon zen Tangerren, 7. maila arte (7 urte egon zen eskolatuta). 12 edo 13 urterekin zenbait aldiz atxilotu zuten bai Tangerren eta baita Algecirasen ere, muga zeharkatu nahian. Jo egiten zuten. Marokoko polizia ematen zion tratuari buruz galdetu diogunean, berak ondoko hau esan du: *“Jo bakarrik ez; ia akabatu egin ninduten”*. Azkenean, 14 urte zituela, autobus aspian muga zeharkatzea lortu zuen, bakar-bakarrik.

Bere familia *“pila bat”* omen dira: zazpi anai-arreba, lehengusu bat,... Hilabete behin hitz egiten du beraiekin, telefono-txartelaren bidez. Paperak lortu nahi ditu, lana, eta ondoren bere familia bisitatu. *“Hobeto bizi da gurasoekin”; “Ez dago zure gurasoak bezalakorik; maitasuna ematen dizute”*, dio behin eta berriz, bere hango bizitza eta hemen bizi duen egoera alderatzerakoan.

Gipuzkoara etorri aurretik, Madrilén bizi zen (kalean). Sorian ere egon zen. Handik Donostiaranzko autobus bat hartu zuen: *“lagunak nituen hemen”*. Tren-geltokian bakarrik zegoela ikusi zuen gizon batek poliziari dei egiten zion, eta larrialdietarako harrera-zentro batera eraman zuten. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan bere adinaren arabera eskolatuta dagoen bakarra da zentroan. Taldean eta gelan ondo aurkitzen dela dio. Lagun *“dezente”* dituela ere esaten du. Batzuk hemengoak; gehienak marokorak, Donostian, Pasaian, Erreterian,... Datorren urtean mekanikako LHZ batean sartu nahi du, lanean hasteko. Izan ere, Marokon aprendiz gisa aritzen zen udatan, zurgintzan, soldaduran,...

G-7 kasua

O.k Ia 17 urte ditu. Urtebete eta erdi daramatza gure artean, eta urtebete zentroan. Dokumentazioari dagokionez, pasaporte badu, baina oraindik ez du lortu egoitza-baimena.

Tetuandik dator, bertan 9 urtez egon zen eskolatuta, eta udatan lan egiten zuen. Astebetetz Algecirasen egon ondoren Bartzelonara joan zen, lehendabizi aterpetxe

batera eta ondoren zentro batera. Han, 7-8 hilabete iragan ondoren, pasaportea lortu zuen. Frantziara joan nahi zuen. Urnietako Zentroa asko gustatu zitzaion; “Hemen bederatzi hilabetez egonez gero, guztia izango duzu” –esan zioten–, “baina urte eta erdi daramat hemen eta ezer ez”.

Bere itxaropenak: “*Lana eta etxe propioa*”. Horretarako, ikasi egiten du, soldadura-lantegi batean aritzen da lanean, eta iturgintza-ikastaro bat egingo du. Telefonoz hitz egiten du bere familiarekin. Bost anaia dira eta zaharrenak, bidaiaren batean, bisitatu izan du. Ez du hara itzultzeko asmorik. “*Familia ikus-teko besterik ez*” adierazten du.

Lagunekin ondo eramaten dela dio, toki guztietako lagunak –“*kolegak*”– omen ditu.

Zentroan zigor asko jartzen dizkiela uste du “*baina eutsi egin behar diogu zer-bait lortu nahi badugu behintzat. Ez zait ia ezer geratzen. Urtebete besterik ez*”. Zenbaitetan beste zentroekin alderatzen du: “*Bartzelonako zentroetan ez dago araurik baina jendez beteak daude, toki guztietako jendearekin... Berria bazara lapurtu egiten dizute*”. Berririo dio: “*Iraun egin behar da. Ni paperak eta lan bat lortzeko xedez etorri nahiz hona. Non hobeto? Iraun egin behar da*”.

G-8 kasua

16 urte ditu. Tangerretik dator. Han bederatzi urtez egon zen eskolatuta. Bederatzi anai-arreba ziren, eta horietatik seik bizirik jarraitzen dute. Guztiak Marokon daude, Aljerian dagoen beste anaia bat eta bera izan ezik. Bere familiarekin telefono-bidezko harremana mantentzen du. Tangerretik alde egin zuenean, duela urtebete, Algecirasera iritsi zen. Handik Frantziara joan zen, eta bertan hiru egun besterik ez zituen egin. Ondoren Gipuzkoara etorri zen. Alde egiteko arazoia bizimodua ateratzeko irrika izan zen.

Egungo zentroan hiru hilabete daramatza. Lehen beste bederatzi hilabete egin zituen beste harrera-zentro batean.

Orain Lanbide Hastapenerako Zentro batera joan ohi da. Gustatzen zaio. Jendearekin erlazionatzen da, bai Marokoko jendearekin eta baita hemengoarekin ere. Hemen daraman denboran denetik ikusi du, jende ona eta jende gaiztoa, munduko beste edozein lekutan bezala. Une honetan ez du egoitza-baimenik.

Etorkizun batean hemen geratzea gustatuko litzaioke. Bere familiari dirua bidaltzeari dagokionez, bidaltzekotan bere gurasoei bidaliko omen die, ez bere anaiei: “*Gazteak dira, atera dezatela bizimodua!*”.

G-9 kasua

A.k 17 urte eta erdi ditu. Bi urte daramatza zentroan. Tangerrekoa da. Han bere gurasoekin bizi zen. Zortzi anai-arreba dira. Bere gurasoek denda bat dute. Beste anai bat ere etorri da Europara. Frantzian dago, baina kanporatze-agindu bat du. Egungo telefono bidezko harremana mantentzen du bere familiarekin.

Bere hiritik duela bi urte eta erdi irten zen. Algecirasera iritsi zen. Sevillara joan zen, eta han harrera-zentro batean egon zen 10 egunez. Handik Madrilera joan zen, eta han astebete egin zuen. Ondoren Bizkaira iritsi zen, eta Loiuiko Zentroan egon zen bi hilabetez. Zentroa utzi eta Gipuzkoara etorri zen.

Marokotik joan zen lekuz aldatu nahi zuelako, baina hau ez da imajinatzen duen bezalakoa. “*Paperak ez dira hain azkar lortzen. Lana lortu nahi dut, baina*

“*Hemen bederatzi hila-betez egonez gero, guztia izango duzu*” –esan zioten–, “*baina urte eta erdi daramat hemen eta ezer ez*”.

“*Iraun egin behar da*”

“*Oraingoz, hemen geratu nahi dut, baina ondoren agian itzuliko nitzake Marokora, nork daki!*”.

“*Lehendabizi bizimodua atera behar dut*”.

oraindik ez dut ezer.” Lanerako baimena duela sei hilabete aurkeztu zuen, baina oraindik ez du erantzunik jaso.

Egun praktika batzuk hastekotan dago. Marokoko jendearekin nahiz eskolan ikasi duenarekin erlazionatzen da.

Etorkizunean ez daki oso ondo zer egin: *“Oraingoaz hemen geratu nahi dut, baina ondoren agian itzuliko nitzake Marokora, nork daki!”* Ez du dirua etxera bidaltzeko asmorik: *“Lehendabizi nik atera behar dut bizimodua, beraiek badute jadanik, denda bat dute”.*

G-10 kasua

Elkarrizketa egin zitzaion unean 15 urte zituen; abuztuan 16 egingo ditu. Tangerrekoa da, eta bertan bederatzi urtez egon zen eskolatuta. Azkeneko urtean oso gaizki ibili zen, eta ikasturtea errepikatuzera behartzen zuten. Berak ez zuen nahi, beraz Espainiara etortzea erabaki zuen. Hiru anaia ditu, bera hirugarrena da. Bere gurasoak bananduta daude eta amarekin bizi dira. Amarekin mantentzen du erlazioa.

Ez zuen imajinatu ere egiten hau den bezalakoa izango zenik.

Hilabete darama zentroan. Tangerretik Madrilerara joan zen, eta handik Donostiara. Lehendabizi 8 hilabete egin zituen Urnietako Zentroan, eta ondoren egungora iritsi zen.

Berak imajinatzen zuena desberdina omen zen. Bazituen hemen egondako lagunak, baina hala ere ez zuen imajinatu ere egiten hau den bezalakoa izango zenik.

Gaur egun mekanika-lantegi batean aritzen da; ikaskuntzak bi urte iraungo du. Oso pozik dago egiten duenarekin.

Etorkizunean Marokora itzultzea pentsatzen du.

A-1 kasua

Z., 17 urte. Urte eta erdi darama lurraldean. Casablancatik irten zenetik hona iritsi arte Cadizen, Madrilen, Logroñon, Lizarran eta Iruñean egon da, kalean bizitzen. Telefonoz hitz egiten du bere jatorrizko familiarekin.

“Paperak lortzen ez baditut erotu egingo naiz”.

Denbora asko iragan bada ere, oraindik ez du pasaporterik; izapidetzen ari dira. *“Bederatzi hilabeteetan izango nuela esan zidaten”* kexu da. *“Eta nik horren bikoitza daramat hemen. Paperak lortzen ez baditut erotu egingo naiz”.*

Zentro hau aurreko zentroarekin alderatzen du; aurrekoan hobeto egiten zen. Honela arrazoitzen du: *“Hemengo jendeak bezala bizi nahi dugu. Ez dugu gehiago nahi. Nik ez dut inoiz siestarik egin”.*

Berak institutu batean ikasten zuen eta egun zurgintza-ikastaro bat egiten du. Lagunak ditu hirian.

Lehenbailehen hasi nahi du lanean, *“edozein lekutan”, “Iana dagoen lekuan”,...* Lehen espero zuena eta hona iristean ikusi zuena alderatzeko esan diogunean, hau dio: *“Ez dut ezer aurkitu orain arte”.* Ez daki ziur ezta ere zer egingo duen berehalako etorkizunean, zer egingo duen udan. *“Ez dakit zer egingo duten nirekin”-* adierazten du. *“Inoiz ez gaituzte eraman Gas-teiztik kanpo”.*

A-2 kasua

M. F.k 16 urte beteko ditu eta zentroan hilabete bat eta aste pare bat darama. Sahararik dator, eta handik 13 urterekin irten zen, patera batean, Kanariar ir-latarantz. Han pare bat urtez bizi izan zen, bere izebarekin. Gasteizera zergatik etorri den galdetu diogunean, hemen jende oso ona zegoela esan ziotela erantzun diogu: *“Oso ondo portatzen dira atzerritarrekin”*.

Bere jatorrizko familiarekin harremanetan jarraitzen du, eta bere amari, bananduta, lagundu nahi dio. Zenbait anaietan zaharrena da.

“Zer gertatuko den, ez dakigu”.

Gaztelania-eskolak hartzen ditu. Zenbait egunez institutura ere joan zen, baina kanporatua izan zen. Kolonbiar pare batekin izan zituen istiluengatik izan omen zen.

Adibide gisa hezitzaile batekin eta gaueko zaintzaile batekin izan zuen gertaera kontatu digu. Gertaera horren ondorioz zauritua izan zen. [Gertaera hori aztertu egin zen zuzendaritzarekin eta zentroko hezitzaile batekin batera, elkarrizketa egin ondoren: gertaeren isla dokumentala; Ertzaintzaren esku-hartzea; salaketa; mediku-azterketa...]

Dokumentazioari eta etorkizunerako dituen itxaropenei dagokienez, bere egoitza-baimena Kanariar irlatan izapidetu zuen eta dirudienez lortu omen du, baina ez du jaso oraindik. Hemen lan egin nahi du: *“Ikasi, lan egin,...”*; *“Berdin dio, edozein gauzatan, denetik egingo nuke”*; *“Kanariar irlatan ez dut zer eginik”*, nahiz eta han zerbitzari gisa eta platerak garbitzen aritu zen lanean. Elkarrizketa eskolak amaitu baino astebete lehenago gauzatu zitzaion, uda aurretik. Horregatik, udan zer egin nahi zuen galdetu nion: *“Ez dakizu”* –erantzuten du–, *“zer gertatuko den, ez dakizu”*.

A-3 kasua

M.k elkarrizketa egin zitzaionean 17 urte zituen, eta lurraldean urtebete baino zerbait gehiago zeramatzan; lehen, Gurutze Gorriko lokaletan egon zen, eta orain, duela bi edo hiru hilabetetik, gazteentzako aterpetxe batean dago. Bertan beste hiru adin txikiko arduradun gaberekin konpartitzen du logela.

Sahararik dator, eta handik Kanariar irlalara pasa zen. Han zenbait hilabetez egon zen, ondoren kalean ere egon zen, beste lau hilabete araba batekin egin zituen, beste epe motzago bat lehengusu batekin,... Handikartzelona joan zen, eta, han bi egun egin ondoren, Euskal Herriranzko txartel bat erosi zuen. Hona iristean poliziarengana jo zuen.

“Ni gaizki banago ere ez diet esango. Beti galdetzen dute: zer moduz? Ondo. Besterik gabe”.

Gaztelania ikasten du. LHZ batera joaten da (margolari ofizioa ikasten du). Arazoren bat izan du *“kolonbiar batzuekin”*, eta, horregatik, erkidegoaren mesedetarako lan egin behar izan du.

LHZ amaitu nahi du, lanean hasteko. Baina datorren urtean praktikatan jarduteko egoitza-baimena behar du. Oraingo eskatu egin du eta pasaportea eskuratzeko zain dago.

Lagun asko dituela dio, oso ondo konpontzen dela hezitzaileekin eta tutoreekin, egunen batean hezitzailearen batekin arazoren bat izan duenean zuzendariarekin hitz egin duela...

Telefono bidezko harremana du El Aaiunen bizi diren amarekin eta anai-arrebekin (bere aita hil egin zen): *“Ni hemen gaizki baldin banago ez diet ezer esaten. Beti galdetzen dute: zer moduz? Ondo. Besterik ez”*.

A-4 kasua

N.k elkarriketa egiterakoan 17 urte zituen eta 8 hilabete zeramatzan zentroan.

“Paperak bilatzen ditut. Lana bilatzen dut”.

Marokoren iparraldean kokatzen den hiri garrantzitsu batetik dator. Bere ibilbidea, hona iritsi bitartekoa, ondoko hauek bezalako lekuetatik igaro da: Algeciras, Malaga (3 hilabete zentro batean), Granada, Madril, Donostia (3 hilabete mutil batekin), Bilbo (egun bakarra). Gasteizera iristean Ertzaintzarengana jo zuen.

Telefono bidezko harremana du Marokon daukan familiarekin. 6 anai-arrebetan zaharrena da, eta laguntza bidali nahi die.

“Paperak bilatzen ditut. Lana bilatzen dut”. Horrela laburbiltzen ditu bere asmoak.

Gaztelania ikasten du eta LHZ bateko eskoletara ere joaten da (zurgintza).

Pasaporte eskatu du, eta egun batzuk barru jaso ahal izango duela dirudi.

A-5 kasua

“poliziak askotan gertatzen gaitu kalean, asko ikusten gaituztelako kalean. Gaiztoak garelako uste dute”

H.k 17 urte ditu. El Aaiundik dator. Han aldizka ikasten eta portuan lanean aritzen zen. Lau anai-arrebetan bigarrena da: hiru mutil eta neska bat dira. Kamioiez joan zen Tangerretik Madrilera. Madrilen hiru egun egin zituen. Ondoren autobus bat hartu zuen: Bilbora joan zen eta egun berean Gasteizera. Han zentro oso on bat zegoela entzun zuen. Behin Gasteizera iritsi zenean kalean ibili zen, duela bederatzi hilabete zentroan sartu zen arte.

Hona bizimodua ateratzeko xedez etortzea erabaki zuen, paperak lortu eta lanean hasi ahal izateko. Egun LHZ batean aritzen da, zurgintza ikasten.

Dueta zenbait aste bere familiari deitu zitzaion. Izan ere, zentroan okerrera egiten ari zela ikusten zuten. Horregatik, familiari, beste gauza askoren artean, agian drogak hartzen egon zitekeela esan zitzaion. Ordutik bere familiak ez dio hitz egiten. Adin txikikoa oso haserre dago. Horregatik, berak hau dio: *“poliziak askotan gertatzen gaitu kalean, asko ikusten gaituztelako kalean. Gaiztoak garelako uste dute”*.

Bere lagunak marokorrek eta hemengoak dira. Etorkizun batean Euskal Herrian geratu eta hemen lan egin nahi du.

A-6 kasua

S.k 18 urte ditu. Mendebaldeko Saharatik dator. Zazpi anai-arrebetan bosgarrena da. Bera da emigratu duen bakarra. Telefono bidezko harremana du bere familiarekin. Han ikasi egiten zuen.

Bere lagun asko etorri egiten zirelako erabaki zuen etortzea.

9 hilabete daramatza zentroan. Bere lagun asko etorri egiten zirelako erabaki zuen etortzea. Patera batean joan zen Kanariar irletara, eta han 11 hilabete egin zituen. Irletako zentroak oso handiak omen dira, eta *“ez dute paperik edo horrelakorik egiten”*. Beraz, penintsulara etortzea erabaki zuen.

Egun LHZ batean zurgintza-ikastaro bat egiten ari da, gaztelania-eskolak hartzen ditu arratsaldez eta zonaldeko talde batekin futboleko jarduten da. Jadanik ez dago zentroan. Aterpetxe batean egiten du lo. Izan ere, bertan *“lasaiago dago”*. Hezitzaileekiko eta gainerako kideekiko harremana ona da. Bere lagunak zentroan hartutako beste adin txikikoak dira.

Etorbizunean hemen geratu nahi du, *“hara oportetara besterik ez naiz joango”*.

A-7 kasua

M.k 17 urte ditu, 18 egiteko. Marokoren iparraldetik dator, Al Hoceimatik. Sei anai-arrebetan laugarrena da. Aspaldi galdu zuen bere familiarekiko harremana.

Oso gaztea zela irten zen etxetik. Sei urte egin zituen Melillan, eta handik penintsulara etortzea erabaki zuen; *“Beti portuan egoten nintzen, eta egun batean ontzi batean sartzea erabaki nuen”*. Lau urte pasa dira. Ordutik eta Gasteizera iritsi arte leku batetik bestera ibili da, Andaluzian, Bartzelonan, Madrilan,... Lanean aritu da, beste zentro batzuetan bizi da,... Orain 6 edo 7 hilabete daramatza zentro honetan.

“Beti portuan egoten nintzen, eta egun batean ontzi batean sartzea erabaki nuen”

Orain gaztelania-eskolak hartzen ditu. Zentroko beste mutilekiko harremana ona da.

Ez du agiririk. Bartzelonako zentro batera joateko zain dago, nahiz eta, berak dioenaren arabera, gehiago gustatuko litzaioke hemen geratzea, *“hemen egin dut denbora gehien, lagunak ditut,...”*. Bartzelonako zentroa drogen kontsumoari lotutako nahaste psikiatrikoak dituzten pertsonentzako berariazko zentro bat da, zuzendaritzak adierazi digunaren arabera. Adin txikikoak zentroz aldatzeko baimena sinatu du.

A-8 kasua

R.k 18 urte ditu eta elkarrizketa egin zitzaionean alokatutako pisu batean bizi zen. Ghanakoa da, eta handik duela urtebete edo alde egin zuen. Autobusez joan zen Marokora, eta handik, patera batean, Fuerteventurara igaro zen. Bidaiarekin jarraitu zuen, Valentziara iritsi arte. Azkenean, Gasteizera iritsi zen, eta 10 hilabete egin ditu bertan.

Ghanan bere gurasoekin eta sei anai-arrebekin bizi zen. Egun telefono bisezko harremana mantentzen du beraiekin. Han igeltsero gisa aritzen zen lanean. 4 urtez egon zen eskolatuta. Hona etortzea erabaki zuen, bere herrialdean arazo ekonomiko eta politiko ugari zeudelako.

Hemen 7 hilabetez egon zen adin txikiko atzerritarrentzako harrera-zentro batean, ondoren hilabete bat egin zuen pisu batean eta orain bi hilabete daramatza pentsio batetako logela alokatu batean.

Egun Sartuko lantegi balioanitz batera joaten da. Egoitza-baimena du.

Bere lagunak zentroan topatu dituen beste etorkinak dira: Boli Kostako bat, Ghanako beste bat,...

Bere lagunak zentroan topatu dituen beste etorkinak dira.

Etorbizunean hemen bizi eta lan egin nahi du.

A-9 kasua

A.k 18 urte ditu, eta hemendik gutxira aterako da zentrotik. Casablancatik dator, Marokotik. Duela 9 hilabetetik dago Espainian. *“Bizimodua ateratzera”* etorri zen, bere familiar laguntza bidali nahi zion. Han ikasi egiten zuen, eta udan arropa-denda batean aritzen zen lanean. Lau anaia dira, bi neska eta bi mutil. Bera da gazteena. Guztiak Marokon bizi dira, bere gurasoekin, bera izan ezik. Osaba-izebak ditu Holandan.

Han ikasi egiten zuen, eta udan arropa-denda batean aritzen zen lanean.
“Zentroko mutilekin bakarrik ateratzen naiz”.

Marokotik, Tangerren barrena, Madrileria joan zen. Han Gasteizen zentro on bat zegoela entzun zuen, eta hona etortzea erabaki zuen.

Ematen dioten pagarekin ez omen zaio ezertarako iristen. Ondoko hau dio: *“Hemendik irtetea, hobe. Orduan hasiko naiz bizimodua ateratzen”.* Elkarrizketa egin genuenean oso gutxi geratzen zitzaion urrats hori emateko.

Bere lagunak berarekin bizi diren mutilak bakarrik dira: *“Zentroko mutilekin bakarrik ateratzen naiz”.*

Pisuak alokatzeko arazoak daudela adierazten du, *“Gauza txarrak besteri ez dira entzuten, eta guztiak gaiztoak garela usten dute”.* Gainera zenbait diskotekatan ezin izan dutela sartu esan du: *“Moroa zara, zu ez zara sartuko. Lapurtzera goazela uste dute”.*

Etorkizunean hemen geratu nahi du, Gasteizen lan egin nahi du. Baina denbora batez besterik ez; *“30 bat urte egitean Marokora itzuli nahi dut, han bizi nahi dut”.* Bitartean dirua bidali nahi dio bere familiari.

A-10 kasua

Ez zaio buruan sartzeko nola inmigranteren batek bere herrialdera bertan bizitzeko asmoz itzultzeko grina izan dezakeen.

Z.k 18 urte ditu eta pisu batean bizi da. Kamerundik dator. Handik duela urtebete inguru irten zen. Ceutara joan zen, *“oinez, autoz, ...”*, Madrileraino jarraitu zuen, eta Gasteizera iritsi zen.

Kamerunen errugbian aritzen zen eta asteburuetan lan egiten zuen. Ez du ez aitarik eta ezta amarik ere; bere anaiarekin eta arrebarekin bizi zen. Orain telefono bidezko harremana mantentzen du beraiekin.

Egun soldadura-ikastaro bat egiten ari da LHZ batean, eta logela bat du alokatuta Alde Zaharrean. Sukaldea erabiltzeko aukera ere badu. Pozik omen dago, bai ikastaroan eta baita pisuan ere. Denbora libre duenean errugbi-talde batekin entrenatzen du.

9 hilabetez egon zen zentroan. Bere lagunei dagokienez, kanpoko nahiz hemengo lagunak dituela dio.

Etorkizunean hemen bizi nahi du, eta oporretan Kamerunera joan; ez zaio buruan sartzeko nola inmigranteren batek bere herrialdera bertan bizitzeko asmoz itzultzeko grina izan dezakeen. Honako hau dio: *“Hemen jendeak asko lagundu dit, orain nik nire herrialdeko jendea lagundu nahi diot”.*

A-11 kasua

“Elkarrekin bazkaltzen dugu, nire etxera etortzen dira, beraiek ez dutelako sukaldarik”

A.k 18 urte ditu. Malikoa da. Han landan egiten zuen lan. Bere gurasoekin eta hiru anaia gazteagoekin bizi zen. Aspaldidanik ez du hitz egiten beraiekin. *“Madrilen egon nintzenean helbidea galdu nuen eta orain ez daukat, berriro aurkitu nahiko nuke”.*

Bere bidaia, hona iritsi arte, oso luzea izan da. Algeriara joan zen, eta handik Marokora. Ondoren, patera batean, Fuerteventura arte iritsi zen. Han etorkinentzako eremu batean egon zen hilabetez. Las Palmas arte jarraitu zuen, eta han hiru hilabete egin zituen Gurutze Gorriko zentro batean. Madrileraino jarraitu zuen. Han bi hilabetez egon zen, lagun batekin bizitzen. Honek beste nonbaitera joatea gomendatu zion, Madrildik irtetea, beste lekuetan lana errazago bilatuko zuelakoan. Dirua eman zion eta Gasteizera etorri zen. Behin Gasteizera iritsi zenean, hiru egun egin zituen aterpetxe batean; ondoren adin txikiko

atzerritarrentzako zentro batetik pasa zen, eta han 5 hilabete egin zituen. Egun alokatutako logela batean bizi da.

Zentroko gainerako mutilekin harreman ona izan zen, baina gehienekin ez zuen erlazio oso sakonik izan. Batzuekin bai, eta horiekin egun ere jarraitzen du harremanetan: *“Elkarrekin bazkaltzen dugu, nire etxera etortzen dira, beraiek ez dutelako sukalderik”*.

Egun gaztelania-eskolak hartzen ditu HHE zentro batean eta Norabiden. Hiru hilabeteko soldadura-ikastaro bat egin du, baina oraindik paperik ez duenez, ez du beste ikastarorik aurkitu.

Etorkizunari dagokionez, ondoko hau dio: *“Paperak edukiko banitu hemen geratuko nitzake bizitzan, baina lana egin behar da”*. Orain herri erakundeen laguntza ekonomikoa jasotzen du. Paperak eta bidaia ordaintzeko dirua izaterakoan Malira joan nahiko luke bere familia bisitatzera.

R-1 kasua

R.k 17 urte zituen elkarrizketa egin zitzaion unean. Erreforma-zentro batean aurkitzen da, internamendu-neurri bat betez, martxoaren 22an Urduñako Zentroak egon ziren kalte eta desordenetan parte hartu zuelako.

Marokoren iparraldeko kostako hiri batetik dator. Muga 14 urte zituenean zeharkatu zuen, eta harrera-zentro desberdinetan egon da: Ceutan, Algecirasen, Malagan (ia urtebete). Euskal Herrian, bere ibilbidea ondoko hau izan da: Loiu, Urnieta, Loiu, Urduña. Guztira, hemen, 3 urte inguru egin ditu. Egoitza-baimena du.

Telefono bidezko harremana du bere familiarekin (2 dei astean). Bere familia Marokon dago oraindik: gurasoak eta zortzi anai. Anai zahar bat hemen bizi da baita ere; espetxean dago, zigorra betetzen.

Zurgintza-lantegian ari da ikasten, eta zenbait lagunentzat zentrotik kanpo dauden lanak bilatzen direla. Janariaz besterik ez da kexu.

Etorkizunerako espero duenari dagokionez, ez dauka oso argi nora joan nahi duen edo zer egin nahi duen internamendu-neurria amaitzerakoan: *“Ez dakit. Hamargarren hilabetean irtengo naiz”*. Argi duen gauza bakarra da *“lanen bat”* nahi duela.

R-2 kasua

Y.k 17 urte zituen elkarrizketa egin zitzaionean. Marokoren iparraldean dagoen hiri garrantzitsu batetik dator. Handik 12 urte zituenean irten zen, eta zuzenean etorri zen Bizkaira. Ondorioz, 5 urte daramatza gure artean: lehendabizi Loiu eta ondoren Urduñan. Egun internamendu-neurri bat betetzen ari da martxoaren 22an Urduñako Zentroan eragin ziren kalteetan parte hartzeagatik. Lehenago beste internamendu-neurri bat ere bete zuen.

Lau anaietan gazteena da eta telefonoz hitz egiten du beraiekin, *“batzutan”*.

Zenbait auzi ditu epaitu gabe (asko diren galdetzerakoan, berak *“gutxi gorabehera”* erantzun du) eta behin eta berriz errepikatzen du Urduñako Zentrotik lekualdatu zutenean zapatilak eta arropa galdu zituela. Oso kexu da.

Berehalako etorkizunari dagokionez, behin internamendua amaitzerakoan egingo duenari dagokionez, ondoko hau erantzuten du: *“Bizimodua atera behar dut”*.

Ez dauka oso argi nora joan nahi duen edo zer egin nahi duen internamendu-neurria amaitzerakoan: *“Ez dakit. Hamargarren hilabetean irtengo naiz”*. Argi duen gauza bakarra da *“lanen bat”* nahi duela.

Internamendu-neurri bat betetzen ari da.

Ez du bere burua beste zentro edo harrera-pisuren batean ikusten.

Baditut paperak". Ez du bere burua inolako zentrotan edo harrera-pisutan ikusten: "*Zer egingo dut? Jan eta lo besterik ez*".

Egoitza-baimena du. Zenbait ikastaro egin ditu LHZ batean (zurgintza, elektrizitate, iturgintza), baina praktikak falta zaizkio. Arotz gisa egin nahi du lan.

R-3 kasua

M.k 17 urte ditu eta duela 5 urtetik dago Espainian. Elkarriketa egin zitzaion unean erreforma-zentro batean aurkitzen zen. Tangerretik dator. Han bere amarekin eta arrebarekin bizi zen. Beste anaia bat du, baina Belgikan bizi da. Telefono bidezko harremana du berarekin. Sei urte zituenetik mekaniko gisa jarduten zen bere aitaren lagun batekin. Hona zergatik etorri zen galdetu genionean, ondoko hau erantzun zuen: "*bizimodua atera nahi dut*".

Bere burua aldatu egin behar duela dio, helduagoa egin da "*eta ezin dut tontakeria gehiago egin*".

Marokotik Marbellara etorri zen bere osaba batekin. Han 2 edo 3 astez egon ondoren bakarrik joan zen Bartzelonara. Bartzelonan 8 hilabete egin zituen lagun batzuekin. Baina hiri hori ez zitzaion gustatzen eta Bilbora etorri zen. Bilbora etorri zenetik 2 urte egin ditu zentro batean, urtebete eta zazpi hilabete beste batean eta egun, duela lau hilabetetik, zentro itxi batean dago.

Hona etorri denetik hiru hilabeteko soldadura-ikastaro bat egin du, eta mekanikari buruzko beste bat. Mekanika-praktikak ere egin ditu.

Egungo egoerari buruz: "*Ordaintzen ari naiz*"; "*Pozik nago, baina haserre; inoiz ez nahiz egon itxita, baina orain ondo nago*". Zurgintza eta lorezaintza jarduerak egiten ditu. Epe laburrean zentrotik irten eta kanpoan lan egitea espero du, mekaniko gisa. Bere burua aldatu egin behar duela dio, helduagoa egin da "*eta ezin dut tontakeria gehiago egin*".

Bere lagunak batez ere Tangerrekoak dira. Lau urte daramatza hartuta, baina pasaporte besterik ez du; ez du egoitza-baimenik. Eskatu egin zuen, baina ukatu egin zioten.

Etorkizunean hemen geratu eta lan egin nahi du; Marokora oporretan bisitak egitera besterik ez du itzuli nahi.

R-4 kasua

B. Tetuandik dator, Marokotik. Erreforma-zentro batean dago. 16 urte ditu eta duela 2 urte eta erditik dago Espainian. Familia du Marokon, nahiz eta bere lau anaietatik bakarren bat Frantzian dagoen. Telefono bidezko harremana mantentzen du berarekin. Bera Marokon ikasketak egiten ari zen. Lan bila etorri zen hona. Lehen ere egona zen hemen. Behin Algeciras arte iritsi zen. Han denbora batez egon zen diru pixka bat lortu arte, eta ondoren bere etxera itzuli zen.

Zentrotik ateratzen denean lana bilatu eta hemen bizitzen geratu nahi du. Marokora, oporretan eta bisitan; han gutxiegi ordaintzen dute.

Oraingo honetan, Tetuandik Malagara joan zen. Han, Malagan, hiru hilabete egin zituen zentro batean. Handik Granadara joan zen, eta bertan zentro batean egon zen, baina denbora oso gutxi. Ondoren Bilbora joan zen, Madriletik iraganez. Lagunak zituen hemen eta horregatik erabaki zuen hona etortzea. Iritsi denetik zentro batean egon da 5-6 hilabete, beste batean urte eta erdi eta, azkenik, lau hilabete zentro itxi batean.

Lehenengo zentroan gaztelania ikasten aritu zen. Bigarrenean denbora gehiago egon zen, baina ez zen batere kontent egon. Bigarren zentro horretan zegoen bitartean sukaldaritza-ikastaro bat egin zuen. Orain, zentro itxian, aurrekoan baino gusturago dago. Zurgintza-lantegira eta ikasgelara joaten da.

Zentrotik irteteen lana bilatu nahi du eta hemen inguruan bizitzen geratu. Marokora oporretan eta bisitan joango da; han oso diru gutxi ordaintzen dute.

Bere lagunak batez ere beste mutil marokoarrak dira. Paperei dagokienez, egoitza-baimena eskatua du.

1. neska

N. babes-zentro batean bizi den neska gazte bat da. 17 urte ditu. 18 beteko ditu abenduan. Marokoarra den arren, hona Holandatik iritsi zen. Han bizi zen bere gurasoekin eta bere hiru anaiekin bederatzi urte zituenetik. Handik bakarrik alde egitea erabaki zuen, bere aitak “*arazoak zituelako*”. Trenez etorri zen hona, eta beste neska marokoar batek lagundu zion poliziarengana. Poliziak eraman zuen zentrora. Berak Espainiara etorri nahi zuen, hemen kasualitatez geratu da.

Orain badu harremana bere familiarekin. Bere ama eta anaia espetxean daude, herrialde desberdinetan. Bere aita, elkarrizketa egin genion unean, Madrilgo ospitale batean zegoen, Marokora zihoala izan zuen istripu baten ondorioz.

Martxotik bizi da harrera-zentroan, eta orain nahiko gertu dagoen ikastetxe batera joaten da gaztelania-eskolak hartzera. Irailean ile-apainketa ikastaro bat egiten hasiko da. Ontzat jotzen ditu bai jasotako arreta, baita egiten dituen jarduerak ere.

Bere lagun guztiak marokoarrak dira; ez du hemengo lagunik. Bizkaian bizi den bere herriko familia batekin ere badu harremana. Asteburuetan haiek bisitatzera joaten da.

Etorkizunean ez du ez Marokora eta ezta Holandara ere itzultzeko asmorik, hemen gelditu nahi du.

2. neska

H.k 19 urte bete berri ditu eta zentro batean bizi da. Bi urte daramatza zentroan, 17 urte zituenetik. Marokoren iparraldetik dator, Nadorretik. 15 urte zituela Frantziara joan zen bere aitarekin, familiako arazoak zirela eta etxetik alde egin eta Espainiara etortzea erabaki zuen arte. Gaur egun badu harremana bere familiarekin, batez ere bere amarekin.

Nora etorri erabakitzeke garaian, berak Espainiara etorri nahi zuen, eta hemen bukatu du. Tren-geltokira iritsi zenean ez zekien nora jo. Mutil batek lagundu zion eta poliziaraino eraman zuen. Poliziak zentro batera eraman zuen. Ez zioten hezur-proba egin, Frantziar eskuratu zituen identifikazio-agiriak baitzituen.

Gaztelania ikasten hasi zen. Orain HHE zentro batera joaten da goizetan, eskola-graduata eskuratzeko xedez. Asteburuetan jatetxe batean egiten du lan.

Txerrikirik ez jatea eta Ramadan egitea errespetatzen diote.

Bertako jendearekin nahiz atzerritarrekin erlazionatzen dela dio. “*Lehen asko ateratzen nintzen, baina orain gutxiago, eta batez ere nire mutil-lagunarekin*”.

Etorkizunean hemen bizi eta lan egin nahi du. Lanean hasten denean ez du bere familiari dirua bidaltzeko asmorik.

Bere lagun guztiak marokoarrak dira; ez du hemengo lagunik. Bizkaian bizi den bere herriko familia batekin ere badu harremana.

Hemen gelditu nahi du.

15 urte zituela Frantziara joan zen bere aitarekin, familiako arazoak zirela eta etxetik alde egin eta Espainiara etortzea erabaki zuen arte.

3. neska

C.k 16 urte ditu eta Boliviatik dator. Zentro batean bizi da. Espainiara 2003ko martxoan iritsi zen. Bidaiarako txartela Bizkaian bizi den ahizpa batek oparitu zion 15 urte bete zituenean. Zazpi anai-arreba dira. Bost hemen bizi dira eta beste bi Bolivian, amarekin. Guztiekin du harremana. Hona etorri aurretik, ikastetxe batean ikasten zuen. Bere anai-arrebek ama eta arreba bat ekarri nahi dituzte hona, baina oraindik ez da gauza ziurra. Bere senitartekoak lagun batzuk zituztelako etorri ziren Bizkaira. *“Nire ahizpak dena saldu eta hona etorri zen”.*

“Nire ahizpak dena saldu eta hona etorri zen”.

“Ez naiz hemengo bizimodura ohitzen; hemengo jendea ez da hango bezalakoa”

Gaur egun institutu publiko batera joaten da. Ikastea oso zaila egiten zaiola dio; izan ere, *“han eskolak desberdinak ziren”.* Datorren urtean Lanbide Hastapenerako Zentro batean hasiko da, zerbitzari izateko.

Zentroan duela urtebete eta hilabete batetik dago. Asteburuetan anaia baten etxera joaten da.

Institutuko nahiz zentroko lagunak ditu; batzuk hemengoak dira, beste batzuk kolonbiarrak, ... *“denetik pixka bat”.* Gizarte hartzaileak etorkinak eta hemengoak zenbaitetan desberdin tratatzen dituela dio; *“ikasgelan, batzutan, ez digute jaramonik ere egiten”.*

Etorkizun batean hemen ikasi, lan egin, dirua irabazi eta Boliviara itzuli nahiko luke. *“Ez naiz hemengo bizimodura ohitzen; hemengo jendea ez da hango bezalakoa”.* Hona etorri aurretik hau desberdina izango zela imajinatzen omen zuen. Horregatik, bere ama eta ahizpa etortzea gustatuko litzaioke: *“Horrela, elkarren laguntza izango dugu”.*

4. neska

H. 16 urte dituen neska marokarra da eta babes-zentro batean bizi da. Zuzenean etorri zen Marokotik, duela urtebete gutxi gorabehera, bere aitarekin. Bere amak han jarraitzen du. Telefonoz hitz egiten du berarekin. Lau anai-arreba dira; bera da gazteena. Bi hemen daude eta beste bat Marokon. Hona etorri zen arte Marokon ikasten zuen.

Bere etorkizuna hemen ikusten du. Ikasi egin nahi du, ondoren lanean hasi eta Marokora bisitan joateko.

Egun ikastetxe batean ikasten du, baina datorren urtean ikastaro bat egingo du LHZ batean.

Zentroan bere aitari tratu txarrak emateagatik salaketa jarri ondoren sartu zen. Bost hilabete daramatza hemen. Berarentzat azpimarragarria da Marokon ezin izango zuela salatu; izan ere, *“hango polizia ez da hemengo bezalakoa”.*

Bere lagunak batez ere marokorrek dira, nahiz eta hemen ere badituen eza-gunak.

Bere etorkizuna hemen ikusten du. Ikasi egin nahi du, ondoren lanean hasi eta Marokora bisitan joateko.

5. neska

B. harrera-zentro batean bizi den neska bat da. Sahararen hegoaldeko herrialde batetik dator; 16 urte ditu eta duela lau hilabetetik dago Espainian. Hegazkinez joan zen Madrilera, eta han bere ama joan zitzaion bila. Izan ere, bere amak lau urte zeramatzan jada Madrilen. Gogotsu etorri zen, *“ez bainuen nire ama ezagutzen”.* Anaia bat du eta bere sorterrian bizi da, amonarekin. Han bizi zenean, ikasi egiten zuen.

Orain ikastetxe batera joaten da eskolak hartzera. Eskolak bereizita hartzen omen ditu, ikasturtea hasita zegoela hasi baitzen ikastetxean.

Zentroko gainerako neskekin duen harremanari dagokionez, zera esaten du: *“Ondo moldatzen gara, ez gara lagunak, baina ondo moldatzen gara”*. Hala ere, bere lagunik hobereana, neska marokoar bat, zentro berean dago.

Etorkizunean hemen geratu nahi du, lanean, eta kontabilitatea eta ingelesa ikasi nahi ditu. Hemen hobeto dagoela dio, trebatzeko aukera gehiago omen dago.

Hegazkinez joan zen Madrilera, eta han bere ama joan zitzaion bila. Izan ere, bere amak lau urte zeramatzan jada Madrilan.

2.4.2. **Nabarmentzen diren elementu komunak**

Aurreko atalean banan bana jaso ditugu gauzatutako elkarrizketen transkribapenen laburpenak. Horri esker adin txikiko bakoitzak azaldutako ibilbideei, itxaropenei edo beharrei buruzko ikuspegi orokor bat lor dezakegu. Orain, atal honetan, elkarrizketa askotan errepikatu egiten diren elementu komunak nabarmendu nahi ditugu; izan ere, horietako askok zalantzan jarriko lituzkete adin txikiko atzerritarrei buruz oso hedatuta dauden aurreiritzi edo estereotipo asko. Hori horrela, adibidez, ondoko hauek nabarmentzen dira:

- Adin txikiko gehienek badute harremana beren jatorrizko familiarekin (normalean, aldizkakoa eta telefono bidezkoa); hortaz, ez dira, askotan pentsatzen den moduan, Marokoko hirietako “kaleko umeak”.
- Hona zenbait saialdiren ondoren etortzen dira, beste leku askotan saiatu ondoren, eta/edo, iristen zaizkien informazioen eta zurrumurruen arabera, hemen gizarteratze-helburuak errazago lortuko dituztela uste dutelako. Nolanahi ere, leku jakin bat hautatzea erlatiboa da, berrikusgarria, beti beren itxaropenen lorpenaren baldintzapean.
- Beren “migrazio-proiektua”, normalean oso garbi izaten dutena, batez ere heldue-netan, lehenbailehen lanean hastea da. Badakite eta onartzen dute horretarako baimen jakin batzuk eskuratu behar dituztela, eta nolabaiteko prestakuntza profesionala eskuratu behar dutela.
- Adin txikiko gehienek trebakuntza-jardueretan parte hartzen dute, eta motibazio handiarekin gainera; trebakuntza-jarduera horiek lehenbailehen lanean hasteko helburuarekin daude lotuta zuzenean. Nagusiki ofizio bat edo gehiago ikastea eta gaztelania menderatzea bilatzen dute.
- Hartutako adin txikiko askok ez du ia erlaziorik bertako jendearekin (hezitzaileez gain, noski). Kirol-taldeetan parte hartzen duten edo lana egiten duten batzuk izan ezik, gainerakoek diote beren lagunak beste etorkinak direla, eta, normalean, nazionalitate berekoak.
- Etorri aurretik zituzten aurreikuspenen eta hemen topatu duten errealitatearen arteko aldea oso handia da eta, batez ere, lanean hasi bitartean paperak lortu arte iragan behar duten prozesu luzeak eraginda.

Jarraian sei ezaugarri edo gai horiei buruzko adibide esanguratsu batzuk azalduko ditugu.

1. Familiarekiko lotura

Elkarrizketatutako gazteak, salbuespen gutxi batzuk izan ezik, harremanetan daude beren jatorrizko familiekin. Harreman hori oso garrantzitsua da beraientzat. Telefono bidezkoa izan ohi da, hilean behingoa ala astean behingoa, bakoitzak dituen aukeren arabera. Normalean senide ugariako familiak dira.

Bere familiarekin telefono bidezko harremana mantentzen du; astero hitz egiten du beraienkin. (B-2)

Marokoko landa-ingurune batetik dator, 1.000 biztanle inguru dituen herrixka bereber batetik. Bere familia bertan bizi da eta hilean behin hitz egiten du beraienkin. (G-1)

Bere familian “*pila bat*” omen dira: zazpi anai-arreba, lehengusu bat,... Hilabetean behin hitz egiten du beraienkin, telefono-txartelaren bidez. (G-6)

Telefono bidezko harremana du El Aaiunen bizi diren amarekin eta anai-arrebekin (A-3)

Lau arreba ditu eta bera da zaharrena. Telefono bidezko harremana mantentzen du bere familiarekin, baina ez du harreman zuzenik: “*Asko gustatuko litzaidake. Haien falta sentitzen dut. Beraiek ere sentitzen dute nire falta*”. (B-7)

Telefono bidezko harremana du bere familiarekin (2 dei astean). Bere familia Marokon dago oraindik: gurasoak eta zortzi anai. (R-1)

Telefonoz hitz egiten du bere familiarekin. Beraiek dira deitzen dutenak; izan ere, beste herri batera igo behar dute deitu ahal izateko, beren herrian ez baitute telefonorik. (B-3)

Familiarekiko harremana mantentzen du, batez ere arreba zaharrenarekiko harremana, oso konfiantza handia baitu berarekin. (B-6)

2. Mugikortasuna: bide asko, itxiagoak edo irekiagoak, dituen ibilbide bat

Euskal Autonomia Erkidegora iritsi aurretik, gehienak Espainiako leku desberdinetan bizi izan dira, batzuk baita Europako herrialde desberdinetan ere. Batzuk beste lekuetan dauden senitartekoeekin edo lagunekin egon dira, beste batzuk zentroz zentro ibili dira, eta kalean bizi izan direla diotenak ere badaude. Zenbait kasutan muga behin baino gehiagotan zeharkatzen saiatu dira, penintsulara iritsi ahal izateko. Euskal Autonomia Erkidegora etortzera bultzatzen dituen arrazoi nagusienetako bat da lagunak edo ezagunek hemen paperak egiten dituztela esan dietela, edo adin txikiko atzerritar arduradun gabeen egoera ona dela entzun dutela. Baina hemen kasualitatez edo, besterik gabe, beste nonbaitera joan bitartean dagoenik ere badago.

Bi urte daramatza zentro honetan. Lehen 8 hilabete egin zituen Bartzelonako zentro batean. “*Ez nengoen gustura. Ez zuten ez paperik eta ez horrelakorik ere egiten*”. Hona etorri zen zentroaz oso ondo hitz egin zioten lagun batzuk ezagutzen zituelako. (B-2)

Tangerretik Algeciras aldera kamioi batean irten zenetik, ez da geldirik egon. Iritsi zenean, Madrilen zegoen bere lehengusu bat bila joan zitzaion. Berarekin egon zen ikasten. Ondoren Europarantz joatea erabaki zuen. Alemanian, Holandan, Belgikan eta Frantzian egon da, bere egoera berean zeuden beste adin txikiko marokoarrekin. Herrialde horietan, zenbait zentrotan egon zen, batez ere zentro itxietan, baina egonaldi luzeak egin zituen baita ere kalean. Espainian ere alde batetik bestera ibili da. Bartzelonan egon da, zentro itxi batean; Madrilen hiru aldiz pasa da zentro beretik; Valentzian ere egon da; Euskadin ere erreformarako zentro itxi batean egon da. Orain 2 hilabete daramatza zentro ireki batean, zaintzapeko askatasuneko neurri judizialarekin. (G-5)

Behin Algeciras arte iritsi zen. Han denbora batez egon zen diru pixka bat lortu arte, eta ondoren bere etxera itzuli zen. Oraingo honetan, Tetuandik Malagara joan zen. Han, Malagan, hiru hilabete egin zituen zentro batean. Handik Granadara joan zen, eta bertan zentro batean egon zen, baina denbora oso gutxiz. Ondoren Bilbora joan zen, Madriletik iraganez. Lagunak zituen hemen eta horregatik erabaki zuen hona etortzea. (R-4)

Almerian egon zen lanean, Alacanteko zentro batean ere egon zen, Bartzelonako beste batean eta familia batekin ere. Bartzelonan zentro batera joatea proposatu zioten, baina berak ez zuen nahi: *“Ez bazoaz zentrora, berriro Marokora bidaltzen zaituzte”*, dio. Bizkaira etorri zen, hemen paperen arazoa konpontzen zutela entzun baitzuen. (B-8)

Spainiara iritsi zenean ondoko hau galdetu omen zion bere buruari: *“Nola egingo dut nik hau? Ez dut inor ezagutzen... Nola egingo ditut nik paperak?”* Cartagenara iritsi zen ontzian. Han Bartzelonarako autobus bat hartu zuen. Lau egun kalean eman zituen, parke batean bizitzen. Adin txikikoentzako zentro baten helbidea ematen dion aljeriar bat ezagutu zuen. Bertan bi hilabete egin zituen, baina ez zegoen gustura. Lau hilabete falta zitzaizkion adinez nagusi izateko, eta Bilbon paperak egiten zituztela entzun zuen. Hortaz, autobus bat hartu eta Bizkaira etortzea erabaki zuen. (B-6)

Emigratzeko erabakia hartu zuenean 17 urte zituen, eta Tangerrera joan zen, muga zeharkatzen saiatzeko xedez. Lehenengo aldia Algecirasera iritsi zen, baina harrapatu egin zuten eta Marokora itzuli behar izan zuen. Berriro saiatu zen. Granadara iritsi zen, eta bertan poliziak harrapatu zuen. Tarragonako zentro batean amaitu zuen. Bertan eman zituen sei hilabete. (...) Zentroz aldatu zuten, eta Reuseko beste batera eraman zuten. Bertan 2 edo 3 hilabetez egon zen, baina berak lanean hasi nahi zuen eta han adin txikikoa zela eta ondorioz ezin zuela lanik egin esaten zioten. Orduan Frantziara joatea erabaki zuen. Nizan egon zen hilabetez (...) Anai bat du Almerian, eta, ondorioz, Frantzian hilabetez egon ondoren berarengana joatea erabaki zuen. Baina han oso baldintza txarretan bizi zen. (...) Almeriatik joatea erabaki zuen, eta Tarragonara itzuli zen. Han Saloun lan egiten zuten lagun batzuk ezagutu zituen; patata biltzen jarduten ziren, eta beraiekin joatea erabaki zuen. Han Loizuz hitz egiten entzun zuen: *“ondo portatuz gero, bizimodu ona eta lana; bestela, ezer ez”*. Horrela, hona etortzea erabaki zuen. (B-5)

Bere bidaia, hona iritsi arte, oso luzea izan da. Algeriara joan zen, eta handik Marokora. Ondoren, patera batean, Fuerteventura arte iritsi zen. Han etorkinentzako eremu batean egon zen hilabetez. Las Palmas arte jarraitu zuen, eta han hiru hilabete egin zituen Gurutze Gorriko zentro batean. Madrileraino jarraitu zuen. Han bi hilabetez egon zen, lagun batekin bizitzen. Honek beste nonbaitea joatea gomendatu zion, Madrildik irteeta, beste lekuetan lana errazago bilatuko zuelakoan. Dirua eman zion eta Gasteizera etorri zen. (A-11)

12 edo 13 urterekin zenbait aldiz atxilotu zuten bai Tangerren eta baita Algecirasen ere, muga zeharkatu nahian. Jo egiten zuten. Marokoko poliziak ematen zion tratuari buruz galdetu diogunean, berak ondoko hau esan du: *“Jo bakarrik ez; ia akabatu egin ninduten”*. Azkenean, 14 urte zituela, autobus azpian muga zeharkatzea lortu zuen, bakar-bakarrik. (...) Gipuzkoara etorri aurretik, Madrilan bizi zen (kalean). Sorian ere egon zen. Handik Donostiaranzko autobus bat hartu zuen: *“lagunak nituen hemen”*. (G-6)

Hamaika urterekin laurogei egun eman zituen Tangerren eta hiru aldiz itzuli behar izan zuen Algecirasetik. Azkenean muga kamioi batean, *“gurpilen gainean”*, beste bi lagunekin batera zeharkatzea lortu zuen. Lagunetako bat hil egin zen bidaia hartan. Algecirasen urte pare bat egin ondoren, Bartzelonara joan zen; hasieran aterpetxean egiten zuen lo, baina ondoren harrera-zentro batean jarri zen bizitzen. Marokora itzularazia izateko arriskuaren aurrean, hezitzaileetako batek dirua eman zion autobuserako: *“hobe ihes egiten baduzu”*. Horrela, Gipuzkoara iritsi zen. (G-2)

3. Migrazio-proiektua: lehenbailehen lanean hastea

Beren migrazio-proiektuak lanean hastea du xedetzat, “bizimodua bilatzeko”. Izan ere, hori da beren herrialdea uztera bultzatu dituen arrazoia. Batzuk hemen bizi nahi

dute etorkizunean, baina beste batzuk ez dakite beren etorkizuna Euskal Autonomia Erkidegoan, Europako beste lekuren batean edo beren sorterrian edukiko duten. Lortu ahal izateko, badakite “paperak” behar dituztela, eta horretarako lanbide heziketako ikastaroetara joan behar dutela.

Bidaiaren motibazioa oso argia da: *“Han ez dago lanik. Dirua behar dute ondo bizitzeko”*. Etor-kizunerako dituen planei dagokienez, honela laburbiltzen ditu: zurgintza beste urtebetez ikastea, eta, ondoren, lan egitea. (B-1)

“Paperak bilatzen ditut. Lana bilatzen dut”. Horrela laburbiltzen ditu bere asmoak. (A-4)

Etorkizunari dagokionez, bere asmoak argiak dira: hemen lan egitea, igeltsero gisa, familia laguntze-ko, dirua bidaltzeko. Paperak eta lana izanez gero, *“pisu bat alokatu eta bizimodua aterako nuke”*. Bestela, *“izorratuta”*. (B-7)

Bere etorkizuna hemen ikusten du. Ikasi egin nahi du, ondoren lanean hasi eta Marokora bisitan joateko. (4. neska)

Bere itxaropenak: *“Lana eta etxe propioa”*. Horretarako, ikasi egiten du, soldadura-lantegi batean aritzen da lanean, eta iturgintza-ikastaro bat egingo du. Telefonoz hitz egiten du bere familiarekin. Ez du hara itzultzeko asmorik. *“Familia ikusteko besterik ez”* adierazten du. (G-7)

4. Lanean hasteko beharrezkoa dena azkar ikastea

Gazteek jarduera oso desberdinak gauzatzen dituzte, hala nola ofizio bat ikastea edo gaztelania-eskoletara joatea. Oro har, jardueretan parte hartzen dute eta motibazio handiarekin ikasten dute.

Hainbat adar profesionaletan trebatu da (elektrizitatea, klimatizazioa, aluminiozko arotzeria), praktikatzen dabil eta oraindik ez du lan-eskaintzarik. (B-2)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan bere adinaren arabera eskolatuta dagoen bakarra da zentroan. (G-6)

Berak institutu batean ikasten zuen eta egun zurgintza-ikastaro bat egiten du. (A-1)

Gaztelania ikasten du. LHZ batera joaten da (margolari ofizioa ikasten du). (A-3)

Gaztelania ikasten du eta LHZ bateko eskoletara ere joaten da (zurgintza). (A-4).

Gaur egun institutu publiko batera joaten da. Ikastea oso zaila egiten zaiola dio; izan ere, *“han eskolak desberdinak ziren”*. Datorren urtean Lanbide Hastapenerako Zentro batean hasiko da, zerbitzari izateko. (3. neska)

Egun Sartuko lantegi balioanitz batera joaten da. (A-8)

5. Lagun berriak egitea: urrats zaila

Gazteak beste etorkinekin erlazionatu ohi dira, normalean nazionalitate berekoekin. Hori dio gehiengoak, nahiz eta zenbait adin txikikok, batez ere lana edo kirola bezalako jarduerak direla-eta, bertako jendearekin ere baduten harremana.

Lagun *“dezente”* dituela ere esaten du. Batzuk hemengoak; gehienak marokoarrak, Donostian, Pa-saian, Errenterian,...(G-6)

Bere lagunak marokoarrak eta hemengoak dira. (A-5)

Bere lagunak zentroan topatu dituen beste etorkinak dira: Boli Kostako bat, Ghanako beste bat,... (A-8)

Bere lagunak berarekin bizi diren mutilak bakarrik dira: "Zentroko mutilekin bakarrik ateratzen naiz". (A-9)

Bere lagunei dagokienez, kanpoko nahiz hemengo lagunak dituela dio. (A-10)

Zentroko edo pisuetako jendearekin erlazionatzen da, eta batez ere bereberrekin, bera ere bereberra da eta. (B-3)

Gehienbat zentroko zenbait pertsonekin edo atletismo-taldeko kideekin erlazionatzen da. (B-4)

Bere lagun guztiak marokoarrak dira; ez du hemengo lagunik. (1. neska)

6. Agiriak lortzea: aurreikuspenen eta errealitatearen arteko aldea

Agiriak lortzeko prozesua luzeegia dela diote. Gainera, Marokotik edo beste lekuetatik zetozenean, itxaropen handiagoak zituzten, ez ziren errealistak, guztia errazagoa eta azkarragoa izango zela uste zuten.

Berak hau desberdina zela usten zuen, paperak izango zituela eta lana egiteko aukera edukiko zuela, baina ez da horrela izan. Oraindik ez du agiririk. (G-5)

Bera lanera etorri dela dio, baina agiriak lortzeko denbora asko behar dela, eta, gainera, bere gura-soentzat oso zaila da behar dituen agiriak igortzea. "Paperak nahi ditut, lana egin eta nire familia ikusteko", baina prozesua luzeegia da. (G-3)

Berak imajinatzen zuena desberdina omen zen. Bazituen hemen egondako lagunak, baina hala ere ez zuten imajinatu ere egiten hau den bezalakoa izango zenik. (G-10)

Marokotik joan zen lekuz aldatu nahi zuelako, baina hau ez da imajinatzen duen bezalakoa. "Paperak ez dira hain azkar lortzen. Lana lortu nahi dut, baina oraindik ez dut ezer." Lanerako baimena duela sei hilabete aurkeztu zuen, baina oraindik ez du erantzunik jaso. (G-9)

Lau urte daramatza hartuta, baina pasaporte besterik ez du; ez du egoitza-baimenik. Eskatu egin zuen, baina ukatu egin zioten. (R-3)

ERAKUNDEEN ERANTZUNA

3. ERAKUNDEEN ERANTZUNA

Aurreko kapituluan gure Erkidegora iristen diren adin txikiko atzerritarren errealitateaz aritu gara, eta horien esperientziak, nahiak eta beharrak islatzen saiatu. Kapitulu berri honetan erakundeek ematen dieten erantzuna aztertuko dugu. Horretarako:

- Hasteko, adin txikiko atzerritarrei berariaz zuzendutako baliabideen ikuspegi globala, osokoa bilduko dugu.
- Ondoren, hiru lurralde historiko bakoitzeko egoera aztertuko dugu eskema bati jarraituz:
 - Zein dira horiek babestearen erantzukizuna duten administrazioko organoak edo zerbitzuak.
 - Zer programa edo tresna garatu dira horien beharrei erantzuteko.
 - Berariaz eskainitako zentro edo baliabide bakoitzaren azterketa (deskripzioa eta balorazioa).
 - Baliabide ekonomikoen kuantifikazioa eta eboluzioa.
- Hirugarrenik, zenbait datu esanguratsu eskaintzen dira, 78 espediente aztertu ondoren ateratakoak.
- Azkeneko bi ataletan (3.6 eta 3.7) batetik zailtasunak edo arazoak jaso ditugu (gai honetan eskumendunak diren foru aldundietako erantzuleek azpimarratutakoak) eta bestetik adin txikikoek jasotako arretaz egin duten balorazioa dago.

Txostenaren funtsezko kapitulua da, baita luzeena ere, eta ikusten denez, iturri askotako informazioa erabili da (erakundeetako erantzuleak, artatutako adin txikikoak, zentroetako langileak, harrera egiteko baliabideetara egin diren ikustaldien ondorioak, espedienteen azterketak...) eta bi maila bereziki desberdini buruzkoa da informazio hori: lurraldearen maila eta zentroaren maila.

Kapitulua bereziki deskriptiboa da eta balorazioak partzialak dira; hau da, baliabide jakin bati, lurralde bati, alderdi jakin bati... buruzkoak. Arartekoaren balorazio globala, funtsezko-tzat jotako arazoak azpimarratzen direna, txosten honetako hurrengo kapituluan dago.

3.1. Harrera zentroen ikuspegi globala

Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei erakundeek hiru lurraldeetan emandako erantzuna honakoa izan da funtsean: adin txikiko horiek artatzeko eta harrera egiteko zentro batzuk bereziki abian jartzea. Berriazko zentroak dira –hau da, bereziki beraientzakoak,

babesik gabeko bertako adin txikikoekin banatzen ez direnak-, eta kudeaketari dagokio-
nez, batzuetan beren baliabideekin egin dute, baina gehienetan elkarte edo erakunderen
batekin hitzarmena egin da. Kapitulu honetan zentro bakoitzaren ezaugarriak, gaitasuna
eta mugak aztertutako ditugu zehatz-mehatz.

Urte hauetan, eta zailtasunak zailtasun, berrikuntzak sartu dira baliabideen “sarean”,
aldatzen ari ziren beharretara egokitu asmoz: larrialdietako harrera eta harrera luzea-
goa bereiztu (Bizkaian eta Gipuzkoan); zentro handiaren ordez etxe txikiagoen aukera
(Bizkaian); baliabideak sortu edo pisu sarea babestu emantzipazioa errazteko (Bizkaia)...
Dena dela, ikusiko denez, lurraldeen arteko aldeak nabarmenak dira. Alde horiek urte
hauetako eboluzioari eta egungo egoerari dagozkie. Lurralde bakoitzean artatutako baka-
rrik dauden adin txikiko atzerritar kopuruak egiten du, hein handi batean, alde hori.

17. taulan bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak artatzeko berariaz dagoen zerbitzu
sarea ageri da, baita txosten hau egin denean duten gaitasuna eta ezaugarriak ere.

Aipatu beharra dago zentro edo lurralde bati esleitutako plaza kopuruak balio erlatiboa
duela. Oro har, aldundiaren eta zentroa kudeatzeko erantzukizuna duen elkartearen
arteko hitzarmenean jasotako “gehienezko” plazak izaten dira, esaterako. Dena dela,
lehenbiziko harrera, larrialdikoa, egiten duten zentroetan “gehienezko” hori gainditu
egiten da zentroaren gaitasun egokia behartu eta baldintzak okertuta. Egoera hori ez da
beti salbuespena izaten eta hitzarmen batzuetan jasota dago aukera bezala.

Dena dela, eta taulan jasotako datuei egindako oharra kontuan izanda, laburtzeko esan
dezakegu bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak artatzeko berariazko sarea 2004an
honakoak artatzeko zegoela: Araban 12 neska-mutil, Gipuzkoan 18 eta Bizkaian 82.
Horrez gain, atzerriko neskenzako plazak daude Bizkaian (ikustaldia egin zenean 5
neska, berariaz beraientzako ez den arren), eta plaza kopuru aldakorra eta gora doana
emantzipazio pisuetan, batez ere Bizkaian, (Goizalde, Saio, Zabaloetxeren mende...) eta,
adin nagusiko gazteentzat gehienetan.

Zentroen baldintza fisiko eta estrukturalak alde batera utzita, daturik esanguratsuen eta
harrera egiteko gaitasuna baldintzatzen duena, langileriarri dagokiona da. Ondorengo
koadroan bildu, laburtu eta ikuspegi globala eskaini nahi izan dugu adin txikiko horiek
artatzeko daudenen ezaugarriei buruz.

17. taula: Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrentzako bakarrik edo zati handienean bideratutako egoitza zerbitzu sarea (EAE, 2004)

URTEA	Izena	Udalerria	Titular-tasuna	Kudeaketa	Plazak	Erabiltzaileen ezaugarriak
Araba	Zabaltzen zentroa	Vitoria-Gasteiz	Pribatua	Salestarren komunitateak	12	ADIN TXIKI. 12-18 urte
Bizkaia	Zabalotxe erresidentzia	Loiu	Publikoa	Hitzarmena-Hirugarren. Kaputxinoak	62	ADIN TXIKI. mutikoak
	G. M. de Ibarra zentroa ⁽¹⁾	Urduña	Publikoa	Publikoa. IFAS	30	ADIN TXIKI. mutikoak
	San Adrián elkarbizitza unitatea ⁽¹⁾	Bilbao	Publikoa	Publikoa. IFAS	7	ADIN TXIKI. mutikoak
	San Ignacio elkarbizitza unitatea ⁽¹⁾	Bilbao	Publikoa	Publikoa IFAS	7	ADIN TXIKI. mutikoak
	Basauri elkarbizitza unitatea ⁽¹⁾	Basauri	Publikoa	Publikoa IFAS	6	ADIN TXIKI. mutikoak
Gipuzkoa	Larrialdiko harrera zentroa	Urnietia	Pribatua	Gurutze G.	9	Larrialdiak neska-mutilak 14-17 urte
	Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoitza	Donostia-San Sebastián	Pribatua	Gurutze G.	9	Egonaldi luzeak Neska-mutilak 14-18 urte
EAE (GUZTIRA)	7 zentro edo unitate ⁽²⁾				112⁽³⁾	

Iturria: Foru Aldundiak

Oharrak: (1) G. M. de Ibarra zentroa (Urduña) 2004ko ekainaren 21ean itxi zen eta hiru elkarbizitza unitate jarri ziren horren ordez.

(2) Sagrada Familia zentroa kontuan izan gabe, atzerriko neskak artatzen ziren, Bizkaian (ez zentro berezirik), ezta emantzipazio pisuak ere (gazteentzako gehiago adin txikikoentzako baino).

(3) Berariazko zentroetan osora dauden plazak 2004ko ekainaz geroztik, Urduñako Zentroa itxi eta gero.

18. taula: Zentroetako langileriaren datuak (EAE, 2003-2004)

		Zabaltzen (A)	Zabaloetxe (B)	Urduña (B)	Urnietza (G)	Martutene (G)	GUZTIRA
Profesional kopurua osora		11 ⁽¹⁾	36	34 ⁽²⁾	11 ⁽¹⁾	10	102 ⁽¹⁾
Postua	Zentroko zuzendaria	1	1	1	0,5	0,5	4
	Zuzendariord./erantzulea bestearen faltan	-	1	-	1	1	3
	Modulu erantzulea (dagokionean)	-	1	-	-	-	1
	Txandako erantzulea	-	-	-	-	-	-
	Hezitzailea	6	26	15	9	8	64
	Zaintzailea	4	-	6	-	-	10
	Etxeko lanak egiteko langileak	-	Enpresa (1)	4	0,5	0,5	6
	Sukaldekoak	-	Enpresa (3)	3	-	-	6
	Segurtasunekoak	Enpresa	Enpresa (3)	4	Enpresa	-	7+
	Besteak	-	-	1	-	-	1
Urteak postuan	Urtebete baino gutxiago	9	6	1	4	5	25
	1-2 urte	2	5	3	4	3	17
	3-5 urte	-	18	19	2	1	40
	5 urte baino gehiago	-	-	7	0,5	0,5	8
Laneguna	Osoa	10	29	30	8,5	7,5	85
	Partziala	1	-	-	2	2	5
Postua bete	Hutsik	1	-	20	-	-	21
	Behin betiko langileek beteta	-	23	7	-	-	30
	Behin behinekoek beteta	-	6	3	-	-	9
Adina	26-30 urte	7	14	7	6	7	41
	31-40 urte	3	11	11	4,5	2,5	32
	41-50 urte	1	1	8	-	1	11
	51-65 urte	-	3	4	-	-	7
	65 urte baino gehiago	-	-	-	-	-	-
Sexua	Emakumeak	-	4	12	-	-	16
	Gizonak	11	25	18	-	-	54
Zenbat urteko esperientzia nerabeak egoitzetan artatzen	Urtebete baino gutxiagokoa	7	3	-	4	5	19
	1-2 urtekoa	1	6	-	4	3	14
	3-5 urtekoa	3	14	20	2	1	40
	5 urte baino gehiagokoa	-	6	10	0,5	0,5	17
Zenbat urteko esperientzia gizarte artapeneko beste arlo batzuetan	Urtebete baino gutxiagokoa	6	2	-	-	-	8
	1-2 urtekoa	2	7	5	-	-	14
	3-5 urtekoa	-	14	10	-	-	24
	5 urte baino gehiagokoa	3	6	-	-	-	9
Prestakuntza orduak 2003an	Bat ere ez	8	13	5	-	-	26
	40 ordu baino gutxiago	-	10	20	-	-	30
	40 ordu baino gehiago	3	16	5	-	-	24
Baja egunak 2003an	Bat ere ez	10	15	6	-	-	31
	30 egun baino gutxiago	1	8	12	-	-	21
	30 egun baino gehiago	-	6	12	-	-	18
Zuzeneko arretako langileen kualifikazioa	Pedagogian lizentziadunak	-	6	2	1,5	0,5	10
	Psikologian lizentziadunak	1	7	2	2	2	14
	Gizarte Lanean diplomatuak	3	3	2	2	1	11
	Maisutzan diplomatuak	5	2	3	-	1	11
	Gizarte Heziketan diplomatuak	-	8	2	4	5	19
	Beste kualifikazioak	2	3	19	-	-	24
	Kreditatutako kualif. profesionalik ez	-	-	-	-	-	-
Adin txikikoen hizkuntza eta kultura ezagutzen dute	Bai	1	3	6	-	-	10
	Ez edo gutxi	10	26	24	-	-	70

Iturria: Harrera zentroak

Oharrak:

(1) Segurtasuneko langileak kontuan izan gabe.

(2) Urduñako gehienak 2004ko ekainean etxe funtzionaltara igaro ziren.

Taulari esker, atzerriko adin txikikoei eskainitako zentroetan lana egiten duten 100 pertsona ingururen ezaugarri pertsonaletara eta profesionaletara hurbildu gara. Zentroen arteko alde nabarmenak ere kalkula daitezke pertsonala / adin txikikoa bezalako ratioei dagokienez, profesional kopurua eta artatutako adin txiki kopurua erkatzean (17. taulan emandako datua).

Aldeak alde, zentro bakoitzaren egoera deskribatzean kontuan izango ditugu berriro. Zentro horietako profesionalen nolabaiteko profila ere ematen digu taulak:

- Gehienak heziketan aritzen dira (%64) eta egun osoan;
- Postuan epe nahiko garrantzitsua daramate;
- Araban gizonezkoak kasu guztietan; Bizkaian ere bai 10etik 7tan; Gipuzkoan emakumea gehienetan (datu hau taulan ez dagoen arren).
- Nahiko gaztea;
- Artatzeko beste arlo batzuetan esperientzia duena;
- Zentro batzuetan laneko baja kopuru handiarekin;
- Lanerako profesionalki kualifikatua;
- Adin txikikoen hizkuntza eta kultura ia bat ere ezagutzen ez dutenak (Arabian eta Gipuzkoan bereziki).

3.2. Arabako Lurralde Historikoa

Arabako datuekin hasi aurretik, esan dugun gisan, atal honetan eta hurrengo bietan bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei ematen zaien trataera aztertuko dugu lurralde historiko bakoitzean, lau puntuko eskema jarraituz:

1. Erabakietan esku hartzen duten erakundeak eta zerbitzuak zeintzuk diren eta nola dauden antolatuta.
2. Harrera, dokumentazio, hezkuntza eta trebatze edo emantzipazio premia oinarritzoei erantzuteko sortu diren programak eta zerbitzuak zeintzuk izan diren.
3. Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak hartzen dituzten egoitza zerbitzuetan ikusitako egoera.
4. Premien bilakaera eta kolektibo horri zuzendutako baliabideen kuantifikazioa.

Atal honetan eta hurrengo bietan bildutako eta aztertutako ia informazio guztia Foru Aldundiek emandakoa izan da, arartekoak txostena egiteko bideratutako datuen eskaerari erantzunez. Bertan 12 galdera aurkeztu ziren:

1. Aldundiaren erabaki erakundeak eta erantzuleak, bakarrik dauden adin txikikoei dagokienez (organigrama).
2. Zerbitzuak, batzordeak, esku-hartzen duten talde teknikoetako langileak (esklusiboki aritu edo ez).
3. Itundutako zerbitzuen laguntza (zein erakunde / zein funtzio edo programatarako / zein motatako itunen bidez...)
4. Adin txikiko horiei zuzendutako programak, laguntzak (harrerazkoak bakarrik ez).
5. Egoitza berezietako egoitza harrera ez den beste neurriren bat (familietan hartzea edo atzerritarrak ez diren beste adin txikiko batzuekin pisuetan bizitzea...)
6. Irizpideak, jarraibideak, araudia, protokoloa..., adin txikiko horiek babesean daudenetik hortik atera arteko (dokumentuak indarrean) esku-hartze prozedurak ezarriko dituztenak.
7. Egoitza zerbitzuen sarea eta adin txikiko horiei bakarrik edo oro har zuzendutako beste zerbitzu sare batzuk. Zerbitzu bakoitzean hau adierazita: izena eta helbidea, titulartasuna, kudeaketa (bidea/aurrekontua/elkartea...), lekuak (edukiera), erabiltzaileen ezaugarriak (adina/sexua/ larritasunak...). Eta beste adin txikiko batzuekin partekatutako zerbitzuen kasuan, norekin eta zein proportziotan adierazita.
8. Lurraldean izandako bilakaeraren inguruko datuak.
9. 2003ko gastu zehatzak (kontzeptuen banakatzea eta aurrekontu-sailak).
10. 2004rako onartutako aurrekontuak (sailak eta kontzeptuak).
11. Zailtasun eta arazo nagusiak, Diputazioko arduradunen arabera.
12. Hobetzeko aukerak eta proiektuak.

Lehen hamar puntuak hemen laburtuko ditugu, eta azken biak kapitulu bereko 3.6 atalean.

3.2.1. **Erabaki erakundeak eta esku-hartzen duten zerbitzuak (Arabako Foru Aldundia)**

- Euskal Autonomia Erkidegoaren eskuduntzak besterentzea betearazteko 1985eko azaroaren 5eko 469/85 Dekretuaren arabera, Arabako Lurralde Historikoan adin txikikoen babesari dagokionez eskuduntzak esleituta dituen erakundea da Arabako Adin Txikikoaren Kontseilua. Eskuduntza horien arabera, Kontseiluak bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei dagozkien babes neurriak bere gain hartzen ditu.

Adin Txikikoaren Kontseiluaren eraketa, gaur egun, honakoa da:

- Presidente Arabako diputatu nagusia
- Presidenteordea Gizarte Gaietako diputatua
- Batzordekidea Gizarte Gaietako zuzendaria

Adin Txikikoaren Kontseiluak 2003ko azaroaren 13an hartutako erabakiaren arabera, Gizarte Gaietako presidenteordeak zein zuzendariak Adin Txikikoaren Kontseiluko hainbat ahalmen delegatzen dituzte, adin txikikoen tutoretza eta zaintza, besteak beste.

- Izendapen bidezko batzordekideak (4)
- Idazkaria

- Babes neurriak betearazteaz Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea arduratzen da, lurraldean bizi edo bertatik pasatzen diren adin txikiko guztien babes sektoreari zuzendutako hainbat zerbitzu eta programa kudeatzen dituen Adin Txikikoaren eta Familiaren Arloaren bitartez.

Adin Txikikoaren eta Familiaren arloa Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen esku dago eta hiru unitatetan egituratzen da:

- Harrera- eta balorazio-unitatea.
- Egoitza-harrera unitatea.
- Familia-harrera eta adopzio unitatea.

Unitateetako bakoitza talde tekniko batek eta erantzule edo taldeko buru batek osatzen dute. Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei dagokienez, egoitza-harrera unitateari atxikita daude. Unitate hori hauek osatzen dute:

- Taldeko buru 1
- Psikologo 1
- Gizarte-langile 1
- 2 hezitzaile


Profesional horiei dagokie, bidezko koordinazioaren bitartez (barne unitateekin nahiz adin txikikoak hartzen dituzten programa eta zentroekin egindako koordinazio-lana), laguntza teknikoa ematea eta guztia gainbegiratzea, bai banako programetan, bai zentroko programetan.

Gainera, Adin Txikikoaren eta Familiaren Arloan Balorazio eta Orientazio Batzordea dago. Babes baliabide eta neurrien zerga-kasuei dagokienez udaleko gizarte zerbitzuek egindako proposamenak aztertzen dira bertan. Proposamen horiek eta aplikatu beharreko baliabide egokia baloratu ondoren, proposamena Adin Txikikoaren Kon-

tseiluari eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari gerenteari bidaltzen zaie, bertan onar dezaten.

Datorren organigramak sailaren barne antolaketa eta adin txikikoen arretan esku hartzen duten unitateen eta arloen harremana jasotzen du.

16. grafikoa: Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Gaietarako Sailaren eta adin txikikoei arreta eskaintzen dien unitateen organigrama



3.2.2. **Premiei erantzunez sortutako zerbitzuak, programak eta tresnak**

- Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren zuzeneko arretarako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak lankidetzat hitzarmenak ditu hauekin:
 - San Francisco de Sales salestar komunitatea: bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrentzat egoitza-harrera programa kudeatzen du – Zabaltzen zentroa.
 - Arabako Gurutze Gorria: eskola arloko laguntza (alfabetatzea) eta trebakuntza jarduerak garatu, gizarteko gaitasunak zein eguneroko eginkizunak irakatsi, aisialdia eta denbora librearen aprobetxatzea, edo lanean hasteko prestakuntza eskaintzen ditu.

Gainera, adin txikiko atzerritarrek arloko gainerako programak izan ditzakete, kasuaren arabera, eta zehatzago, izan ditzaketen beharretara egokituagoak, ondorengoak ere izan ditzakete:

- Egoitza ondorengo jarraipen-programa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak kudeatutako sostengu laguntzei dagozkien laguntza ekonomikoak barne hartzen dituena.
 - Beste zentro zehatz batzuk (Zandueta terapia-komunitatea edo Sansoheta zentroa, besteak beste).
 - Laguntza psikologiko eta pedagogikoko programak.
- Informazio-bilketa egunera arte, 5 mutiko sartu ziren babeserako etxe-sare arruntan; mutiko horiek sare horren bitartez jarraitu zuten beren integritate-prozesua.

Beste adin txikiko atzerritar bi Araban bizi ziren familiartekoekin bizitzera joan ziren (anaiarekin eta osabarekin, hurrenez hurren).

- Gizarte Gaietako foru-diputatuaren erantzunaren arabera, adin txikikoak babesean sartzen direnetik hortik atera arte esku-hartze prozedurak ezartzen dituzten irizpideei, jarraibideei, araudiari, protokoloari... dagokionez, atxikitako oinarriko dokumentuak hauek izango lirateke:
 1. *Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren protokoloa*, 2004ko urtarrilaren 14koa, Ministro arteko Kontseiluak eta Autonomiarterako egindakoa, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak koordinatuta.
 2. 8. eranskina (“Esku-hartzea bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrekin”) *Arabako Lurralde Historikoan haurrei zuzendutako Gizarte Zerbitzuentzako jardueraren gida*.
 3. 2003ko ekainean, Zabaltzen zentroa irekitzean, egindako dokumentua, “*Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrentzat egoitza-harrera programa*” izenburupean.

Hemen adieraziko dugu, labur, hiru dokumentu horien edukia.

1. 2004ko urtarrilaren 14ko *Protokoloari* dagokionez, 864/2001 Errege Dekretuaren 62 artikulua ekintzak garatzen dituen marko-dokumentua da, 8/2000 Lege Organikoak aldatutako 4/2000 Lege Organikoa Betearazteko Araudia onartzen duena. Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren aldetik bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren Erregistroa funtzionamenduan jartzea ere aztertu du.

Pausoz pauso, Segurtasun Gorputzek eta Indarrek bakarrik dauden adin txikiko atzerritar bat topatzen dutenetik egin beharreko ekintzak zehaztu nahi ditu (zer egin; nori jakinarazi...), pauso bakoitzean erakunde erantzuleak adieraziz. Edukia arretaz aztertzen da txosten honetan bertan, “Esparru juridikoa” deritzan 1. kapituluan.


Hurrengo ataletan ikusiko den bezala, “Autonomia Erkidegoko Adin Txikikoen babeserako Erakunde Publikoari” berariaz dagozkion ekintza edo betebeharretan zehaztu eta garatu da Protokolo komun hori Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeetan.

2. *Haurrei zuzendutako Gizarte Zerbitzuentzako jarduera gidako 8. eranskinari dagokionez:*

- Arabako kolektiboaren bilakaera-datuak biltzen ditu;
- Esku-hartzeko legezko esparrua gogorarazten du;
- Esku-hartzeko prozesu orokorra eta prozesu horretan Adin Txikikoaren eta Familiaren Arloari (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea) dagozkion funtzioak argitzen ditu;
- Egoitza-harrera unitatean esku-hartzeko prozesua eta helburuak garatzen ditu:
 1. Presazko babes neurriak hartzea eta deribatzea.
 2. Balorazioa.
 3. Kasu Plan baten diseinua eta onarpena.
 4. Kasu Planaren betearazpena.
 5. Esku-hartzeko baliabideak.

Komeni da zehaztea, prozesuaren azken atal horretan, pausu bat emateko gehienezko denbora zehazten duela, askotan, Eranskinak (“ez da hamabost egunetik gorakoa izango”; “bi aste baino gehiago ez”...).

Esku-hartze prozesu orokorrari dagokionez, eta Protokoloaren arabera, prozesua ondorengo eskemaren bitartez azaltzen da; hemen islatutako bi ohar egin zaizkio.

17. grafikoa: Esku-hartze prozesu orokorra (1)

Iturria: Arabako Foru Aldundia (Arabako Lurralde Historikoan haurrei zuzendutako Gizarte Zerbitzuentzako jardueraren gida).

(1) “Bakarrik dauden Adin Txikiko Atzerritarren Protokoloa” dokumentutik ateratakoa. Grafikoak egungo legezko esparrua oinarritzat hartuta sortutako egungo lan prozedura agertzen du. Baliteke laster lege eta egitura aldaketak gertatzea adin txikikoen arretari dagokionez. Hala izango balitz, lan prozedura hori aldaketa horietara egokitu beharko litzateke.

* Egungo lan protokoloaren arabera, berehalako arreta hori salbuespenetan bakarrik izango da adin txikikoa egoitza batean sartzea. Hala ere, horrelako kasuetan eskuduntza duten gainerako erakundeetan baliabide egokirik ez dagoenez, egun, kasu gehienetan, berehalako arreta hori adin txikikoa egun batzuetarako egoitza batean sartzea izan ohi da, ondoren, nagusia dela zehaztuz gero egoitza atez.

3. Azkenik, “Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrentzat Egoitza-harrera Programa”, 2003ko uztailan egindakoa, Zabaltzen zentroaren irekierarako. Zentroaren premiak justifikatu eta ekintza ildoak ezartzen ditu:

- Programaren helburuak.

- Jasotzaileak.
- Programaren ezaugarriak.
- Harrera-zentroaren kokapena.
- Hezkuntza proiektuaren faseak.

Azken atal hori (“Hezkuntza proiektuaren faseak”) da garatuena, zehaztasun gehien ematen dituen, eta zentroaren funtzionamendua balioztatzeko informazio erabilgarriagoa eskaintzen duena. Ondorengo puntuak garatzen ditu:

HASIERAKO FASEA: KASUAREN HARRERA ETA LEHEN PAUSOAK	BIGARREN FASEA: PROTOKOLOAREN MEKANISMO GUZTIAK GARATzea
Fasearen helburuak (3) Ekintzaren helburuak (5) Fasean hartu beharreko neurriak babes egokia emateko (3) Eskaintzak (8) Eskakizunak (5) Iraupena (astebete eta hamar egun bitartean)	Fasearen helburuak (9) Irizpideak (hasierako fasean bezala) Hartu beharreko neurriak: - Etorkizuneko ikuspegiak egoki identifikatu eta argitzeko (4). - Adin txikikoaren dokumentaziorako (6) - Osasun estaldura egokirako (3) - Hezkuntza prozesuen inplikaziorako (3) - Denbora librea okupatzeko (4) - Egoitza ondorengo jarraipen-programara pasatzeko (3) Eskakizunak (3) Iraupena

Iturria: “Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrentzako Egoitza-harrera Programa” dokumentua. Bertan egina.

3.2.3. **Zabaltzen Zentroaren azterketa**

Zabaltzen Zentroa 2003ko ekainean hasi zen bakarrik zeuden adin txikiko atzerritarrak hartzeko eremu izaten. Aurretik, 2001eko urtarrilaz gero, adin txikiko horiek, Bosco Etxea Zentroan hartzen ziren atzerritarrak ez ziren neska eta mutil nerabeekin batera. Bosco Etxea San Frantzisko Saleskoaren elkarteak kudeatzen zuen Arabako Foru Aldundiko Giza Ongizaterako Foru Erakundearekin egindako hitzarmen baten bidez. Atzerritar kopuruak gora egiten zenez eta horien jokaerak, nahiak eta helburuak bereziak zirenez, erantzuleen ustez beharrezkoa zen artatze eredia egokitzea, lankidetzaz Hitzarmenean (2003) adierazi bezala. Horren ondorioz, berariazko programa bat sortu zen, eta 2003ko ekainean Zabaltzen Zentroa ireki zen Gurutze Gorriaren eraikin batean.

Toki hori behin-behinekoa zen arren, txosten hau itxi zenean artean ere iraun egiten zuen. Zerbitzua dagoen eraikina Gurutze Gorriaren zentro bat da eta hainbat ekintzarako erabiltzen da. Horregatik, adin txikiko atzerritarrak gauetik goizera bakarrik egon daitezke bertan. Horregatik eta zentroaren egitura egokia ez delako, alternatiba bila zebiltzan tokiz aldatu eta egoitza egonkorra bat prestatzeko. Gurutze Gorriaren instalazioez gain, Carlos Abaitua aterpetxeko plaza batzuk ere erabiltzen dira adin txikiko batzuk artatzeko (ikustaldia egin zenean 4). Aterpe hori Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailaren mende dago.

Zabaltzen Zentroa 2004ko ekainaren 17an eta 28an egin ziren ikustaldiak. Egun horietan honako lanak egin ziren sarrerako kapituluaren aipatzen diren irizpideak eta materialak erabilia (metodologia atala):

- Instalazioak ikusi.
- Zentroko zuzendariarekin elkarrizketatu.
- Hezitzaile batekin elkarrizketatu.
- Zentroan eta aterpean artatutako adin txikikoekin elkarrizketatu, baita gaur egun independente diren arren garai batean zentroan bizi zirenekin ere.

Ondoren dago azpiegiturari, antolakuntza alderdiei eta zentroaren funtzionamenduari buruz jasotako informazioa.

ZABALTZEN ZENTROA	
Herria Vitoria-Gasteiz (Araba)	Erabiltzaileen adina ebaluazioa egin zen unean 14-17 urte
Titulartasuna Eraikinarena: Gurutze Gorria Kudeaketa - Urteko hitzarmena San Frantzisko Saleskoaren lagunartearekin	Langileak Zuzeneko artapena egiten dutenak: 11 Segurtasunekoak (enpresa kontratatuta): 1
Edukiera 12 plaza zentroan Plaza aterpetxea	Langileria / erabiltzaileak ratioa Plaza guztientzat: 1 Okupatutako plazentzat: 0,92
Okupazioa (2004ko ekainak 17) 9 zentroan 4 Aterpetxean 3 zenbait elkartet kudeatutako etxeetan	Logela kopurua 4 plazakoak: 1 8 plazakoak: 1
Adinak / Generoa Mutikoak bakarrik, 12-18 urte	Bainugela kopurua Erabilera eskusiboko bainugela oso 1 2 komun dutxarrik gabe eraikineko oinean

ZENTROAREN EGITURA BALDINTZAK

- Kokapena eta ingurua
 - Zentroa Gasteizko bizitegi zona batean dago.
 - Ez dago zentroa han dagoela adierazten duen inolako seinalerik.
- Zentroaren diseinua eta beharretara egokitzea
 - Adin txikiko atzerritarrek erabiltzen dituzten lokalak Gurutze Gorriko eraikin batean daude, eta eraikin hori elkarte horren zenbait ekintzetarako erabiltzen da. Azkeneko solairuan egokitu da adin txikikoak bizitzeko eremua. Solairu horretan programarekin zerikusirik ez duten beste jardura batzuk ere egiten direnez, sarrera irekia da. Lokal hori behin-behinekoa da, egokiena ez delako eta mugak dituelako. Adin txikikoak bizi ahal izateko etxe baten bila dabilta, baina ikustaldia egin zenean, behin-behineko egoeran zeramatzen urtebete.
 - Hamabi lagunentzako tokia du.

- Adin txikikoentzako zatian bi logela daude, sukalde-jangela bat, telebista eta mahai handi bat dituen egongela bat eta hezitzaileen egongela-bulegoa, biltegi bezala ere erabilia. Bainugela oso bat dago, eta logeletako batetik joaten da horra. Solairuko mutur bakoitzean dauden komunak ere erabil daitezke, baina horiek eraikinean dauden guztientzako dira, gainera, ez dute dutxarik, beraz, dutxa bakarra dute adin txikiko guztientzat.
- Eraikinaren diseinua dela eta, ez da nahikoa aireztatzen eta adin txikikoak bizi diren solairuan tenperatura altuegiak izaten dira.
- Funtsezko muga dago ordutegiari edo zentroan egoteko denborari dagokionez: adin txikikoak gaueko 8-9etatik goizeko 9:30ak arte bakarrik egon daitezke bertan edo Gurutze Gorriarekin hitzartutako jarduerak egiteko (alfabetizazio tailerrak, sukaldaritza edo autonomia).
- Alderdi orokorrak, dekorazioa eta altzariak
 - Altzariak berriak dira eta egoera onean daude, baina ez du itxura goxoa, beraz, zenbaitetan zaildu egiten da hezitzailea-adin txikikoa harremana.
 - Sukaldea duela gutxi erositakoa da eta oso egoera onean dago, eguerdiko jatorduetarako erabiltzen ez den arren.
- Erabilera indibidualeko eremuak
 - Logeletako bat lau lagunentzako da, bestea zortzirentzako. Handiak dira eta ohatzeak eta takilak dituzte.
 - Takilak giltzaz itxita egoten dira. Adin txikikoek eta hezitzaileek dituzte giltzak.
- Aisia eta denentzako eremua
 - Denentzako eremu bakarrik sukaldea eta egongela dira. Azkeneko honetan telebista, plastikozko aulkiak eta mahai bat daude.
- Segurtasun sistema
 - Eraikinean su itzalgailuak badaude, baina ke detektagailurik ez.
 - Gauetan segurtasuneko jendea egoten da.
- Mugak kentzea
 - Zentroa irisgarria da mugitzeko zailtasunak dituztenentzat: igogailua du eta ez dago sartzeko eskailerarik.
- Beharrezko hobekuntzak
 - Behin-behineko kokapena izan arren, hauek lirateke premiazko eraberritzeak:
 - Adin txikikoentzako beste dutxaren bat jarri.
 - Aireztatzeko sistemaren bat jarri, eraikinaren egitura dela eta tenperatura altuegiak izan ez daitezten.
 - Eraberritzeren bat egin adin txikikoei eskainitako tokiak independentzia handiagoa izan dezan.

LANGILERIA

- Plantillaren egokitzapena
 - Kontratututako hezitzaile guztiak gizonak dira, ez dago emakumerik.
 - Hezitzaile bat jatorriz Aljeriakoa da.
 - Taldea nahiko egonkorra da.

- Taldeko kide batzuen ustez, hezitzaile kopurua gehitu egin beharko litzateke.
- Kontratazioa, aukeraketa eta pertsonalaren kontrola
 - Salestarrek kontratatzen eta aukeratzen dituzte langileak zuzenean, beraiena baita zentroaren Zuzendaritza.
- Gainbegiratzea eta langileei babesa
 - Ez dago planifikatutako gainbegiratzerik, nahiz eta aldundiaren eta zentroaren arteko harremana ona izan. Lankidetzat hitzarmenean urtean gutxienez bi bilerak egingo direla aurreikusten da, programak baloratu eta jarraipena egiteko. Kasuen koordinatzailea (adin txikikoen eta familien Arloko teknikaria) hilean behin joaten da zentroko langileen bilerara, baina adin txikikoen kasuetan bakarrik hartzen du parte.

OINARRIZKO ESKUBIDEAK

- Hezkuntza
 - Ez dute adin txikikoak matrikulatzeko arazo larririk, baina zaila izaten da egoitza baimenik ez dutenean, ikastaro batzuk ezin baitituzte egin; baita ikasturtearen erdian etortzen direnean ere.
 - Adin txikikoak 16 urtetik gorakoak baldin badira, Lanbide Hastapeneko Zentroetara joaten dira oro har. 16 urtetik beherakoak baldin badira, berriz, atzerritarrentzako gela berezi bat duen Institutu batera joaten dira.
 - Gainera, Gurutze Gorriak antolatutako gazteleraz alfabetatzeko ikastaroetara joaten dira (hitzarmenean aurreikusiak) edo HHE Zentroetara, Norabide-ra edo herri kultura zentroetara.
- Osasuna
 - Ez da inolako arazorik egoten osasun txartel indibiduala lortzeko.
 - Gertu dagoen osasun zentro batekin jarduera protokolo bat ezarri da, adin txikikoak iristen direnean egin beharreko probei buruz. Era berean, Epidemiologiarekin ere bada protokolo bat, analisien emaitzak jakindakoan jarri beharreko txertoak zein diren finkatzen duena.
 - Beharrezkoa da erantzun handiagoa eta hobea eskaintzea arazo psikiatrikoei eta droga gehiegi hartzearen ondorioz sortutakoei.
- Intimitatea–Pribatutasuna
 - Adin txikikoek takila indibidualak dituzte giltzarekin.
- Partehartzea
 - Ez dago taldean parte hartu ahal izateko artikulatutako biderik.
 - Adin txikikoak arduratzen dira garbiketaz eta afaria prestatzeaz txandaka.
- Konfidentziasuna
 - Espedienteak sarrera mugatua duen gela batean daude.
 - Adin txikikoei buruzko datuen eskari guztiak Arabako Foru Aldundira erartortzen dira (adin txikikoa eta familia Arloa).
- Kexatzeko prozedura
 - Ez da kexatzeko prozedurarik ezarri, nahiz eta adin txikikoek badakiten zentroko koordinatzailearengana eta kasuen koordinatzailearengana joan daitezkeela eskariak egitera.

- Informazioa
 - Ez dago inolako foiletorik adin txikikoei zentroko arauak azaltzeko heltzen direnean.
- Diferentzia errespetatu
 - Janari arloko diferentziak errespetatu egiten dira eta Ramadana egiten da.
 - Zentroko hezitzaile batek arabiera badaki.
 - Adin txikiko batzuek gaztelera-arabiera hiztegia eskatu dute.

HEZKUNTZA JARDUERARAKO TRESNAK

- Hezkuntza proiektu bat badute, baita barne araudi bat ere (Bizikidetzeta gida). Baina hasierako dokumentuak dira eta gainbegiratu beharra dago, nahiz eta ez den horretarako ezer egin.
- Adin txikikoekin tutoreen bidez egiten da, batez ere, lana. Adin txikiko bakoitzari hezitzaile bat izendatzen zaio, eta horrek jarraitzen du adin txikikoaren prozesua gertuenetik.
- Hezitzaile taldea astean behin biltzen da zentroko adin txikiko guztien kasuz aritzeko.

DENBORA ERABILTZEKO BALIABIDEAK (JARDUERAK)

- Bertako baliabideak
 - Zentroan sukaldaritza, alfabetizazio eta autonomiarako prestakuntza tailerrak egiten dira, Gurutze Gorriarekin egindako hitzarmenaren arabera.
- Kanpoko baliabideak
 - Adin txikikoek inguruko gimnasioak, zentro zibikoak eta bestelako zerbitzuak erabiltzen dituzte.
 - Egoiliarrak jatetxe batera joaten dira egunero bazkaltzera, aurrez adostuta dago jatetxearekin menua.

GIZARTE GIROA (AUZOKOAK, ALBISTEEN TRATAMENDUA)

- Auzokoek zenbait komentario egin dute, batez ere, Bosco Etxea oso gertu dagoelako. Azkenaldian (ikustaldiaren aurretik) gorabehera batzuk izan dira bi zentroetako adin txikikoen artean.

3.2.4. Adin txikiko horiei zuzendutako baliabideak zenbatzea eta premien bilakaera

Erkidegoko hiru lurraldeetatik, Araba izan da urte hauetan zehar, alde handiarekin, bakarrik dauden adin txikiko atzeritarren presentzia eta harrera-premia txikiena izan duena. Hala ere, bilakabidearen datuek azken urteetako hazkunde handia eta nesken presentzia esanguratsua agertzen dute.

19. taula: Arreta-premien bilakaera Araban (1996-2004)

URTEA	Irekitako espediente kopurua	Egindako tutoretza kopurua	Harreran hartutako adin txikikoen kopurua		Egoitza-zerbitzuetan sartutakoen kopurua	
			Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak
1996	-	-	-	-	-	-
1997	8	0	8	0	8	0
1998	9	0	9	0	9	0
1999	14	0	12	2	12	2
2000	5	0	5	0	5	0
2001	10	0	10	0	10	0
2002	29	3	26	3	26	3
2003	42	1	38	4	38	4
2004	20	23	32	1	40	1
GUZTIRA	137	27	140	10	148	10

Iturria: Arabako Foru Aldundia. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

Bakarrik dauden adin txikikoei zuzendutako baliabideei (batez ere egoitza-baliabideei) dagokienez, larrialdi zerbitzuak edo orokorrak erabiltzetik (Hazaldi eta beste egoitza batzuk) nerabeetan espezializatutako zentroak erabiltzera pasatu da (Bosco Etxea), eta azkenik, adin txikiko atzerritarrei bereziki zuzendutako zerbitzua sortzera (Zabaltzen); zerbitzu hori gainerako sarearekin harremanetan dago.

Ondorengo taulan antzeman daiteke bilakaera hori; hala ere, datuak (aurrekontuetakoak, toki edo plaza kopuruari nahiz langileei dagozkienak) ez dira alderagarriak euren artean, espezializatuak ez diren zerbitzuetan, harreran hartutako adin txikiko guztiei zuzendutako baliabide guztiak jarri baitira (bai atzerritarrenak, bai bertakoak).

20. taula: Araban kolektibo horren premiei erantzuteko erabilitako baliabideen bilakaera (2000 - 2003)

Baliabideak	2000	2001	2002	2003
Gauzatutako aurrekontu zehatza	<i>Hazaldi:</i> 37.126.280 pta. ⁽¹⁾	<i>Hazaldi:</i> 39.617.017 pta. ⁽¹⁾ <i>Bosco Etxea:</i> 25.829.606 pta. ⁽¹⁾	<i>Hazaldi:</i> 245.157,90 euro ⁽¹⁾ <i>Bosco Etxea:</i> 251.372,23 euro ⁽¹⁾	<i>Hazaldi:</i> 395.467,80 euro ⁽¹⁾ <i>Bosco Etxea:</i> 445.550,73 euro ⁽¹⁾ <i>Zabaltzen:</i> 177.511,79 euro <i>Gurutze Gorria:</i> 14.884,74 euro
Zerbitzuen sarea (zentroak eta gehienezko plaza kopurua)	<i>Hazaldi:</i> 22 plaza, sektoreari orokorrean zuzendutakoak (0-18 urte)	<i>Hazaldi</i> (berdin) <i>Bosco Etxea:</i> 8 plaza, sektoreari orokorrean zuzendutakoak (12-18 urte)	<i>Hazaldi</i> (berdin) <i>Bosco Etxea:</i> 10 plazara igo da (12-18 urte)	Ekainaren 9an Zabaltzen zentroa ireki zen. Ordura arte Bosco Etxean hartzen ziren lehentasunez eta Hazaldin
Arduraldi osoko langileak	<i>Hazaldi:</i> ⁽¹⁾ Erantzule 1 6 hezitzaile /erlijioso Hezitzaile 1 Gauetako zaintzaile 1 Osasun Laguntzaile Tekniko 1 Gauoko 2 zaintzaile 3 zaintzaile Garbitzaile 1 Sukaldari 1	<i>Hazaldi</i> (berdin) <i>Bosco Etxea:</i> 4 hezitzaile 2 begirale Sukaldari 1	<i>Hazaldi</i> (berdin) <i>Bosco Etxea:</i> ⁽¹⁾ 6 hezitzaile 2 begirale Sukaldari 1	<i>Hazaldi</i> (berdin) <i>Bosco Etxea:</i> ⁽¹⁾ 6 hezitzaile 2 begirale Sukaldari 1 Segurtasuneko 1 Koordinatzaile 1 ⁽²⁾ <i>Zabaltzen:</i> 6 hezitzaile 4 zaintzaile Gauoko segurtasuneko 1 ⁽²⁾ Koordinatzaile 1 ⁽²⁾
Beste baliabide batzuk	Adin txikikoak gelditzen zirenean etxeetara lekualdatzen ziren (Geroa, Sansoheta)	Premiaren aurrean, Hazaldi eta Bosco Etxearen artean lekuak banatu dira	Premiaren aurrean, Hazaldi eta Bosco Etxearen artean lekuak banatu dira	Arreta espezializatuko beste zentro batzuk (Zanduetan Terapia Komunitatea), kasuak hala eskatzen duenean. Jarraipen programa (Carlos Abaitua Ostata, hezkuntza-laguntzarekin)

Iturria: Arabako Foru Aldundia. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

⁽¹⁾ Plaza guztietarako; ez bereziki bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrentzat.

⁽²⁾ Segurtasun koordinatzailea eta langileak Bosco Etxea eta Zabaltzen zentroen artean banatzen dira.

Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren arretari bereziki zuzendutako aurrekontuei dagokienez, (2003ko gastuak eta 2004rako onartutako aurrekontuak) ondorengo taulan labur daitezke:

21. taula: Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren arretarako aurrekontuak eta partidak (Arabako Foru Aldundia, 2003 eta 2004 urteak)

	2003. urteko gastuak ⁽¹⁾	Onartutako aurrekontua, 2004 ⁽¹⁾
Zabaltzen zentroa	Langileak: 140.341, 91 € Funtzionamendua: 31.845,80 € Kanpoko lan eta zerbitzuak: 5.324,08 € Guztira: 177.511, 79 €	525.741,52 €
Gurutze Gorria	(Mantentzea, jarduerak, berrikuntzak...) Guztira: 14.884,74 €	20.909,00 €
GUZTIRA	192.396,53 €	546.650,52 €

Iturria: Arabako Foru Aldundia. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

⁽¹⁾ 2003ko eta 2004ko aurrekontuen arteko konparazioa egiteko, kontuan izan behar da Zabaltzen zentroa 2003ko ekainean jarri zela abian eta Gurutze Gorriko lokalak ere orduantxe hasi zirela erabiltzen; beraz, partidek ez dute guztia hartzen.

3.3. Bizkaiko Lurralde Historikoa

3.3.1. **Erabaki erakundeak eta esku-hartzen duten zerbitzuak (Bizkaiko Foru Aldundia)**

- Bizkaian bakarrik dauden adin txikikoen arretaren erantzukizuna honakoek dute:
 - Gizartekintza Saila, Ume, Emakume eta Pertsona Ezinduen Zuzendaritza Nagusia, Umeen Zerbitzuak (Sailaren egitura organikoa ezartzen duen 2004ko apirilaren 20ko 67/2004 Foru Dekretuaren arabera).

Zerbitzu horrek hiru atal ditu:

- Harrera, Balorazio eta Orientazio Atala.
- Familia-harrera eta Adopzio Atala.
- Egoitza-harrera Atala.

Atal bakoitzaren egiteko zehatzak aipatutako Dekretuko 23, 24 eta 25 artikuluetan ezartzen dira.

- Gizarte Laguntzako Foru Erakunde (GLFE), titulartasun publikoko Egoitza-zentroen kudeaketaz arduratzen den Gizartekintza Sailaren erakunde autonomoa. Horri atxikita daude bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren arretari bereziki zuzendutako zentroak: Urduñako G. M^a de Ibarra Zentroa (2004ko ekainera arte) eta San Adriango, San Ignazioko eta Basauriko Bizikidetz Unitate Txikiak (2004ko ekainetik). Era berean, Saileko egitura organikoari buruzko Dekretuan ezartzen diren eta Egoitza-harreraren Atalari dagozkion betebeharrak betetzen dituen Egoitza-harreraren Unitatea GLFEren menpe dago organikoki. Azkenik, Zabaloetxe zentroa GLFERi atxikitako berezko zentroa izanik, hitzarmenak aipatzen du bertako hainbat kostu GLFEk ordainduko dituela.
- Arartekoak eskatutako informazio-eskaerari Gizartekintza Sailak emandako erantzunaren arabera, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren harreraren zuzenean esku-hartzen duten zerbitzu, atal eta batzordeak ugari dira:
 - *Umeen Zerbitzuko Harrera, Balorazio eta Orientazio Atala:*
 - Administrazio-espeditenteak irekitzea eta bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren zat lehen babes neurriak hartzea kudeatzen du;
 - Bizkaiko Foru Aldundiaren beste zerbitzuei, egoitza-zentroeiei eta erabakietan esku-hartzen duten erakunde eta baliabide existentzial guztiei jakinarazpenak egiten dizkie;
 - Zabaloetxe Egoitzaren kudeaketarako, Kaputxino Hirugarrendarren Kongregazioarekin Hitzarmena eta hileko fakturak izapidetzen ditu...
 - *Umeen Zerbitzuko Egoitza-harrera Unitateak* kudeatzen du bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoitza-harrera. Atal hori erakunde mailan GLFEren menpe dago eta funtzionaltasunari dagokionez, Umeen Zerbitzuaren menpe. 2004ko maiatzetik bi koordinatzailek (psikologoa eta hezitzailea) kolektibo honekin lan egiteko arduraldi espezifikoa dute.


- *Gizartekintza Sailaren Bazterketaren aurkako Borroka Zerbitzuak*, eta bereziki Gizarteratzearen Atalak Umeen Zerbitzura atxikita egon diren eta garapen pertsonaleko prozesu egokian dauden gazte guztiei egoitza-harrera eskaintzen die. Zerbitzu horrek atzerritar gazteak autonomia pisuetan sartzeko kudeaketa ahalbidetzen du.
- *Gizartekintza Sailaren menpeko Adin Txikikoen Balorazioaren Batzorde Teknikoa*. Batzorde horrek, besteak beste, kasu bakoitzeko koordinatzaileak proposatutako neurria baloratzen du; horrez gain, Umeen Zerbitzuan espedientea irekita duten adin txikikoekin lotutako beste jarduera batzuk ere baloratzen ditu (Harrera, Balorazio eta Orientazio Atalean nahiz Egoitza-harrera Unitatean). Funtzionamendua eta eraketa 2002ko irailaren 23ko 13034/2002 Foru Agindua araututakoa da.

Dituen egitekoak betez, Adin Txikikoen Baloraziorako Batzorde Teknikoak bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei begira mahaigaineratutako proposamenak ere aztertzen ditu.

- *Gizarte Laguntzarako Foru Erakundea (GLFE)*. Aipatu bezala, GLFE, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde autonomoa, besteak beste, Zabaloetxe zentroaren eta Urduñako G.M^a Ibarra Zentroaren (2001eko irailetik 2004ko ekainera arte bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoitza-harrera egitera zuzendutakoa) titularra da; San Adriango, San Ignazioko eta Basauriko hiru Bizikidetz Unitate Txikiak kudeatzen ditu 2004ko ekainetik, eta Zabaloetxe egoitzarekin hitzarmena du.
- *Herri Administrazio eta Ogasun eta Finantza Sailak*. Herri Administrazio Sailak eta Ogasun eta Finantza Sailak, Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren eta Ondare Zerbitzuaren bitartez, hurrenez hurren, adin txikikoek delitu edo hutsegiteren bat egiten dutenean egin beharreko ekintza judizialei dagokien guztia izapidetzen dute, Umeen Zerbitzuarekin batera. Zehazki, Ondare Zerbitzuak esku-hartzen du, Foru Aldundiarekin kontratatutako aseguru-konpainiarekin duen harremanagatik, kasu horietan sor litekeen erantzukizun zibila dela-eta.

Gizartekintza Sailak adin txikikoei dagokienez, zerbitzu eta atalen artean duen harremana eta barne antolaketa adierazten du ondorengo organigramak.

18. grafikoa: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailaren organigrama. Adin txikikoaren arretan esku-hartzen duten zerbitzuak eta unitateak



3.3.2. **Premiei erantzuteko sortutako zerbitzuak, programak eta tresnak**

- Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren arretan zuzenean laguntzen duten itundutako zerbitzuei eta erakundeei dagokienez, ondorengoak aipa daitezke:
 - Bizgarri Elkartea. Gizartekintza Sailarekin ezarritako administrazio-kontratuaren bitartez, elkartea izan da bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren dokumentu-kudeaketaren erantzule, eta adin txikiko horiei joan beharreko lekuetara (Marokoko kontsuletxea Burgosen, epaitegiak, osasun-zerbitzuak, eta abar) laguntzeaz ere bera arduratu da. Txosten honetarako informazioa biltzen ari ginen garaian, zerbitzuak jarraituko zuenentz aztertzen ari ziren.
 - Kaputxino Hirugarrendarren Erljio Kongregazioa. Itun baten bitartez, Loiuko Zabalotxe zentroa kudeatzeko ardura du. Zentro horrek harrera-modulua du, Adin Txikikoen Fiskaltzak bideratutako kasuetatik datozen bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak hartzeko. Egoitza-modulu egonkorra ere badu, bat tratamendukoa eta beste bat autonomiakoa, emantzipatze pisu ugari gain. Gainera, kongregazio honek, Amigó zentroaren bitartez, adin txikiko horiei gaztelania irakasten die Portugaleteko El Saltillo zentroan.
 - Goiztiri Elkartea. Elkarre honek autonomia-pisuen kudeaketarako ituna ezarrita du, eta bertan, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrek beren proiektu pertsonalekin eta profesionalekin jarrai dezakete behin adin nagusitasuna bete ondoren.
 - Delta Seguridad. Urduñako G.M^a de Ibarra eta Zabalotxe zentroetan segurtasun eta zaintza lanak egiten dituen enpresa, segurtasun zainzaileen bitartez.
 - AZRAF. 2001. urte amaieran AZRAF Marokoko Etorकिन Elkarrearekin lankidetzat ituna egin zen, adin txikiko atzerritarrak gizarteratzeko prozesuan laguntzeko. Lankidetzat 2003an amaitu zen.
 - Emankor. Emankor elkarteak, Harrera, Informazio eta Orientazio Zerbitzu Programaren (SAIO, gaztelaniaz) bitartez, Osabidezko Hezkuntza Partzuegoak kontratatuta, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrek elkarteak kudeatzen dituen emantzipazio pisuak lortzeko aukera izan dezaten zerbitzua eskaintzen du.
- Zerbitzu guztien artean, adin txikikoen premiei erantzun nahi zaie:
 - Egoitza-harrera: Zabalotxe egoitzaren bitartez eta hark babestutako emantzipazio pisuen bitartez; Urduñako G.M^a de Ibarra Zentroa (2004ko ekainaren 20ra arte), San Adriango, San Ignazioko eta Basauriko bizikidetzat unitate txikiak (2004ko ekainaren 21etik), SAIO Programaren eta Goiztiri Elkarrearen emantzipazio pisuak eta gainerako babes, etxe eta egoitza sistema zentroen sarea, aldizka bakarrik daude adin txikiko atzerritarrak ere hartzen dituztenak, bereziki nesken kasuan, ez baitago egoitza-baliabide espezifikorik haientzat.
 - Dokumentazioa eta laguntza (Umeen Zerbitzua, egoitza-zentroak eta Bizgarri Elkartea).

- Gaztelaniaren trebakuntza eta ikaskuntza (Kaputxino Hirugarrendarren Erliijo Kongregazioa, El Saltillo Zentroa).

Gizartekintza Sailak emandako informazioaren arabera, kasuen arabera eta banaka, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrek babes gabeko egoeran dauden gainerako adin txikikoen zerbitzu eta programa berberak dituzte. Hala ere, egoera pertsonalak eragotzi egiten du horietako batzuk aplikatzea (familia-harrera, familiaren esku-hartzea, eta abar). Izan ere, orain arte ezin izan da familia-harrera egoerarik formalizatu, Euskal Autonomia Erkidegoan zein kanpoan adin txikiko atzerritarrak senitartekoekin batera familietan sartzeko zenbait aukera izan diren arren. Etxe funtzionalen sarea eta gainerako babes zentroak ere erabili dira kasu zehatzen batean, adinagatik edo sexuagatik adin txikikoaren ongizaterako egokiagotzat jo izan direlako; baina bakarrik dauden adin txikikoak hainbeste izanik, sailaren iritziz ezinezkoa da babes sarea modu orokorrean erabiltzea leku edo plazan erabilgarritasuna dela-eta.

- Adin txikiko horiek babesean sartzeko direnetik hortik atera arteko esku-hartze prozedura zehatzen duten irizpide, jarraibide, arau edo protokoloei dagokienez, Gizartekintza Sailak ondorengoak aipatzen eta eransten ditu:
 - Loiuko Zabaloetxe zentroarekin hitzarmena.
 - Adin Txikikoaren Behatoki protokoloa.
 - Umeen Zerbitzura egokitutako protokoloa.
 - Zentroetako Barne Erregimen Araudia eta hezkuntza-proiektuak (bizikidetzarako unitate txiki berrietarako egindako azkenekoak).
 - Zabaloetxe zentroko etorkinen osasun arretarako Protokoloa.

Umeen Zerbitzuak egindako Esku-hartze Gidaliburuaren zirriborroa ere adierazten da, umeak babesik gabe dauden egoerentarako; gidaliburu hori behin betiko onarpenaren zain dago.

Dokumentu horien edukiaren hainbat alderdi nabarmenduko ditugu hemen:

1. *Loiuko Zabaloetxe zentroaren kudeaketarako hitzarmena:*

- Urtero berrikusi beharreko eta gehienez bost urterako hitzarmena da (hasierako hitzarmenak 2002ko martxoaren 6ko data du eta aldaketa bat erantsi zaio, 2003ko abenduaren 30ekoa, 2004ko ekitaldirako guztia berrikustea eta atzeratzea eragingo duena).
- Oso modu zehatzean ezartzen ditu hitzarmenaren funtsezko gaiak:
 - Harreran hartutako adin txikikoen ezaugarriak eta zentroaren helburuak;
 - Modulu bakoitzaren harrera-dukiera eta zentroaren gehienezko plaza kopurua (62 plaza, 87 izan litezkeenak) bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrentzat;
 - Zentroak eskaini behar dituen zerbitzuak;
 - Alde bakoitzeko erantzukizunak eta koordinazio edo gainbegiratze mekanismoak;
 - Kontratututako langileen gutxieneko baldintzak;
 - Adin txikiko / hezitzaile ratioak;
 - Eska daitezkeen hezkuntza-tresnak (hezkuntza-proiektua, memoria eta abar).

- Plaza bakoitzaren kostua eta hilero ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko formulak, benetan hartutako adin txikikoen kopuruaren arabera;
- Kostuen beste kontzeptu batzuk bere gain hartzea (mantentze-lanak edo aparteko gastuak, besteak beste);
- Hitzarmena iraungitzearen arrazoiak, eta abar.
- Hitzarmenaren aldaketa (2003ko abendukoa), funtsean, zenbateko ekonomikoen berrikuspenean oinarritzen da. Zabalotxe zentroak, hainbat modulutan, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak eta jokabide arazo larriak dituzten bertako adin txikikoak jasotzen dituela kontuan hartuta, plazako eta eguneko bi gastu ezartzen dira: jokabide arazo larriak dituzten nerabeen kasurako zenbateko handiagoa.

2. Adin Txikikoaren Behatokiko Protokoloa.

Abiaturuko dokumentua da, 2003ko urtarrilaren 14koa, Lan eta Gizarte Ministerioarekin lankidetzan egindakoa eta lehen erreferentzia egindakoa, bai “Esparru juridikoa”, bai Arabako Lurralde Historikoari aurrez eman diogun atalean.

3. Umeen Zerbitzuaren egokitutako Protokoloa.

18 orriko dokumentu horrek izenburu gisa duena hau da: “*Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren protokoloa*”, eta egia esan, Umeen Zerbitzuak 2003ko urtarrilaren 14ko abiaturuko protokoloa lurraldearen beraren ezaugarrietara egokitzeko egindako dokumentua da. Izan ere, abiaturuko protokoloak “Erakunde publikoari” esleitzen dizkion hainbat ekintza eta pauso xedatu eta hainbat eragileri esleitu eta zehazten dizkio: dokumentazio taldea, Umeen Zerbitzuko Atal zehatza, Egoitzetako zuzendariak...

Ekintza egiteko dagoen gutxi gorabeherako denbora ere ezartzen da pauso batzuetan. (Adibidez: “hilabeteko epea ezartzen da adin txikikoaren familia- eta gizarte-azterketa egiteko, beronen ZAINZA bere gain hartzeko”, edo “erroldatze eskaera 15 egunera”...).

Beraz, dokumentu-giltzarria da bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei dagozkien espedienteak aztertu eta baloratzeko, eta benetako kudeaketa denborak aurreikusitako denborekin erkatzeko, txostenean bertan, 3.5 atalean, lantzen den gaia.

4. Hezkuntza proiektua –Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren arretarako Bizikidetzaren Unitate Txikiak (2004ko ekaina).

Aurretik egindako beste proiektu batzuen egokitzapena eta berrikuspena den oinarri-dokumentu hau bizikidetzaren unitateak (Loiukoa, Urduñakoa eta GLFERen etxe funtzionalak) ireki aurretik eginda dago.

Dokumentuak berak adierazten duen gisan, “hemen aztertzen den Ekintza Esparru Orokorraren baitan, bere hezkuntza-proiektua zehaztuko du Bizikidetzaren Unitate bakoitzak”.

Dokumentuak bizikidetzaren unitateen helburuak argitzen ditu, haien egitura eta baliabideak (bai pedagogikoak, bai pertsonenak), lan arloak (pertsonala, eskolakoa, lanekoa, aisialdikoa...), plangintza tresnak eta hezkuntzazko esku-hartzea, koordinazio mekanismoak, sarrera-prozedurak, eta abar. Eta bizikidetzaren unitate txikien

rola Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailak bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren arretarako duen sarearen egitura nagusian kokatzen du, aurreikusi dituen ondorengo 4 ibilbide eta egoeren arabera:

- 1) Lehen harrerako ibilbidea, egun Zabaloetxe egoitzak egiten duena (Loiu).
- 2) Egoitza egonkorren ibilbidea, adin txikikoei zuzendutakoa, lehen harrerako epearen ostean (bi hilabete, gutxi gorabehera) lurraldean gizarteratzeko nahia agertu baldin badute eta bizikidetza normalizatua ahalbidetzen duen jarrera erakutsi baldin badute.
Egoera horietarako, dokumentuak 4 bizikidetza unitate txiki sortzea aztertzen du, hala nola, horretarako zehaztutako beste egoitza-baliabide batzuk.
- 3) Kontrol intentsibo eta tratamendu ibilbidea, jokabide arazo larriak dituzten eta bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrentzat; zailtasun horiek kontrolatzeko eta zuzentzeko egoitza dispositiboak aurreikusten du.
- 4) Hezkuntza ibilbidea, adin nagusitasunera iristean, pisu autonomoen edo beste zerbitzuen menpeko baliabideen bitartez; aldi baterako erabiltzeko, bizitza independentea egiten hasi aurretik.

5. *Barne Erregimeneko Araudia - Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren arretarako Bizikidetza Unitate Txikiak (2004ko ekaina).*

Gida-tresna da, 2004ko ekainean egindakoa, nerabeei eta unitateetako langileei bermea eta segurtasuna eman nahi diena.

Behin-behineko izaera du, dokumentuaren sarreran onartzen den gisan, “babesik gabeko egoeran dauden adin txikikoei arreta emateko egoitza zerbitzuak erregulatzeko dituen araudi berezirik ez dagoelako, eta “EAEn Nerabeen eta Umeen Babes eta Arretarako Legerik” ere ez dagoelako (egun izapidetzen ari dira)”. Aldiz, barne hartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren gizarte zerbitzuetako profesionalen eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren gutunaren ildoak eta iradokizunen eta kexen erregimena, 2004ko apirilaren 6an 64/2004 Dekretu bidez onartutakoa. Sarrerako kapituluaz gain, Araudia lau atal handitan egituratuta dago:

- 1) Bizikidetza unitate txikietan hartutako adin txikikoen eskubideak.
- 2) Bizikidetza unitate txikietan hartutako adin txikikoen betebeharrak.
 - Bizikidetza arauak
 - Bizikidetza unitatearen antolaketa arauak.
- 3) Bizikidetza unitatetik kanpoko jokabide arauak.
- 4) Diziplina erregimena:
 - Kontuan hartu beharreko alderdiak
 - Hutsegiteen tipifikazioa (hutsegite arinak, larriak edo oso larriak)
 - Diziplina neurriak edo isunak
 - Zehapen-prozedura

Arartekoari dagokion ikuspuntu eskubide-bermatzailetik, Araudi horretako hainbat atal positibo nabarmendu behar dira. Adibidez, hauek:

- Diziplina-prozedurak bermatu behar dituen adin txikikoaren eskubideak (entzuteko, aholkatzeko, bitartekaritza eskatzeko...);
- Pertsonen gizatasunaren aurkako isunen debeku zehatza (gorputz-zigorrek, elikagaien debekua, unitatetik kanporatzea...).
- Hutsegite oso larriengatik ezarritako isunen erregistro sistema eta goragoko instantzietan berehala jakinaraztea.

– Errekurtsoa edo kexa jartzeko aukera (baten bat garatu gabe).

6. *Loiuko “Zabaloetxe” adin txikikoen harrera-egoitzako etorkinen osasun-arretarako protokoloa (2004ko maiatza).*

2004ko maiatzeko data duen dokumentu eguneratua da eta, Osasun Harrera Protokoloa ezarrita, Loiura doazen adin txikiko etorkinen osasun egoera arautu nahi du, haietako gehienek sarreran Osasun Txartel Indibidualik ez baitute izaten eta, batez ere, ez baita jakiten txertoei eta haien osasunari buruzko daturik.

Horretarako, protokoloak hauei buruzko irizpideak, prozedurak eta erantzukizunak ezartzen ditu:

- Osasun Txartel Indibidualaren eskaera (OTI);
- Loian hartutakoen errolda astero eguneratzea;
- Hezitzaileek osasun-arreta zerbitzura laguntzea;
- Mediku txostena edo historia klinikoa irekitzea...

Egin beharreko azterketa analitiko eta klinikoen edukia ere ezartzen du eta kasu bakoitza EAEko txertoen egutegira nola egokitu ere bai.

3.3.3. **Zentroen azterketa**

Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren harrerara bideratutako baliabide eta zentroen egoera nabarmen aldatu da Bizkaian 2004. urtean. Txosten honi begira, hasieran aurreikusitakoa Loiuko (Zabaloetxe) eta Urduñako (Gabriel M^a de Ibarra) zentroetara bisitaldi bat egitea zen, aurreko urteetan bezala. Ondoren, Urduñakoa itxi zenez eta 3 bizikidetza unitate berri ireki zirenez, egokiagoa iruditu zitzaigun itxarotea azken horiek ezagutu ahal izateko. Ondoren, egoera aldatu egin da: laugarren bizikidetza unitatea ireki da, bisitatutako hiru unitateetako batean aldaketak egin dituzte... Txostenak kapitulu honetan egindako aldaketei erreferentzia egiten dien arren, 2004ko maiatza-ekaina bitartean zegoen egoerari erreferentzia egin nahi dio. Eta hala egiten du, zentro edo baliabide bakoitzari atal berezia eskainiz, luzapen eta zehaztapen maila desberdinekin egin arren. Beraz, ondorengo orrialdeetan ondorengo baliabideen azterketa azalduko da:

- Zabaloetxe Zentroa eta emantzipazio pisuak
- Gabriel M^a de Ibarra Zentroa
- Etxe funtzionalak
- Sagrada Familia Zentroa

Datu eta balorazio batzuei dagokienez, hemen eskainitako testuak Bizkaiko Foru Aldundiko Umeen Zerbitzuko arduradunek edo zentroetako Zuzendaritzak egindako hainbat iradokizun edo xehetasun biltzen ditu. Ez da beti erraza guztiak kontuan izatea. Bizkaiko Foru Aldundiaren Umeen Programako arduradunak, 2004ko azaroaren 30eko idatzian, testuari erantsi dizkioten ohar zehatz batzuekin batera, azaltzen zailagoak diren balorazioak ere egiten ditu:

- Hurrei eta nerabeei zuzendutako harrera zentroek izan behar dituzten ezaugarriak arautuko dituen araudirik ez egoteak balorazio batzuk (banako logela batentzat 6 m² nahikoak ote diren, ke-detektatzailea kasu guztietan jarri behar den, edo hesi arki-

tektonikorik ez egotea derrigorrezkoa den, eta abar) eztabaidagarriak izatea eragiten du.

- Adin txikiko horiei egokitutako higiezin egokiak topatzeko eta lortzeko izaten dituzten zailtasun handiak.
- Adin txikikoek sarrailean ateak izateari buruzko usteak eta horrek txikien intimitatean edo pribatutasunean duen eragina...

Edonola ere, zentroen egoerari buruzko gure azterketa-testuek deskribapenezkoak izan nahi dute baloraziozkoak baino gehiago; hala ulertzea komeni da.

A) ZABALOETXE ZENTROA ETA EMANTZIPAZIO-ETXEBIZITZAK

Zabaloetxe Zentroa (lehen, San Jose Artisaua), babes-zentro gisa eraiki zen 1963. urtean, eta hala erabilia izan da. Hori horrela, “*Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza-zerbitzuak*” izenarekin erakunde honek 1997. urtean argitaratu zuen txostenean jasotzen zen ebaluazioaren xede izan zen. 2000ko abuztuaren 1etik aurrera, Zabaloetxe Zentroko instalazioen eta giza taldeen zatirik handiena adin txikiko atzerritar arduradun gabeen berariazko arretara xedatzen da. Beste zati bat, berriz, portaera-arazo larriak dituzten nerabe autoktonoen arretan jarduten da. Azkenik, instalazio batzuk garun perlesia duten pertsonen arretarako erabiltzen dira. Txosten honetan adin txikiko atzerritar arduradun gabeei zuzendutako zerbitzuak bakarrik aztertuko ditugu.

Txosten hau egin ahal izateko, Zabaloetxe Zentroa 2004ko apirilaren 28an eta maiatzaren 4an eta 5ean bisitatu genuen. Aurretik, Ararteko erakundeko langileak urtean behin edo bitan bisitatzen zuten zentroa.

Goian zehaztutako egunetan ondoko lan hauek gauzatu ziren:

- Zentroko Zuzendaritzarekin bisiten plana zehaztu zen eta informazioa biltzeko tresnak berrikusi ziren.
- Zuzendariari elkarriketa bat egin zitzaion.
- Instalazioak bisitatu ziren.
- Talde desberdinetako hezitzaileak eta egiteko desberdinetako arduradunak elkarriketatu ziren (etxebizitzaren koordinatzailea, trebakuntzaren arduraduna, harrera-, egoitza- eta emantzipazio-taldeko hezitzaileak, gaztelania-ikasgelako irakaslea).
- Zentroan hartutako adin txikikoei elkarriketak egin zitzaizkien.
- Zentroaren antolamenduari eta jarduteko irizpideei buruzko agiriak eta protokoloak bildu ziren, ondoren aztertzeke.
- Espedienteak berrikusi ziren, datuak ustiatu ziren...

Horretarako, funtsean, “Metodologia” atalean (ikus. Sarrera) aipatzen diren irizpideak eta tresnak erabili ziren, kasuan kasu beharrezkoak ziren egokitzapenekin.

Bildutako informazio gehiena (hartutako adin txikikoei buruzko datuak edo adin txikikoei eta hezitzaileei egindako elkarriketen ekarpenak) atal desberdinetan aprobetxatu eta txertatuko da (datu-taulak, bizi-historialak, hobekuntza-proposamenak,...). Hemen, zentroari berariaz eskainitako atal honetan, oinarriko datu batzuk eta zentroa hobeto deskribatzeko eta ezagutzeko baliagarriak izango diren azpiegiturari, antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko zenbait alderdi besterik ez ditugu jaso.

ZABALOETXE ZENTROA

Udalerrria Loiu (Bizkaia)	Erabiltzaileek ebaluazioa egin zitzaizen unean zuten adina 14-18 urte
Titularitatea Publikoa - GLFE Zeharkako kudeaketa - Urteko hitzarmena Kaputxino Hirugarrendarren Kongregazioarekin	Langileria Arreta zuzenerako langileak: 29 Etxeko lanetarako langileak: 7
Edukiera 54 plaza (+ 8 etxebizitzatan) 18 harrera-taldean 18 egoitza-taldean 18 emantzipazio-taldean	Langileak/erabiltzailea ratioa Plaza guztientzat: 0,66 Okupatutako plazentzat: 0,52
Okupazioa (2004ko maiatzaren 5ean) 69 plaza (+ 48 etxebizitzatan) 33 harrera-taldean 18 egoitza-taldean 18 emantzipazio-taldean	Logela-kopurua Banakakoak: 36 Bikoitza: 1 Laukoak: 4
Adinak/generoa Mutilak bakarrik, 18 urte artekoak	Komun-kopurua Bainugela komunak modulu bakoitzean

ZENTROAREN EGITURAZKO BALDINTZAK

- Kokapena eta ingurunea
 - Zentroa Loiu kokatzen da, egoitzazko eta landako alde batean, Bilbotik 9 km-ra. Hiriburuarekiko komunikazioa errepide bidezkoa eta goizeko 6.00etatik gaueko 22.00etara ordu oro irteten den autobus-linea bidezkoa da.
 - Espazio berde zabalez eta futbol-zelai belardun ugariz eratutako finka handi baten barruan kokatzen da. Era berean, patio asfaltatu bat eta pilotaleku estali bat ere baditu.
 - Ez dago bere kokagunearen berri ematen duen seinale deigarririk. Errepidean ikastetxe gisa (ez harrera-zentro gisa) identifikatzen duen kartel diskretu bat ikusi daiteke.
 - Zentroaren mugak lorategi-hesi batez daude zehaztuta. Zentrora beti irekita dauden bi ate zeharkatuz sar gaitzke.
- Zentroaren diseinua eta beharretarako egokitzapena
 - Zentroa, 1963. urtean eraikia, hiru multzotan bereizitako hainbat pabilioiez eratzen da:
 - Lehenengo multzoa ASPACEk erabiltzen du, garun perlesia duten pertsonen arretarako, eguneko zentro gisa.
 - Bigarren multzoa Zuzendaritza-eraikinak, kapera zaharrak (egun biltegi gisa erabiltzen da) eta pilotalekuak osatzen dute.
 - Hirugarren multzoan, berriz, egoitza aurki dezakegu, zentzu hertsian. Egoitzak barruan hartzen ditu sukaldea, jangelak eta gainerako barruti orokorrak. Adin txikiko atzerritarrentzako hiru modulu eta adin txikiko nazionalentzako bi mo-

dulu ditu. Multzo horren zati handi bat GLFEk erabiltzen du, ezgaituta dauden pertsonentzat. Txosten honek adin txikiko atzerritarrei eskainitako atala besterik ez du aztertzen.

- Zenbait adin txikiko trebatzeko lantegi gisa erabiltzen den soto bat gaitu da partzialki. Ez du aireztapenik, eta ez ditu beharrezkoak diren gutxieneko baldintzak betetzen, baina beste espazio hoberik ez dagoenez, lantegietarako erabiltzen da. Hiru lantegi eraikitzeo proiektua dago, baina inoiz ez da gauzatu.
 - Zentroak 54 adin txikiko atzerritar arduradun gabe har ditzake.
 - Adin txikiko horiei zuzendutako zatia hiru modulu independentetan bereizten da; modulu bakoitzak 18 plaza ditu. Bi modulutan (harrera eta egoitza) logelak banakakoak dira; hirugarrenean (autonomia), berriz, lau pertsonentzako 4 logela eta bi pertsonentzako beste logela bat daude. Horietan guztietan daude espazio komunak (egongela eta komunak), eta baita hezitzaileentzako logela bat eta bulego bat ere. Harrera-moduluak elkarki lotutako bi etxebizitza erabiltzen ditu; eta etxebizitza bakoitzak 9 plaza ditu.
 - Harrera-taldeak bere sukalde eta ikuztegi propioak ditu, baina ia ez dira erabiltzen. Modulu bakoitza erabat independente izatea planteatu zen une batean eraberritu zen zentroa, eta, ondorioz, bakoitzari bere sukaldea, ikuztegi eta jangela ezarri zitzaizkion, baina ideia hori ez zen aurrera atera.
 - Zentroak gaztelania-eskolak emateko ikasgela bat du.
 - Jangela bat dago talde bakoitzarentzat. Jangelak handiak dira, nahiz eta nahiko itxura hotza duten.
 - Sukaldea ere handia da, eta egoera onean aurkitzen da. Hozkailuek hezetasun-aztarnak dituzte.
- Itxura orokorra, dekorazioa eta altzariak
 - Instalazioak eta altzariak zaharrak dira. Hala ere, eraberritze partzialak gauzatu dira harrera- eta egoitza-taldeetan. Zenbait barruti eta altzari artapen-egoera txarrean aurkitzen dira: zonalde komunitarioko altzariak 1981ekoak dira; sofa batzuk zuloak dituzte; ate batzuk kolpeak edo margoak dituzte,...
 - Autonomia-moduluko egongelak itxura atseginagoa du, eta beste bi moduluetakoak baino gehiago erabiltzen dela ematen du.
 - Garbitasun-maila egokia da, eta adin txikikoak dira garbiketaren arduradunak.
 - Etengailuak, korrante-hartuneak eta bestelako instalazio elektrikoak, hala nola larrialdietarako argiak, zenbait zonatan egoera txarrean aurkitzen dira; izan ere, adin txikikoek manipulatu egin dituzte, baina ez dira konpondu.
 - Pertsiana gehienak matxuratuta daude.
 - Mantentze-lanetarako aurrekontua urtero onesten du GLFEk.
 - Banakako erabilerarako espazioak
 - Logelak desberdinak dira, taldearen arabera:
 - Harrera-taldean eta egoitza-taldean, logelak banakakoak dira. Ohe bat eta armairu bat dute. Oso txikiak iruditzen zaizkigu, batez ere egoitza-taldekoak (gutxi gorabehera 6 m²). Kontuan hartu behar da, askotan adin txikikoen kopurua gehiegizkoa dela, eta, ondorioz, harrera-taldeko logelak bi gaztek erabiltzen dituzte; batek lurrean egiten du lo, koltxoi baten gainean.
 - Autonomia-taldean, logelak pertsona gehiagorentzat dira: lau pertsonentzat edo bi pertsonentzat. Handiak dira. Oheak, armairuak, mahaitxoak eta mahaia dituzte.

- Adin txikikoek nahi duten bezala apaindu ditzakete logelak.
- Aisialdirako eta jarduera komunetarako espazioak.
 - Patioa eta pilotaleku estalia egoera onean aurkitzen dira. Patioan zonalde estali bat ere badago, zementuzko bi ping-pong mahaiekin. Eserlekuren bat ere badu.
- Segurtasun-sistema
 - Zentroan segurtasun-agenteak daude, bai egunez eta baita gauetz ere.
- Oztopo arkitektonikoak
 - Moduluak ez daude mugikortasun murriztua duten pertsonentzako egokitu.
- Beharrezkoak diren hobekuntzak
 - Ikastetxearen eta linea orokorraren arteko hustubide-hodia konpondu egin behar da.
 - Zuzendaritza-pabiloian gauzatu beharreko aldaketak:
 - Zoru berria ezarri behar da
 - Beheko oineko leihoen segurtasun-sistema
 - Leihoak eta ateak aldatu egin behar dira
 - Komunak egokitu eta zaharberritu egin behar dira
 - Bisitentzako aretoko altzariak aldatu egin behar dira
 - Beheko oina margotu egin behar da
 - Zentroaren kanpoko ateak berritu egin behar dira
 - Zentroko leihoak aldatu egin behar dira
 - Zentroaren kanpoaldeko argiak konpondu egin behar dira
 - Uralita-estalkiak berrikusi egin behar dira
 - Sukaldeko margoa, hozkailuak, office-a eta armairuak.
 - Eraikinen kanpoaldea margotu egin behar da
 - Talde desberdinentzako areto komunetako altzariak

LANGILEAK

- Langileen egokitasuna. Langileen kontratazioa, hautaketa eta kontrola
 - Zentroak berak du langileak kontratatze eta hautatzeko gaitasuna.
 - Langileria nahiko egonkorra da, baja gehiegirik gabe.
 - Gizonak eta emakumeak daude. Taldeetan jatorri arabiarreko pertsonaren bat egon ohi da.
- Langileriaren prestakuntza
 - Elkarrizketatutako zenbait hezitzailearen iritziz, beharrezkoa izango litzake eten-gabeko prestakuntza gehiago, batez ere alderdi legalei eta adin txikikoen agiriei dagokienez, arabiarrez, jarraitu beharreko heziketa-araubideei dagokienez, edo gatazken ebazpenari dagokionez. Sektorerako berariazko hitzarmenik ez dagoenez, negoziatziora jotzen da. Zuzendaritzak, 2004. urterako, 1.640 orduko lanaldia eskaini zuen. Ordu horietatik 40 langileriaren prestakuntzara xedatuak ziren. Baina sindikatuek baztertu egin zuten, bide judizialera joz.
 - Bitartean, hezitzaileek, prestakuntza-jardueraren bat garatzen badute, lan-ordutegitik kanpo egiten dute, eta ikastaroen kostua beraiek ordaintzen dute. GUFEk kontuan hartu du zentroko langileria bere trebakuntza-planetan.

- Langileen gainbegiraketa eta laguntza
 - Foru Aldundiarekin normalean Egoitzazko Harrerarako Unitateko buruaren bidez hitz egiten dute. 2004ko maiatzetik, unitate horren barruan, hartutako adin txikikoentzako zentroetarako berariazko koordinatzailearen irudia sortu da.

ONARRIZKO ESKUBIDEAK

- Hezkuntza
 - Adin txikikoak, hezkuntza formalaren sistemara sartzen direnean, normalean erakunde pribatuen hezkuntza-eskaintzetara sartzen dira, bere beharretara hobekien egokitzen diren zentroak baitira horiek: lan-praktikak dituzten lanbide-heziketako ikastaroak eskaintzen dituzte.
 - Askotan zailtasunak daude adin txikikoak zentro desberdinetan matrikulatzerakoan. Hezitzaileen iritzi, hori nagusiki lau arrazoiren ondorio da:
 - Adin txikikoak ez du agiririk edo identifikazio-zenbakirik.
 - Adin txikikoa ez da bizi zentroari dagokion zonaldean.
 - Adin txikikoak zailtasunak ditu hizkuntzarekin (zentrotik gutxienerako ezagupen-maila eskatzen da)
 - Ikastetxearen iritzi ikasturte desberdinetan jadanik badago adin txikiko atzerritarren kopuru handi bat, eta, horregatik, ez ditu gehiago onartzen.
 - Adin txikiko gutxi saiatzen dira institutu publikoetan matrikulatzen, baina saiatzen direnak zailtasunekin egiten dute topo.
 - Ikasturte honetan, zentroak Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza Sailak izendatutako irakasle bat du. Irakasle hori Derioko Institutuaren mende dago. Egun zazpi pertsonaz osatutako bi talde daude, eta irakasle horrek ordu eta erdiko eskolak ematen dizkie egunero. Ez institutuak eta ezta laguntza-zerbitzuek ere ez diote material didaktikorik eman. Zentroa bera edo irakaslea bera izan dira material didaktiko horiek bilatzeaz arduratu direnak.
- Osasuna
 - Osakidetzaren kargu egingo litzakeen adin txikikoentzako hasierako mediku-azterketa ezartzeko protokolo bat idazteko prozesuan aurkitzen zen.
 - Banakako Osasun Txartela eskuratzeko izapideak oso mantsoak direla uste da, eta azkartu egin beharko liratekeela, oso ohikoak diren arazoak saihesteko (zenbait faktura kobratzea edo botikak mediku-errezetarik gabe ordaintze).
 - Beharrezkoak diren mediku-ziurtagiriak Munduko Medikuek elkarteak egiten ditu, Osasun Saila ez baita gai honetan inplikatu.
 - Gaztearen adina zehazteko hezur-probei dagokienez, emaitzak azkarrak badira ere horien fidagarritasuna ez dela hobetu irizten da.
- Intimitatea - Pribatutasuna
 - Logeletako ateak ez dira giltzaz ixten adin txikikoak barruan daudenean. Logeletako giltzak ez dituzte gazteek, hezitzaileek baizik.
- Parte-hartzea
 - Adin txikikoek beren prozesuan duten parte-hartzea hezitzaileekiko harreman pertsonalean oinarritzen da. Ez dago hezitzaile zehatz baten eta adin txikiko bakoitzaren arteko tutoretza-sistematik. Lehen bazegoen, baina hezitzaileek txandaka egiten

zuten lan, eta, ondorioz, zaila zen sistema horrekin aurrera jarraitzea, askotan tutoreak ez baitzeuden zentroan adin txikikoak behar zituenean.

- Ez dago adin txikikoek taldean parte hartzeko mekanismorik.
- Adin txikikoek zentroko garbiketa-lanetan parte hartzen dute. Lantegian parte hartzen duten adin txikikoak dira lantegiaren mantentze-lanez arduratzen direnak.
- Konfidentzialtasuna
 - Espedienteak sarbide mugatuko alderdi batean gordetzen dira, baina ez beti giltzapean.
- Kexa-prozedura
 - Ez dago kexa-prozedura normalizaturik. Arazoren bat egonez gero, adin txikikoak zuzenean jotzen dute zentroko zuzendariarengana.
- Informazioa
 - Ez dago zentroko jarduerari edo bere helburuei buruzko liburuxka informatzailerik. Adin txikikoari ez zaio entregatzen zentroaren funtzionamenduari, aplikagarri diren elkarbizitza-arauei, kexa-prozedurei edo diziplina-araubideari buruz informatzen duen dokumenturik.
- Desberdintasunetikiko errespetua
 - Zentroan desberdintasunetikiko errespetuaren aldeko apustua egiten da. Asko zaintzen da bazkari eta afarietan txerrikirik ez egitea edo adin txikikoak meskitara joatea.
 - Ramadanaren hilabetean zentroko otordu-ordutegiak aldatu egiten dira, adin txikiko guztientzat, hilabete horietarako ezartzen den erritmo berezia errespetatzeko helburuarekin. Era berean, jai bereziak, hala nola arkumearen jaia, ospatu egiten dira zentroan, elkarteren baten laguntzaz.
 - Hiru hezitzaile arabiarak dira, eta beren hizkuntza eta kultura ezagutzen dute. Beste batzuk duela gutxi izan dira Marokon, eta zenbait adin txikikoren familiekin harremanetan jarri dira.

HEZKUNTZA-JARDUKETARAKO TRESNAK

- Zentroak hezkuntza-proiektu bat du hartzen dituen kolektibo eta talde desberdinentzat.
- Era berean, barne-erregimeneko araubide bat dago. Araubide horretan alde bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak, barne-antolamendua, elkarbizitza-arauak edo diziplina-araubidea ezartzen dira.
- Jarraipenerako tresna desberdinak eta ohiko egoeratan jarduteko protokoloak ere baditu. Zenbaitetan zirriborroak edo berrikusten ari diren dokumentuak dira.

DENBORAREN ERABILERARAKO BALIABIDEAK (JARDUERAK)

- Berezko baliabideak
 - Zentroak lantegi bat du, oso egoera kaxkarrean aurkitzen dena, eta bertan, kanpoko ikastaroetara joaten ez diren adin txikikoek mantentze-jarduerak gauzatzen dituzte eta oinarrizko lan-gaitasunak ikasten dituzte.

- Harrera-taldeko adin txikikoek gaztelania-eskolak hartzen dituzte, Hezkuntza Sailak izendatutako irakaslearekin eta Saltilloko Egoitzan.
- Zenbaitetan, zentroak leku desberdinetarako txangoak antolatzen ditu. Batez ere autonomia-fasean dauden adin txikikoentzat; izan ere, fase horretan txango bat egiten da Madrilgo meskitara eta asteburuko elkarbizitza bat antolatzen da.
- Oporretan kongregazioak beste herrialde batzutan dituen beste zentroekiko trukeak eta txangoak egiten dira.
- Kanpoko baliabideak
 - Aisialdiko jarduerak programatzeko bi elkarterekin jartzen dira harremanetan:
 - Salesianoak: Deustuko eta Gurutzetako gazteentzako zentroetara joaten dira.
 - ADSIS: Laguntza-eskolak eta aisialdi-jarduerak eskaintzen dituzte ostiraletan, irteerak antolatzen dituzte larunbatetan, eta auzolandegiak udan, Gabonetan eta Aste Santuan.
 - Zonaldeko udalerrietako igerilekuak ere erabiltzen dituzte.

GIRO SOZIALAREN PERTZEPZIOA (BIZILAGUNAK, ALBISTEEN TRATAMENDUA)

- Bizilagunekiko harremanak hobera egin du. Zentroak denbora darama jadanik, eta, ondorioz, normaltasun handiagoaz ikusten da. Zentrotik bertatik ere lanean ikasten joan dira, eta adin txikikoen tipologia aldatzen joan dela nabarmentzen dute; horrek herriarekiko harremanak hobetzen lagundu du. Oraindik errezeloak badaude ere, tentsioak murrizten joan dira. Hala ere, edozein gertaerak edo albistek jarrera hori aldatzea eragin dezake.
- Zentrotik adin txikikoek ingurune baliabideak ez erabiltzea bultzatzen da, herriarekin ahalik eta harreman txikiena izan dezaten.
- Oso kritikoak dira komunikabideek zenbait albisteri ematen dioten tratamenduarekiko, alderdi positiboekiko interesik erakutsi gabe.

EMANTZIPAZIO-ETXEBIZITZAK

Zabaloetxeko Zentroan egon ondoren, eta hiru urratsetatik iragan ondoren (harrera, egoitza eta autonomia), adin txikikoei emantzipazio-etxebizitzatan bizitzeko aukera eskaintzen zaie. Etxebizitza horiek zentroaren beraren tutoretzapean daude. Etxebizitza horietan gazteak bakarrik bizi dira, eta beraiek dira etxeko lan guztien arduradun. Baina,aldi berean, berariaz lan horretan jarduten den hezitzaile baten laguntza eta astean behingo bisita jasotzen dute. Hezitzailea adin txikikoekin biltzen da, zenbait alderdi lantzeko helburuarekin: heziketa, etxebizitzako bizitza, gizarte-laguntzak,... Zentrotik laguntza ekonomikoa ematen zaie aldi mugatu batez, urtebetez gutxi gora-behera, autonomoak izateko aukera duten arte. Izan ere, arazo batekin topo egiten dute: adin txikikoek 18 urte betetzen dituzte eta zentrotik irten behar dute, baina ez dituzte lan egiteko beharrezkoak diren baimenak, eta, ondorioz, ezin dute bizitza independente bat izan. Etxebizitza bakoitzean lau gazte bizi dira elkarrekin, nahiz eta hirukoak ere badauden.

Pisuak alokatzerakoan zailtasun handiekin egiten dute tipo gazte atzerritarrek. Ondorioz, normalean zentroa bera da alokairu-kontratua egiten duena. Pisuak higiezin agentzien bidez edo pertsona ezagunen bidez lortzen dituzte; batzutan, zentroan bizitzen egon diren eta orain bitzita autonomoa duten gazteek pisu bat alokatu nahi dute, elkarrekin bizitzeko. Erljio-kongregazio batek utzitako etxebizitza bat ere badute horretarako.

Zerbitzu hori erabiltzen duen gazte-kopurua izugarri hazi da, batez ere azken urte hauetan. Horrela, adibidez, 2002ko abenduaren amaiera aldean 8 ziren; 2004ko maiatzaren lehenengo astean, berriz, “tutoretzapeko” gazteen kopurua 48koa zen, 20 etxebizitzatan banatuak. Ondoko taula honetako datuei esker asken bi urteetan bizitako bilakaera ikusi daiteke:

22. taula: Zabaloetxe Zentroaren mende dauden emantzipazio-etxebizitzetan bizi diren gazte atzerritarren bilakaera (2003-2004)

HILABETEA	2003. urtea			2004. urtea		
	Sarrerak	Irteerak	Guztira hilabete amaieran	Sarrerak	Irteerak	Guztira hilabete amaieran
2002ko abendua	8	-	-	30	-	-
Urtarrila	6	2	12	6	6	30
Otsaila	1 (1)	4	9 (1)	7	1	36
Martxoa	2 (1)	-	11 (2)	8	2	42
Apirila	1	-	12	6	-	48
Maiatza	1	-	13	6	3	51
Ekaina	4 (1)	-	17 (3)	6	2	55
Uztaila	1	-	18	6	-	61
Abuztua	2	2	18	6	1	66
Iraila	5 (2)	1	22 (5)	5	5	66
Urria	4	2	24	4	4	64
Azaroa	4	2	26	4	4	66
Abendua	8	4	30	6	8	72
GUZTIRA	47 (5)	17	30 (5)	100	36	72

Oharra: Parentesi () arteko datuek beste elkarte bateko etxebizitza batera pasa diren gazteak adierazten dituzte.

Baliabide horren helburua da zentroko bizitzaren eta bitzita erabat independentearen arteko zubi-lana egitea; aldi horretan, gaztea bere bizitzaren erantzuleagoa bilakatuko da, baina, aldi berean, laguntza jasoko du bere heziketa-, lan- eta gizarteratze-prozesuetarako.

Oro har, oso ondo baloratutako baliabidea da, baina, aldi berean, erakundeen laguntza, zentroak etxebizitzak lortzeko garaian, oso txikia izan dela irizten da. Finantza-zioari dagokionez, hitzarmenean ondoko hau zehazten da: “gehienez ere 8 plaza”, zentrotik kanpo modu erdi autonomoan bizi diren pertsonentzat, eta 25 pertsona gehiagorentzako aukera (aurreikusitako 62 plaza horien gainetik), horiek edozein lekutan bizi direlarik ere; hori horrela, zifra errealak kontuan izanik, Foru Aldundiak ez ditu plaza guztiak estaltzen. Diru-laguntzen azkeneko deialdian, BBK erakundeak zentroari programa hau garatzeko laguntza bat eman zion, “Emantzipazio-proiektu” gisa aurkeztu eta onartu ondoren.

B) GABRIEL M^a DE IBARRA ZENTROA (URDUÑA)

Gabriel M^a de Ibarra Zentroa adin txikiko atzerritar arduradun gabeentzako berariazko harrera-baliabide gisa erabilia izan zen 2001eko ekainaren 28tik aurrera, une hartan Loiu Zabalotxe Zentroan pertsona gehiegi zeudenez, arazo horri aurre egiteko helburuarekin. Ordura arte, Urduñako egoitzak, GLFEn mende, babesik gabeko adin txikiko bizkaitarrak hartzen zituen. Horiek guztiak, lehen aipatu data baino egun batzuk lehenago, zentro eta etxe desberdinetan banatu ziren. Zabalotxen (Loiu) zeuden hogeita hamar adin txikiko atzerritar arduradun gabe Urduñara pasa ziren, eta, funtsean, zentroko ezaugarriak bere horretan mantendu ziren, bai instalazioei dagokienez eta baita langileei dagokienez ere, hartutako kolektibo berriaren beharrei behar bezala erantzuteko muga eta zailtasun handiekin.

Hori horrela, urte bereko irailean, Ararteko erakundeko langileek zentroa bisitatu zuten eta, horren ondorioz, presazko zenbait jarduketa abiarazi zituen eta Gizartekintza Sailarekin bildu zen. Orduetik, erakunde honek zentroaren egoerarekiko izan duen kezka behin eta berriz adierazi da txosten, bisitaldi, bilkura, kudeaketa eta ofiziozko jarduketa desberdinetan.

Zenbaitetan, arazo jakin batzuk (hezitzaileen kexak edo salaketak, gertuko herrietan izandako gertaerak, edo instalazioen hondaketa) publiko bilakatu ziren, komunikabideek horien berri eman ondoren.

Adin txikiko atzerritar arduradun gabeekin hiru urtez jardun ondoren, 2004ko ekainaren amaiera aldean, zentroa itxi egin zen, eta bertan hartuta zeuden adin txikiko gehienak, eta baita langileak ere, hiru etxe funtzional sortu berriren artean banatu ziren.

Horren arabera, txosten honetan ez dira Urduñako Zentroaren baldintzak aztertuko –jadanik itxita baitago–, 2004ko ekainetik aurrera hori ordezteko abiarazi ziren hiru etxe funtzionalenak baizik. Hala ere, Urduñako Zentroaren oinarritzko zenbait datu eta itxi arte izandako bilakaerari buruzko datuak jasoko ditugu.

• 2003. urtea:

- Sarrerak: 12 adin txikiko.
- Irteerak: 11 adin txikiko (7 adinez nagusi egin zirelako eta 4 ihes egin zutelako).
- Hilabetean arreta jasotzen zutenen batezbestekoa: 31,2.
- Guztiak marokoarrak, 14 urtetik 18 urtera bitartekoak.
- Gehienak (% 77) zentroan sei hilabete baino gehiagoz egin ziren hartuta.
- Ia denak LHZren batean eta/edo lanean (9).
- Adin txikikoen ezaugarri subjektiboagoi dagokienez, zentroko Zuzendaritzaren iritziz:
 - %85 harremanetan zegoen bere jatorrizko familiarekin.
 - %90ek beste esperientziak izan zituen jadanik beste lurraldeetako babes-zerbitzuetan.
 - Lautik batek bakarrik zuen lehenagotik prestakuntza-programa normalizatueta parte hartzeko adinako hizkuntzaren ezagutza-maila.
 - %70ek bakarrik zuen aurretiazko lan-esperientzia edo lan aurreko prestakuntza.

- Lautik hiruk arrazoizko aurreikuspenak edo bizi-proiektu nahiko argia zituzten.
 - Hirutik batek portaera-arazoak edo elkarbizitza-arazo garrantzitsuan zituen.
 - Langileriari buruzko datuei dagokienez (langileak, prestakuntza, esperientzia, bajak, adin txikikoen kulturaren gaineko ezagutza,...), datu horiek txosten honetako 18. taulan ikusi daitezke.
- **2004. urtea:**
 - Sarrerak: 4 adin txikiko.
 - Irteerak: 37 (10 adinez nagusi egin zirelako; 8 internamenduzko neurri judiziala bete behar zutelako; 19 zentroz aldatu zirelako, zentro hau itxi zenean).
 - Adin txikiko guztiak 14 eta 18 urte bitartekoak dira, eta Marokokoak (erdia, gutxi gorabehera, Tangerrekoa).

(Aurreko urteetako datuak eta balorazioak ikusteko, ikus Arartekoaren urteko txostenak, 2001 eta 2002koak eta txosten honetako 5. eta 6. eranskinak)

GABRIEL M^a DE IBARRA ZENTROA

Udalerria Urduña (Bizkaia)	Erabiltzaileen adina itxi zen unean 14-18 urte
Titularitatea Publikoa - GLFE Kudeaketa zuzena	Langileak Arreta zuzenerako langileak: 15 hezitzaile + gaueko 6 zaintzaile Etxeko lanetarako langileak: 4 garbitzaile + 3 sukaldari Segurtasun-langileak: 4 zaintzaile Bestelakoak: 2
Edukiera 30 plaza	Langileak/erabiltzailea ratioa Plaza guztietarako: 1,13 Okupatutako plazetarako (maiatza): 1,41
Okupazioa 2004ko maiatza: 24 2004ko ekaina: itxi egin zen	Logela-kopurua Banakakoak: 30 Binakakoak edo hiruakakoak: 0 Askotarikoak: Etxea (3 logela ohatzeekin)
Adinak / Generoa Mutilak bakarrik, 18 urte arte	Komun-kopurua Bainugela komunak oin bakoitzean

C) ETXE FUNTZIONALAK

2004ko ekainaren 21etik aurrera, eta Urduñako Zentroa itxi ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak hiru Etxe Funtzional ireki zituen. Hiru Etxe Funtzional horiek adin txikiko atzerritar adin gabeentzat ireki ziren: Basauriko “Ibargutxi” Etxe Funtzionala, eta Bilboko “Larrako Torre” eta “San Adrian” Etxe Funtzionalak.

Ararteko erakundeko langileak 2004ko uztailaren 2an egon ziren **Ibargutxi Etxe Funtzional**ean. Une horretan, zerbitzuak bi aste besterik ez zeramatzan abian. Ostiral batean egin zen bisita, eta egun horretan izan ohi du hezkuntza-taldeak asteko bilkura. Kasu honetan bilkurara etxeetako koordinatzailea eta GUFeko kasuen koordinatzailea ere joan ziren. Bisitan ondoko gauza hauek egin ziren:

- Lana aurkeztu zen, eta bisitaren plana zehaztu zen.
- Hezkuntza-taldearen bilkuran parte hartu zen (hezitzaile eta gaueko zaintzaile guztiak, etxeetako koordinatzailea eta kasuen koordinatzailea).
- Etxeko instalazioan bisitatu ziren.
- Taldeko truke etxean lan egiten duten bost hezitzaileekin.

IBARGUTXIKO ETXE FUNTZIONALA

Udalerria Basauri (Bizkaia)	Erabiltzaileen adina ebaluazioa egin zen unean 15 - 18 urte
Titularitatea Titularitatea eta kudeaketa - GLFE	Langileak Arreta zuzeneko langileak: 5 Etxeko lanetarako langileak: 1 Gaueko zaintzaileak: 2
Edukiera 6 plaza	Langileak/erabiltzailea ratioa Plaza guztientzat: 1,33 Okupatutako plazentzat: 1,33
Okupazioa (2004ko uztailaren 2an) 6 pertsona	Logela-kopurua 3 pertsonentzako 2 logela
Adinak/ Generoa Mutilak, 18 urte artekoak	Komun-kopurua Bi bainugela oso

Larrako Torre Etxe Funtzionala 2004ko uztailaren 8an bisitatu zen. Gauzatu ziren jarduerak ondoko hauek izan ziren:

- Une horretan lanean zegoen hezitzaileari eta etxeko andreari elkarrizketa egin zitzaien.
- Instalazioak bisitatu ziren.
- Une horretan pisan zeuden adin txikikoei elkarrizketa egin zitzaien.

LARRAKO TORRE ETXE FUNTZIONALA

Udalerrria Bilbo (Bizkaia)	Erabiltzaileen adina ebaluazioa egin zen unean 15 - 18 urte
Titularitatea Titularitatea eta kudeaketa - GLFE	Langileak Arreta zuzeneko langileak: 5 Etxeko lanetarako langileak: 1 Gaueko zaintzaileak: 2
Edukiera 7 plaza	Langileak/erabiltzailea ratioa Plaza guztientzat: 1,14 Okupatutako plazentzat: 1
Okupazioa (2004ko uztailaren 8an) 7-8 pertsona (zortzigarrena asteburuetan bakarrik)	Logela-kopurua 3 pertsonentzako 2 logela Banakako logela bat
Adinak/ Generoa Mutilak, 18 urte artekoak	Komun-kopurua Bainugela oso bat

Bere aldetik, **San Adrian Etxe Funtzionalerako** bisita 2004ko uztailaren 16an gauzatu zen. Era berean, ostiral batean egin zen bisita, eta egun horretan heziketa-taldearen bilera zegoen. Bilera horretara kasuen koordinatzailea eta GLFE etxeen koordinatzailea ere joan ziren. Kasu honetan, bisitaldian gauzatu ziren jarduerak ondoko hauek izan ziren:

- Txostena, bisitaldiaren helburua eta erabiliko zen metodologia aurkeztu ziren.
- Taldeko bileran parte hartu zen.
- Hezitzaileekin bilera egin zen.
- Instalazioak bisitatu ziren.

SAN ADRIAN ETXE FUNTZIONALA

Udalerrria Bilbo (Bizkaia)	Erabiltzaileen adina ebaluazioa egin zen unean 14 - 17 urte
Titularitatea Titularitatea eta kudeaketa - GLFE	Langileak Arreta zuzeneko langileak: 5 Etxeko lanetarako langileak: 1 Gaueko zaintzaileak: 2
Edukiera 7 plaza	Langileak/erabiltzailea ratioa Plaza guztientzat: 1,14 Okupatutako plazentzat: 1,14
Okupazioa (2004ko uztailaren 8an) 7 pertsona	Logela-kopurua 2 logela bikoitz. Banakako logela bat
Adinak/ Generoa Mutilak, 18 urte artekoak	Komun-kopurua 2 bainugela oso

Hasierako datu horien ondoren, jarraian Etxe bakoitzean ikusitako zenbait alderdi islatuko ditugu, egin zen bisitaldiaren arabera. Kontuan izan behar da hiru kasuak une hartan ireki berriak ziren laguntza-baliabideak zirela, nolabaiteko presaz ireki zirela, eta, agian, behin-behineko izaeraz, zerbitzu berriak sortu bitartean.

Hori horrela, 2004ko urrian zentro berri bat ireki zen Bilbon, 10 plazako zentro bat. Orduan, ordura arte Larrako Torre Etxean egon ziren adin txikiko atzerritar arduradun gabeak zentro berri horretara pasa ziren. Urte bereko azaroan Larrako Torre berriro ireki zen, 7 plazako elkarbizitza-unitate gisa. Baliabide hori Landalan Elkarteak kudeatzen du. Ondorioz, deskribatutako egoera 2004ko uztailean ikusitakoa da.

Hemen zenbait alderdi besterik ez ditugu adieraziko (egiturazko baldintzak, langileak, oinarrizko eskubideak,...), bisitaldietan beste gai askori buruzko informazioa jaso bazen ere (informazio hori txosten honetako beste ataletan aprobetxatuko da). Informazio horiek, adibidez, ondoko hauei buruzkoak dira:

- Urduñako Zentroaren funtzionamenduari buruzkoak, martxoan bizitako gatazka-egoerari buruzkoak, edo etxe berrietarako lekualdaketa zein baldintzatan gertatu zen.
- Uda datorrela-eta, adin txikiko hartu guztien banakako planei buruzkoa.
- Etxeetako funtzionamendu ekonomikoari buruzkoa.
- Lekualdaketa-ondoren gertatutako zenbait arazori buruzkoa (erroldatzea, ambulatorio-aldaketa edo udal-paseak).
- Adin txikikoen agiriak izapidetzeko jarraitzen diren irizpideei eta prozedurei, eta horiek hezitzaileen lanean duten eraginari buruzkoa.
- 18 urte betetzerakoan dituzten emantzipazio-aukerei buruzkoa...

a) IBARGUTXI ETXE FUNTZIONALA

ZERBITZUAREN EGITURAZKO BALDINTZAK

- Kokapena eta ingurunea
 - Etxebizitza Basaurin kokatzen da, Bilbotik 4 km ingurura. Oso ondo dago komunikatuta bai errepidez, ai autobusez eta baita trenez ere.
 - Ez dago seinaleztatuta.
- Diseinua eta beharretarako egokitzapena
 - Pisu familiar bat da. Lehen Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumearen Zerbitzuak erabili zuen, emakumeak hartzeko baliabide gisa.
 - Sei adin txikiko atzerritar arduradun gabe har ditzake.
 - Etxebizitza egongela-jangela batez, hezitzaileentzako gela batez, sukalde batez, adin txikikoentzako bi logeletz eta bi bainugeletz (biak dutxa banarekin) osatzen da.
 - Egongela-jangela mahai handi bat dago, sofak, telebista kokatzen deneko baldadun altzaria eta tiraderak eta armairuak dituen beste bat.
 - Hezitzaileen gelan ordenagailu bat, inprimagailu bat eta telefono bat daude. Bisita egin genuen unean oraindik ez zuten mahairik. Armairu bat ere badago.
 - Leiho guztiak zaharrak dira, kristal arruntarekin eta egurrezko markoekin. Barruko patiora ematen duten leihoak hesiz babestu ziren, pisua egungo funtzioarekin erabiltzen hasi aurretik.

- Itxura orokorra, dekorazioa eta altzariak
 - Bisita egin zen unean bi aste besterik ez zeramatzan pisuak funtzionamenduan, eta oraindik altzariak eskuratzen ari ziren. Pisuak zeuden altzariak erabiltzeko moduan zeuden.
 - Sukaldea berritzeke zegoen, altzariak eta sukalde-xafiak ez baitziren egoera onean aurkitzen.
- Banakako erabilerarako espazioak
 - Logela bakoitza hiru pertsonentzako prestatuta dago. Bat bestea baino handiagoa da. Txikiak (3,5 x 3 m) bi ohatze, ohe arrunt bat, mahaitxo bat eta bi armairu ditu. Hirugarren armairua korridorean kokatzen da. Logela handian (4 x 3 m) bi ohatze eta ohe arrunt bat daude baita ere, bi mahaitxo eta hiru armairurekin. Oheak, zenbaitetan, txikiak izan daitezke adin txikikoentzat.
- Aisialdirako eta jarduera komunitarako espazioak
 - Erabilera komunerako gela bakarra egongela-jangela da, 20 m² ingurukoa. Bertan kokatzen da telebista eta DVD aparailua. Gela horretan bertan egiten dira otorduak, mahai handi bat du-eta.
- Segurtasun-sistema
 - Pisuak ez du ez su-itzalgailurik eta ezta ke-detektagailurik ere.
- Oztopo arkitektonikoak
 - Pisia mugikortasun murriztua duten pertsonentzat irisgarria da, atarirako sarreran igogailura arte dagoen maila aldaketa gainditzeko aparatu mekaniko bat dago-eta.
- Beharrezkoak diren hobekuntzak
 - Sukaldea berritu egin behar da.
 - Altzariak eskuratu behar dira: lan-mahaia, beste ordenagailu bat, errezelak, lanpara,...
 - Pisia margotu egin behar da.

LANGILEAK

- Langileen egokitasuna
 - Pisuak bost hezitzailek, gaueko bi zaintzailek eta otorduez eta erosketez arduratzen den etxeke andre batek egiten dute lan.
 - Bi hezitzaile kultura musulmanekoak dira, eta badakite arabiarrez hitz egiten.
 - Taldea eratzekoan Urduñako Zentroak talde gisa lan egiten zuten pertsonak errespetatu dira.
- Langileen kontratazioa, hautapena eta kontrola
 - Langileak GLFEk kontratatzen ditu.
- Langileen gainbegiraketa eta laguntza
 - Taldearen koordinazio-bilkurara hilean behin joaten dira etxeen koordinatzailea eta Foru Erakundeko kasuen koordinatzailea.

OINARRIZKO ESKUBIDEAK

- Hezkuntza
 - Adin txikikoak Lanbide Hastapeneko Zentroetan daude matrikulatuta. Ez dute arazorik aurkitzen matrikulak egiterakoan, nahiz eta batzutan, gutxienez, pasaporteaz izatea eskatzen dieten.
- Osasuna
 - Osakidetzak azterketa oso bat egin beharra eta adin txikikoei beharrezkoak diren txertoak emateko beharra planteatzen da.
 - Gaixotasun psikiatrikoak dituzten adin txikikoentzako baliabide-gabezia nabarmentzen da.
 - Disolbatzaileekiko mendekotasuna tratatzeko berariazko programak ere falta omen dira.
- Intimitatea - Pribatutasuna
 - Logelak irekita egoten dira. Hezitzaileen gela bakarrik itxi daiteke giltzaz. Armairuak eta mahaitxoak ezin dira giltzaz itxi.
- Parte-hartzea
 - Ez dago adin txikikoen parte-hartzerako prozedura normalizaturik.
 - Adin txikiko bakoitzak tutore bat du, heziketa-taldeko erreferente gisa.
- Konfidentziasuna
 - Espedienteak hezitzaileen gelan daude, eta gela hori sarbide mugatukoa da.
- Informazioa
 - Adin txikikoek, pisura iristen direnean, hezkuntza-kontratu bat sinatu behar dute; bertan alde bakoitzaren eskubideen eta betebeharren berri ematen zaie. Ez dago bestelako liburuxka informatiborik.

HEZKUNTZA-JARDUKETARAKO TRESNAK

- Hezkuntza-proiektu bat eta barne-erregimeneko araudi bat daude, Bizkaian ireki berri diren hiru etxeetarako marko orokor gisa eratuak.
- Pisuan bizi diren adin txikikoek Bizkaiko Foru Aldundiko kasuen koordinatzailearekin batera sinatu behar duten hezkuntza-kontratu eredu bat ere badute.
- Adin txikikoekin lan egiteko modua tutoretza bidezkoa da.

DENBORA ERABILTZEKO BALIABIDEAK (JARDUERAK)

- Berezko baliabideak
 - Hezitzaileen taldeak jarduerak antolatzen ditu; jarduera horietan baliabide komunitarioak erabiltzen dira.
- Kanpoko baliabideak
 - Zonaldean dauden baliabideak erabiltzea planteatzen da, hala nola kiroldegia.

GIRO SOZIALAREN PERTZEPZIOA (BIZILAGUNAK, ALBISTEEN TRATAMENDUA)

- Bisita egin zen arte (ireki zenetik hamar egunera), bizilagunekiko harremana ona zen, nahiz eta bizilagunen batek irratira pisuaren erabileraz kexu deitu izana aipatzen den.
- Hezitzaileek oso gogor kritikatzten dute prentsa, eta komunikabideek adin txikiko atzerritar arduradun gabeen fenomenoari dagokionez egiten duten tratamendua. Hezitzaileen iritziz, arazoak edo delituak izanez gero, adin txikikoaren nazionalitatea azaltzen da beti, eta baita bere argazkia eta inizialak ere. Era berean, morboa eragiten duen hori bakarrik azaltzen dela salatzen dute, gerta daitezkeen gauza positiboak ez direla inoiz agertzen.

b) LARRAKO TORRE ETXE FUNTZIONALA (*)

ZERBITZUAREN EGITURAZKO BALDINTZAK

- Kokapena eta ingurunea
 - Zentroa Bilboko auzo batean kokatzen da. Ondo dago komunikatuta autobusez, eta metro-ahotik gertu dago.
 - Etxea ez dago seinaleztatuta.
- Diseinua eta beharretarako egokitzapena
 - Pisu familiar bat da. GLFEn jabetzakoa da eta hutsik zegoen kolektibo hau hartu aurretik.
 - Zazpi adin txikiko atzerritar arduradun gabe hartzeko gaitasuna du. Hala ere, pisuaren tamaina nahiko justua da taldearentzat. Salbuespenez, eta egoera pertsonal zehatz batzuk direla-eta, zortzigarren adin txikiko bat hartzen da asteburuetan.
 - Etxebizitza egongela batez, hezitzaileentzako gela batez, sukalde batez, adin txikikoentzako hiru logeaz (bi hiru pertsonentzat eta bat bi pertsonentzat) eta bainugela oso batez osatzen da. Balkoi txiki bat ere badu.
 - Guztientzako bainugela bakarra egoteak arazoak eragiten ditu.
 - Egongela txikia da. Sofa bat eta baldadun altzari bat (telebista bertan kokatzen da) ditu.
 - Hezitzaileen gelan ohe bat, armairuak, ordenagailua kokatzen deneko mahaia, inprimagailua eta telefono bat daude. Botikina ere gela horretan kokatzen da.
 - Ez dago jangelarik; otorduatarako erabiltzen den mahaia iraganbide batean kokatu da. Pisu gaitzeko obrak egin zirenean, sukaldeari espazioa kendu zitzaion horretarako. Hala ere, mahaia leku oso deserosoan kokatzen da, eta ez dago hezitzaile eta adin txikiko guztientzako nahikoa espazio.
 - Sukaldea txikia da eta espazio-arazoak daude jakiak biltegitratzeko.
- Itxura orokorra, dekorazioa eta altzariak
 - Ireki aurretik pisua berritu egin zen eta altzariak erosi berriak dira (zirkuitu elektrikoa aldatu egin da, sukalde berria jarri da, papera jarri da hormatan, tabikeren bat lekuz aldatu da...). Hori dela-eta, etxeak itxura ona du.

(*) Gogorarazi behar da etxe honen egoera aldatu egin dela hemen laburbiltzen den bisitaldiaren ondoren.

- Banakako erabilerarako espazioak
 - Logelen tamaina oso txikia da adin txikikoen kopuruarentzat. Hiru pertsonentzako logelek bi ohatze, habia-ohet bat, armairuak eta mahaia dituzte. Gainera, logela batek ordenagailua ere badu. Bat bestea baino handiagoa da (2,90 x 4,20 batek, eta 3 x 2,80 m bestek). Logela bikoitzak (2,30 x 4) bi ohatze eta hiru armairu ditu. Armairu horietako bat, salbuespenez, beste logela bateko adin txikiko batek erabiltzen du.
- Aisialdirako eta jarduera komunetarako espazioak
 - Erabilera komunerako gela bakarra dago: egongela. Oso txikia da. Pisuko egoiliar guztiak ez dira sartzen elkarrekin sofan.
- Segurtasun-sistema
 - Pisuak su-itzalgailuak ditu, baina ez ke-detektagailuak.
- Oztopo arkitektonikoak
 - Etxea ez da irisgarria mugikortasun murriztuko pertsonentzat, eta ez dago horientzat egokituta.
- Beharrezko hobekuntzak
 - Biltegiatze-lekua handitu egin behar da.

LANGILEAK

- Langileen egokitasuna
 - Pisan bost hezitzailek, gaueko bi zaintzailek eta otorduez eta erosketez arduratzen den etxeko andre batek egiten dute lan. Hezitzaile bat marokoarra da.
- Langileen kontratazioa, hautapena eta kontrola
 - Langileak GLFEk kontratatzen ditu, eta Urduñako Zentroa itxi arte bertan lan egin zuen taldeko kideak dira.
- Langileen gainbegiraketa eta laguntza
 - Hilabete oro etheen koordinatzailea eta Foru Erakundeko kasuen koordinatzailea taldearen koordinazio-bilkurara joaten dira.

OINARRIZKO ESKUBIDEAK

- Hezkuntza
 - Adin txikikoak Lanbide Hastapeneko Zentroetan daude matrikulatuta.
- Osasuna
 - Adin txikikoek, betiere erroldatuta daudenean, ez dute Banakako Osasun Txartela lortzeko arazorik. Txartela lortzeko arazoa erroldatzeko arazoak dituztenean sortzen dira.
- Intimitatea-Pribatutasuna
 - Logelak irekita egoten dira. Hezitzaileen gela bakarrik itxi daiteke giltzaz.
- Parte-hartzea
 - Ez dago adin txikikoen parte-hartzerako prozedurarik artikulatuta.

- Konfidentzialtasuna
 - Espedienteak sarbide mugatuko gela batean daude.
- Informazioa
 - Pisura iristen direnean, adin txikikoe eta foru aldundiko kasuaren koordinatzaileak hezkuntza-kontratu bat sinatzen dute; bertan alde bakoitzaren eskubideen eta betebeharren berri ematen da.

HEZKUNTZA-JARDUKETARAKO TRESNAK

- Hezkuntza-proiektu bat eta barne-erregimeneko araudi bat daude, Urduñako Zentroaren alternatiba gisa ireki berri diren hiru etxeetarako marko orokor gisa eratuak.
- Pisan bizi diren adin txikikoe Bizkaiko Foru Aldundiko kasuen koordinatzailearekin batera sinatu behar duten hezkuntza-kontratu eredu bat ere badute. Bertan bi aldeen betebeharrak eta eskubideak ezartzen dira.
- Adin txikikoe kiko tutoretza-sistema bat garatzea erabaki zen, baina irizpide hori berrikusi egin zen.

DENBORA ERABILTZEKO BALIABIDEAK (JARDUERAK)

- Berezko baliabideak
 - Etxean jarduerak antolatzen dira, batez ere baliabide komunitarioak erabiliz. Udan zenbait irteera egingo dira.
- Kanpoko baliabideak
 - Zonaldean dauden baliabideak erabiltzea planteatzen da, hala nola kiroldegia. Hala ere, bisita egin zen unean, adin txikikoe ez zituzten oraindik beharrezkoak diren txartelak.

GIRO SOZIALAREN PERTZEPZIOA (BIZILAGUNAK, ALBISTEEN TRATAMENDUA)

- Bisita egin zen unea arte ez zen inolako arazorik egon bizilagunekin. Bisita egin zen egunean bizilagunen elkargoarekin bilera bat egitea aurreikusita zegoen.

c) SAN ADRIAN ETXE FUNTZIONALA

ZERBITZUAREN EGITURAZKO BALDINTZAK

- Kokapena eta ingurunea
 - Etxebizitza Bilboko auzo batean kokatzen da.
 - Ez dago seinaleztatuta.
- Diseinua eta beharretarako egokitzapena
 - Pisu familiar bat da. GLFEn jabetzakoa da. Lehen Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumearen Zerbitzuak erabili zuen.

- Zazpi adin txikiko atzerritar arduradun gabe har ditzake.
- Etxebizitza egongela-jangela batez, hezitzaileentzako gela batez, sukalde batez, adin txikikoentzako hiru logelez eta bi bainugela osoz osatzen da; horietako batera logelatik iristen da. Bi balkoi ere baditu: bat, sukaldekoa, oso txikia da, eta barruko patiora ematen du; bestea, berriz, handiagoa da, eta bertara egongelatik eta logela batetik iristen da. Etxebizitzan ez da egin egungo erabilerara egokitzeko obrarik.
- Elikagaiak biltegitratzeko espazio-arazo bat dago.
- Itxura orokorra, dekorazioa eta altzariak
 - Adin txikiko atzerritarrak etxebizitzara iritsi zirenean altzariak bertan zeuden. Erabilera-egoera onean aurkitzen dira.
 - Egongelako altzariak berritu nahi dira, batez ere espazioa irabazteko, bisita egin zen unean adin txikiko guztiak ez baitziren sartzen.
 - Sukaldea ere berritu egin behar da. Baina premiazkoena da hondoratuta dagoen sukalde-gainekoa aldatzea.
 - Era berean, horma-armairuren bat gehiago behar da.
- Banakako erabilerarako espazioak
 - Logela bikoitzen tamaina oso antzekoa da ($3,5 \times 2,65 \text{ m}^2$ eta $3,5 \times 2,70 \text{ m}^2$); horietako bakoitzean bi ohe, bi mahaitxo, horma-armairuak eta mahai eraisgarri bat aurki ditzakegu. Logela horietako batetik terrazara iritsi gaitzke.
 - Hiru pertsonentzako logelak ($4 \times 2,70 \text{ m}^2$) bi ohatze eta ohe arrunt bat ditu, bi horma-armairu, mahai eraisgarri bat eta mahaitxo bat. Bere bainugela propioa du, eta bata terrazarako sarbidea ere.
- Aisialdirako eta jarduera komunetarako espazioak
 - Erabilera komunerako gela bakarra egongela-jangela da ($7 \times 3,5 \text{ m}^2$). Bertan kokatzen da otorduetarako erabiltzen den mahaia. Era berean, sofa bat, mahai txiki bat eta telebista eta musika-aparatua jartzeko altzari txiki bat ere badaude.
- Segurtasun-sistema
 - Pisuak hiru su-itxalgailu ditu, bi korridorean eta beste bat sukaldean.
- Oztopo arkitektonikoak
 - Pisu mugikortasun murriztua duten pertsonentzat irisgarria da, igogailura iristeko beharrezkoak diren arrapalak ditu-eta.
- Beharrezkoak diren hobekuntzak
 - Sukaldeko altzariak berritu egin behar dira.
 - Berogailua aldatu egin behar da, oso txikia baita pisuan bizi den pertsona-kopurua-erentzat.
 - Egongela-jangelarako altzari berriak eskuratu behar dira.
 - Hezitzaileen gela egokitzeko mahai bat erosi behar da.

LANGILEAK

- Langileen egokitasuna
 - Pisu bost hezitzailek, gaeko bi zaintzailek eta otorduez eta erosketez arduratzen den etxeko andre batek egiten dute lan. Gaeko bi zaintzailek eta hezitzaile batek badakite arabiarrez hitz egiten, magrebtarrak baitira.

- Langileen kontratazioa, hautapena eta kontrola
 - Langileak GLFEk kontratatzen ditu. Langile guztiak Urduñako Zentroan lan egiten zuen taldekoak dira.
- Langileen gainbegiraketa eta laguntza
 - Hilean behin, hezitzaileek eta gaueko zainzaileek bilkura bat egiten dute etxean koordinatzailearekin eta adin txikikoen kasuen koordinatzailearekin.

ONINARRIZKO ESKUBIDEAK

- Hezkuntza
 - Adin txikiko batzuk Lanbide Hastapeneko Zentroetan daude matrikulatuta. Beste batzuk, derrigorrezko hezkuntzako adinean daudenak, datorren ikasturteak konpentsaziozko heziketarako zentro batean hasiko dira. Auzoan dagoen zentroan matrikulatu ahal izatea espero dute. Bisita egin zen unean oraindik ez ziren harremanetan jarri zentro horrekin.
- Osasuna
 - Ez da Banakako Osasun Txartela eskuratzeko inolako arazorik planteatu. Zonaldeko osasun-etxean jasotzen dute zerbitzua.
- Intimitatea-Pribatutasuna
 - Adin txikikoen logelak ezin dira giltzaz itxi, hezitzaileena bakarrik. Bainugelak ere itxi daitezke barrutik.
 - Armairuak eta mahaitxoak ezin dira giltzaz itxi.
- Parte-hartzea
 - Ez dago adin txikikoek taldean parte-hartzeko prozedurarik.
 - Adin txikiko bakoitzak tutore bat du, heziketa-taldeko erreferente gisa.
- Konfidentzialtasuna
 - Espedienteak hezitzaileen gelan daude, eta gela hori sarbide mugatukoa da.
- Kexa-prozedura
 - Adin txikikoek kexaren bat izanez gero, lehendabizi hezitzaileengana jotzen dute. Ondoren, nahi izanez gero, telefonoz hitz egin dezakete kasuen edo etxean koordinatzaileekin.
- Informazioa
 - Adin txikikoek, pisura iristen direnean, hezkuntza-kontratu bat sinatu behar dute; bertan alde bakoitzaren eskubideen eta betebeharren berri ematen zaie. Ez dago adin txikikoari etxearen funtzionamenduari buruzko argibiderik ematen dion beselako liburuxka informatiborik.

HEZKUNTZA-JARDUKETARAKO TRESNAK

- Hezkuntza-proiektu bat eta barne-erregimeneko araudi bat daude, Bizkaian Urduñako Zentroa itxi ondoren ireki berri diren hiru etxeetarako marko orokor gisa eratuak.
- Era berean, bi aldean, hots, adin txikikoen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eskubideak eta betebeharrak zehazten dituen hezkuntza-kontratu bat dago.

- Bisita egin zen unean ez zen tutoretzen bidez lan egiten (adin txikiko guztiek jasotzen zuten hezitzaile guztien laguntza), baina ondoren berrikusi egin zen sistema hori.

DENBORA ERABILTZEKO BALIABIDEAK (JARDUERAK)

- Berezko baliabideak
 - Hezitzaileek sustatzen dute adin txikikoek zonaldeak eskaintzen dituen baliabide komunitarioak erabiliz gauzatzea jarduera.
- Kanpoko baliabideak
 - Adin txikikoak kanpoko baliabideetara jotzen dute: kiroldegia, zonaldeko taldeetan entrenatzen dute,...

GIRO SOZIALAREN PERTZEPZIOA (BIZILAGUNAK, ALBISTEEN TRATAMENDUA)

- Inguruko bizilagunak etxea gune horretan ezartzearen aurkako sinadura-bilketa egiten ari ziren. Sinadura-bilketa etxea ireki aurretik hasi zen.

D) SAGRADA FAMILIA ZENTROA(*)

1972. urtetik, “Sagrada Familia” egoitzak emakumeentzako babes-zentro gisa funtzionatu du. 1999. urtean adin txikiko atzerritar arduradun gabeak hartu ditu, nahiz eta ez duen neska horientzako berriazko zerbitzurik ezarri; instalazio eta arreta guztiak komunak dira neska atzerritar eta nazional guztientzat. Zentroa Kaputxino Hirugarrendarren Kongregazioak kudeatzen du.

Babes-zentro gisa, bere garaian, Ararteko erakundeak 1997. urtean argitaratu zuen “*Babesik gabeko haur eta nerabeentzat laguntza-zerbitzuak*” izeneko txostena egiterakoan, egin ziren bisiten eta ebaluazioen xede izan zen. Jadanik azaldutakoari jarraiki, ez da berriaz adin txikiko atzerritarretara xedatutako zentro bat. Hala ere, eta adin txikiko atzerritar arduradun gabe emakumezkoen arazoa askotan oharkabean pasatzen denez, komenigarria iritzi genion zentroa berriro bisitatzeari, bere berriazko errealitatea aztertzeke.

Ararteko erakundeko langileek 2004ko ekainaren 4an bisitatu zuten Sagrada Familia Zentroa. Ondoren, ekainaren 14an, adin txikiko atzerritarrak elkarrizketatzera itzuli ziren, lehenengo bisita egin zen unean adin txikikoak eskolak hartzen zeuden-eta.

Bisita dela-eta ondoko jarduerak gauzatu ziren:

- Elkarrizketa egin zitzaion zuzendariari.
- Zentroko instalazioak bisitatu ziren.
- Hezitzaile bati elkarrizketa egin zitzaion.

(*) Zentro honen egoera aldatu egin zen bisita egin ondoren, adin txikikoei arreta eskaintzeari utzi baitzion. Hori horrela, zerbitzu hau beste zentro batera lekualdatu da.

- Adin txikikoei elkarrizketak egin zitzaizkien.
- Espedienteak berrikusi egin ziren.

SAGRADA FAMILIA ZENTROA

Udalerrria Bilbo (Bizkaia)	Ebaluaketa egin zeneko unean erabiltzaileek zuten adina 14-18 urte
Titularitatea Publikoa: GLFE Zeharkako kudeaketa - Urteko hitzarmena Kaputxino Hirugarrendarren Kongregazioarekin	Langileak Arreta zuzeneko langileak: 10 (zuzendaria eta bederatzi hezitzaile) Etxeko lanetarako langileak: 6 (3 sukaldari eta 3 langile atezaintzarako eta garbiketarako)
Edukiera 32 plaza	Langileak/erabiltzailea ratioa Plaza guztientzat: 0,5 Okupatutako plazentzat: 0,61
Okupazioa (2003ko ekainaren 4an) 26 pertsona (5 atzerritar arduradun gabe)	Logela-kopurua Erabiltzen direnak baino askoz ere gehiago. Gehienak bikoitzak dira, baina indibidualki erabiltzen dira
Adinak/generoa Neskak, 18 urte artekoak	Komun-kopurua Ugari talde bakoitzean

ZENTROAREN EGITURAZKO BALDINTZAK

- Kokapena eta ingurunea
 - Zentroa Bilbon kokatzen da, Uribarri ingurunean.
 - Ez dago seinaleztatuta.
- Zentroaren diseinua eta beharretarako egokitzapena
 - Zentroa 1972. urtean ireki zen. Lau oin ditu eta, egun, 32 adin txikiko hartzen ditu. Adin txikiko horiek 5 taldetan bereizten dira. 14 urtetik 18 urtera bitarteko neskak bakarrik hartzen ditu, baina ez adin txikiko atzerritarrak bakarrik. Bisita egin zen egunean 26 neska zeuden bertan, eta horietatik 5 atzerritarrak ziren.
 - Hainbat oin eta zonalde ditu:
 - Behe oina da zentrorako sarbidea. Bertan bulego-atezaintza eta hall handi bat daude, sofa ugariarekin.
 - Lehenengo oinean bilera-gela desberdinak daude, zuzendariaren bulegoa, kapera eta ikasgela bat. Oin honetan adin txikikoen talde bat bizi da; logelak eta erabilera komuneko zonaldeak dituzte (egongela handi bat, komunak eta lisatzeko gela bat). Gainera, hezitzaileentzako bi logela daude (logela horietako batek komuna du).
 - Bigarren oina adin txikikoen bi taldek erabiltzen dute. Horiek ere erabilera komuneko zonaldeak dituzte. Talde bakoitzak du bere hezitzailearentzako logela bat. Era berean, oin honetan bi ikasgela handi daude, ikasle-mahaiekin eta ordenagailuekin; bertan hartzen dituzte gitarra-eskolak.
 - Hirugarren oinean bizi da autonomia handien duen adin txikikoen taldea. Bertan logelak eta erlijio-kongregazioaren zonalde komunak daude.

- Logela guztiak dira banakako erabilerakoak.
- Jangela bat dago talde bakoitzarentzat. Jangela horiek sukaldetik gertu kokatzen dira.
- Sukaldea handia da. Despentsa eta hozkailuak ditu.
- Zentroak biltegi gisa erabiltzen den gimnasio bat ere badu.
- Zentroaren beheetan dauden lokalak Familien Topagune gisa erabiltzen dira.
- Itxura orokorra, dekorazioa eta altzariak
 - Zentroa oso egoera onean aurkitzen da. Modulu guztiak, bat izan ezik, duela gutxi margotu dira. Altzariak, bai logeletakoak eta baita zentroko gainerako alderdie-takoak, zenbaitetan zaharrak badira ere egoera onean aurkitzen dira.
 - Garbitasun-maila egokia da. Adin txikikoak dira beren logelak eta taldeari dago-zkion espazioak (zonalde komuna, korridoreak, komunak) garbitzeaz arduratzen direnak.
- Banakako erabilerako espazioak
 - Adin txikikoen logelak handiak dira. Guztiak dira banakako erabilerakoak, nahiz eta askok bi ohe dituzten. Logela bakoitzean, oheez gain, mahai bat, aulki bat edo bi, baldak, aulkiak, armairua eta kortxo bat daude.
 - Gazte bakoitzak nahi duen bezala dekoratu dezake bere logela.
- Aisialdirako eta jarduera komunetarako espazioak
 - Lehen adierazitakoez gain, zentroak patio oso handia du.
- Segurtasun-sistema
 - Zentroak ez du ez alarma-sistematik eta ezta segurtasun-langilerik ere.
 - Zonalde guztietatik banatutako su-itzalgailuak ditu, eta baita ke-detektagailuak ere.
 - Sute-simulazioak egiten dituzte, eta ebakuazio-plan bat dute.
- Oztopo arkitektonikoak
 - Zentroa ez dago mugikortasun murriztua duten pertsonentzat prestatuta, ez kanpoko sarbideei dagokienez eta ezta barrukoei dagokienez ere (oinen arteko komunikazioa; ez dago igogailurik).
- Beharrezkoak diren hobekuntzak
 - GUFeri eskatu dizkieten hobekuntzak ondoko hauek dira:
 - Patioko eskaileraren inguruan testiguak ezartzea eta pitzadurak konpontzea.
 - Teilatu-hegalak konpontzea eta fatxada nagusian hondatuta dauden zerrenda apaingarriak desagerraraztea (erortzeko arriskua dago).
 - Patioaren ingurua ixtea, trenaren tunel zaharraren ondoan dagoen ezpondara iristea eragotziz.
 - Langileentzako aldagelak ikuztegiaren ondoan.
 - Margotu gabe geratu den moduluko logelak, korridorea, egongela, komunak eta dutxak margotzea.
 - Patioko zorrotena konpontzea.
 - Depositu bat aldatzea, legionellaren aurka babeste araudira egokitzeko helburua-rekin.
 - Galdarak zaharberitzea eta galdera-gelako aireztapena hobetzea.
 - Hozkailuak berritzea, oso zaharrak baitira.

- Internet ezartzea.
- Koadro elektrikoa galdara-gelatik bereiztea.
- Igogailu bat ezartzea.
- Patiorako atearen irekitze-sistema aldatzea, eta izuaren aurkako barra bat ezartzea; hautsitako alarma-pultsadoreak eta ke-detektagailuak berrikustea. Seinale gehiago jartzea, orain gutxiegi daude-eta.
- Altzari desberdinak eskuratzea, bereziki sukalderako; izan ere, suak hondatuta daude, eta oso zaharrak direnez, zaila da horientzako ordezeko piezak aurkitzea.
- Gimnasioko zorua aldatzea, egun, hezetasuna dela-eta, altxatuta baitago.

LANGILEAK

- Langileen egokitasuna
 - Hezitzaile guztiak (bederatzi) eta zuzendaria Kaputxino Hirugarrendarren Kongregazioko mojak dira.
- Langileak kontratatzea, hautatzea eta kontrolatzea
 - Garbitzaileak eta sukaldariak (sei pertsona, guztira) zuzenean kontratatzen ditu GLFEk.
- Langileen prestakuntza
 - Ez dago langileak trebatzeko plan zehatzik. GLFEk, adierazi duenaren arabera, kontuan izan ditu zentroko langileak bere prestakuntza-planak antolatzerakoan.
- Langileak gainbegiratzea eta laguntzea
 - Ez dago gainbegiraketa-lana egiten duen figurarik. Adin txikikoen kasuetako koordinatzaileen laguntza jasotzen dute.

OINARRIZKO ESKUBIDEAK

- Hezkuntza
 - Adin txikikoen eskolatzeak ez du arazorik suposatzen, inguruko ikastetxeetan matrikulatzen baitira.
 - Iaz arte, zentroak “ikasgela berezi” bat zuen, zentroko adin txikikoei bakarrik zuzendua. Ikasgela horri esker, eskolak instalazioetan bertan har zitezkeen. Hezkuntza Sailaren mende zegoen. Hala ere, aurten desagertu egin da ikasgela hori, eskolak bertan hartzen zituzten adin txikikoak oso gutxi baitziren. Ondorioz, orain zuzenean joan behar dute ikastetxeetara. Horrek arazoak planteatzen ditu desfase handi batekin iristen diren adin txikikoentzat (desfase hori hizkuntzari dagokionez edo beste gaiei dagokienez izan daiteke), eta zentroan zenbait egunez besterik egoten ez diren adin txikikoentzat.
- Osasuna
 - Adin txikikoek arazorik gabe eskuratzen dute Banakako Osasun Txartela.
 - Ez dago nahikoa erantzun droga-mendekotasuna eta buruko gaixotasunak bezalako arazoen aurrean.
- Intimitatea-Pribatutasuna
 - Logeletako ateak itxita egoten dira. Giltza zuzendariak edo adin txikikoak izaten du, kasuaren arabera.

- Parte-hartzea
 - Adin txikikoaren prozesua hezitzaileek lagundua izaten da, tutoretza bidezko harreman pertsonalaren bidez.
 - Ez dago adin txikikoek taldean parte hartzeko mekanismorik ezarrita.
- Konfidentzialtasuna
 - Espedienteak sarbide mugatuko gela batean gordetzen dira, baina ez beti giltzapean.
- Kexa-prozedura
 - Adin txikikoren batek kexaren bat egin nahi izanez gero, tutorearengana edo zuzendariarengana zuzentzen da. Kexa gehienak adin txikikoekiko elkarrizketa jarraituaren bidez bideratzen dira.
- Informazioa
 - Ez dago zentroko arauak azaltzen dituen liburuxkarik; ahoz azaltzen dira.
- Desberdintasunetikiko errespetua
 - Elikadura-desberdintasunak eta Ramadana egitea errespetatzen dira.
 - Hezitzaileek ez dakite arabiarrez hitz egiten. Itzultzaileak ere behar izan dira, zentrorra gatzelaniaz ez dakien adin txikikoren bat iritsi denean; horrelakoetan zentroko beste adin txikikoetara jo da.

HEZKUNTZA-JARDUERARAKO TRESNAK

- Zentroak hezkuntza-proiektu bat du, eta urteko programazio bat garatzen du.
- Tutoreek Banakako Hezkuntza Proiektuei jarraiki egiten dute lan adin txikikoekin.
- Ez dago elkarbizitza-arauak, balizko zehapenak eta abar azaltzen dituen agiri idatzirik.

DENBORAREN ERABILERARAKO BALIABIDEAK (JARDUERAK)

- Baliabide propioak
 - Gitarra-eskolak eta aerobika ematen dira zentroan.
- Kanpoko baliabideak
 - Adin txikiko askok ikastetxe desberdinetako eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen dute.
 - Baliabide komunitarioetatik eskaintzen diren jarduera desberdinak erabiltzen dituzte, hala nola udalekuak edo kanpamentuak.

GIRO SOZIALAREN PERTZEPZIOA (BIZILAGUNAK, ALBISTEEN TRATAMENDUA)

- Ez dute gatazkarik izan bizilagunekin.

3.3.4. Adin txikiko horiei zuzendutako baliabideak zenbatzea eta premien bilakaera

Konparatze aldera, Bizkaiak izan du Erkidegoan bakarrik dauden adin txikiko atzerri-tarren kopuru handiena, batez ere 2001etik aurrera, aurreikuspen guztiak hautsi eta Zabalotxeko harrera-edukierak gainezka egin zuen eta; izan ere, bakarrik dauden adin txikiko atzerri-tarren harrera-zentro bakarra zen garai hartan. Horixe izan zen birmoldaketa azkarraren eta aipatutako kolektiboa Urduñako Gabriel M^a de Ibarra Zentrora pasatzearen arrazoia.

Ondorengo datu-etaulak urte hauetan izandako bilakaera agertzen du.

23. taula: Arreta-premien bilakaera (Bizkaia, 1996-2004)

	Irekitako espediente kopurua	Egindako tutoretza kopurua	Harreran hartutako adin txikikoen kopurua		Egoitza zerbitzuetan sartutakoen kopurua	
			Mutilak	Nesak	Mutilak	Nesak
1996	5	-	-	-	5	-
1997	15	-	-	-	15	-
1998	23	-	-	-	23	-
1999	50	-	30	2	48	2
2000	61	-	59	3	59	2
2001	384	113	349	11	371	8
2002	350	35	266	13	337	5
2003	231	56	194	13	231	4
2004	228	58	170	7	274	4
GUZTIRA	1.347	262	1.068	49	1.363	25

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saila

Taulako datuen arabera, azken urteetan arreta-premia jaitsi egin dela pentsa liteke. Izan ere, 2001ean 360 adin txikiko hartzetik 2003an 207 eta 2004an 177 izatera pasatu dira. Hala ere, ez du hala izan beharrik. Gutxienez bi datu daude taulak islatzen ez dituenak eta harrera-lanean zuzenean eragiten dutenak: 1) datuak ziurtatu ondoren, harreran hartutako pertsonen artean adin txikikoak direnen proportzioa; 2) egoitza-zerbitzuetan pertsona horiek pasatu duten denbora. Bi eragile horiek kontuan hartzen baditugu, Bizkaiko kasuan behintzat, ezin baieztatu daiteke harrera-beharra murriztu egin denik, kontrakoa baizik, hazi egin da (adin txikikoen proportzio handiagoa eta batez besteko egonaldia luzeagoa).

Bizkaiko Foru Aldundiak kolektibo honi azken urteotan emandako baliabideei dagokienez, ondoko taulan labur daitezke:

24. taula: Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren premiei erantzuteko erabilitako baliabideen bilakaera (Bizkaia 2000-2003)

Baliabideak	2000	2001	2002	2003
Egindako aurrekontu zehatza ⁽¹⁾	602.282 € (GLFE)	2.583.204 € (saila + GLFE)	3.865.297 € (saila + GLFE)	3.907.375,5 € (saila + GLFE)
Zerbitzuen sarea (Zentroak eta gehienezko plaza kopurua)	- <i>Zabaloetxe</i> : 18-54 leku ⁽²⁾	- <i>Zabaloetxe</i> : 62 plaza - <i>G. M^a Ibarra</i> (Urduña): 30 plaza	- <i>Zabaloetxe</i> : 62 plaza - <i>G. M^a Ibarra</i> (Urduña): 30 plaza	- <i>Zabaloetxe</i> : 62 plaza - <i>G. M^a Ibarra</i> (Urduña): 30 plaza
Arduraldi osoko langileak	Zuzendari 1 8 hezitzaile	- <i>Urduñako</i> langileak: Zuzendari 1, 15 hezitzaile, gaueko 6 zaintzaile, 3 sukaldari eta 4 garbitzaile - <i>Zabaloetxeko</i> langileak: Zuzendari 1, 28 hezitzaile	- <i>Urduñako</i> langileak: Zuzendari 1, 15 hezitzaile, gaueko 6 zaintzaile, 3 sukaldari eta 4 garbitzaile - <i>Zabaloetxeko</i> langileak: Zuzendari 1, 28 hezitzaile	- <i>Urduñako</i> langileak: Zuzendari 1, 15 hezitzaile, gaueko 6 zaintzaile, 3 sukaldari eta 4 garbitzaile - <i>Zabaloetxeko</i> langileak: Zuzendari 1, 28 hezitzaile
Beste baliabide batzuk	Emantzipazio pisu 1	<i>Zabaloetxe</i> Zentroaren emantzipaziorako 5 pisu	<i>Zabaloetxe</i> Zentroaren emantzipaziorako 8 pisu	<i>Zabaloetxe</i> Zentroaren emantzipaziorako 12 pisu

Iturriak: Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Saila eta *Zabaloetxe* Zentrotako Zuzendaritza (2000. urtetik zentroko langileak Kaputxino Hirugarrendarren Kongregazioak kudeatzen ditu).

⁽¹⁾ Kalkulatutako datuak, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren programa berezirik ez baitago erakunde mailan. *Zabaloetxe* egoitzan izandako gastuak adin txikiko beste kolektibo batzuen arretarekin banatzen dira.

⁽²⁾ Hitzartutako plazak 18 ziren, baina urte horren amaieran 54 ere bete ziren.

Azkenik, 2003an egindako gastu espezifikoak edo 2004rako onartutakoak ondorengo taulan biltzen dira, partidaka banatuta:

25. taula: Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren arretarako aurrekontuak eta partidak (Bizkaiko Foru Aldundia, 2003 eta 2004. urteak)

	2003. urteari dagozkion gastu espezifikoak		2004rako onartutako aurrekontuak	
	Zabaloetxe	G. M ^a de Ibarra	Zabaloetxe	G. M ^a de Ibarra
Gizartekintza Saila	1.704.606 €	-	1.898.774,14 €	-
GLFE				
1. kapitulua: langileen ordainketak	-	1.479.077 €	-	1.133.568,26 €
2. kapitulua: ohiko ondasunen eta zerbitzuen gastua	313.504 €	392.714 €	468.120 €	442.010,00 €
6. kapitulua: benetako inbertsioak	9.503 €	4.971 €	27.016 €	67.651,00 €
GUZTIRA	2.027.613 €	1.876.762 €	2.393.910,14 €	1.643.229,26 €

3.4. Gipuzkoako Lurralde Historikoa

3.4.1. Erabaki erakundeak eta esku-hartzen duten zerbitzuak

Gipuzkoan egun eta egitura organiko eta funtzionalari buruzko Dekretuen arabera, bi dira adin txikiko atzerritarren arretan esku-hartzen duten Sailak:

- Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratzeko Sails. Bere menpean dago Urnietan dagoen larrialdiko harrera zentroa.
- Gizarte Politikarako Sails. Bere menpean dago bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren Martuteneko egoitza.

Arartekoaren erakundeak, txostenaren atal hau egiteko bi sailtara informazio eskaera bidali zuen, elkarren artean datuak trukatzeko komeni zela adieraziz, bikoiztasun edo desadostasunik egon ez zedin. Sail bakoitzak bere txostena egin zuen, norbere eskuduntzetara mugatuta, eta zituen datuak eman zituen, eta horrek zenbaitetan ongi ulertzea zailtzen du. Bi iturriek emandako informazioa laburtzen saiatuko gara, datuak beti berdinak ez diren arren.

- Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratzeko Sailari dagokionez, egitura organikoa eta funtzionala 2004ko maiatzaren 25eko Foru Dekretuak ezartzen du:
 - Sailaren betebeharrak eta eskuduntzetan (1. artikulua) sartzen dira, jarduketara arlo gisa, babesik gabeko egoeran dauden haurrak.
 - Jarduketara arlo hori (Dekretuaren 6. artikulua) Gazteria eta Gizarte Ekintzako Zuzendaritza Nagusiari esleitzen zaio, eta horren barruan, Ume, Gazteria eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuari.
 - 7. artikulua, Ume, Gazteria eta Garapenerako Lankidetzaren zerbitzuburuaren erantzukizunpean burutzen diren egitekoak definitzeko garaian, hau adierazten du: *“Haurren babesik gabeko egoeren jakinarazpenak ebaluatzea eta horien inguruan erabakiak hartzea. Sistemaren bat giltzatzea babesik gabeko egoeran edo egoteko arriskuan dauden adingabe guztiak aurkitzeko eta zer egin erabaki ahalik eta bermerik handienarekin egiteko. Adingabea bere ingurunean bizitzen jarrai dezan ahalegintzea, babesik gabeko egoera guztietatik irteten eta ezagutza, emozio eta gizarte mailako beharrak asetzen saiatuz”*. Lan-talde teknikoak eta zerbitzuburuak osatzen dute Balorazio Batzordea; bertan, babesik gabe edo arriskuan dauden umeen inguruan hainbat erakundek aurkeztutako egoerak aztertu eta adin txikikoen beharrezko erantzuteko beharrezkoak diren jarduketara proposamenak egiten dira.
- Gizarte Politikarako Sailari dagokionez, bera da bakarrik dauden adin txikikoen zaintzaren erantzulea. Txostena egiteko garaian zuen barne antolaketaren arabera, adin txikiko atzerritarren arreta ondorengoei zegokien:
 - Gizarte Politikarako Saileko foru diputatua.
 - Mendekotasun eta babesgabetasuneko zuzendari nagusia.
 - Gizarte Zerbitzuetarako Sarbide eta Arreta Zerbitzuko burua.
 - Ume eta Gazteria Ataleko burua.

Sailaren egitura funtzional eta organikoari buruzko 2004ko apirilaren 6ko 32/2004 Foru Dekretuaren arabera, Gizarte Zerbitzuetarako Sarbide eta Arreta Zerbitzua izango da babesgabetasun egoeran dauden haur eta gazteentzako baliabideak eta programak diseinatzearen eta ebaluatzearen erantzulea. Zerbitzu horren baitan dago Ume eta Gazteria Atala, familietatik banatuta dauden adin txikikoen zaintza kudeatzeaz arduratzen dena, familia-harrera, egoitza-harrera edo adopzioaren bidez.

Atala lau unitatek osatzen dute. Egoitza-harrera Unitatea da kolektibo espezifikoa honekin zuzenean lan egiten duena, eta lau profesionalak osatzen dute.

Ezarritako batzordeei dagokienez, ondorengoak nabarmentzen dira:

- Balorazio eta Orientazioko Batzorde Teknikoa; umeak ongi zaintzeko egin beharreko jarduketak adosten dira bertan.
- Sare bilerak; adin txikikoaren egoeran egon daitezkeen aldaketa-proposamenen aurrean esku-hartzen duten elementu guztien jarduketak koordinatzeko betebeharra dute.

3.4.2. **Premiei erantzuteko sortutako zerbitzuak, programak eta tresnak**

- Itundutako zerbitzuei dagokienez, lurralde honetan bakarrik dauden adin txikikoei bereziki zuzendutako bi zentroak (larrialdiko harrera-zentroa eta epe ertain edo luzeko egonaldietarako egoitza) Gurutze Gorriak kudeatzen ditu, bi lankidetzaren bitartez, eta Zuzendaritza bera dute (zentro bakoitzari egun erdiko arduraldia).
- Beste programa edo zerbitzuei dagokienez, ondorengo aukerak daude:
 - Urrietako Larrialdiko Harrera Zentroan dauden adin txikikoak 2004ko apirilaren 20ko 33/2004 Dekretuaren bitartez arautzen diren laguntza ekonomiko osagarrien onuradunak izan daitezke. Laguntza horien bitartez, adin txikikoek arreta psikologikoa, sare publikoak estaltzen ez dituen tratamendu medikoak edo zentzoko zuzendariaren iritziz adin txikikoen intereseko izan litezkeen beste laguntza batzuk izan ditzakete. Horrez gain, Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratzeko Sailak ez du ezarri adin txikikoen larrialdiko harrerari lotuta ez dagoen beste neurririk.
 - Epe ertain edo luzeko egonaldietarako egoitzan harreran hartutako adin txikikoek Gizarte Politikako Sailaren hainbat zerbitzu jaso ditzakete:
 - Boluntarioen eta babes-familien bitartez adin txikikoei laguntzeko zerbitzua. Familietatik banandutako adin txikikoei aisialdi garaian eta denbora librean edota eskola jardueretan borondatezko laguntza eskaintzen dien zerbitzua da; horrez gain, asteburuak edota opor garaiak familia boluntario batekin pasatzeko aukera ere ematen die.
 - Laguntza psikoterapeutiko zerbitzua, lehiaketa publikoaren bidez kontratatutako haur-psikologoek emandakoa.
 - 18 urtetik gorako gazteentzako laguntza bereziak, adin nagusitasunera heltzean gazteari babesa emateko asmoz: alde batetik, beste jarduerak batzuk eginez lor

ditzakeen diru-sarrerak osatzeko laguntza ekonomikoa, eta bestetik, gazteak hartutako konpromisoan sartzen den lan edota hezkuntza programaren jarraipena.

- Egoitza-harrera programaren laguntza osagarriak. Adin txikikoen ongizatean eragin kaltegarria izan dezaketen eta gizarte zerbitzuetako sistemak edo beste sistema batzuek (Hezkuntza, Osasuna...) modu orokorrean emandako ekarpekin estali ezin diren premiei arreta ematea da helburua.

Kasu hauetan, Gizarte Politikako Sailaren erantzunaren arabera, egoitzan hartze-ko aukera aztertzen da “betiere adin txikikoaren premia eta ezaugarri berezietara egokitutako familia aproposa dagoenean”.

- Bakarrik dauden adin txikikoei eskainitako arreta zerbitzuan jarduteko prozedura arautzen duten jarraibide, dokumentu edo protokolei dagokienez, aipatutako Sailak hauek zehazten ditu:
 - Gizarte Politikarako Sailak eta Gurutze Gorriak elkarren artean izenpetutako Hitzarmena, bakarrik dauden adin txikikoen egoitza-harrera zerbitzua eskaintzeko lankidetzara arautzen duena, zerbitzua garatzeko beharrezko jarduerak eta baldintzak ezarritik.
 - Bakarrik dauden adin txikikoekin jarduteko irizpideei buruzko protokoloa.
 - Egoitza-harrerarako orokorrean ezarritako zenbait protokolo (sarrerakoa; harre-
rakoa; tratamendu psikiatrikoa eskatzen denekoa, eta abar).
- Bakarrik dauden adin txikikoekin jarduteko irizpideei buruzko Protokoloari erreferentzia egitea komeni da.

“Bakarrik dauden adin txikikoak. II Funtzionamendurako irizpideak” izeneko dokumentua da, 2003ko urtarrilaren 10ekoa; 2004ko uztailaren 7an Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratzeko foru-diputatuak igorritako idatziak aipatzen duen gisan, indarrean dagoen prozedura jasotzen du, “izan diren lege aldaketetara egokitze-ko premiak baloratzeko berrikuste-prozesuan dagoen arren”.

Dokumentu horrek jarduketa-irizpideak eta adin txikikoei eman beharrek erantzunean esku-hartzen duten hainbat eragilek jarraitu beharrek prozedurak ezarri nahi ditu: Foru Aldundiaren beraren zerbitzuak, adin txikikoen Fiskaltza, Segurtasun Indarrak eta Gorputzak, Polizia Nazionalaren Atzerritarren Unitatea, Gobernuaren Azpiordezkaritza, harrera-zentroaren Zuzendaritza... Eta hori, legeak aurreikusten dituen egoera edo fase guztietan; dokumentuak zortzi epigrafetan garatzen ditu egoera horiek:

1. Adin txikikoa topatzea eta Foru Aldundiaren eskuetan uztea.
2. Larrialdiko harrera-zentroan sartzea.
3. Familiarekin berriz biltzea eta aberriatzea.
4. Dokumentazioa.
5. Egoitza-harrera.
6. Babesgabetasun aitorpena eta tutoretza.
7. Egoitza-baimenaren eskaera.
8. Asilo-eskaera.

Arartekoaren erakundeak, ofiziozko 10/2003/090 espedientearen bitartez, dokumentuaren edukia aztertu zuen bere garaian eta aurreikuspen batzuekin ez zen ados agertu. Bereziki hauen kontra agertu zen:

- Babesgabetasun aitortpena eta ondorengo tutoretza esleipena “9 hilabeteko epea pasatu arte” hasi ez izana (dokumentuaren 6. atalean agertzen den gisan).
- “Bakarrik dagoen adin txikikoaren babesgabetasuna aitortu arte eta bere tutoretza norbaitek bere gain hartu arte” egoitza-baimena eskatu ez izana (dokumentuaren 7. atala).

Gai horiek, adin txikikoaren goi-interesean –erakundeen jarduketa guztien oinarrian egon beharko litzatekeen printzipioa- eragin kaltegarri handiak izan ditzaketenak, txosten honetan landuko ditugu, antzemandako arazo nagusiak nabarmendu eta hobetzeko gomendioak eta proposamenak eginez.

3.4.3. *Zentroen azterketa*

A) LARRIALDIKO HARRERA-ZENTROA - URNIETA(*)

Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrentzako Larrialdiko Harrera Zentroa Urnietan dago, 2002tik horretarako erabiltzen den Gurutze Gorriak alokatutako etxebizitza familiarabakar batean. Funtzio hori lehen elkarte berak egiten zuen, baina Irunen zegoen pisu batean. Zerbitzua murrizta zela-eta, -arartekoak urtero egindako txostenetan agertzen den gisan-, beste leku batera aldatzea erabaki zen.

Gipuzkoako lurraldearen barruan betebeharrak eta eskuduntzen bereizketa dago. Zentro hau bereziki adin txikiko neska-mutil atzerritarren hasierako harrera egiteko da eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren barne berregituraketaren arabera, Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratzeko Sailaren menpe dago. Behin denbora tarte bat egindakoan, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoitzara pasatzen dira, Martutenera; egoitza hori ere Gurutze Gorriak kudeatzen du baina Gizarte Politikarako Sailaren menpe dago.

Txosten hau egiteko Urnietako Zentroari egindako bisita ekainaren 18an izan zen. Ondorengoak burutu genituen:

- Bisita-plana ezarri eta bi zerbitzuetako zuzendari-koordinatzaileari (Gurutze Gorriko arduraduna) informazio bilketarako erabilitako materiala aurkeztu.
- Urnietako zerbitzuko koordinatzailearen ordezkariarekin elkarrizketatu.
- Zentroaren instalazioak bisitatu.
- Jardueren dinamizazioaz arduratzen den hezitzailearekin elkarrizketatu.
- Adin txikikoekin elkarrizketatu.

Azterketaren metodologiari buruzko atalean (ik. Txosten honen sarrera) zehaztutako tresnekin egin zen informazio bilketa.

(*) Txosten hau behin betiko itxi zenean (2005eko maiatza), larrialdiko harrera-zentroa, hainbat hilabetetan gainezka egon eta harrera-educiera indartzeko hainbat aterpetxe erabili ondoren, eta langile guztiek baja hartzean (behintzat, denboraldi batez), gau-zentro gisa bakarrik erabili zen, behin-behineko langileekin. Testuan jasotako egoera 2004ko maiatzekoa da.

LARRIALDIKO HARRERA-ZENTROA

Herria Urnietan (Gipuzkoa)	Ebaluazioa egitean erabiltzaileek zuten adina Batez bestekoa: 16,5 urte
Titulartasuna Titulartasuna eta kudeaketa - Gurutze Gorria, urteko itunaren bitartez	Langileak Zuzeneko arretarako langileak: 6,5 hezitzaile Etxeko langileak: 0,60 Segurtasuneko langileak: 16 ordu egunean
Edukiera Hitzarmenaren araberrako plazak: 9 Gehieneko erabilera (benetakoa): 13	Langilea / erabiltzailea ratioa Hitzartutako plaza guztietarako: 1,01 Betetako lekuetarako: 1,13
Okupazioa (2004ko maiatzak 18) 8 lagun	Logela kopurua Bikoitzak: 1 3 lekukoak: 3
Adina / Sexua 18 urte arteko neska-mutilak	Bainugela kopurua 2 komun, horietako bat osoa

ZENTROAREN EGITURA BALDINTZAK

- Kokapena eta ingurua
 - Zentroa Urnietan dago, bizitegi-gune batean, Donostiatik 10 km-ra. Trenez eta autobusez komunikatuta dago. Zentroaren eta tren geltokiaren arteko ibilbidea oinez egin daiteke.
 - Etxebizitza familiabakarrak dauden urbanizazio batean dago. Etxeak lorategia edo kanpo-zonaldea ditu.
 - Ez dago seinaleztatuta.
 - Lursaila lorategiko hesi batekin itxita dago, gainerako etxeetan bezala.
- Zentroaren diseinua eta premiei erantzuteko egokitasuna
 - Zentroa etxebizitza familiabakar eraiki berria da, Gurutze Gorriak adin txikiko horiei arreta eskaintzeko bereziki alokatutakoa. Alokairua urtero berritzen da.
 - Hitzarmenak 9 plaza aurreikusten ditu baina zentroan 11 adin txikiko atzerritar ere hartzen dira. Okupazio horretan oinarrituta, Giza Eskubideen Sailaren esku-hartzea aurreikusi da, adin txikikoak Aldundiaren menpeko aterpetxeetara lekualdatzeko; hala ere, batzuetan 13 ere egon izan dira zentroan, adin txikiko batzuek egongelan lo egin dutela.
 - Etxeak bi solairu ditu:
 - Lehenengoan garajea, sukaldea, 9x4 metroko egongela-jangela, logela eta hezitzaileen komuna dago, eta bainugela txiki bat konketa eta komunarekin.
 - Bigarren solairuan logelak daude (hiru plazako hiru eta biko bat), baita bainugela oso bat ere, dutxarekin. Etxeak bi balkoi ditu; bi logelatatik atera daiteke bertara.
 - Harreran hartutako adin txikikoen kopurua handia denean, leku arazoa egoten da, batez ere komunei dagokienez, dutxa bakarra baitago bertako adin txikiko guztientzat.
 - Sukaldea handia da eta egoera onean dago. Normalean jangela gisa ere erabiltzen da.
 - Garajeen itxita bi gune egin dira, bata biltegi eta segurtasuneko langileen aldagela gisa erabilia eta bestea despentsa gisa.

- Ate guztiak normalean giltzaz ixten dira. Hezitzaileek irekitzen dituzte egoki irudituz gero.
- Alderdi orokorrak, dekorazioa eta altzariak
 - Altzariak egoera onean daude, egongelako sofak izan ezik, nahiko hondatuta baitaude.
 - Adin txikikoek armairu gisa erabiltzen dituzten metalezko kutxatilategi batzuetako ateak okertuta daude.
 - Etxean hezetasun arazoak daude, eraikuntza akatsen ondorioz sortutakoak izan daitezkeenak. Bisita garaian egongelan eta beheko solairuko bainugelan antzeman zitezkeen. Arazoa konpontzeko lanak egiten ari ziren.
 - Etengailu batzuetan kalteak antzeman daitezke.
- Banakako erabilerako guneak
 - Logelak handiak dira, bai hirukoitzak, bai bikoitza ere. Logeletan, gazte bakoitzarentzat oheak, mahaitxoak, apalak, esekitokiak eta kutxatilategiak daude. Kutxatilategiak giltzaz itxita daude. Adin txikikoak berak gordetzen du giltza.
 - Adin txikikoek euren gelak nahi duten bezala apain ditzakete.
- Aisialdirako eta elkarrekin egindako jardueretarako guneak
 - Eguraldia lagun izanez gero, adin txikikoek etxearen inguruko kanpoko zonaldea edo lorategia erabiltzen dituzte.
 - Elkarrekin erabiltzeko gela bakarra egongela-jangela da, lehenengo solairuan dagoena. Adin txikikoek aisialdirako tartean erabil ditzaketen sofak daude. Telebista bat dago, baina telebista ikusteko baimendutako orduetan bakarrik egoten da egongelan.
 - Garajea ping-pongeko mahaia dago.
- Segurtasun sistema
 - 2003 hasieratik, adin txikikoak zentroan daudenean segurtasuneko zainzailea egoten da.
 - Alarma sistema bat du.
 - Su-itxalgailuak garajeko zonaldean bakarrik daude.
- Oztopo arkitektonikoak
 - Etxea ez dago mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat egokituta.
- Beharrezko hobekuntzak
 - Zentroak bertan egiteko zenbait hobekuntza proposatu dizkio foru aldundiari:
 - Egongelarako kuxinak dituzten banku luzeak erostea.
 - Gortinak eta ohe-estalkiak jartzea.
 - Eskailera azpian oinetako-altzaria jartzea.
 - Garajeko lekua egokitu hobeto aprobetxatzeko.

LANGILEAK

- Lan-taldea egokitzea
 - Lan-taldea gizon-emakumeek osatzen dute. Ez dago arabiera dakien kontratatutako inor.
 - Lan-taldea nahiko egonkorra da.

- Langileen kontratazioa, hautapena eta kontrola
 - Langileak Gurutze Gorriak berak kontratatu eta hautatzen ditu.
- Langileen gainbegiraketa eta laguntza
 - Giza Eskubideen Sailak gainbegiraketa egiten du baina Gizarte Politikarako Sailaren menpeko Laguntza Teknikoko Zerbitzuak ez du esku-hartzen.

OINARRIZKO ESKUBIDEAK

- Hezkuntza
 - Zentroan dauden adin txikiko guztiak gaztelaniazko eskoletara joaten dira goizez, ordu eta erdiz, Donostian. Gurutze Gorriko langile boluntarioek ematen dituzte eskolak.
 - Adin txikiko batzuk gaztelaniazko eskoletara arratsaldean joaten dira Ategorrietako Villasalia HHE ikastetxera, adin txikiko atzerritarrak onartzen dituen bakarra baita. Beste HHE ikastetxe batzuetan eragozpen handiak izan dituzte.
 - Hiru adin txikikok LHI batean lanbide hastapeneko ikastaro bat hasiko dute. Lehen, izena emateko epekin arazoak zituzten, iraila ondoren etorritakoentzat epeak itxita baitzeuden. Orain, edozein garaitan sar daitezke, LHI balio anitzekoa baitago.
- Osasuna
 - Ez dute arazorik osasun-txartel indibiduala (OTI) lortzeko, ezta anbulatorioan jasotako arretari dagokionez ere.
 - Ez da hasierako azterketa mediko osorik egiten zentroan sartzean.
- Intimitatea - Pribatutasuna
 - Adin txikikoen logeletako ateak normalean itxita egon ohi dira.
 - Adin txikikoek kutxatilategetan lekua dute euren gauzak gordetzeko.
 - Hezitzaileak ez daudenean itxita egoten den gela batean gordetzen dira espedienteak.
- Parte-hartzea
 - Tutoretza sistema erabiltzen dute. Adin txikiko bakoitzak hezitzaile bat du, bere tutorea, harekin banaka lan egiten du eta bere erreferentzia izaten da.
 - Taldeko parte-hartzeari dagokionez, adin txikikoen aldetik eskaerarik izanez gero, asanblada deitu behar dute, hezitzaile eta adin txikiko guztiak bilduz. Hilabetean behin egiten dute. Eskaerak idatziz ere egiten dira.
 - Adin txikikoak arduratzen dira zentroko garbiketaz eta sukaldeko txandez (harrikoa egin, mahaia atondu...)
- Isilpekotasuna
 - Adin txikikoei buruzko edozein datu-eskaera Gipuzkoako Foru Aldundira desbideratzen da.
- Kexa-prozedura
 - Adin txikikoek badakite asanbladetara joan daitezkeela eskaerak edo kexak aurkeztera.
- Informazioa
 - Adin txikikoei, zentrorira iristen direnean, arauak azaltzen dituen liburuxka bat ematen zaie. Hainbat hizkuntzatan dago (arabieraz, ingelesez, frantsesez eta gaz-

telaniaz). Azken aldian adin txikiko alfabetatu gabe gehiago izan dituzte, eta hori zailtasun erantsia da.

- Desberdintasunari dagokionez
 - Zentroan ez da txerrikirik jaten otorduetan.
 - Ramadaneko hilabetea eta otoitzak errespetatzen dira.
 - Asteburuetan adin txikikoek prestatzen dute janaria eta normalean euren gustuen arabera, jateko arabiarra prestatzen dute.
 - Arabierazko irakurketa-liburuak izatea komeni ote den aztertzen ari dira.

HEZKUNTZA JARDUERARAKO BALIABIDEAK

- Egun hezkuntza jarduketako tresnak berrikusten ari dira. Zentroaren hezkuntza proiektua eta banako planak erreforma bidean daude. Zentroko batez besteko egonaldia nabarmen handitu izana da horren arrazoia (lehen, adin txikikoak gehiezin hiru hilabete egoten ziren eta orain denbora luzeagoz egoten dira). Zentroan faseak edo etapak bereizi nahi dira, adin txikikoak bertan daraman denboraren arabera.
- Adin txikikoekin lan egiteko modua zaintza bidezkoa da. Adin txikiko bakoitza bere zaintzailearekin biltzen da astero.
- Hezitzaile-taldeak astean bilera bat izan ohi du; bertan, hezitzaile bakoitzak duen adin txikikoaren asteko helburuak azaltzen ditu eta kasuak eta dauden arazoak aztertzen dira.
- Barne erregimeneko araudiaz gain, hainbat jarraipen-tresna erabiltzen dira, besteak beste, eguneroko erregistro informatizatua.

DENBORA ERABILTZEKO BALIABIDEAK (JARDUERAK)

- Barruko baliabideak
 - Goizetan, Gurutze Gorriko boluntarioek gaztelaniazko eskolak prestatzen dituzte adin txikikoentzat, Donostian.
 - Zentroak bultzatzen dituen aisialdiko jarduerak antolatzeke kontratatutako hezitzaile bat egon ohi da. Astearteetan, asteazkenetan, ostiraletan eta igandeetan egiten dira jarduera horiek: hainbat kultur jardueratara joaten dira, txangoak egiten dituzte mendian zehar, hondartzara joaten dira, udal kiroldegira... Noiz edo noiz, zentroan bertan eskulan tailerrak ere egin izan dira.
- Kanpoko baliabideak
 - Zentroak proposatzen dituen jardueretan, askok inguruko balio komunitarioak erabiltzea eskatzen dute. Maiz, kiroldegia, gaztelekuak, HHE eta LHI ikastetxeak erabiltzen dira.

GIZARTEKO GIROA HAUTEMATEA (BIZILAGUNAK, BERRIEN TRATAMENDUA)

- Bizilagunekin ez dago arazorik. Ia ez dute harremanik haiekin.

B) MARTUTENEO EGOITZA(*)

Gipuzkoako lurraldean, Martuteneko Zentroan bizi izan dira denbora gehien zeramaten babesean hartutako atzerritar adin txikikoak. Horrela bada, epe luzeko egotaldietarako egoitza da; ez lehen harrerakoa. Kasu honetan ere, Gurutze Gorria arduratzen da zerbitzuaz. Etxebizitza 1997ko irailetik erabiltzen da helburu horretarako.

2004ko maiatzaren 19an egin zen zentrorako bisita. Bisita horretan, eta atal metodologikoan adierazitako informazio bilketarako baliabideak erabiliz, ondorengo jarduerak egin ziren:

- Martuteneko Zentroko koordinatzailearekin elkarrizketa.
- Instalazioak bisitatu.
- Une hartan txanda tokatzen zizaion hezitzaileari elkarrizketa (egun gutxi batzuk lehenago hasi zen lanean).
- Une hartan Egoitzan bizi ziren adin txikikoei elkarrizketa (guztiek nahi zuten elkarrizketatuak izan, eta hainbat kexa azaltzen zituzten).

MARTUTENEO ZENTROA

Herrialdea Martutene (Gipuzkoa)	Ebaluazioa egitean erabiltzaileek zuten adina Batez besteko adina: 17 urte, gutxi gorabehera
Titulartasuna Titulartasuna eta kudeaketa - Gurutze Gorria, urteko hitzarmen baten bidez	Langileak Zuzeneko arretarako langileak: 6,5 Etxeko langileak: 0,6
Edukiera 9 plaza	Langile / erabiltzaile ratioa Plaza guztietarako: 0,78 Okupatutako plaza guztietarako: 1,42
Okupazioa (2004ko maiatzak 19) 5 pertsona	Logela kopurua Banakakoa: 1 Bikoitzak: 4 (bateren bat 3 plazakoa ere bihurtu daiteke)
Adina / Sexua 14 eta 18 urte bitarteko mutilak eta neskak	Bainugela kopurua 3 komun, horietako bi guztiz jantziak (bat hezitzaileentzat)

ZENTROAREN EGITURA BALDINTZAK

- Kokapena eta ingurua
 - Zentroa Martutenen dago, Donostiako erdialdetik 3 kilometrora dagoen auzoan. Tren eta autobus bidezko komunikazio ona du. Hain zuzen ere, alboan aldiriko tren geltokia du, baita autobus geltokia ere.
 - Zentroa ez dago seinaleztatuta.

(*) Txosten hau behin-betikoz itxi zenean (2005eko maiatza), langile guztiek baja hartu ondoren eta Gurutze Gorriak hitzarmenari uko egin ostean, zentroa itxi egin zen. Testuan adierazitako egoera 2004ko maiatzari dagokio.

- Zentroaren diseinua eta premiei erantzuteko egokitasuna
 - Atxikitako etxebizitza da, Gurutze Gorriak alokatua eta 1997tik helburu horretarako erabiltzen dena.
 - Bakarrik dauden adin txikiko bederatzi atzerritarrentzako edukiera du.
 - Etxebizitzak hiru solairu ditu:
 - Lehenengoan, denek erabiltzeko moduko lekuak daude. Sukalde handia dago, berritua, balkoi itxi batekin eta despentsa gisa erabiltzen den gela txiki bat. Gainera, jangela-egongela bat ere badago. Eskaileren hasieran, bainugela txiki bat dago.
 - Bigarren solairuan hezitzaileen gela dago; ordenagailua, mahai zabal bat, ohe bat, armairua, botikina... ditu. Solairu honetan adin txikikoentzako bi logela daude, bakoitza bi ohekoa, eta bat hirura zabal daiteke. Era berean, adin txikikoen komuna dago, berrituta eta bi dutxarekin.
 - Hirugarrenean hiru logela daude, bat plaza batekoa, eta bi bikoitzak. Solairu honetan dago hezitzaileek erabiltzen duten bainugela.
 - Etxeko logela guztiak oso zabalak dira.
- Orokorrean, dekorazioa eta altzariak
 - Etxebizitzako altzariak egoera onean daude. Logeletako armairu eta ohe batzuk berriztatu egin dituzte. Gainerakoa berritzez dago.
 - Sukaldea duela gutxi berritu dute.
 - Eraikineko leihoak ere duela gutxi berritu dituzte.
 - Adin txikikoen erabiltzen duten bainugelak hezetasun aztarnak ditu.
- Banakako erabilerako guneak
 - Adin txikikoen logelak zabalak dira. Mahaitxoak, oheak eta partekatzen duten armairua dituzte. Bisita egin genuenean, armairuekin arazo batzuk gertatu ziren: adin txikikoen beren gauzak gordetzeko lekua eskatzeaz gain, horretarako sarbi-dea euren soilik edukitzea ere eskatzen zuten. Adin txikiko batzuek beste batzuei arropa kendu zieten, eta horrek arazoak sortu zituen. Horregatik, hezitzaile taldea giltzarekin ixten diren banakako takilak jartzea pentsatzen ari zen.
 - Adin txikikoen berak nahi duten moduan apain dezakete logela.
 - Normalean, logeletako ateak itxita egoten dira. Giltzak hezitzaileek edukitzen dituzte, eta adin txikikoen eskatzen dutenean zabaltzen dituzte ateak.
- Aisialdirako eta jarduerak elkarrekin egiteko guneak
 - Gune komun osoa etxebizitzaren beheko solairuan dago. Jarduera komunak egongelan egin daitezke. Ordutegi murriztua duen telebista bat ere badago.
 - Jangelan denek batera jan ohi dute, mahai zabala dagoen lekuan.
- Segurtasun sistema
 - Solairu bakoitzean su-itxalgailu bat dago.
 - Ez dago zaintzako langilerik.
- Oztopo arkitektonikoak
 - Etxea ez dago mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat egokituta.
- Beharrezko hobekuntzak
 - Zentroak hainbat hobekuntza egitea proposatu dio Foru Aldundiari (Gizarte Politikarako Saila):
 - Etxeko ate guztiak aldatzea.

- Eraikineko instalazio elektrikoa berritzea.
- Sabaiak jaisteak.
- Egongelarako besaulkiak eta higiezinak lortzea.
- Egongela eta jantokia bereiztea eta ixtea.
- Oraindik berritu ez diren egongeletarako armairuak eta oheak lortzea.
- Eskailera azpian oinetako-altzaria jartzea.
- Kanpoaldeko eskaileran lanak egitea.

LANGILEAK

- Langileen egokitzapena
 - Langileen artean gizonak eta emakumeak daude. Arabieraz dakien inor ez dago kontratatuta.
 - Azkenaldian, langile desberdinak egon dira. Urtebete baino denbora laburragoan 14 pertsona pasatu dira zentrotik; kontratatutako pertsona berrien batez besteko iraupena bi hilabetekoa izan da. Elkarrizketatutako hezitzaileak eta zentroko zuzendariak esan dute hori arrazoi jakin batzuen ondorioa dela:
 - Adin txikikoekin gatazkak izatea; indarra izan behar da. Horrek esperientzia eta heldutasuna eskatzen du, eta ez da beti izaten.
 - Laneko baldintzak; beste zerbitzuetan baino gogorragoak edo ez hain ondo ordainduak.
- Kontratazioa, langileen hautaketa eta kontrola
 - Langileak Gurutze Gorriak kontratatu eta hautatzen ditu.
- Langileen prestakuntza
 - Langile berriak ez du prestakuntza berezirik jasotzen; hala ere, sarrera eta erantzukizunak bere gain hartzea mailakatua izan dadin ahalegintzen da.
- Gainbegiraketa eta langileen babesa
 - Foru Aldunditik Laguntza Teknikoko Zerbitzua (LTZ) sortu da, eta hilean behin biltzen dira zerbitzu horrekin. Ekimen protokoloak nola bideratu behar dituzten aholkatzen die. Era berean, 2002. urtera arte, zerbitzu honek Gipuzkoan dagoen harrera sistemaren ebaluazioak egin ditu.
 - Aldizkako gainbegiraketa egiten da.

OINARRIZKO ESKUBIDEAK

- Hezkuntza
 - Zentroan babesean hartutako adin txikiko guztiak ikastaroren bat egiten ari dira. Lanbide Hastapeneko Zentroetara, Bigarren Hezkuntzako Zentrorra edo trebakuntza ikastaroetara joaten dira. Adin txikikoak eskolatzeko ez dago arazorik. Lehen, matrikulatzeko epe kontuekin izaten zituzten arazoak, baina orain, urte guztian zehar eskoletan sartzeko aukera ematen dien baliabide bat sortu du Sartu-k.
 - Adin txikikoak gertuen dagoen Ikastolan matrikulatzen saiatu izan direnean, arazoren batekin egin izan dute topo; hori dela eta, Urnietan matrikulatzea erabaki da.
 - Adin txikiko batzuk HHE zentroetara joaten dira gaztelaniazko eskolak hartzera. Hala eta guztiz ere, zentroaren esanetan, baliabide hori ez da egokia; beraz, Gurutze Gorria beste proiektu bat garatzen ari da (alfabetizazio gela) premia horri erantzuna emateko, boluntarioekin goizetan ematen diren eskolen alternatiba gisa.

- Osasuna
 - Ez dago arazorik OTIa lortzeko, ezta adin txikikoek jasotzen duten osasun arretari dagokionez ere.
- Intimitatea - Pribatutasuna
 - Adin txikikoek ez dute beren objektu pertsonalak gordetzeko leku pribaturik, beste inor iritsi ezin daitekeen lekurik.
 - Gelak itxita egon ohi dira, adin txikikoak hezitzaileari irekitzeko eskatzen ez dion arte.
 - Espedienteak sarbide murriztuko geletan egoten dira.
- Parte-hartzea
 - Adin txikiko bakoitzak bere tutorea du; tutore hori izan ohi da heziketa taldeko erreferentzia, eta pertsona horrekin lantzen du prozesu pertsonal osoa.
 - Adin txikikoak eskaeraren bat egiten duenean, hezitzaile guztiak, zuzendaria eta adin txikikoak bildu eta batzarra egiten dute.
- Isilpekotasuna
 - Adin txikikoen gaineko datu oro Foru Aldunditik etorri ohi da.
- Kexa-prozedura
 - Adin txikikoek kexaren bat dutenean, tutorearengana jo ohi dute, eta askoz jota, zentroko zuzendariarengana.
- Informazioa
 - Egun, ez dago adin txikikoei zuzendutako informazio liburuxkarik. Dokumentu bat sortzen ari gara eta dokumentu hori adin txikikoari emango zaio zentroan sartzen denean; bertan, elkarbizitza eta zentroaren funtzionamendu arauak azalduko dira.
- Desberdintasunei dagokienez
 - Elikaduran, ez da ez txerrikirik ez alkoholik egoten.
 - Adin txikikoek, eurek hala nahi izanez gero, Ramadan hilabetea egin dezakete.

HEZKUNTZA JARDUERARAKO BALIABIDEAK

- Heziketa proiektua gainbegiratzeko bidean da. Horretan lanean hasi ginen, baina hezitzaileen artean izan diren aldaketa ugariak direla eta, ezinezkoa izan da zeregin horretan jarraitzea.
- Heziketa talde osoa astean behin biltzen da adin txikikoen egoera eta asteko gertaerak aztertzeko.
- Bada barne erregimeneko araudi bat, eta horren laburpena egin nahi da adin txikikoei emateko.
- Isunak bileretako aktetan eta jarraipen ereduetan adierazita geratzen dira.
- Adin txikiko bakoitzarentzat heziketa plana edo proiektua burutzen da. Helburuak betetzen diren ala ez aldian-aldian gainbegiratzen da.
- Jarraipen edo koordinazio lana errazteko tresna desberdinak garatu dira (gertaera orria, jarraipen ereduak, hasierako behaketarako protokoloak...).

DENBORA ERABILTZEKO BALIABIDEAK (JARDUERAK)

- Barruko baliabideak
 - Zentroan, normalean ez da aisialdiko jarduerarik antolatzen. Noizean behin, aste-bururen batean edo Aste Santuan, hainbat egunetako irteerak antolatu dira.
- Kanpo baliabideak
 - Adin txikikoen komunitatearenak diren baliabide batzuk erabiltzen dituzte, kiroldegia, batez ere. Gaztelekuak eta inguruko liburutegiak ez dituzte hainbeste erabiltzen. Adin txikiko batzuek futbito taldeetan egiten dute kirola.

GIZARTEKO GIROA HAUTEMATEA (BIZILAGUNAK, BERRIEN TRATAMENDUA)

- Bizilagunekin harremana ona da. Lapurretaren bat gertatu denean, kasuren batean, bizilagunak zentrorra joan izan dira galdetzera, baina kontua ez da gehiagora iritsi; horrelako kasuak Ertzaintzara bideratu dira.

3.4.4. Adin txikiko horiei zuzendutako baliabideak zenbatzea eta premien bilakaera

Babesean hartutako adin txikikoen datuen arabera, pentsa liteke Gipuzkoako Lurralde Historikoan, azken urteetan, babesean hartzeko beharrak –edo hobeto, eskaerak– nahiko egonkor mantendu direla. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu beharrekoa da taula-laburpenak ez duela premien bilakaera ondo baloratzeko beharrezkoa den oinarrizko gauzen gaineko informaziorik eskaintzen: babesean hartu gabeko adin txikiko atzerritarren taldea (bere garaian atzeman zen eta erakunde honek 2000. urteko txostenean adierazi zuen), edo zentroetan arreta emandako adin txikikoen egonaldien batez besteko denbora (Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratzeko Sailak emandako datuen arabera, zenbait urtetan, sarrerren %46,5ean, egun bateko egonaldiak nagusitu dira).

26. taula: Arreta-premien bilakaera (Gipuzkoa, 1996-2004)

	Irekitako espediente kopurua	Egindako tutoretza kopurua	Harreran hartutako adin txikikoen kopurua ⁽¹⁾		Egoitza zerbitzuetan sartutakoen kopurua ⁽¹⁾	
			Mutilak	Nesakak	Mutilak	Nesakak
1996	23	3	20	1	3	-
1997	67	2	65	2	2	2
1998	85	-	81	4	-	-
1999	140	-	136	4	-	-
2000	96	-	98	2	-	-
2001	98	-	111	5	8	-
2002	112	4	108	5	6	1
2003	114	3	110	1	9	-
2004	101	12	89	9	12+113 ⁽¹⁾	9 ⁽¹⁾
GUZTIRA	836	24	818	33	(28)	(12)

Iturriak: Gizarte Politikarako Saila eta Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratzeko Saila. Gipuzkoak Foru Aldundia.

⁽¹⁾ 2004. urtean izan ezik (adin txikikoen eta sarrerren datuak beste irizpide batekin desberdinu dira), bi zutabetan bildutako beste urteetako datuak larrialdietan "hartutako" adin txikikoen isla bezala (1. zutabea) interpretatu behar dira, edo egoitza egonkorragoetako "egoitza zerbitzuetan" hartu dituzten adin txikikoen isla bezala (2. zutabea).

Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak adin txikiko horiei emandako egoitza baliabideek ez dute aldaketa handirik izan: larrialdiko harreretara zuzendutako zentroa eraiki da, eta egonaldi ertain eta luzeko beste egoitza bat ere egin da. Larrialdi egoeratarako plaza kopurua handitzea izan da oinarrizko desberdintasuna, eta hori, batez ere, zerbitzua Irundik (muga asko zituen etxebizitza) Urnietara (familia bakarreko etxebizitza, leku gehiagorekin eta harrera ahalmenarekin) aldatzean lortu da.

Taula honen bidez, beste eduki batzuetan izandako bilakaera ikusiko dugu: aurrekontu-ekarpena edo zentroetara bideratutako giza baliabideak.

27. taula: Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren premiei erantzuteko erabilitako baliabideen bilakaera (Gipuzkoa 2000-2003)

Baliabideak	2000	2001	2002	2003
Egindako aurrekontu berezia				
- Larrialdiko Harrera Zentroa	-	-	-	287.437 €
- Martuteneko Zentroa	-	171.444,95 €	228.833,10 €	283.437,50 €
Zerbitzuen sarea (Zentroak eta gehienezko plaza kopurua)				
- Larrialdiko harrera	Larrialdiko zentroa: 8 plaza	Larrialdiko zentroa: 9 plaza	Larrialdiko zentroa: 9 plaza	Larrialdiko zentroa: 9 plaza
- Epe ertain eta luzeko egonaldiatarako harrera	Egoitza zentroa: 8 plaza	Egoitza zentroa: 8 plaza	Egoitza zentroa: 9 plaza	Egoitza zentroa: 9 plaza

Baliabideak	2000	2001	2002	2003
Langileak (arduraldi osoa)				
- Larrialdiko harrera zentroa ⁽¹⁾	-	-	-	Zuzendari 1 (lanaldi erdia) 6 hezitzaile lanaldi osoan Hezitzaile 1 lanaldi erdian (beste hezitzaile bat lanaldi erdian, arreta emandako adin txikikoen kopuruaren arabera) Laguntzaile 1 lanaldi erdian 2 segurtasun zaintzaile
- Epe ertain eta luzeko egonaldiatarako zentroa	-	Zuzendari 1 (lanaldi erdia) 5 hezitzaile (lanaldi osoa) Etxeko laguntzaile 1 (lanaldi erdia)	Zuzendari 1 (lanaldi erdia) 5 hezitzaile (lanaldi osoa) Etxeko laguntzaile 1 (lanaldi erdia)	Zuzendari 1 (lanaldi erdia) 5 hezitzaile (lanaldi osoa) Etxeko laguntzaile 1 (lanaldi erdia)
Beste baliabide batzuk	-	-	-	-

Iturriak: Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratzeko Saila eta Gizarte Politikarako Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia.

⁽¹⁾ 2003. urteari dagozkion larrialdiko harrera zentroko langileen datuak baino ez dira bildu.

Gaurkotuenak diren aurrekontu-datuak ondorengo taulan biltzen dira; parte hartzen duten bi Foru Sailek bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren arretarako berariaz emandako diru-kopuruak biltzen dituzte (2003. urteari dagozkion gastuak eta 2004. urterako onartutako aurrekontuak).

28. taula: Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren arretarako aurrekontuak eta partidak (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003 eta 2004. urteak)

	2003. urteko gastuak	2004an onartutako aurrekontua
Larrialdietako Harrera Zentroa (Urnieta)	287.437 €	297.498 €
Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoitza (Martutene)	283.437,5 €	331.574,04 €
GUZTIRA	570.874,5 €	629.072,04 €

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratzeko Saila eta Gizarte Politikarako Saila.

3.5. **Espedienteen lagin baten azterketa**

Aurreko ataletan ikusi ahal izan dugun bezala, batez ere pertsona bakoitzaren testigantzetan (2.4.1.) eta horietan nabarmendutako elementuetan (2.4.2.), gure erakundera datozen eta bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren helburua lehenbailehen lana lortzea da eta horretarako, ahalik eta azkarren behar dute lan-aurreko trebakuntza eta “paperak” lortzea. Beraz, ezinbestekoa da hori, erakundeek haien beharrei zuzenduta ematen dituzten erantzunak egokiak diren edo ez baloratzeko.

Ikuspuntu horretatik esan dezakegu adin txikiko horien dokumentazio-prozesua edo haien egoera administratiboa arautzeko prozesua gure erakundeak harreran hartzen dituen egunean hasten dela eta lan egiteko baimena lortzen dutenean bukatzen dela. Agiri horiek beharrezkoak dira haiek gizartean eta lan-arloan barneratzerako.

Hala ere, prozesuak erdibideko pauso asko ditu: erroldatzea, osasun-txartela lortzea, jatorrizko dokumentazioa eskuratzea, pasaporte egitea, egoitza-baimena lortzea...

Arartekoak arazo horiek nabarmendu ditu, gehienetan, tutoretza hartzearen gainean Foru Aldundiei aurkezturiko ofizioko txostenen bidez, edo, batez ere, zenbait agiri, esaterako, egoitza-baimena, eskatzerako orduan, behar izandako “denborarekin” eta erabilitako prozedurekin. Bizkaiko Foru Aldundiari (3/2003/090 txostena) eta Gipuzkoako Foru Aldundiari (10/2003/090) bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei buruz bidalitako azken bi txostenek gai hori izan zuten ardatz.

Erakunde honek foru departamentuen aurrean mantendu duen irizpidea ondorengo hau izan da: adin txikikoen mesederako beharrezkoak diren dokumentu guztiak ahalik eta bizkorren lortzea, zenbait izapide martxan jartzeko itxaron beharreko harrerako 9 hilabeteak igaro aurretik. Aldundietako arduradunekin egin den informazio- eta ikuspuntu-elkartrukea ez da kasu guztietan baliagarria izan datuen errealitatea ezagutzeko. Beraz, bazirudien txosten monografiko hau eratzea lagungarria izango zela arazoa modu objektiboan hartzeko eta irizpideak, denbora errealak eta aplikazio zehatzak aztertzeko.

Horretarako, espedienteen hustuketan erabili beharreko fitxa diseinatu genuen (txosten honen 3. eranskina) eta zentroetan egin ziren ikustaldietan, espedienteen lagin txiki bat aztertu zen zuzenean, datu esanguratsuenak lortzeko. Lagina zabaltzeko, zentroetako zuzendaritzei laguntza eskatu genien, aztertuko ziren espedienteak aukeratzeko garaian baliagarria eta erabilgarria izango zen irizpide bat finkatu nahian.

Azkenean, datuen azterketa 78 txostenen hustuketan oinarritu da: 23 Araban, 38 Bizkaian eta 17 Gipuzkoan. Bizkaiko kasuan, aztertutako espediente guztiak Zabaloetxe Zentroan harreran hartutako adin txikikoenak ziren eta lagina (38 txosten) bat dator 2003. urtean egoitza-baimena eskuratu zuten harreran hartutako adin txikikoen kopuru osoarekin; hau da, espediente horien tramitazioak emaitza ona izan zuen.

Jasotako datuek hainbat irakurketa izan ditzakete. Hemen, gehienezko epeak, gutxienekoak eta erdibidekoak bilduko ditugu. Epe horiek adin txikikoa harrera-etxera iristen den egunean hasten dira zenbatzen eta, kasu askotan, aurreko izapidearen garaian ere bai (adibidez, baimena eskatzen denetik ematen den arte igarotako denbora). Zenbait

kasutan, ez dugu daturik eskuratu (zuriz dauden laukiak); bestetan, eskuratutako datuak ez datoz bat lagin osoarekin, beste zenbait kasurekin baizik (kopurua zehaztuta dago).

29. taula: Dokumentazioa bideratzerakoan igarotzen den bitarteko epeen batezbestekoa (78 espedienteen datu-hustuketa. Lurralde Historikoak, 2003¹)

		Araba (Guztira: 23 kasu)		Bizkaia (Guztira: 38 kasu)		Gipuzkoa (Guztira: 17 kasu)	
Harrera-erabakia		29e	17 kasu ²			5h 5e	15 kasu
Hezur-proba		11e	21 kasu			3e	6 kasu
Hezur- proba (oroi.)		16e	18 kasu			29e	6 kasu
Erroldatzea		3h 22e	18 kasu	1h 25e	35 kasu	7h 15e	16 kasu ³
OTI	Eskaera	21e		10h 8e		7h 2e	
	Emakida	1h 15e	22 kasu	13h 25e	20 kasu	7h 9e	8 kasu
	Igarotako denbora	24e		3h 16e		7e	
Pasaporte	Eskaera	4h 28e		4h 10e		12h 15e	
	Emakida	8m 1e	6 kasu	9h 8e	17 kasu	15h 16e	6 kasu
	Igarotako denbora	3h 2e		4h 28e		3h 1e	
CIN ⁴	Eskaera			3h 24e			
	Emakida			5h 2e	11 kasu		
	Igarotako denbora			1h 9e			
Tutoretza	Eskaera	8h 2e	13 kasu			10 h	
	Emakida					13h 26e	8 kasu
	Igarotako denbora					3h 25e	
Egoitza-baimena	Eskaera	3h 11e		7h 2e		17h 21e	
	Emakida	7h 10e	6 kasu	17h 25e	23 kasu	22h 15e	6 kasu
	Igarotako denbora	3h 29e		10h 23e		4h 24e	
Lan-baimena						26h 6e	4 kasu

Iturria: Harrera-zentroak

¹ Zuriz dauden laukiak datu eskuragarriak ez dagoelako sortu dira.

² Batezbestekoa egiteko erabili den txosten-kopurua. Kasu-kopuru osoaren eta bideratzerakoan erabilitako kopuruaren arteko aldea batezbestekoak kalkulatzeko erabili diren kasuetan datza. Kasu horiek adin txikikoek, harrera-etxeetan egon diren bitartean, egindako eskaera eta lorpenetan oinarritzen dira soilik.

³ 16 kasu horien artean muturreko kasu bat dago. Batezbestekoa 5 hilabete eta 19 egunekoa da, azken kasu hori kontuan hartu gabe (15 kasu).

⁴ CIN: Marokoar nortasun txartela.

Taulan ikus daitekeen moduan, aztertutako datu gehienek erakusten digute hiru lurraldeetan joera eta ohitura desberdinak daudela: Araban, epe motzean egiten dira urrats guztiak, beste lurraldeekin alderatuta; Bizkaian, izapide bakoitzaren arabera da baina, orokorrean, epea luzeagoa da; eta Gipuzkoan izapide-epea askoz ere luzeagoa da, alde handiarekin. Arabaren kasuan bakarrik hitz egin dezakegu zentzuzko epeez. Gipuzkoan, atzerapenen pilaketa, hein handi batean, Foru Aldundiak -gure ustez, behar ez bezala- izapideen hasiera luzatzen duelako gertatzen da.

Hona hemen adierazgarriak diren zenbait adibide:

- Arabako Foru Aldundiak harrera egiteko erabakia hilabete batean hartzen du; Gipuzkoan, 5 hilabete baino gehiago luzatzen da.
- Bizkaian, erroldatzea hilabete pare batean lortzen da; Araban, 3 eta 4 hilabete artean; Gipuzkoan, 7 hilabete baino gehiago behar dira.
- Araban, osasun-laguntza txartela hiru astetara eskatzen da eta 24 egunetara lortzen da; Bizkaian, 10 hilabetetara eskatzen da eta beste hiru hilabete eta erdira lortzen da; Gipuzkoan, 7 hilabetetara eskatzen da eta egun gutxitara eskuratzen da.
- Pasaporte eskatzeko 4-5 hilabete igarotzen dira Araban eta Bizkaian, eta urtebete Gipuzkoan.
- Gipuzkoan, adin txikikoak harreran 10 hilabete igarotzean, tutoretza bideratzen da eta 4 hilabete gehiago itxaron behar dira tutoretza lortzeko.
- Egoitza-baimena eskuratzeko, Araban, 7 hilabete baino gehiago itxaron behar dira batez beste; Bizkaian, ia urte eta erdi; Gipuzkoan, ia bi urte. Eta abar.

Kontuan hartzekoa da “batezbestekoez” hitz egiten ari garela, desbideratzeak kontuan hartu gabe. Hori dela eta, interesgarria iruditu zaigu aztertutako 78 kasuetan agertzen diren gehieneko eta gutxieneko epeak ondorengo taulan adieraztea.

30. taula: Dokumentazioa bideratzearen gehieneko eta gutxieneko epeak (78 espedienteen datuen hustuketa. Lurralde Historikoak, 2003)

		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
		Gehienekoa	Gutxienekoa	Gehienekoa	Gutxienekoa	Gehienekoa	Gutxienekoa
Harrera-erabakia		2h 3e	1e			12h 17e	2h 2 d
Hezur proba		3h 2 d	1e			3h 27e	0e
Hezur- proba (oroi.)		3m	3e				
Erroldatzea		14h 2e	13e	5h 19e	9e	27h 21e	3h 12 d
OTI	Eskaera	3h 5e	3e	28h 6e	4h 16e	16 h 11 d	3h 16e
	Emakida	4 m	3e	28h 16e	7h 16 d	16h 17 d	3h 18e
	Igarotako denbora	1h 27e	0e	21h 5e	10e	14 d	0e
Pasaportea	Eskaera	14h 14 d	2h 12 d	10h 26e	1h 4e	27 h 24 d	2h 27e
	Emakida	17h 18e	5h 9e	19h 21 d	2h 3e	29 h 21 d	4h 2 d
	Igarotako denbora	4h 3e	2h 6e	16h 20e	18e	12 h 18 d	5e
CIN	Eskaera			10h 26e	1h 12e		
	Emakida			6h 24e	2h 2e		
	Igarotako denbora			1h 27 d	15 d		
Tutoretza	Eskaera	16h 8e	1h 2e			20h 10 d	5h 10e
	Emakida					22h 20 d	9h 24 d
	Igarotako denbora					8h 23 d	2h 10e
Egoitza-baimena	Eskaera	17h 8e	1h 5 d	17h 15e	2e	25h 12 d	11h 17 d
	Emakida	9h 13e	3h 16e	24 h 5e	12h 28e	29 h 23 d	13h 12e
	Igarotako denbora	8h 10 d	19e	22h 5 d	1h 3e	12h 18e	1h 22e
Lan-baimena		12h 14e	8h 14 d			30h 21 d	21 h 11e

Lurraldeetako joerak, ikus daitekeen moduan, mantendu egiten dira: azkarren bideratzen diren espedienteak Arabakoak dira gehienetan (zenbait bideratze, egun batean edo egun gutxitan); luzapen handienak dituzten kasuak Gipuzkoakoak dira eta Bizkaian ere gertatzen dira (urtebete irauten duten izapideak eta bi urte eta erdiraino luzatzen diren izapideak)

Hala ere, ez dugu ahaztu behar, “kasu” bakoitzaren atzean izena, abizenak eta itxaropenak dituen adin txikiko bat dagoela: Youssef-ek, adibidez, zentroan sartu eta 3 hilabete eta 16 eguneko epean lortu zuen egoitza-baimena; benetako marka izan zen. Jamalek, aldiz, zentroan 29 hilabete eta 23 egun pasatu ondoren lortu zuen. Beste askok, ordea, gizarteratzeko behar duten dokumentazioa eskuratu gabe amaitu zuten haien harrera-epea.

Hala ere, datuek adierazten dutenez, nabarmentzekoa da Arartekoaren eta Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundien irizpideen artean izan diren desadostasunak. Zenbaiten arabera, 9 hilabete itxaron behar dira zenbait izapide bideratzen hasi aurretik, eta aztertutako datu errealek erakutsi digutenez, teoria hori urrun dago errealitatetik.

Arazo hori, bere garrantzia dela eta, berriro ere aztertuko dugu oinarrizko arazo (4. atala) eta gomendio (5. atala) nagusien ataletan.

3.6. **Foru Aldundietako arduradunek nabarmendutako zailtasunak eta aukerak**

Txosten honen eraginez hiru Foru Aldundietara zuzendutako informazio-eskaeraren (ikus 83.2 ataleko sarrera-zatia) azken bi ataletan, batetik, sektore honi arreta emateko zeuden arazo edo zailtasun nagusiak eta, bestetik, proposaturiko hobekuntza-proiektuak edo -aukerak nabarmentzeko aukera planteatu zitzaien.

Ondoren laburtuko ditugu jasotako ekarpenak, eta, zenbaitetan, hitzez hitz azalduta egongo dira.

A) ZAILTASUN ETA ARAZO NAGUSIAK

1. Arabako Foru Aldundia

Arabako Foru Aldundiak nabarmendu duenez, azaleratzen ari den fenomeno da, eta bere ustez baliabideen plangintzan eta kudeaketan eragin handiena duten faktoreak azpimarratu ditu:

- “Ezinezkoa da aurreikustea (espero izan gabe iristea, ihesak, programei atxikitzeko zailtasuna...).
- Gazte hauekin lotura duten ezaugarriak eta arazoak behar bezala ez ezagutzea.
- Babes-baliabideetan eta komunitate mailako baliabideetan barneratzeko eta egokitze zailtasunak (jarrera-nahasteak, drogekin lotura izatea, migrazio-proiekturik definituta ez izatea edo ez edukitzea)”.

Beste berezitasun batzuk ere azpimarratu ditu; ez dira berez arazo gisa hartzen, baina beste guztiekiko gehigarria dira, esaterako, hizkuntza eta kultura desberdintasunak, edo identifikazio-daturik, dokumentaziorik eta gizarte eta familia mailako erreferentziarik ez izatea.

2. Bizkaiko Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundiak, bere lehen erantzunean, “taldearen berezko zailtasunak” eta “lege mailako eta erakundeen arteko koordinazio arloko zailtasunak” bereiztu ditu:

a) Taldearen berezko zailtasunak

Nerabeen berezko ezaugarriez gain, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren taldeak berezitasun batzuk ditu eta horiek kontuan hartu behar dira haiek gizarteratzea errazte aldera lan egiteko. Bost berezitasun azpimarratu ditu:

- Hizkuntza ez ezagutzearen ondorioz dituzten komunikatzeko zailtasunak; horren eraginez, adin txikikoa gaztelaniatze-programaren batean barneratzeko beharra dago.
- Egoitza-zentroetan sartzen diren adin txikikoak, oro har, adin-nagusitasunetik hurbil izaten dira eta, horren eraginez, bakarkako garapen-planen bat gauzatzeko denbora laburragoa da babesgabetasun-egoeran dauden beste adin txikiko talde batzuen kasuan baino. Beraz, derrigorrezkotzat jotzen du adin txikikoen beharretan oinarri-

turiko bakarkako ibilbideak sortzea, metodologia, baliabide eta esku-hartze zehatzak baliatuta.

- Askotan, desegituratutako familietatik datoz eta oso txikitatik helduei dagokien independentzia izan dute; ez dira ez kontrolpean, ez gizarte mailako mugetara egokituta bizi. Horregatik, adin txikiko horiekin egin beharreko lana ondorengo honetan datza: babes-zentro hauetan dokumentazioa lortzeko eta lana bilatzeko soilik egon ez daitezen lortzea; izan ere, laguntza-zentrotan batean sartzean dituzten helburu eta itxaropen horiek askotan eragozpena dira lan-aukera gehiago emango dizkien gutxieneko trebakuntza-prozesuetan sartzeko.
- Langileek talde mota horrekin lan egitean duten muga nagusia egoitza-baimena eta lan-baimena lortzean datza (adin txikikoek lan-eskaintzak izaten dituztenean eta lan-denboraldia gehiegi luzatzen denean, lan-baimena lortzeko zailtasun eta atzerapenen aurrean). Horregatik, eta taldearen ezaugarriak kontuan hartuta, adin txikikoaren egoera zehatzaren xehetasunezko azterketa egitea komeni dela azpimarratu du, adin txikikoak, lan-eskaintza baten aurrean, lanean hasteko aukera izan dezan, bere deserrotzea arin dadin eta behar bezala gizartera dadin ahalbidetzeko.
- Substantzia toxikoen kontsumo-arazoak, bereziki disolbatzaileekin dituztenak. Arazo horiek inguru normalizaturen batean gizarteratzeko zailtasunak areagotzen dituzte; horregatik, bakarkako garapen-proiekturako funtsezkotzat jotzen du adin txikikoak desintoxikazio-programa zehatzetan barneratzea.

b) Lege mailako eta erakundeen arteko koordinazio arloko zailtasunak

Idazpuru honen pean, Bizkaiko Foru Aldundiak nabarmendu nahi du bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren legezko egoerak konplexutasun gehigarri bat duela babesgabetasun egoeran dauden adin txikikoaren egoerarekin alderatuta. Horregatik, ondorengo hau azpimarratu du: *“beharrezkoa da argi izatea adin txikiko horiekin lan egiteko muga nabarmena osatzen duen lege- eta eskumen-egitura bat dagoela. Arlo hau ezin da konpartimentalizatu gisa hartu, eta diziplinen eta sailen arteko lana funtsezkoa da behar bezala aritzeko”*.

Eta, aipaturikoari dagokionez, bi zailtasun zehaztu ditu:

- “Egungo Atzerritarren Legeak (urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa moldatu zuen abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoa, Espainian dauden atzerritarren eskubideen eta askatasunen eta haien gizarteratzearen gainekoa) eztabaida sortzen du dituen interpretazio ezberdinen eraginez, interpretazio horiek egintza eta neurri ezberdinak sorrarazten baitituzte”.
- “Gainera, indarrean den lege-estaldurak zailtasunak sortzen ditu Atzerritarren Legea, Adin Txikikoaren Babes Juridikoaren gaineko Legea (urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa) eta Adin Txikikoaren Erantzukizun Penalaren Legea (urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa) barneratzeko eta bateratzeko.”

3. Gipuzkoako Foru Aldundia

- Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratze Sailak ondorengo hauek jo zituen zailtasun eta arazo nagusizat bere erantzunean:

- “Erabiltzailearen profila: egunetik egunera oldarkorragoa da dituzten eskubide- eta aukera-murrizketen eraginez. Gipuzkoatik gure zentrora iristen direnak gero eta hurbilago daude 18 urte betetzetik, eta beste zenbait komunitatetan saiakerak agortu ostean heltzen dira.
 - Erabiltzaileak oso gazteak direnean (16 urtetik beherakoak) ohikoa izaten da hezkuntza-proiekturik eta helburu argirik ez izatea.”
- Bestalde, Gizarte Politikarako Sailak ondorengo arazo eta zailtasun hauek nabarmendu ditu:
 - “Adina zehazteko irizpide eta tresna egokien falta.
 - Erkidegoen arteko koordinaziorik ez dago, adingabe baten kasuan egindako jardunei buruzko datuen erregistro bat ez dagoelako.
 - Dokumentazioaren izapidetzea konplexua da eta asko luzatzen da. Hori guztia dela eta komenigarria litzateke prozedura bakarra ezartzea honelako kasuak tramitatzeko.
 - Babes zentroak ez dira egokitzen adingabeak aurkezten dituzten emantzipazio eta autonomia pertsonaleko beharretara.
 - Dauden baliabideak atenditutakoen interesekin kontrajartzen dira, eta arazoak izan ohi dira hauen integrazioarako, gehienetan haiek dauzkaten itxaropenen arabera erabiltzen direlarik.
 - Adingabe askok zentroetako barne erregimenerako gutxienezko araudiak ukatzen dituzte eta gutxi batzuek bakarrik onartzen dute heziketa programa bat, lan egiteko gaitasuna eta, azken batean, gizartean txertatzeko aukera emango diena.
 - Zentroa uzten duten gazteek paperik gabeko helduen taldeetan harrapatuta geratzen dira.
 - Haien integrazioa errazteko berariazko baliabide komunitarioak falta dira.
 - Aberriratzeko, adingabearen familiak jatorrizko herrian duen egoera hartu behar da kontuan, baina hori lortzen oso zaila izaten da Afrikako herrietatik.
 - Beharrezkoa da bultzatzea gai honetan eskumena duten erakunde ezberdinen arteko koordinazioa.”

B) HOBKUNTZA-PROIEKTUAK ETA -AUKERAK

1. Arabako Foru Aldundia

Arabako Foru Aldundiak bere lanean hiru hobekuntza-lerro edo helburu nabarmendu ditu:

- Egoitza-eremu finkoagoa antolatzea, egungo zentroko behin-behineko kokapenarekiko beste aukera bat eskaintzeko.
- Zentroaren programa etengabe berrikustea, lan-testuingurua gazte horiek egoitza fasean eta haien autonomia sendotzerakoan dituzten ezaugarrietara eta beharretara egokitze aldera.
- Esku hartzen duten instituzio guztien artean sareko lan-sistema osoa sakontzea, neska-mutil horiengana bideratutako eskumenekin edo/eta baliabideekin.

2. Bizkaiko Foru Aldundia

Bi baliabide-mota berri sortzearen edo sendotzearen aldeko apustua egin du:

- Elkarbizitza unitate txikiak, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei arreta eskaintzeko.
- Kontrolerako eta Tratamendurako Unitatea, bakarrik dauden eta jarrera-arazoak dituzten adin txikiko atzerritarrei arreta eskaintzeko.
- Lehen kasuan, 2004. urteko ekainean martxan jarri ziren eta txosten honetan aztertu ditugun hiru elkarbizitza-unitateak hartu ditu ardatz gisa.

Azpitarratu duenez, unitate horiek eredu honen arabera daude egituratuta: bakarrik dauden 10 adin txikiko atzerritar, 7 hezitzaile eta etxeokandre 1; dena den, azpiegitura-arazoak direla medio, egun unitateek duten benetako edukiera txikiagoa da, baita langile-egitura ere (5 hezitzaile, gaueko 2 zaintzaile eta etxeokandre 1; langile horiek Urduñako Gabriel M. Ibarra Zentrotik datoz).

Gainera, EUTek titularitate publikoa badute ere eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak (GUFE) kudeatzen dituen arren, erakunde pribatuek kudeatutako bi unitate gehiago zabaltea dago aurreikusita.

Azpitarratu duenez, proiektu berri horren azken xedea nerabeei gizarte normalizatuaren egiturari eta dinamikan haien kasa moldatzeko behar duten autonomia ematean datza eta, horretarako, unitateen funtzionamendu ona bermatze aldera dauden agiriei egin die aipamena (Hezkuntza-kontratua, Aukeraketa-irizpideak eta Barneko Erregimenaren Araudia).

- Kontrolerako eta Tratamendurako Unitateari dagokionez, beharrezkotzat jotzen du, ondorengo arrazoietan oinarrituta: *“badira jarrera-arazoak eta portaera antisoziala dituzten eta ordena publikoan asaldurak edo erasoak burutzen dituzten zenbait adin txikiko (...) eta gatazka-maila handia eta haien ingurura egokitzeko arazoak dituzte (portaera disruptibo ugariak, disolbatzailea edo beste gai toxikoren bat kontsumitzea, lapurretak edo delituzko egintzak, etengabeko diziplinarik eza, lanerako prestakuntza-prozesuren edo lan-aurreko prozesuren batean barnertzeko ahaleginik eza, eta abar)”*. Erantzun gisa, garrantzitsutzat jo du ondorengo: *“adin txikiko horiek hartzeko egoitza-unitate zehatzak sortzea; unitate horietan, behar bezala prestatutako profesionalen laguntzaz, portaera zail horiek bideratuko lituzkete egokitzapen-maila hobeak lortzeko”*.

3. Gipuzkoako Foru Aldundia

- Ondorengo planteatu du Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratze Sailak:
 - “Arreta-baliabideen aniztasuna: Gutxieneko Eskakizuneko Zentroak.
 - Kultura-arteko bitartekari trebatuekin lotura duten beharrak.
 - Trebaturiko hezitzaile marokorak.
 - Hezkuntza-arreta publikoarekin lotura duten beharrak: baliabideen aniztasuna.

- Zentroak diseinaturiko ibilbidean lantegiak barneratzea.
- Legezko prozesuak arintzea.”
- Ondorengo guztia planteatu du Gizarte Politikarako Sailak:
 - “Egoitzako hezitzaile taldean beste hezitzaile bat gehitzea.
 - Baimentzea, beharrezkoa bada, seguritate zaintzaile bat egotea.
 - Zentroko instalazioak hobetzeko obrak egitea.
 - Bakarrik dauden adingabeentzako jardunbideen berrikuspena.”

Ondorioztatu ahal izan dugunez, erakunde erantzule bakoitzak arazo batzuk eta konponbide posible batzuk nabarmentzen ditu beste batzuen aurretik, bere errealitatearen edo esku artean dituen aukeren gainean egiten duen analisiaren arabera. Oro har, zailtasunen eta hobekuntzen zerrenda zabala eskaintzen dute, eta horietako asko txosten honetan, Arartekoaren balorazioaren eta gomendioen gaineko hurrengo kapituluetan, aztertu ditugu berriz ere. Xehetasunak gorabehera, parekotasun handiak nabari dira funtsezkoak diren ondorengo arlo hauetan:

- Biztanleriaren sektore horrek lan arloan dituen zailtasunetan.
- Egungo baliabide-sarearen mugetan.
- Baliabideak dibertsifikatzeko, koordinazioa hobetzeko, irizpideak berriz aztertzeke eta beste hainbat egintza burutzeko beharriazanean.

3.7. Adin txikikoen balorazioa izandako arretari buruz

Egindako elkarrizketetan, adin txikikoei galdetzen zitzaizkien gauzen artean Euskal Herrira iritsi zirenetik jasotako arreta baloratzeko esaten zitzaien (ikus 2. eranskina). Txosten honen 2.4 atalean, elkarrizketatutako adin txikikoen lekukotzak laburtzean, balorazio horiek kendu egin ziren, hemen aztertzeko. Horrela, bada, atal honetan adin txikikoei esandakoa jasoko dugu, eta gutxienez baloratu diren lau alderdiei buruz duten iritzia laburtzen saiatuko gara. Honakoei buruz:

- Zentroen baldintza fisikoak
- Zentroko pertsonekin harremana
- Izandako arreta
- Zentroen arteko aldeak.

• Zentroen baldintza fisikoak:

Alderdi hori ez da adin txikikoei batez ere baloratzen duten alderdia; askok ez dute aipatu ere egiten, baina aipatzen dutenek toki gutxi dagoela eta altzariak gaizki zainduta daudela diote. Askotan bizi diren tokia eta eremua emantzipazio prozesuan duen garrantziaren arabera baloratzen dute (baldintza batzuk prozesuko fase batzuekin lotzen dituzte).

Ez die garrantzi handirik ematen zentroko baldintza fisikoei. Banako gela bat duen arren, banatutakoa nahiago lukeela dio, pisuan bizitzeko presta dadin.

Oso logela txikia (6 m²) banatu eta lurrean jarritako koltxo batean lo egin beharra daukatenei buruz honela dio: “*Kalean baino hobe*”. Adin txikiko batzuk kalean bizi direla dio, baina “*nahi dutelako*”. (B-1)

Hobekuntza batzuk planteatzen ditu: kristalak erosi, sofak, garbitasun handiagoa “*Beste talde bat behar da artapenean, batzuetan egongelan egin behar izaten dute lo*”. (B-2)

Zentroari buruz hobekuntza batzuk planteatzen ditu: (...) egongelako aulkiak aldatu, egurrezko takilak jarri (armairuak). Denentzako bainugela bakarra egotea gutxiegi dela uste du. (G-1)

Zentroari dagokionez, leku gutxi duela dio (...); iaz 13 egon ziren zortzirentzako logela batean; ikasteko tokirik ez... “*Hobe beste tokiren bat bilatzen badute*” dio. (A-1)

Iazko udan 13 egon ziren zortzirentzako logelan: beroa, usain txarra... “*Gaixotu egin nintzen*” dio. (A-3)

Zentroko instalazioei dagokienez: “*Espetxea dirudi, bederlatzi gaude logelan... espetxean baino okerrago... logelan sartu eta usain txarra, elurra egindakoan hotza, ez dago berogailurik gauez, itzali egiten dute besteak eraikinetik joaten direnean...*”. Adin txikiko atzerritarrentzako zentroa eta bertakoentzako konparatu ditu. Haiek beraiantzako pisu bat dute eta ezin du ulertu zergatik dagoen horrenbesteko aldea: “*Ni zergatik ezin naiz egon pisu horretan?*” (A-5)

Zentroko instalazioak ongi baloratzen ditu, batez ere autonomiari dagokionean. (B-3)

Autonomia da ongien egoten den aldia. Gelak handiak dira eta iristen diren mutikoei ez dute arazorik ematen, badakite zer egiten duten. (B-4)

Dena ongi iruditzen zaio toki arazoak izan ezik: dutxa bakarra, toki gutxi gela... “*Gehien amorratzen nauena: jangela. Batzuetan ezin zara irten, besteek bukatu arte egon behar izaten duzu*”. (B-7)

Logelarako asko direla dio (hiru lagun daude). Pisuaren neurrirako gehiegi direla dio. (B-8)

• **Zentroko pertsonekin harremana (hezitzaileak, adin txikikoak...):**

Gehien entzundako balorazioa izan da *“hezitzaile batzuekin ondo, besteekin gaizki”*. Dirudenez, adin txikikoaren eskariak betetzearen mende dago hori, baita adin txikiko bakoitzaren ezaugarrien edo exijentzien mende ere. Ohikoa da zentro edo hezitzaile desberdinen arteko konparazioak eta sailkapenak egitea. Baita bere jarreraren eta hezitzailearen jarreraren artean zuzeneko harremana ezartzea ere.

Hezitzaileekin *“oso ondo”* konpontzen omen da, kideekin *“pixka bat ondo”* eta tutorearekin *“ondo”*. (G-2)

Eskatu zuen, baina ez dago ados hezitzaile taldearen aurkako erabakiarekin: *“Nahi dutena egiten dute”*, protestatzen du. Lau tutore izan ditu azkeneko 8 hilabeteetan eta denekin gaizki konpondu dela dio. (G-6)

Hezitzaileekin *“pixka bat gaizki konpontzen naiz”*; *“Hezitzaile batzuk ulertzen ditugu, beste batzuk ez”*... (G-7)

Tutorearekin, kideekin edo auzoko lagunekin dituen harremanei buruzko balorazioa ona da: *“Ez dut arazorik”*. Hezitzaile jakinen bati edo zuzendariari buruzko keaxak ditu berak egindako kexei jaramonik ez egiteagatik. Hezitzaile batzuekin duen harreman zailari buruz duen balorazioa honela labur daiteke *“Ongi hartzen bagaituzte, gu ere ongi. Gaizki hartzen bagaituzte, gu ere gaizki”*. (A-2)

Hezitzaileekin, etxeko andrearekin, zaintzaileekin eta kideekin duen harremanaren balorazio oso positiboa du (B-7)

Dioenez hezitzaile askok ez daki beraiekin lan egiten eta ez dituzte planteatutako eskariak kontuan hartzen (*“Ez naute sendagilearengana eramaten”*, *“Galtzerdiak eskatu nituen eta ez dizkirate ematen”*). Gainera, batzuk esaten diete *“Jo nazazu, jo nazazu”*. Tutorearekin harreman ona du: *“Berak kasu egiten dit eta nik kasu egiten diot”*. (A-5)

Hobetzeko proposamenak egin ditu, hala nola (...) hezitzaileek trata ditzatela *“mutikoak ongi, ez dute ez amarik ez aitarik”*. Hezitzaile batzuekin harreman ona du, baina tutorearekin txarra: *“Ez dit laguntzen, ez dit ezer esaten paperei buruz, ez dit ikastarorik bilatzen”*. *“Hezitzaile batzuek ongi tratatzen gaituzte, besteek gaizki, oihu egiten digute edo mehatxatu”*. (A-7)

Hezitzaileekin eta kideekin harreman ona du. (A-10)

Hezitzaileekin duen harremanari buruz *“Batzuetan ona da, besteetan ez”*. Dioenez, egin duten zerbaitegatik paga kenduko dietela esaten dutenean, ez du gaizki ikusten, baina egia dela ziurtatu behar dute eta akusatu aurretik ziurtatu. Azpimarratzen eta eskertzen du hezitzaileek aholkuak ematea; batzuk besteak baino erreferenteagoak direla dio. Gairen bat tratatu beharra dagoela uste duenean elkartzeko da hezitzaileekin. (B-4)

Gustura dagoela dio jasotzen duen arretarekin eta hezitzaileekin duen harremanarekin. *“Ongi portatzen bazara, hezitzaileak ere ongi portatzen dira; baina, gaizki portatzen bazara, hezitzaileak ere gaizki portatzen dira”*. (Neska 4)

Gustura egon zen hezitzaileek eta zuzendariak emandako arretarekin. Bigarren zentroan egon da denbora gehien, eta han ez zen gustura egon: *“Hezitzaileak txarrak dira, ez zintuzten herrira eramaten, “zoaz oinez” esaten zuten”*. Tutoreari dagokionez, *“Oso gaizki, bai ni berarekin eta bai bera nirekin”*. Gaur egun zentro itxi batean dago eta bestean baino gusturago dagoela dio. Hezitzaileekin duen harremana ona dela dio. (R-4)

“Hezitzaileek pazientzia txikia dute eta askotan ez dituzte nire eskariak aintzat hartzen” (arropa, dentistarengana joan...). *“Egon, egon, esaten dute beti”*. Dena dela, batzuekin konfiantza duela dio. (G-5)

• Izandako heziketa arreta:

Adin txikikoek, oro har, egiten dituzten jarduerak modu positiboan baloratzen dituzte. Kritikan handienak zentroetako ordutegiei, araei eta zigorrei buruzkoak dira. Ordu-tegia, arau zorrotzgiak eta zigorrak nabarmendu egiten dira. Baina kritikak bakarrik ez dituzte egiten, proposamen eraikitzaileak ere egiten dituzte: hezitzaile bat kirolez ardua dadila, irteera gehiago egin daitezela, urtebetetzeak ospa daitezela, egin beharreko jarduerak kontsulta ditzatela, etab.

Gustura ari da zurgintza ikasten. (B-1)

Hartzen duen tratua eta zigorrez etengabe kexatzen da: *“Ez didate ezer uzten”, “Ez didate ezer erosten”, “Ez dut autobuserako txartelik”, “Eguna kalean igarotzen dut”...*

Kexatu egiten da iaz *“urtegia besterik ez, – Gamarra; Gamarra – urtegia”* egunen batean bere emaztegaiaren izebarekin joaten uzten ez diotelako ere kexatu da... (A-3)

Adierazi duen kexa bakarra da zentrorra joan gabe (ezin dutelako) ordu asko igarotzen dutela. (A-4)

Azpimarratzen du oso negatiboa dela zentroan gauera arte ezin sartua eta denbora asko egon behar izatea. Ez zaio gustatzen egunero jatetxe batean jan beharra ere. (A-5)

Kalean horrenbeste denbora igaro beharra kritikatzeko du, ezin baitira gauera arte itzuli. Zentrotik irteera eta ibilaldi gehiago egin beharko lirakeela dio, hau ere badio *“zerbait egin dezatela nire urtebetetzean, duela gutxi izan zen eta ez zidaten ezer egin”* (A-7)

Dio egun osoan zentroan sartu ezina gogorragoa dela hotza denean, baina berarentzat ez zela arazo handia izan. (A-11)

Ikastaro gehiago eskatzen du, aurten jende asko gelditu baita ezer gabe. Gainera, egokia litzatekeela dio hezitzaile bat egotea kirolaz eta denbora libreaz soilik arduratzeko. Kirol instalazioetara joateko finantzazioa eskatzen du, orain beraiek ordaindu behar izaten baitute. (B-4)

Hobekuntzen artean proposatzen du harreratik hasi behar lirakekeela jarduerak egiten, ikastaroetara joaten, esaterako, eta adin txikikoei paga ematen, izan ere *“Denbora libre gehiegik arazoak ekartzen ditu”*. (B-6)

Ordutegiei buruzko irizpideek ez diote berari kezka handirik ematen. Taldez aldatu dute eta gusturago dago. Ohera goizegi joaten direla dio, askotan iritsi, afaldu, garbiketa egin eta ohera joaten direla. (Neska 2)

Egiten duen kritika bakarra da *“5€ ematen zizkiguten pagako eta horrekin ezin da ezer egin”* (...). Gero beste zentro batera joan zen bizitzera eta han bederatzir hilabete egin zituen *“hasieran ez nuen zentro hartara joan nahi eta derrigortu egin naute, gero ondo”*. Zentro hari buruz dio *“Han ondo, irteerako baimena ematen digute... nahiz eta arazoak ere egon”*. (B-8)

Arauk oso zorrotzak direla azpimarratzen du. *“Hemengoak baino zorrotzago zaintzen gaituztela dirudi”*. Batez ere larunbatetan irteerako duten ordutegi murrizta kritikatzeko du. (G-8)

Arauentatik kexatzen da batez ere eta paperak iristen denbora gehiegi igarotzen dutelako. *“Bi urte daramatzat arauak beteaz eta zigorrak gogorregiak dira (...) asper-asper eginda nago zigorrak betetzeaz”*. Hezitzailearen eta adin txikikoen artean elkarrizketa gehiago egon beharko litzatekeela dio. Zer zigor jarri erabakitzen den bileretan egon nahiko luke. Beste eskarietako bat arropa gehiago izatea da. (G-9)

Arau gehiegi dago eta ordutegiak oso zorrotzak dira. (G-10)

Pagarik ez zaiela ematen kritikatzeko du, ondorioz denbora librean ezin dute ezer egin, alde zaharrean ibili besterik ez *“ezin duzu kafe bat ere hartu”*. Denbora libre gehiago ere eskatzen du. (G-3)

Denbora libre gehiago eskatzen du, eta zentrotik antolatzen diren jardueretan beraiei galde diezaietela nora joan nahi duten. (G-5)

• **Adin txikikoak igaro diren zentroyen arteko aldeak:**

Deigarria da zentro itxietan internamendu neurria betetzen ari diren adin txikikoek babes zentroetan baino hobeto daudela esatea. Azpimarragarria da, pisuetan bizi direnek, emantzipaziokoetan edo funtzioaletan, eta aterpetxeetan bizi direnek diotela aldaketa nagusia lasaitasuna hazi izana dela. Hori asko baloratzen dute elkarrizketatutako gazteek, antolakuntzari edo bizimoduari buruzko alderdiak ere baloratzen dituzte.

Non dagoen hobeto galdetu diogunean, Gurutze Gorriko lokalean edo aterpetxean, dio badirela bietan dauden arazo batzuk (zerbitzu horietan egoteko ordutegi murrizta, esaterako) baina nahiago du aterpetxea. *“Han hobeto. Hemen zarata egoten da gauetan lo egiteko”* (A-3)

Gaur egungo egoera eta duela aste batzuk Urduñako pisuan bizitakoa alderatu ditu: *“Hemen askoz hobeto nago, sukaldean ikasten duzu, garbitzea tokatzen zaizu, ohitu egiten zara pisu batera joaterako...”*. (B-7)

Deigarria da bizi izan den zentro guztietatik oraingoa dela (erreforma zentroa) *“onena”* bere ustez. *“Hemen lana egin dezakezu”* dio (R-1)

“Pisuan lasaiago egoten zara, beste modu batera ikusten duzu bizitza.” (B-5)

Zentroan izandako arreta ona izan dela dio, batez ere zuzendariarena. Ez da horrelakorik gertatu gero igaro zen emantzipazio pisuan. Dioenez arau zorrotzegiak zeuden zentrotik irten zuten mutikoentzako. Gainera, ez zioten arau horien zergatia azaltzen. Era berean, kritikoa da dirua zertan gastatzen zuen kontrolatzen baitzioten eta askotan mutikoak bota egiten zituztela paperik ez izan arren. (B-6)

Elkarrizketatu zen unean hiru aste zeramatzan etxe funtzional ireki berri batean. Gustura dago aldaketarekin *“Hemen oso ongi nago, lehen zarata asko zegoen”* (B-8)

“Gustura eta haserre nago, inoiz ere ez naiz giltzapetuta egon, baina orain ongi nago” (R-4)

Alderdi edo balorazio batzuk azpimarratzeko, lekuko batzuek esandakoak jarri ditugu adibide gisa. Dena dela, balorazioak zabalagoak dira eta beraien testuinguruan irakur daitezke: ikusi txosten honetako 7. eranskina, 2.4.1. atalean laburtutako lekukotzen osagarria.

**BALORAZIO OROKORRA.
ATZEMANDAKO ARAZO NAGUSIAK**

4. BALORAZIO OROKORRA. ATZEMANDAKO ARAZO NAGUSIAK

Aurreko kapituluetan adin txikiko atzerritar arduradun gabeei lotutako arazoan aztertu dira partzialki, alderdiz alderdi, alderdi juridikoak (1. kapitulua), beren ezaugarriak eta beharrak (2. kapitulua), edota erakundeen erantzuna (3. kapitulua) aipatuz. Hirugarren horri dagokionez, erantzuna lurraldez lurralde aztertu da, eta baita zentroz zentro ere. Orain, laburpen moduko kapitulu honetan, atzemandako arazo nagusien ikuspegi eta balorazio orokor bat eskaini nahi dugu.

Adin txikiko atzerritar arduradun gabeen presentziak erronka bat planteatzen die adin txikikoen babesean eskumena duten administrazioei. Fenomeno hau nahiko berria da eta gainera, zenbaitetan, aurretiaz nahikoa hausnartu gabe ezarri diren neurriez lagundua dator. Premia eta esku hartu beharrak zaildu egin du beharrezkoak izan behar zuten baliabideen plangintza. Bestalde, ez dago aurretiazko esperientziarik adin txikiko atzerritarretan esku hartzeari dagokionez, eta, ondorioz, etengabe baloratu behar dira lorpenak eta zailtasunak, esku hartzea egokitze beharrezkoak diren doikuntzak egiteko.

Gure babes-zerbitzuetan dauden adin txikiko atzerritar gehienak, orain arte behintzat, marokoarrak dira. Eta guztiak adierazten du (gazteria-indizea, herrialdeko errealitate ekonomikoa, haurrek estatu batean eta bestean jasotzen duten babes desberdina,...) herrialde horretatik datozen adin txikikoen presentzia ez dela murriztuko.

Hala ere, babesik gabe dauden adin txikikoen kolektiboa ez da homoginoa, eta kolektibo beraren barruan profil oso desberdinak identifikatu daitezke. Gatazkak direla-eta sortu den alarma soziala ez dator bat kasu gehienekin; izan ere, gehienek oso ondo erantzuten diete administrazioen heziketa-programei, bereziki laneratzera zuzenduta dauden horiei. Gazte horietako asko legediarekin kontraesanean erortzen diren itxaropenekin etortzen dira; izan ere, legeak adinari, baimenei edo titulazioari eta gaitasun profesionalari buruzko hainbat baldintza betetzea eskatzen du lan egin ahal izateko. Era berean, kasu askotan hamasei urte baino gehiago dituzten gazteak direnez, beren jatorrizko herrialdeetan eta beste erkidegoetan izan dituzten aurretiazko esperientziak orain duten portaeran dute isla.

Txosten honetan arazo batzuen gainetik beste batzuk nabarmentzeko hartu den ikuspegi beti bera da: eskubideak bermatzearen ikuspegia, hori baita Ararteko erakundeari dagokiona, eta arazoek euskal administrazioen eskumeneko den erantzukizunarekin duten erlazioa. Gai honen inguruan hainbat administrazioek eta sailek esku hartzen dute: hiru foru aldundiak, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila, Osasun Saila,

Justizia Saila, harrera-zentroei dagozkien udalak,... Eta, aurreko kapituluan ikusi den bezala, diferentzia handiak daude, adibidez, lurralde batzuetako eta besteetako erakunde-jarduketan. Hala ere, hemen nabarmentzen diren arazoez, neurri handiagoan ala txikiagoan, horietan guztietan dutela eragina esan daiteke.

Lehen ere adierazi den bezala, lehendik ditugun babes-baliabideak adin txikiko atzerritar arduradun gabeen presentziak planteatu dituen beharretara premia handiz egokitzen joan behar izan dugu. Baliabide horiek ez zeuden gazte horien beharrei aurre egiteko prestatuta. Sortutako itxaropenen eta hemen aurkitzen duten errealitatearen arteko kontraesanek zaildu egiten dute erakundeen, langileen eta gazteen arteko harremana. Gainera, gazteak hemezortzi urte betetzear daudela iristen direnez, banakako eskuhartze ibilbide bat prestatzeko denbora oso gutxi izan ohi da, eta horrek zaildu egiten du erakunde-erantzunaren jarraikortasuna.

Bestalde, atzerritarren araudia aplikatzeak segurtasun-gabezia juridiko larria eragiten du, adin txikikoen itzulketei eman behar zaien tratamenduari buruz egiten diren interpretazio desberdinen edota kontraesankorren ondorioz. Adibidez, jadanik indargabetuta dagoen Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 3/2003 zk.-ko Jarraibidea eta Marokoren eta Espainiaren artean adin txikiko atzerritar arduradun gabeen aberriaritze lagundurako elkar ulertzeari buruz sinatutako Memoranduma. Gainera, oso zaila da adin txikikoen itzulketarako bermeak betetzea, adin txikikoen egoera pertsonalari buruzko informazioa eskuratzeari dagokionez, eta Maroko bezalako herrialdeetan ez dago haurrak babestuko dituen erakunde egokirik.

Ahantzi ezin diren zailtasun eta baldintza horien aurrean, eta adin txikiko horien beharrei erakunde-erantzun egoki bat eman ahal izateko, adin txikikoaren interes gorenaren printzipioa betetzeak babes-erakundeen inplikazioaz gain adin txikiko arduradun gabeekin harremana duten administrazio guztien eta gizarte osoaren inplikazioa ere eskatzen du.

Irizpide horiek kontuan izanik, egin den azterlanari jarraiki bereziki kezkarriak iruditzen zaizkigun hamar arazo edo gai azpimarratuko ditugu:

1. Ez dago ez irizpide komunik eta ezta erakunde desberdinen arteko gutxieneko koordinaziorik ere.
2. Adin txikiko horiei zuzendutako egoitzazko baliabideen mugak eta baldintzak.
3. Baliabideen kudeaketari eta horietan lan egiten duten profesionalen lan-egoerari lotutako gaiak.
4. Horien integrazioa erraztuko luketen prozeduratan ematen diren atzerapenak eta zailtasunak.
5. Zailtasunak eskolatzean eta hezkuntza-erantzunean.
6. 18 urte betetzean emantzipatzeko aukerei dagokienez dauden mugak.
7. Adin txikiko atzerritar arau-hausleen hazkundera eta proportzioa, internamenduzentroetan.
8. Gure artean arretarik jasotzen ez duten adin txikiko atzerritar babes gabeak egoteko aukera.
9. Gabeziak osasun-zerbitzuetan eta osasunerako eskubidea bermatzerakoan.
10. Zenbaitetan adin txikiko multzo horri buruz igortzen edo indartzen den irudi soziala.

1. Ez dago ez irizpide komunik eta ezta erakunde desberdinen arteko gutxienerako koordinaziorik ere

Administrazio desberdinen arteko koordinazioa funtsezkoa da adin txikikoak Erkidego batek edo Administrazio batek beste baten aldean eskaini ditzakeen abantailak eskuratzeko xedez erkidego edo lurralde batetik bestera lekualdatzea saihesteko.

Ikusi den bezala, kontakizun pertsonaletan adibidez (2.4. atala), mugikortasun handia duten nerabeak eta gazteak dira; beren aurreikuspenak edo oinarriko beharrak (egoitza, paperak, lana) hobeto edo azkarrago beteko direla usten duten leku horretara joateko prest daude. Eta, horri dagokionez, egia da, neurri handi batean, ahotik ahorakoak oso ondo funtzionatzen duela.

Testuinguru honetan, jarduera-irizpide komunik ez izateak ondorio oso garrantzitsuak ditu: kolektiboaren mugikortasuna eta etengabeko fluxuak lurralde edo erkidego batetik bestera; erakunde desberdinen tutoretza bikoitzak gerta daitezke adin txikiko berarekin; ezinezkoa da datu fidagarriak eskuratzeko, ... Era hitzekin adieraztea zaila bada ere erakunde bakoitzaren ekimenak edo maniobra-gaitasuna baldintzatzen eta oztopatzen dituen arrisku bat: ondo edo besteek baino hobeto egiten duenak, horrexegatik hain zuzen ere, adin txikiko gehiago erakarriko dituela –kaleko hizkeran esanda–.

Gai horrek, ziurrenik, txosten honetan eskaintzen diren datuak direla-eta geure buruari egiten dizkiogun galderei erantzuna bilatzen lagunduko digu. Adibidez, zergatik datoz Bizkaira etortzen diren adin txikiko atzerritar arduradun gabe gehienak beste erkidegoetatik (Katalunia, Andaluzia, ...) edo zuzenean Marokotik, lehendik duten informazioaren arabera?... Aurreikuspen faltsuak sortzen laguntzea saihesteko helburuarekin, garrantzitsua da zentroen artean desberdintasun handirik ez egotea, aukera hobeagoak atzematen badituzte, adin txikiko batzuk edonola ere barneratzea edo sartzea bilatuko lukete-eta, bertan agiriak eta bestelako abantailak eskuratzeko aukera gehiago izango zituztelakoan. Egia esan, “objektiboki” ere ez da beharrezkoa hala izatea; nahikoa da beraiek horrela atzematea, lehendik zian duten esperientziaren edo beste lagunen kontakizunen arabera.

Izan ere, informazio gabeziak edo informazio okerrak eta ematen ari diren erantzunek lekualdaketa ugari eragiten dituzte, eta adin txikikoen aurreikuspenak betetzen dituzten zentro eta administrazio horiek egoera zail baten aurrean aurkitzen dira, ezin baitiote bakarrik aurre egin sortutako itxaropenei eta lurralde jakin batera nolabait ere eraginda joan daitekeen adin txikiko kopuru handi horren presentziari.

Ondorioa, hala ere, ezin da izan “gaizki egitea” eragin horiek saihesteko helburuarekin; aitzitik, egin behar dena da guztiek ondo egitea, antzeko irizpideei jarraiki.

Zailtasun horiek gainditzeko beharrezkoak dira autonomia eta estatu mailako koordinazio-ekimenak, Haurren Behatokitik gauzatzen direnak bezalakoak. Beha-

toki horrek “Adin Txikiko Atzerritar Arduradun Gabeen” protokoloa egin zuen, Barne Ministerioko, Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioko, Estatuko Fiskaltza Nagusiko, autonomia erkidego eta hirietako eta gizarte erakundeetako ordezkari eraturako lan-talde baten bidez, adin txikiko atzerritarretan esku-hartzeari eta horien gizarteratzeari buruzkoa. Beste zentroetan egon diren adin txikikoei buruzko informazioa eskuratzeko dauden mesfidantzak eta zailtasunak ere gainditu behar dira, eta horretarako garrantzitsua da gauzatzen diren jarduketak adin txikikoaren interesekoak izatea eta hala atzematea.

Gure Erkidegoari dagokionez, deigarriak dira lurralde bakoitzeko harrera-gaitasunari dagokionez (hau da, libre dagoen plaza-kopurua) dauden desberdintasunak, eta sareko lanik ez egotea edo, gutxienez, zerbitzu bat, bere lurraldea edozein delarik ere, gainezka dagoenean, baliabideak elkarbanatzeko aukera.

2. Adin txikiko horiei zuzendutako egoitzazko baliabideen mugak

Agian, baliabideetatik deigarriena, txosteneko datuen arabera, libre dagoen plaza-kopuruari dagokionez ematen dien mugak dira, bereziki larrialdietarako zentroetan edo harrera-taldeen. Horregatik, ohikoa da horiek gainezka egotea, baita modu jarraituan ere. Datu hori, berez, tentsio-iturri garrantzitsua da eta, gure iritziz, egoera gatazkatsu larriak eragin ditu.

Baina horietako askotan eragina duten beste muga edo baldintza esanguratsuak ere badaude. Baldintza horiek ondoko hauei buruzkoak dira:

- Tamaina (bereziki Bizkaian, eta elkarbizitza-unitate txikiak ireki arte).
- Kokapena (zenbaitetan baliabide komunitarioetatik urrun).
- Ez daude zenbait jarduera elkarrekin garatzeko nahikoa lokal (neskentzako Bizkaiko zentroan izan ezik).
- Banaka erabiltzeko espazioa oso txikia da (logela txikiak edo elkar banatuak; komunak ez dira nahikoak guztientzat).
- Zerbitzuen artapena (ez beti baldintza egokietan).

Muga horiek alde batera utzita, deigarria da ia kasu guztietan aukera bakarra hautatu izana: beraiei bakarrik zuzendutako egoitzazko baliabideak edo zentroak; hau da, zentroetan adin txikiko atzerritarrak bakarrik daude, ez dauden hemengoekin nahastuta (formula hori Araban probatu zen, baina utzi egin zen, eta egun Bizkaiko neskentzako zentroan bakarrik mantentzen da), eta ez da egoitzazko harrera ez den beste bide alternatiborik eskaintzen (adibidez, familia-harrera, beste adin txikikoentzat sustatzen dena). Salbuespen nabarmenena, ziurrenik, Bizkaian garatzen den emantzipazio-etxebizitzaren bidea da, baina ondoren helduko diogu gai horri.

Aipagarria da egoitzazko zentroen mugek adin txikikoen eskubideetan edo bizi-baldintzetan eragina izateaz gain, beren lana egin behar duten hezitzaileen lan-baldintzetan ere eragina dutela.

3. Baliabideen kudeaketari eta horietan lan egiten duten profesionalen lan-egoerari lotutako gaiak

2004an irekitako elkarbizitza-unitate txikiak salbu, Bizkaian, Urduñako Zentroaren alternatiba gisa (bertako langileak funtzionarioak edo Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak kontratatutakoak dira), gainerako zentro guztietan kudeaketa elkarteren edo erakunderen bati (Gurutze Gorria, Hirugarrendar Kaputxinoak, Salesianoak,...) dagokio. Horrela, elkarte edo erakunde horrek, denbora-epe jakin baterako, beregain hartzen du, dagokion Foru Aldundiarekiko hitzarmenaren bidez, zentroaren zuzendaritza. Zenbait kasutan, lokal propioetan edo elkarteak alokatutako lokaletan; beste batzutan, administrazioarenak diren lokaletan (Bizkaia). Baina, kasu guztietan, langileen kontratazioa eta horien lan-baldintzak elkarteren esku geratzen dira.

Ez dagokio erakunde honi formula bakoitzaren onurak edo mugak baloratzea. Kudeaketa-eredu baten edo beste baten aldeko aukera administrazio bakoitzak duen erabaki-esparruaren barruan sartzen da. Baina zerbitzuaren kalitatean, eta, ondorioz, eragindako pertsonen eskubideak hobeto okerrago bermatuta egotean eragina izaten ari diren zenbait elementu azpimarratu ditzakegu.

Ikuspegi horretatik, deigarriak dira honako hauek bezalako desberdintasunak:

- Hitzarmenek ezartzen dituzten baldintzak eta bermeak: ez ekonomikoki bakarrik, baita langileen prestakuntzari eta heziketari dagokionez edo zerbitzuen babesari, kontrolari eta ebaluazioari dagokienez ere.
- Giza baliabideen hornidura (langileriak eta ratioak).
- Bertan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzak (soldatak edota ordutegiak).

Gure iritziz, gai horiek, nerabeekin lan egiteak suposatzen duen zailtasunarekin eta nekearekin zerikusia duten beste batzuekin batera, eragin handia dute laneko bajak, taldeko kideen aldaketak, lan-gatazkak eta abar bezalako gaitetan. Hori dela-eta, noski, zailagoa da heziketa-lana ondo burutzea eta esku-hartzeak jarraikortasuna izatea. Kasuren batean, langileen ondoeza eta bajak hainbestearainokoak izan dira, zentroa itxi egin behar izan dela edo hitzarmena salatu egin dela.

Profil profesionali dagokienez, azpimarragarria da geroz eta ugariagoa izatea zaintzaileen edo segurtasuneko langileen figura. Langile horiek, askotan ez dute profil espezializaturik edo berariazko trebakuntzarik. Gainera, oraindik, Bizkaian bakarrik daude hezitzaile-taldearen barruan adin txikiko horien jatorrizko kulturetako hizkuntzak (arabiarra, bereber) ezagutzen dituzten pertsona.

4. Horien integrazioa erraztuko luketen prozeduratan ematen diren atzerapenak eta zailtasunak

Adin txikik horien integratzeko prozesuak zenbait urrats jarraitzen ditu. Urrats horietako batzuk erabat erabakigarriak dira: adin txikikoaren adina zehaztea, adin txikikoaren tutoretza erakundeak hartzea, errolatzea, eskolatzea, egoitza-baimena eskuratzea, lan-baimena eskuratzea, emantzipazioa,...

Azken urte hauetan zehar, ofiziozko jardueren bidez normalean, Ararteko erakundeak hainbatetan esku hartu du gai horietan, arrakasta handiagoa edo txikiagoa eskuratuz. Hala ere, administrazio arduradunak ez dira beti erakunde honen irizpideekin ados egon; adibidez, tutoretza zein kasutan edo zein unetan hartu behar den, edo noiz izapidetu behar den egoitza-baimena.

Gai horiek modu objektiboan hartzeko xedez, txosten hau egiteko adierazle gisa balioko duten datuak biltzeko ahalegina egin da, eta espediente-kopuru garrantzitsu bat aztertu da (23 Araban, 38 Bizkaian eta 17 Gipuzkoan). Bildutako datuek argi eta garbi erakusten dituzte maiz gertatu ohi diren atzerapenak (gure iritziz justifika ezinak), ondorio larriak izaten dituzten: adin txikikoen aurreikuspen arrazoigarriak zapuztu egiten dira; motibazioa galdu egiten dute, eta, ondorioz, hezitzaileek erabili zitzaketen heziketa-baliabideak ere galdu egiten dira; hartutako gazteak, 18 urte egiterakoan, emantzipatu egiten dira, beren autonomia ahalbidetuko luketen gutxienekoak eskuratu gabe, eta horrek suposatzen duen arriskuarekin: aprobetxatu ezin diren lan-eskaintzak edo baldintza irregularretan lan egin beharra,...

Gure iritziz, gai horiek, dituzten ondorioengatik, etengabeko jarraipenaren eta ebaluazioaren xede izan behar dute. Horri dagokionez, gauzatutako edo etorkizunean abiarazi daitezkeen kudeaketa-esperientzia desberdinak –dokumentazioa hezitzaileek eta zentroetako zuzendaritzek kudeatzea; enpresa bati esleitutako kudeaketa zentralizatua (Bizgarri, Bizkaian)– berrikusi egin behar dira.

Egia esan, prozeduratan ematen diren atzerapenak ezin dira beti euskal administrazioei egotzi. Kontuan hartu behar da zenbait izapidetan beste instantziak ere parte hartzen dutela: Kontsulatuak, Atzerritarren Unitatea, ... Baina datuek erakusten dute atzerapenen zati handi bat bai direla euskal administrazioek eraginak.

5. Zailtasunak eskolatzean eta hezkuntza-erantzunean

Hartutako adin txikiko atzerritar gehienek ez dituzte gure inguruneko ohiko komunikaziorako hizkuntzen gaineko ezagupen minimoak. Ez dute ezta ere prestakuntza profesionalik. Gainera, horietako askok eskolatzeko-prozesu irregularra izan dute, eta prozesu hori une jakin batean eten egin zen (bai lanean hasteko, bai bizitokiz aldatzeko edo baita emigratzeko ere).

Ez da erraza muga horiek epe laburrean gainditzea: hizkuntza bat ikasteak, prestakuntza profesionala eskuratzeko edo eskola-gaitasun jakinak lortzeko beren denbora behar dute.

Oro har, gauzatu diren ekimenek gaztelaniaren oinarritzko ikaskuntza erraztea (zentroko bertako baliabideen bidez edo boluntarioen bidez, edota Helduen Hezkuntzarako Zentroak erabiliz), lanbiderako zenbait jardura gauzatzea, eta inguruan bakoitzaren beharretara eta aurreikuspenetara hobekien egokitzen diren gaikuntza-formulak bilatzea (ia beti Lanbide Hastapenerako Zentroetan) sustatu da. Oso arraroa da ohiko ikastetxeren batean (Bigarren Hezkuntzako Instituturen batean) eskolatzeko.

Txostenari esker ondoko baliabide hauen mugak atzeman daitezke:

- Gaztelania ikasteko eskolak: langile boluntarioek ematen dituztenez edo irakasle bakar batek ikasle edo talde asko dituzenez, adin txikikoek ez dituzte ordu asko ematen gaztelania ikasten (egunean bi ordu, adibidez).
- Helduen Hezkuntzarako Zentroak: izenak dioen bezala, helduentzako dira, eta horietako askok ez dituzte adin txikikoak hartzen.
- Heziketa-moduluak: iraupen jakin bat dute, eta askotan adin txikikoen epeekin bat ez datorren egutegia dute.

Erakunde honek uste du hezkuntza-administrazioaren inplikazioak, adin txikiko horien beharrei erantzun egokiak eman ahal izateko, handiagoa izan behar duela. Hori horrela, azken urteetan planteatu diren hainbat ofiziozko jardura eta proposamen xede horretara zuzendu dira: hizkuntza-irakaskuntzak langile propioekin garatzea, ordutegi eta arreta trinkoa bermatzea, eskolatzeak erraztea (matrikula-epearen barruan edo epez kanpo),...

6. Emantzipatzeko aukerei dagokienez dauden mugak

Gure babes-sistemak 18 urte arte hartutako adin txikikoen oinarrizko beharrak estaltzea bilatzen du. Adin horretatik aurrera, gaztea autonomoki bizitzeko gai izan behar da. Argi dago hori ez dela beti horrela, eta are gutxiago gurea bezalako gizarte batean, gazteak geroz eta beranduago emantzipatzen direla kontuan izanik. Erakundeek badakite hori, eta, egia esan, laguntza ekonomikoen edo tutoretzapeko etxebizitzaren bidez helduen bizitzara iragatea errazten duten baliabide edo programak sortzen joan dira. Izan ere, bizitza autonomo bat izateko, gutxienez bizileku bat, beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak eskainiko dituen jardura bat eta abar behar dira.

Ez da adin txikiko atzerritarrengan bakarrik eragiten duen arazo bat. Baina, kasu honetan, gainera, autonomia are eta gehiago zailtzen duten zenbait faktore daude: 1) ez dute familiarren babesa; 2) kasu askotan egoera irregularrean dauden (paperik gabe). Arrazoizkoa dirudi, ondorioz, erakundeek iragate hori erraztea eta emantzipazio-baliabiderik ez izateak sor ditzakeen ondorioak saihesten saiatzea: babes-baliabideetan jarraitzea adin txikikoak 18 urte bete baditu ere; bizimodua bilatzea bizi ahal izateko (delinkuentzia-arriskua); irregularlari lan egitea; eta abar.

Ikuspegi horretatik, oso positiboa da gazte horien emantzipazioa erraztera xedatutako baliabideek azken urteetan Bizkaiko lurraldean izan duten garapena. Bereziki, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimenez edota harrera-zentroen konpromisoaz alokatutako edo tutoretzapeko etxebizitzaren sarea. Baliabide horiek erabiltzeko aukera duten gazteak –lehenago adin txikiko atzerritar arduradun gabe izandakoak- geroz eta gehiago dira. Txosten honetan eskaintzen diren datuek erakusten duten bezala. (Ikus, adibidez, 8. taula)

Aintzat izan behar da, hala ere, aurreko atalean esandakoa: beste lurraldeetako beste administrazioek antzeko aukerak garatzen ez badituzte, oso positiboa den Bizkaiko

ekimen hau lurralde honetarako erakarpen-faktore bilakatu daiteke.

7. Adin txikiko atzerritar arau-hausleen hazkundera eta proportzioa

Ez da erraza delituak egiteagatik justiziarekin arazoak dituzten adin txikiko atzerritar arduradun gabeen proportzioari buruzko datu orokor fidagarriak eskuratzea. Hala ere, badakigu horietatik zenbaitek amaitzen duten intenamendu-neurri judizial bat betez, azken urteetan horien jarraipena egin dugulako. Eta datu horiek erakusten dute proportzio hori asko areagotu dela internamendu-egoeran dauden adin txikiko guztiekiko. (ikus 2003ko datuak, Arartekoak Eusko Legebiltzarrari igorritako 2004ko Txosteneko 1.1.6 atalean. Adibidez: kautelazko internamenduen %33,3 eta internamendu-neurri guztien %29,8 adin txikiko atzerritarrenak izan ziren 2003an).

Baina, datu horien gainetik, kasuak eta kausak aztertu beharko liriateke. Litekeena da arau hausle atzerritarren proportzioa, nerabe arau hausle guztiekiko, eta adin txikiko atzerritar arduradun gabeen kolektiboarekiko, ez izatea komunikabideetan agertzen diren albisteetatik ondoriozta daitekeena adinakoa. Litekeena da, baita ere, lehen adierazitako faktore batzuk –irizpide komunik ez, babesaren eta erreformaren arteko bizi-baldintza desberdinak, paperik eta bestelako baliabiderik gabe bizimodua atara beharra- bultzatzea, objektiboki, delituzko zenbait portaera garatzera. Egia da faktore horiek ez dituztela beren portaeraren erantzukizunetik salbuesten, baina horiek aztertuz gero balizko akatsak zuzendu litezke, eta antzeko egoerak saihestu edo murriztu litezke.

Bestalde, emantzipazio-datuek, adin txikikoekiko elkarrizketek, eta, batez ere, egunero horiekin esku hartzen dutenen (hezitzaileak, zuzendariak eta beste profesionalak) iritziek eta balorazioek, ezkutuko errealitate bat erakusten dute. Errealitate hori ez da ia ezagutzera eman gizartean: adin txikiko gehienak, horretarako beharrezkoak diren gutxieneko baliabideak dituztenean, aurrera ateratzen dira eta gure gizartean modu produktiboan integratzen dira.

Ikuspegi horretatik, saihestu beharreko bi arrisku edo egoera daude: 1) indarkeriazko edo delituzko jarduerentzako erantzun egokirik ez egotea; 2) internamendu-zentroek aukera gehiago eskaintzen dituztenez horiek adin txikikoentzako gune erakargarri bilakatzea. Horietatik eratorritako ondorio negatiboak oso nabarmenak dira: bai gizarte osoarentzat, bai gure artean bizi diren jatorri atzerritarreko pertsonentzat ere (horien irudi soziala asko kaltetzen baita), eta baita adin txikiko atzerritar arduradun gabeen kolektiboarentzat berarentzat ere.

8. Gure artean arretarik jasotzen ez duten adin txikiko atzerritar babesgabeak egoteko aukera

Jaso ditugu informazioen arabera, gutxienez adin txikikoen hiru talde –edo hiru taldetan multzokatu daitezkeen ezaugarriak dituzten adin txikikoak- egon daitezke:

- 1) Prostituzio-sareek harrapatutako neskek.

- 2) Kanean, normalean trapitxeoaz, bizi diren adin txikiko atzerritarrak.
- 3) Gerran dauden edo gerran egon diren eta jazarpen-egoerak bizi dituzten herrialdeetatik datozen adin txikikoak.

Oso zaila da egoera-mota horiek ezagutzera, eta are gehiago horien balizko hedadura neurtzea. Txostenak, ikusi den bezala, arreta jasotzen duten adin txikikoen egoera aztertzen du; ez arretarik jasotzen ez dutenena. Baina informazioa biltzerakoan, zeharka bada ere, egoera-mota horiek ematen direla adierazten duten datuak azaltzen dira: harreran hartutako nesken ezaugarriak eta horietako batzuk babes-zentroetan eman duten denbora; behin eta berriz, polizia-jardueren ondorioz zentroetan sartzen diren baina ondoren, berehala, ihes egiten duten adin txikikoak; asilo-kasuen eta errefuxiatuen kopuru eskasa,...

Gure iritziz, egoera-mota horiek gehiago ikertu beharko lirateke, edo horien jarraipen handiagoa egin beharko litzake, zenbait kasutan polizia-jardueren bidez, eta bestetan kaleko hezitzaileen edo zerbitzuen bidez.

9. Gabeziak osasun-zerbitzuetan eta osasunerako eskubidea bermatzerakoan

Txostenak, gain honen inguruan, lurralde desberdinetan ematen diren arreten arteko desberdintasuna eta horien gabeziak nabarmentzen ditu. EAeko osasun-sistemaren inplikazioa aldatzen joan da, kasuen arabera eta denborak aurrera egin ahala. Azken hilabeteetan bakarrik, eta lurralderen batean, ezarri dira inplikaturako aldeekin lankidetzan zehaztu diren jarduera-protokoloak.

Arazoak, normalean, ondoko hauekin zerikusia duten gaietan eman dira: hasierako mediku-azterketak, osasun-egoera zehazteko; agiri jakin batzuk izapidetzeko eskatzen diren mediku-ziurtagiriak; Osasun Txartel Indibiduala lortzeko bizkortasuna; botiken doakotasuna, ... Zenbait gaien inguruan (OTIri buruz, adibidez), txostenak espedienteetatik eskuratutako datuak eskaintzen ditu (3.5. atala).

Lehen aipatu arazoez gain –horietako batzuk konponduta eta beste batzuk konponetze bidean–, bildutako informazioen arabera, elkarrizketatutako profesionalengan aparteko kezka sortzen duten beste bi gai ere badaude:

- Droga-kontsumoak.
- Buruko gaixotasuneko kasuak.

Drogen kontsumoari dagokionez, informazioa eta prebentzio-programak behar direla aipatu da, eta, gainera, ez dago gure inguruneke beste herrietan hain hedatuak ez dauden kontsumoez, disolbatzaileak arnasteaz adibidez, desohitzeko eta desintoxikatzeke balia biderik eta esperientziarik.

Buruko gaixotasuneko kasuen arretari dagokionez, harrera-zentroetako profesionalen balorazioa oso eskasa da.

Kontuan hartu behar da berez osasun-arretaren arlokoak izan daitezkeen arazo horiei kasu askotan behar horiei erantzutea askoz ere gehiago zailtzen duten hizkuntza- edo kultura-ezaugarriak gehitu behar zaizkiela.

10. Zenbaitetan adin txikiko multzo horri buruz igortzen edo indartzen den irudi soziala

Adin txikiko horiei zuzendutako berariazko baliabideren bat egon den edo dagoen gizarte-ingurune ia guztietan egon dira, neurri handiagoan ala txikiagoan, arbuio-erreakzioak: Loiu, Urduña, Irun... Hori horrela, baliabide berriak sortzeko zenbait saialdi eten egin dira bizilagunen erreakzioaren ondorioz (Urduliz), eta beste batzuk isilpean ireki dira, aurretiaz inolako informaziorik eman gabe, balizko arbuioak saihesteko (elkarbizitza-unitate txikien kasuan bezala).

Jarrera-mota horiek oso kezkarriak dira. Oinarri objektibotzat kezka duten horietan, kezka horiek saihestuko dituzten aldaketak sartzera animatu beharko litzake. Aurreiritzietan eta estereotipoetan oinarritutako horiei dagokienez, berriz, horien aurka eskura ditugun bitarteko guztien bidez egin behar dugu.

Zentzu horretan, aurreiritziak eta estereotipoak, aurkatuak izan daitezkeen bezala, elikatuak ere izan daitezkeela gogorarazi behar da. Eta komunikabideek funtsezko funtzioa izan dezakete, bai zentzu batean eta baita bestean ere.

Txostenak beste errealitate kezkarri bat ere jasotzen du: adin txikiko atzerritar askok era berean atzerritarrak diren beste adin txikikoak besterik ez dituzte adiskidetzat. Horrek harrera-gizartean gizarteratzeko benetako aukerak zaildu eta murriztu egiten ditu. Guztiok dakigun bezala, desberdinen arteko harreman pertsonala da elkarrekiko aurreiritziak berrikusteko beharrezkoa den baldintzetako bat.

Honaino gure iritiz azpimarragarrienak diren hamar arazoak, gauzatu den ikerketaren eta Ararteko erakundeari dagokion ikuspegiaren arabera. Horietako askori helduko diegu –positiboki– gomendioei buruzko hurrengo kapituluan.

**ARARTEKOAK ADMINISTRAZIOEI
EGINDAKO GOMENDIOAK**

5. ARARTEKOAK ADMINISTRAZIOEI EGINDAKO GOMENDIOAK

Arartekoaren txosten guztien bukaeran administrazio eskudunei edo azterketaren xede izan den gaian eskumena duten administrazioei zuzendutako zenbait gomendio agertzen dira. Gomendio horiek txostenaren bukaerako elementua osatzen dute baina, era berean, etorkizuneko jarraipen-jardueren abiapuntua osatzen dute.

Kasu zehatz honetan, txostenean adierazten ditugun 33 gomendioak banaka aztertu aurretik, hiru ohar egin nahi ditugu:

1. Gomendioak egin dizkiegun administrazioen gainean:

Gaur egungo lege- eta eskumen-testuingurua kontuan hartuta, ia gomendio guztiak arlo honetan eskumena duten euskal administrazioei zuzenduta daude. Ondorengoei zehazki:

- Babesaren arloan eskudunak diren hiru Foru Aldundiak.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila.
- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.
- Eusko Jaurlaritzaren Justizia Saila.
- Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila.
- Udalak (adibidez, adin txikikoen erroldatzeari edo hiritarren sentsibilizazioari dagokienez).

Baina, eskumenen muga gainditu eta beste instantzia batzuei zuzenduta dauden bi gomendio (1.a eta 2.a) daude gutxienez. Arrazoiak agerikoak dira:

- Atzerritarren legediarekin lotutako arazo baten aurrean gaude, eta hori Administrazio Orokorraren eskumenekoa da.
- Aipatutako bi gomendioetan planteatzen diren gaiak –txostenean jasotako datu eta balorazioak kontuan hartuta– oinarritzkoak dira lurralde edo zerbitzu bakoitzean adin txikiko horiei eman dakiekeen arretarako edo haien alde egin daitekeen lanerako, eta gainera, gai horiek arreta eta lan hori baldintzatu dezakete.

2. Gomendioen beharrari edo onberatasunari dagokionez.

Oro har, sektore bat sakon aztertzen denean eta gabeziak edo arazoak antzematen direnean, nolabaiteko gizarte mailako adostasuna edo nahikoa zabaldua dagoen iritzia egoten da hobekuntzak barneratzeko beharrizanari dagokionez. Ez da beha-

rezkoa izaten, horiek justifikatzea: arazoak edo mugak dira eta, horregatik, horiek gainditzeko, beharrezkoa den guztia egin behar da.

Baina beti ez da hori gertatzen. Guri dagokigun gaiari dagokionez, esaterako, zenbait administrazioak arazo handiak izan dituzte hobekuntza-ekimenak gauzatzeko garaian (harrera-zentro edo -etxe berriak irekitzeko orduan, adibidez), horren aurka dauden bizilagunen erreakzioa dela eta.

Kontua ez da hobekuntzarako gomendioen eta proposamenen aldeko argudioak ematea. Arartekoaren ikuspuntutik, pertsona horien eskubideen defentsak izan behar du argudio nagusia eta nahikoa, eta, adin txikikoak direla kontuan hartuta, erakundeetako jarduera guztiak zuzendu behar dituen oinarri orokorra ondorengo haxe izango litzateke: adin txikikoaren interes gorena, haurren eskubideen gaineko Konbentzioaren 3. artikuluan ezarritakoa, eta guztientzat nahitaez bete beharrezkoa. Adin txikikoen interes gorena guztiaren gainetik jartzeko irizpideak gidatu behar ditu Administrazio publikoaren eta adin txikikoekin lotura duten erakunde eta pertsona guztien jarduerak. Gauzatzen diren ekimen guztiak eta hartzen diren erabaki guztiak, beraz, prisma horren pean ebaluatu beharko dira aurretik.

Hala ere, oinarritzkoa eta nahikoa den argudio horretatik kanpo, gizarte mailako beste arrazoi ugari ere badago, eta eraiki nahi dugun gizarte-ereduarekin lotura dute: gizarte ireki eta integratua, edo bazterketa sustatzen duen gizarte itxia.

Gomendio guztiek, zuzenean edo zeharka, adin txikiko horiek harreran hartu dituen gizartean hobeto barnertzea dute helburu; hau da, marjinalizazio- eta bazterketa-arriskuak ekiditen saiatzen dira.

3. Gomendioen ordenari eta garrantziari dagokionez, aurreko ataleko eskemaren antzekoa erabili da. Egiatzatu ahal izango dugun bezala, hemen egindako hobekuntza-proposamenak arazoen balorazioaren gainean egindako azterketan bertan daude oinarrituta.

Denek ez dute garrantzia edo eragin bera, jakina, ezta lurralde bakoitzean aplikazio-beharrizan bera ere. Hala ere, denek hobekuntzak sor ditzakete, neurri handiagoan edo txikiagoan, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren errealitatean, eskaintzen zaien arretaren kalitatean eta, azkenik, gizarteratzeko eta gizarteko bizitzan era aktiboan parte hartzeko aukeretan.

Beraz, aurreko oharrak kontuan hartuta, Arartekoak ondorengo gomendioak egin nahi ditu:

ERAKUNDEEN ARTEKO PLANIFIKAZIOARI ETA KOORDINAZIOARI DAGOKIENEZ

1. Autonomia Erkidegoen arteko jarduera-irizpide komunak

Haurren eskubideen gaineko Konbentzioak edo adin txikikoaren babes juridikoaren gaineko Lege organikoak administrazio guztiak berdin derrigortzen dituzten arren, eta indarrean diren atzerritarren legeak eta arauak erkidego guztietan berdinak diren arren, horietako bakoitzak bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei ematen dien harrera eta babesa desberdina da kasuan-kasuan. Desberdintasunak ez daude harrera-ahalmenean bakarrik oinarrituta, kontuan hartzen den oinarritzko edozein ikuspegitan baizik: tutoretza gauzatzea, egoitza, hezkuntza edo osasun mailako beharrei erantzutea, dokumentazioa lortzeko erraztasunak ematea, emantzipazio aukerak... Aurreko atalean aipatu ditugu politika mota horren ondorio kaltegarriak, esaterako, lurraldeen artean sustatutako leku-aldaketak, edo leku jakin batean izandako erantzun hobeak adin txikiko kopuru handiagoa hara erakarriko duen beldurra, errezeloa, edo prebentzioa.

Ondorio horiek ekidin nahi badira, beharrezkoa da administrazio eskudunek antzeko irizpideekin jardutea, edo gutxienez, administrazio guztietarako oinarritzkoak eta gutxienekoak izango diren irizpide batzuekin jardutea.

Arazo horren garrantziaren eraginez eta Arartekoak beste lekuetako administrazioekiko inolako kontrol-ahalmenik ez duela kontuan hartuta, beste erkidegoetako Herriko Defendatzaileei bidaliko zaie proposamen hori, kontuan har dezaten eta horri dagozkion jarduerak abian jar ditzaten.

2. Lege mailako testuinguruaren gaineko argibideak

Ziurrenik, aurreko atalean aipatu ditugun erkidegoen arteko desberdintasunak ez lirateke horren nabarmenak izango, adin txikikoaren interes gorenaren kontzeptuan zehaztaperen eta argitze handiagoa egongo balitz eta administrazio bakoitzaren jarduerak bete behar dituzten lege eta arauak oinarri hori uneoro beteko balute.

Esaterako: Estatuko fiskal nagusiaren 2003/3 Instrukzioa, Espainiara legez kanpoko moduren batean sartu nahi duten eta babesgabetasun-egoera juridikoan ez dauden atzerriko adin txikikoen jatorriaren gainekoa. Lege horren kontrako jarrerak ugariak izan ziren, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren eskubideak behar bezala babesten ez dituelako. Horren eraginez, aplikazioa aldakorra izan zen eta nahasmena sortu zen erregimen juridiko aplikagarriaren gainean.

Azken urteetan jatorri atzerritarra duten pertsonen aplikagarria zaien araudian izandako aldaketek ere ez dute koherentzia mantentzen lagundu. Itxaropen berriak sorrarazten dituzten aldaketek esamesak eta beharrezkoak ez diren joan-etorriak eragiten dituzte eta jarduerak eta programak sarritan berrikusteko beharrezkoak ere sortzen dute.

Adin txikiko atzerritarren arloko lege-testuinguruan, adin txikikoak direla kontuan hartu behar da eta hori errespetatu behar da, baita adin txikikoaren interes gorenaren baldin-

tzak ere. Araudiek eta adin txikikoen babeserako arloan eskudunak diren administrazioen jarduerak adin txikiko pertsona guztien eskubideak bermatu behar dituzte, duten nazionalitatea gorabehera. Beraz, adin txikikoen babeserako araudiak beste edozein araudiren gainetik egon behar du.

3. Erakundeen eta lurralde historikoen arteko lankidetzak edo koordinazioak

Txostenak argi erakusten du bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei ematen zaien harreran, gaur egun, lurraldeen artean alde handiak daudela; orokorrean, aztertutako edozein elementutan, baita zehatzenetan eta oinarrikoenetan ere (baliabideen ahalmena eta baldintzak; langileen ratioak; baldintza ekonomikoak...). Lege mailako testuinguru argitzea edo irizpide bateratuak izateko premia (aurreko gomendioen xedea) zuzenean aplikagarria da hiru lurralde historikoetan eta lankidetzak bide emankorrak sortzeko beharrezko baldintza da.

Deigarria da, adibidez, lurralde jakin bateko baliabideen saturazioak irtenbiderik aurkitu ez izana plaza hutsak dituen beste lurralderen bateko baliabideen bidez, ezohikoak diren zenbait kasutan izan ezik.

Sarritan baliabideek gainezka egiten dutela kontuan hartuta, badirudi foru aldundien arteko lankidetzak zenbait kasu konpontzen lagun dezakeela. Horretarako, hiru aldundien arteko hitzarmena beharko litzateke eta, edonola ere, adin txikikoak lurralde batetik bestera desbideratzea ekidin beharko litzateke beste aldea behar bezala ezagutu gabe, erabateko gardentasunarekin jardun gabe eta bakarkako programen jarraipena bermatu gabe.

Bestetik, bai Eusko Jaurlaritza, bai Udalak gazteenei zuzendutako ekintzak eta planak garatzen ari dira. Garrantzitsua da plan horietan ezartzen diren neurriek adin txikiko atzerritarren errealitatea kontuan hartzea, koordinazioa, baliabide normalizatueterako sarbidea eta ohiko egoitza lekuan gizarteratzea errazte aldera.

4. Babes-zerbitzuen eta gazte-justizia sistemen arteko lankidetzak eta koordinazioak

Txostenean argi geratu den moduan, une jakin batean babes-baliabidetik erreformara, edo alderantziz, igarotzen diren bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren proportzioa handia da eta hazten ari da. 2003. urteko datuetan, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren proportzioa adin txikiko arau-urratzaile kopuru osoaren %14 (komunitatearen aldeko laguntza-neurriak) eta %33,3 (kautelazko barneratzeak) artekoa izan zen.

Datu horiek kezkarriak dira eta, gainera, bi sistemen arteko lankidetzak gauzatzea derrigortzen dute, eragin okerrak ekidin eta ibilbideen jarraipena errazte aldera.

Lankidetzak beharrezkoa da, halaber, neurri judizial irekiak aplikatu behar direnean (askatasun zaindua, komunitatearen aldeko lanak). Neurri horiek, maiz, egoitza-baliabideetan bertan edo babes-zerbitzuetako pertsonalaren parte-hartzearekin gauzatzen dira.

Edonola ere, gomendio orokor hau gehiago zehaztuko dugu arazo hori berriz jorratzen duten 29. eta 30. gomendioetan.

5. Urte hauetako esperientzia ebaluatzea eta jardunbide egokiak elkartrukatzea

Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren errealitatea nahiko berria da gure artean. Hala ere, egindako pausoak nolabaiteko perspektibarekin aztertzeko eta lorpenak eta gabeziak baloratzeko urte nahikoa dira.

Hobekuntza-ikuspegia kontuan hartuta –txosten honetan erabili duguna, esaterako–, badirudi beharrezkoa dela azken urte hauetako esperientzia ebaluatzea eta hori, ziu-rrerarik, lagungarria izango litzateke askoren oinarriko galderak erantzun ahal izateko; ondorengo galdera hauek, esaterako: Ongi hezten ari al gara adin txikiko hauek? Zer-gatik daude Bizkaira zuzendutako eskaera gehiago? Zein arrazoiren eraginez ugaritu da erreforma fasean dauden bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren kopurua? Zein neurritan ari gara lortzen adin txikiko horien gizarteratzea? Ba al dago martxan jarri daitekeen bestelako baliabiderik? Zein da atzerritarren iritzia baliabideen eta jasotako harreraren gainean?...

Ikuspegi berari jarraiki, oso erabilgarria gerta liteke lurralde artean jardunbide egokien esperientziak elkartrukatzea, batez ere, horietako bakoitzean, orain arte, norabide desberdina izan dela kontuan hartuta.

Horri dagokionez, beste aukera bat da atzerritarren parte-hartze eta gizarteratze Foroaren barnean edo antzeko beste esparruren batean bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren gaineko lan-mahaia sortzea.

Arartekoaren ustez, bakarrik dauden adin txikikoekin esku hartzeko beharrezkoa da haurren defentsarako gizarte-erakunde eta administrazioen, eta inplikaturako eragileen, hau da, hezitzaileen eta nerabeen, arteko eztabaida eta hausnarketa burutzea, esku-hartze konplexu eta garrantzitsu horretarako erantzun egoki posibleak bilatzeko eta EAEn ahalik eta erantzun homogeneousena emateko. Eginbeharretako bat arrisku egoeran edo babesik gabe dauden adin txikikoei harrera emateko jardunbide egokien eskuliburu bat eratzea izango litzateke.

EGOITZA-BALIABIDEEN EZAUGARREI, BALDINTZEI ETA FUNTZIO-NAMENDUARI DAGOKIONEZ

6. Harrera-baliabideen eta -zentroen egitura-baldintzak berrikustea eta hobetzea

Txostenaren 3. atalean bilduta dago zentroetako bisitaldiak egin ziren uneetan (2004. urtearen erdi aldera) zeuden baliabide eskuragarri guztien deskribapen eta balorazio zehatza. Ez dira mugak azpimarratu nahi, ezta horietako bakoitzerako gomendio zehatzak egin nahi ere. Bai, ordea, antzeman diren arazo ohikoenak eta garrantzitsuenak aipatu.

Arazoak ondorengoak dira:

- edukiera (ez da nahikoa ugaritzen doazen premiei erantzuteko);
- kokapena (beti ez da egokia, edo ez du aukerarik inguruan);
- tamaina (Bizkaiaren kasuan, bada oso zentro handiren bat);
- mantenua (ez da nahikoa kalteak konpontzeko);
- harrerako lehen uneetan oinarrizko zenbait ikasketa-beharrizan asetzeko eskaintzen dituzten aukerak...

Beharrezkoa da administrazio bakoitzak bere baliabideen baldintzak berrikustea eta beharrezkoak diren hobekuntzak barneratzea. Baina ez da erraza, halaber, behar bezala adostutako balorazio irizpideak izatea. Zenbaitentzako eskasa dena beste batzuentzako nahikoa izan daiteke. Arazoa konpontzeko nahikoa izango litzateke gure Erkidegoan adin txikikoentzako harrera-zentro orori eska dakizkiokkeen gutxieneko baldintzak ezarriko litzuzkeen oinarrizko araudiren bat izatea. Araudia Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da eta Arartekoak urteetan zehar askotan eskatu duen arren, oraindik ez da horrelakorik eratu.

Oso kezagarria da baliabideen edukieraren arazoa, bai dituen ondorioengatik, bai duen zailtasunagatik. Dagoeneko martxan diren zerbitzu askok pertsonen pilaketak dituzte eta hori ez da egoeraren araberako arazoa soilik, sarri gertatzen baita, eta, gainera, iraunkorra baita.

7. Harrera-baliabideak dibertsifikatzea

Oro har, azken urteetan, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren eskura jarritako ia egoitza-baliabide guztiak eredu bakar baten araberakoak izan direla esan daiteke: zentro espezifikoak, tamaina jakin batekoak, haientzako bakarrik. “Especializazio” bakarra lehen mailako harrera-zentroak (larrialdietakoak) eta egonaldi egonkorragoko zentroak desberdintzea izan dela esan liteke. Lurralde bakoitzean garapenak erritmo jakin bat izan duen arren, guztietan joerak antzekoak izan dira.

Gomendio honetan planteaturiko baliabideen arteko dibertsifikazioa oinarrizko bi irizpideren araberakoa da:

- Harrera “normalizatzea”;
- Egoera eta behar desberdinak kontuan hartzen dituzten gizarteratze-ibilbideak edo -norabideak martxan jartzea erraztea.

Ikuspegi bikoitz horretatik, bide berriak irekitzea beharrezkoa da, baita egun dauden batzuk, oraindik oso gutxienekoak direnak, zabaltzea ere. Esaterako, badirudi beharrezkoa dela ondorengo guztia sustatzea:

- Inguru normalizatueta barneratutako elkarbizitza-unitate txikiak (Bizkaian, duela gutxi hasitako esperientzia da);
- Zentro edo etxe mistoak (atzerritarrak eta bertakoak barneratzen dituzte); elkarbizitza-formula hau, orain arte, zenbait neskataro edo adin txikiko atzerritar oso txikietara mugatuta zegoen;

- Familia-harrera (erabat ezohikoa);
- Gehiegizko droga-konsumoekin edo buruko osasun-arazoekin lotura duten behar terapeutikoei erantzun hobea emateko baliabideak.

Generoaren ikuspegia ez dugu ahaztu behar. Dauden baliabide gehienak mutilen beharizanetan daude oinarrituta, neskenak kontuan hartu gabe.

Haurren eta nerabeen harrera-planek jasotzen dutenaren arabera, adin txikikoei ematen zaien harrera adin txikiko bakoitzaren egoera zein den antzemanda abiatzen da. Haien aurrekariak, heldutasun-maila eta gizarteratzeko gaitasuna oso ezberdinak dira kasu bakoitzean. Beraz, eman behar zaizkien erantzunak desberdintasun horietara egokitu behar dira.

Adin txikikoen egoera ere ezberdina da eta hori ere kontuan hartu beharra dago. Larrialdiko harrerarako, adibidez, baliabide zehatz batzuk behar dira, eman behar zaien nahitaezko babesaren barnean; garrantzitsua izango litzateke duela gutxi aurkitutako eta babesgabetasun egoeran egon daitekeela aurreikus daitekeen adin txikiko bati eman beharreko larrialdiko eta bat-bateko harrerak ahalik eta eragin txikiena izatea zentroaren ohiko martxan. Bestetik, adin txikikoari buruzko ahalik eta informazio gehien izatea beharrezkoa da, hasieratik arreta hobeagoa eskaini ahal izateko. Horretarako sortu zen bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren erregistroa eta hori erabiltzea gomendagarria da, betiere, barneratze judizialak aurreikusitako helburuarekin eta kautelekin, eta batez ere, datuen babesari buruzko araudiari dagokionez. Identifikazio-prozesu fidagarri eta koordinatuaren bidez, adin txikikoen jarraipen koherentea egin ahal izango da, beraien egoerari eta beharrei egokituta esku hartzeko.

Arartekoaren ustez, atzerritarra izateak baino garrantzi handiagoa du banakoaren egoerak. Sustatutako baliabideek espezializatorantz jo dute, atzerritar eta bertakoen arteko sailkapenaren arabera, beharbada dokumentatzeko prozesuari balio gehiegi emanez, bere berezitasun handiak direla-eta, baina adin txikikoen beharrez lehentasunez arduratzearen garrantzia ahaztuta.

8. Hitzarmenak berrikustea eta erabiltzea berme-elementu gisa

Bizkaiko egoitza-unitateen kasuan izan ezik (Gizarte Ekintza Foru Institutuko langileen esku daude), hitzarmen bidez adin txikikoen zaintzaren eta harreraren ardura duten zenbait elkartek edo erakundek kudeatzen dituzte gainontzeko baliabide guztiak.

Kasu guztietan, hitzarmenek zenbait gai zehazten dituzte, baina ez dituzte jasotzen ikuspuntu bermatzaile batetik besteak bezain garrantzitsuak izan daitezkeen beste batzuk. Ondorengo gaien modukoez ari gara: zentroetako langileen ezaugarriak (lanerako gaitasuna; trebakuntza; taldeen egonkortasuna; emakumeen eta gizonen arteko proportzioa; ratioak eta txandak...); adin txikikoen oinarritzko beharrak asetzera zuzendutako partida ekonomikoen zehaztapena; zentroen mantenu-baldintzak; hezkuntza mailako berrikuspen-formulak...

Txostenak datuak ematen ditu zentro batzuen eta besteen artean arlo horietan dauden alde nabarien gainean. Harreraren jarraipena mantentze aldera, zenbait zerbitzutan ger-

tatzen den pertsonen txandakatzeak gehiegizkoa eta kezkarria dirudi. Sektore honetan lan-hitzarmen bat izateak horietako zenbait arazo argitzen lagunduko luke, beharbada. Bitartean, urteko edo urte anitzeko hitzarmenak berrikusi eta aztertu beharko lirateke, eta berme-elementu gisa erabili.

Gomendio hau, halaber, aplikagarria da zentro batzuetan dauden segurtasuneko langileen kasuan; zerbitzu hori oro har sektore honetako enpresaren bati esleitzen zaio.

9. Lan-taldeetan adin txikikoen hizkuntza ondo dakiten eta haien jatorrizko kulturak ezagutzen dituzten langileak barneratzea

Orain arte, harreran hartutako bakarrik dauden adin txikiko atzerritar gehienek jatorri marokoarra dute. Proporzioa handiagoa da komunikaziorako hizkuntza gisa arabiera edo berebera dutenak edo hizkuntza horiek ezagutzen dituztenak kontuan hartuz gero. Asko gazteleraren gaineko gutxieneko ezagutza izan gabe iristen dira; eta zer esanik ez euskarari buruz. Kasu horietan, adin txikikoen eta hezitzaileen arteko komunikazio zuzena, edozein trebakuntza-prozesuren giltza dena, ezinezkoa da.

Beraz, badirudi beharrezkoa dela talde edo txanda guztietan, komunikazioa errazteko adinako hizkuntza- eta kultura-ezagutza duen langile bat izatea. Zenbait tokitan, Bizkaian adibidez, lan-taldera hizkuntza eta kultura arabiarra ezagutzen dituzten langileak barnertuta bete da helburu hori. Esperientziaren arabera, pertsona horiek taldean modu osoan barneratzea komeni da, zentroaren programazioan parte hartzea sustatuta, beharrezkoa denean kultura eta hizkuntza arabiarra ezagutzen duten pertsona horien trebakuntza edo kualifikazioa zabaltzen lagunduta edo jatorrizko herrialdeetako profesionalekin edo zerbitzuekin lankidetzan aritzeko formulak osatuta.

10. Baliabide komunitarioak erabiltzea eta gizarteratzea erraztea

Txostenak harrera-zentroek baliabide komunitarioak erabiltzeko gauzaturiko ekimen ugari azaldu ditu (hezkuntza-zentroak, aisialdirako edo kiroletarako udal instalazioak). Horri dagokionez, harrera-zentroek zenbait zerbitzu edo instalazioren gabezia edukitzea aberasgarria izan daiteke, inguruan baliabideak bilatzera derrigortzen baitu, eta horrek beste pertsona batzuekin harremanetan jartzea eta pertsona-taldeetan barneratzea errazten du.

Hori lortzeko ondorengo pausoak egin behar dira: edozein bazterketa mota gainditu behar da, programetan eta jardueretan modu normalizatuan parte hartzea erraztu behar da, baliabide jakin batzuetan pertsona gehiegi pilotzea ekidin behar da... Kontuan hartu behar da, harrerako baliabideetan erabilitako eredia dela-eta, gazteek atzerritarrek ez diren beste pertsonekin dituzten harremanak, hezitzaileekin dituztenak salbu, ez direla zentro horietan izaten.

Bestalde, adin txikikoei egindako elkarrizketen bidez jasotako informazioaren arabera, deigarria da horietako askok bertako lagunik ez dutela esatea edo harremana haien gisako beste adin txikiko atzerritarrekin bakarrik dutela adieraztea. Konpondu beharreko

egoera kezkarria dirudi horrek eta aisialdia erabiltzeko edo antolatzeko moduan eragina du, ziurrenik. Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren eta bertako pertsonen arteko komunikazioa eta harremana baliagarriak dira formala ez den babes-sarea sortzeko eta gizarteratzea errazteko.

11. Baliabideen gainbegiraketa-, kontrol- eta ebaluazio-mekanismoak hobetzea

Erabilitako kudeaketa-formula edozein dela ere (lehen esan bezala, gehienetan, elkarteren batekin egindako hitzarmena), adin txikiko horien tutoretzako eta babeseko azken ardua, beti, administrazioek edo erakunde eskudunek dute, gure kasuan, Foru Aldundiek.

Esaterako, harreman jarraitu eta arina dago zentroetako zuzendaritzaren eta Aldundiei dagokien zerbitzuen artean. Hala ere, jarraipen-, gainbegiraketa-, laguntza-, kontrol- edo ebaluaketa-mekanismoak oso desberdinak dira eta argi eta garbi ikus daiteke horiek hobetu daitezkeela. Helburuak hauxe izan beharko luke beti: dauden zerbitzu guztietan harreman instituzional ona bermatzea, duten titulartasuna edo kudeaketa-formula gorabehera.

Ikuspuntu honetatik, adin txikikoei zuzendutako edo adin txikikoen arteko indarkeria aurreikusteko bermeak ezarri behar dira: elkarbizitzaren arauak berrikustea, diziplina neurrien jarraipena egitea, langile guztiak trebatzea eta adin txikikoei ezartzen zaizkien zigorretan errespetatu beharreko mugak ezagutzea... Kontuan hartzekoa da zenbaitetan, profil oso desberdineko adin txikikoak elkar daitezkeela eta horrek zentroaren martxarako eta adin txikikoen arteko harremanetarako kaltegarriak diren egoera gatazkatsuak sor ditzake. Egoera horiek ekiditeko eta adin txikikoen segurtasuna bermatzeko, beharrezkoa da jarduera-estrategiak eta -protokoloak ezartzea. Har daitezkeen prebentzio-neurrien artean, ondorengoak azpimarra daitezke, esaterako: taldeak egiteko garaian, dauden adinak eta jatorriak kontuan hartzea, bake-kulturan eta kulturen arteko elkarrizketan trebatzea...

Gainera, egoera gatazkatsuak ekidite eta modu arinean jardute aldera, garrantzitsua da indarkeriazko kasuetan, polizia-zerbitzuen, zerbitzu juridikoen eta gizarte-zerbitzuen artean koordinazioa egotea. Egoera jakin batzuk aurreikusten dituzten zenbait jarduera-protokolo ezarri behar dira. Protokolo horietan krisi egoera posibleak kontuan hartu beharko dira eta zerbitzu bakoitzari dagozkion jarduerak zehaztu beharko dira: Fiskaltza, Aldundia, Ertzaintza, Polizia Nazionalea eta Udaltzainak...

12. Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren partaidetza handiagoa baliabideen antolakuntzan

Bakarrik dauden adin txikiko atzerritar batzuek haien harreran hartu dituzten zentroak ostatu gisa soilik ikusteko arriskua dago, eta zentroetara ostatu, elikadura eta jantzien mailako oinarritzko beharrak asetzea bakarrik joan daitezke; zentro horiek haien eskubideak egikaritu ditzaketela uste dute, baina inolako betebeharririk edo eginbeharririk izan gabe.

Arrisku hori zenbait ekimenen bidez gutxitu behar da eta ekimen horietako batzuk dagoeneko jarri dira martxan: zentroetan sartzen diren unean, dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko informazio osoa ematea, beraiek ulertzeko moduan; zentroko bide egokian eta egituran parte hartzeko bideak ematea; elkarbizitza-arauak eztabaidatzea eta berrikustea; iradokizunak, proposamenak edo kexak egiteko bideak aurreikustea; zentroaren erabiltzaileak izan ziren eta, gaur egun, gizarteratuta dauden gazteen kasuak ezagutaraztea; gatazkak konpontzeko partaidetza-formulak bilatzea...

13. Jatorrizko familiarekin komunikatzen laguntzea

Jatorrizko familiarekin komunikazioa onuragarria izan daiteke adin txikikoentzat, horrek haien garapen pertsonalean eragin handia izango duelako eta, adin txikiko horien egoera berezia dela eta, haien erreferentzia-testuingurua mantentzea garrantzitsua delako. Beraz, adin txikikoarentzako onuragarria denean, erakundeek eta babes-baliabideek jatorrizko familiarekin komunikatzeko erraztasunak ematea komeni da.

14. Adin txikikoari bere adinari eta egoera pertsonalei egokitutako informazio osoa ematea bere eskubideei eta betebeharrei, burutuko duen prozesuari, babes-sistemaren ezaugarriei eta bere egoeran eragina izan dezaketen gainerako elementuei buruz

Adin txikiko atzerritar batek bere eskubidei buruzko informazioa eskura izan behar du babes zentro batean sartzen den unetik. Informazioak ahalik eta zabalena izan behar du, eta atzerritarren eskubideekin lotutako tutoretzak ematen dizkion eskubide zehatzak jaso behar ditu (nazionalitatea, egoitza-baimen iraunkorra...); bere egoerara moldatuta egon beharko du informazioak, eta ezarriko diren babes-neurriak barneratu beharko ditu. Informazioa bitarteko egoki baten bidez eman beharko zaio, bai idatziz, bai ahoz, ulertzen duen hizkuntza batean eta modu ulergarrian. Ahozko azalpenak modu irekian egin beharko zaizkio, aurreko esperientzien ondorioz izan ditzakeen konfiantza ezak eta susmo txarrak ekidinez.

Adin txikikoak, gainera, informazioa jasoko du erreforma- eta babes-zentroen arteko desberdintasunen, zigor-xede izan daitezkeen jokaerek eta arau-urratzeek dituzten ondorioen, barneratze-erregimenen, antolamendu orokorraren, zentroaren funtzionamendu-arauen, eta kexak edo helegiteak ezartzeko bideen gainean.

Adin txikikoaren baldintzetara egokitutako informazio osoa, adin txikikoak eskatzen duenean edo, aldizka, edozein egoera-aldaketa gertatzen denean, eman beharko da.

ADIN TXIKIKO HORIEN ARAUTZE ADMINISTRATIBOA ARINTZEKO

15. Hezur-proben azkartasuna eta fidagarritasuna hobetzea

Gure zerbitzuetara jotzen duten adin txikiko atzerritar gehienek ez dute agiririk eta, beraz, ez da haien adina ezagutzen. Kasu horietan, gaur egungo araudiaren arabera, fiskalaren

esku-hartzea beharrezkoa da, bere adina gutxi gorabehera ezagutzeko beharrezkoak diren hezurretako probak berehala egitea agindu dezan. Aurreikusita dago, bestalde, babesgabetasun egoeran dauden adin txikikoen Erregistroan kontsulta egin arte itxarotea, beste erkidego batean identifikatuta egon daitezkeelakoan, eta, beraz, hala bada, probak eginak izango direlako eta adin txikikoen datuak jasota egongo direlako.

Txostenean jasotako datuen arabera, proba horiek ez dira azkartasun berarekin egiten lurralde guztietan. Muturreko kasuetan, zentroan sartu eta emaitzak ezagutzen diren arte hiru edo lau hilabete igaro daitezke (29. eta 30. taulak). Bestalde, proben zati esanguratsu batek erakusten duenez, gaztea adinez nagusia izaten da. Bizkaian, zenbait urtetan, proportzio hori aztertutako kasuen %40ra arte ere iritsi da. Bi faktore horiek bateratzeak (proba egiterakoan atzerapena; emaitza adinez nagusia dela izatea) ondorio garrantzitsuak ditu harrera-zentroetako antolakuntzan.

Onea probak berehala egitea eta emaitzak ahalik eta azkarren eskuratzea da, harrera-zentroetara sartu aurreko pauso gisa, edo gizarteratzeko beste baliabide batzuetara jotzeko. Azken batean, proben gehienezko azkartasuna eta fidagarritasuna bermatzea da. Azken horri dagokionez, eskalak edo baremoak hobetu beharko lirateke, eta orain arte lortutako emaitzen eta jatorrizko dokumentazioarekiko duten korrelazioaren jarrapena egin.

Bestalde, erabiliko diren metodoek errespetagarriak izan beharko dute adin txikikoaren duintasunarekin, bere ahotsa entzunarazteko duen eskubidearekin eta probak egiteko baimena ematearekin; gainera, adin txikikoaren egoera pertsonaletara egokituta egon beharko dute, hizkuntzari eta kultura mailari dagokionez.

Edonola ere, jarraitu beharreko irizpidea adin txikikoaren interes gorena da; horregatik adina zehazteko zenbait proba baldin badaude edo adin tarte bat baldin badago, adinik txikiena adierazten duena hartzen da kontuan.

16. Harrera- eta berehalako erroldatze-agiria

Aurreko gomendioaren aplikazioa euskal administrazioen eskumenekoa ez den arren, haietan eragina du zuzenean: harrera-agiriak, aldundietan; erroldatzeak, udaletan.

Azken urte hauetan, Arartekoak askotan esku hartu behar izan du gai horien inguruan, aldundi edo udal batzuen aurrean beste batzuen aurrean baino gehiago.

Arartekoak beti defendatu duen irizpidea –gomendio honetan, berriz ere, jaso duena– beti berdina izan da : 1) Adin txikikoa Aldundiaren zerbitzuren batek harreran hartu badu, hori egiaztatuko duen dokumentazioa eman beharko zaio berehala; 2) Aldundiak emandako behin-behineko agiri horiek nahikoak izan beharko dute erroldatzea bideratzen hasteko, pasaportea edo adin txikikoaren jatorrizko beste edozein dokumentazio iristea itxaron beharrik izan gabe.

Alabaina, zenbaitetan, ez administrazio-jarduerak, ez araudiak ez dira bide horretatik joan. Bestela, hiru lurraldeetan aztertutako 78 txostenetan lortutako denbora ertain,

maximo eta minimoen gaineko datuak ikustea besterik ez dago (Txosten honetako 29. eta 30. taulak). Arartekoaren ustez, irizpide horiek inolako arazorik gabe aplikatu ahal izateko, oztopoak baztertzea beharrezkoa da.

Erroldan izena emateak eragin positiboak ditu, herrian pertsona horien egoera normalizatzeko, administrazioen baliabideetarako sarbidea eta gizarte-laguntzak eskuratzea errazten duelako (gizarte mailako laguntzak edo eskolatzea, esaterako), eta gainontzeko adin txikikoen baldintza berdinetan osasun zerbitzua izateko eskubidea (familia-medikua izendatzea, mediku-historiala egitea...) ere ematen duelako. Administrazioak adin txikikoaren tutoretza hartzen duenean, udal erroldako izen-ematea atzeratzea ez da beharrezkoa lan-kidetzaren administrazioaren printzipioari eta adin txikikoaren gorenko interesari jarraiki.

17. Babesgabetasun-aitorpena eta tutoretzaren ardurak

Araudiak aurreikusten duenez, tutoretzaren ardurak Babeseko Erakundeak hartuko du bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrek babesgabetasun egoeran daudenean. Tutoretzaren ardurak hartzen dueneko data administrazioek babesgabetasun egoeraren berri duteneko data bera da. Data hori zentroan sartzen den unea izan ohi da. Babeseko Erakundeak sartu zeneko data agertzea oso garrantzitsua da, denboraren zenbaketa osoa jakiteak garrantzi handia duelako egoitza iraunkorreko baimenarekin edo nazionalitatea eskuratzearekin lotutako araudian aitortzen diren eskubideak bermatzerakoan.

Aplikagarria den araudiak ez du eskatzen nortasun agiri zehatzik izatea babesgabetasun egoera adierazteko eta tutoretzaz arduratzeko; nahikoa da adin txikikoari entzutea eta babesgabetasun-egoera larrian dagoela ziurtatzea. Hala ere, kasu askotan, tutoretzaz arduratzeko dokumentazio zehatza izan arte itxaron behar da eta, hori dela eta, beste kasuren batean berari legezkoak diren hezkuntza- edo trebakuntza-programetan barnertzea atzeratzen da.

18. Egoitza- eta lan-baimenak bideratzeko eginbidea

Egoitza- eta lan-baimenak lortzea beharrezkoa da adin txikiko horiek behar bezala gizarteratzeko, eta adin txikiko gehienak babes zerbitzuetara joateko motibazio garrantzitsuena izan daiteke (ziurrenik, puztu gabe). Badakite baimen horiek gabe, aukera bakarra legez kanpo egotea edo delinkuentzian jardutea dela.

Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrekin lotutako arazoetatik eta hobetu beharreko aldeetatik, hauxe izan da, agian, azken urte hauetan Arartekoaren esku-hartzea gehien behar izan duena. Hori erakusteko, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietara eramandako ofiziozko txostenak, eta urteko txosten desberdinetan jasotako datu, balorazio eta proposamenak ikustea besterik ez dago (Txosten honetako 4. eta 6. eranskinak).

Arartekoak beti izan duen irizpide interpretatzaileak ondorengo hauxe dio: baimenak ahalik eta azkarren eskatu behar dira, harrera hasten denetik 9 hilabete edo gehiago itxaron behar izan gabe. Egoitza-baimenari dagokionez, araudiak ondorengo hauxe ezartzen du: “*Adin txikikoa, Adin Txikikoen Babeserako Zerbitzu eskudunen eskuetan jarri denetik, bederatz*

hilabete igarota... eta bere familiarengana itzultzeko edo jatorriko herrira aberriratzeko ahalegina egin ostean, hori ezinezkoa izango balitz, egoitza baimena... emango zaio” (Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko Lege Organikoa garatzen duen araudi berriaren 92 artikulua, 2393/04 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa).

Gure ustez, horrek argi adierazten du adin txikiko guztiek egoitza-baimena eskuratzeko eskubidea dutela. Babes-zerbitzu eskudunen pean dagoenetik gehienez bederatzi hilabetera eskuratuko du eta ez ditu bederatzi hilabete itxaron beharko izapideei ekiteko. Interpretazioaren arabera, adin txikikoa babesgabetasun egoeran badago, bere intereserako, tutoretzaren arduradunak diren aldundiek egoitza-baimena eskatzeko izapideei hasiera eman beharko liekete. Gauza bera gertatzen da egoitza-eskaera izapidetu behar denean.

Garrantzitsua da, beraz, izapide guztiak arintzea bere hezkuntzan eta lan-trebakuntzan hausnartzeko aukera ematen dion baimena lortzeko.

Halaber, adin txikikoak lan munduan hasteko borondatea eta nahia agertzen duen kasuetan, ikasten jarraitzeak ematen dizkion abantaileri buruzko informazioa jaso denean, lan-bideratze eta lan-munduratzeko programetan sartzeko erraztu beharko litzaioke, lan merkatuan ahalik eta azkarren sartzeko, Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko Lege Organikoaren 40 j) eta 41 k) artikuluek jasotzen dituzten aurreikuspenak kontuan hartuta.

Gainera, adin txikikoa entzun ostean, Administrazioaren tutoretzaren mendean bi urte daramatzaten eta egoitza legaleko kasuetan dauden adin txikikoei dagokienez, egoitza bidezko nazionalitate txostenari hasiera eman behar zaio, KZ-ren 22. artikulua aplikazioari jarraiki.

Izapideak azkartzeko eta horiekin hasteko bederatzi hilabete zain ez egoteko irizpidea izan du beti Arartekoak. Txosten honetan, hala ere, zenbait irizpide interpretatzailearen arteko dialektika gainditu eta datu errealak aztertu nahi izan ditugu, lurralde bakoitzeko lagin esanguratsu batenak, gutxienez. Datuek gauzak argi uzten dituzte. Zentroko egoaldian eskatutako eta lortutako baimenen kasuak arretaz aztertuz gero (aztertutako 78 kasuetatik, 35), ondorengo hauxe ikus dezakegu:

- Araban, egoitza-baimena lortu zuten sei kasuetan igarotako batezbesteko epea 7 hilabete eta 10 egunekoa izan zen, eta oro har, mantsoen doazen kasuetan ere, epeak, alderaketa eginda, laburragoak dira.
- Bizkaian, aztertutako 38 txostenetako 23tan lortutako datuetan, baimen-eskaera egin arte igarotako epearen batezbestekoa 7 hilabetekoa izan zen eta ia hamaika hilabete gehiago itxaron behar izan ziren lortu arte. (Hau da: harrera-unetik urte eta erdira). Harrera gertatu zen unetik 9 hilabetera, ez zuen inork baimenik lortu.
- Gipuzkoan, baimen-eskaera lortzeko batezbesteko denbora-tartea urte eta erditik ia bi urteko artekoa izan zen (22 hilabete eta 15 egun). Kasu honetan ere, harrera hasi zen unetik 9 hilabetera, inork ez zuen baimenik lortu. Gutxieneko denbora-tartea 13 hilabete eta 12 egunekoa izan zen (kasu batean).

Atzerapen horiek guztiak, ez dira, kasu guztietan, euskal administrazioen erruaren emaitza. Eskaerak aurkezten direnetik baimena lortzen den arte igarotzen den denbora-

tartearen erantzulea Estatuko Administrazioa da. Hala ere, tarte hori igarotako epe osoaren zati bat besterik ez da. (Datuak 29. eta 30. tauletan).

Horregatik guztiagatik, Arartekoak, gomendio honen bidez, Foru Aldundiei eskatu nahi die, ahal duten heinean, harreran dauden adin txikikoen egoitza- eta lan-baimenak ahalik eta azkarren eska ditzaten.

19. Baimenen tramitazioen jarraipena egitea eta emaitzak ebaluazio-adierazle gisa erabiltzea

Adierazi dugun bezala, baimenak epe motzean lortzea oso elementu garrantzitsua da gizarteratze prozesu osorako.

Urte hauetan zenbait kudeaketa-formula erabili izan dira eta oraindik ere erabiltzen dira agiriak bideratzerakoan: zentroetako zuzendaritzaren ardura izan dadila; hezitzailearen batek edo adin txikikoaren tutoreak ardura hori har dezala; tramitazioa aldundietako zerbitzuetatik abiatuta gauzatu dadila; horretarako zehazki kontratatutako elkarte edo enpresa batek har dezala horren ardura.

Formula bakoitzaren abantailak edo desabantailak kontuan hartu gabe, badirudi beharrezkoa dela horietako bakoitzarekin izandako lorpenak sistematikoki aztertzea eta emaitzak erabaki desegokiak zuzentzeko eta berrikusteko ebaluazio-adierazle gisa erabiltzea.

20. Beharrezkoa den babes juridikoa eskaintzea

Ohiko tramitazioetan edo egoitza edo babes egoerei dagozkien egoeretan, sarritan agertzen dira azkar konpondu beharreko arazoak edo errekurritu beharreko baimen-ukazioak. Horren eraginez, beharrezkoa da gauzatzen diren prozesuen ezagutza espezializatua eta eguneratua.

Erakunde arduradunek, haien zerbitzu juridikoen bidez, zehazki adin txikikoen arduratzen ez diren beste zerbitzu orokorrekin –esaterako, Heldurekin– egindako hitzarmenen bidez edo beste zerbitzu espezializatu batzuk kontratatzearen bidez, bermatu egin beharko lukete beharrezko eta kalitatezko laguntza juridikoa, legediak aurreikusitako eskubideak betetzea defendatuko duten abokatu independenteen bidez.

Horretarako, beharrezkoa da adin txikikoen babes arloan diharduten profesionalei trebakuntza espezializatua ematea. Helduen eta adin txikikoen erregimenen artean dauden aldeak nabarmendu behar ditu trebakuntza horrek, bai prozedurari, bai hartu beharreko neurrien helburuari dagokionez.

21. Itzulera egitekotan adin txikikoaren interesaren arabera egiten dela bermatzea

Gaur egungo araudian aurreikusita dago bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak haien jatorrizko herrialdera aberriratzea, eta hori gauzatzeko zenbait berme daude ezarrita.

Funtsean, adin txikikoa bere familiarekin behar bezala biltzeko edo adin txikikoaren jatorrizko herrialdeko babes-zerbitzuek tutoretza egokia ezartzeko baldintzak eman behar dira, betiere adin txikikoaren segurtasunerako arriskurik ez badago eta berak edo bere senideek jazarpenik jasango ez badute. Babesgabetasun egoeran dauden adin txikikoen kasuetan, adin txikikoen babes-zerbitzuen txosten bat eskatuko da. Bertan, aberriatzea komenigarria den edo ez baloratu beharko da.

Babes-erakundeek adin txikikoen itzuleran ardurarik ez duten arren, haien parte-hartzea ezinbestekoa da, aurretik legezko tutoretza amaituta izatea beharrezkoa baita. Horretarako, baina, araudiak aurreikusten dituen arrazoiak bete beharko dira: besteak beste, babes-neurriak hartzea eragin duten arrazoiak desagertzea edo adin txikikoa beste babes erakunde batera aldatzea. Kasu horretan, erakunde horretan arreta- eta babes-neurriak egokiak direla egiaztatu beharko da, adin txikikoaren beharrianak, adina eta autonomia-maila kontuan hartuta. Kasu guztietan adin txikikoak esan beharrekoa entzun beharko da.

Oraingoz, eskura ditugun datuek adierazten dutenez, orokorrean, jatorrizko herrialdeetako adin txikikoen babes zerbitzuek ez dituzte arreta- eta babes-neurri egokiak ematen, eta, horregatik, zaila da babesgabetasun egoeraren aurrean araudiak aurreikusten dituen baldintzetara itzultzeko aukera izatea. Gainera, adin txikikoek haien herrialdeko agintarien eskutik jasotako trataeraren eraginez jarritako salaketek, adin txikiko marokoarren kasuan gutxienez, haien eskubideen egoerari buruzko zalantzak eta bere osotasun fisikoarekiko arriskuaren gaineko alarmak sortzen dituzte. Gogoratu beharra dago giza eskubideen babeserako nazioarteko araudiak edozein administraziok pertsonen osotasun fisikoa arriskuan jartzea galarazten duela, eta adin txikikoak direnez, hori inguruabar larrigarria da.

Arartekoak uste du babes erakundeak itzulerako txostenean oso rol garrantzitsua duela, haien tutoretzapean dauden adin txikikoak aberriartzeko ezintasunaren eraginez, adin txikikoen babes-araudiaren arabera. Adin txikikoaren egoeraren ebaluazio zehatza egin ostean neurria eragin zuen egoera bukatu dela egiaztatzean eta adin txikikoa entzun ondoren, tutoretza bukatu ahal izango da. Beste babes-erakunde batera aldatzeak eragindako tutoretza legala bukatzean ere, tutoretza amaitzeari dagokion urrats hori ezarritako bermeen arabera egin behar da, hau da, jatorrizko herrialdean aurreikusitako arreta- eta babes-neurriak behar bezala betetzen direla egiaztatuta.

HAIEN BEHARREN ARABERA EMANDAKO HEZKUNTZA MAILAKO ERANTZUNARI DAGOKIONEZ

22. Hezkuntza mailako administrazioaren esku-hartzea hizkuntza ikasteko programetan

Lehen aipatu dugun bezala, harreran hartutako adin txikiko askok ez dituzte ezagutzen gatzelaniaren edo euskararen oinarriko elementuak. Horiek ikasteko beste bide normalizatu batzuk erabiltzen lagundu behar zaie. Sarritan, lehen pausoa gutxieneko ezagutzak edo trebetasunak erakustean datza, intentsitate handiagorekin edo gutxiagorekin.

Hezkuntza sistemak, orain arte, ez ditu erantzun zehatzak izan beharizan horietarako: bai ordea, derrigorrezko hezkuntza jasotzeko adinean dauden adin txikikoentzat (Bigarren Hezkuntza, adibidez), baita helduentzat ere (HHE), baina ez 16 edo 17 urte dituzten nerabe edo gazteentzat. Harrera-zentroak, borondate onez, gabezia horiek gutxitzen saiatu dira eta, oro har, haientzako gaztelania eskolak prestatu dituzte; gehienetan, pertsona boluntarioek ematen dituzte, egunean bi orduz. Kasu batean bakarrik indartu du sistema hori Hezkuntza Sailak: irakasle bat gehiago jarri zuen Arartekoaren ofiziozko esku-hartzearen ondoren.

Erakunde horren ustez, hezkuntza administrazioak bere gain hartu behar du lehen irakaspenen ardura. Beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko ditu eta, harrera-zerbitzuen laguntzarekin, egokienak diren antolakuntza-formulak bilatuko ditu.

23. Ahalik eta eskolatze normalizatuena erraztea eta bermatzea

Adin txikiko pertsonen hezkuntza eskubidea guztiz onartuta dute, haien egoera juridikoa gorabehera eta hezkuntza maila guztietan; horregatik, ezin da inolako trabarik egon babes-erakunde arduradunaren iritziz adin txikikoak jarraitu beharreko hezkuntza-jardueretan eta -programetan sartzeko. Horren eraginez, eskolatzeko egokiak diren erantzunak bultzatu behar dira eta adin txikikoari entzun behar zaio, 16 urtetik gorakoa bada, lanean hasi aurreko trebakuntza-baliabideetan parte hartzeko aukera izan dezan.

Hezkuntza administrazioari dagokio, beraz, adin txikiko horiei ahalik eta hezkuntza normalizatuena izatea errazteko eta bermatzeko ardura. Horretarako, kontuan hartu beharko ditu adina, aurretiazko eskolatzeak eta ikasketak, interesak eta itxaropenak, eta antzeko faktoreak. Hori dela eta, bere beharretara egokitutako hezkuntza mailako erantzuna zail edo ezinezko egiten duten irizpideak berrikusi eta moldatu beharko dira. Adibidez:

- Lanari edo lanerako trebakuntzari lotutako zenbait ikastarotan parte hartzeko egoitza-baimena behar da;
- HHEko zenbait zentrok ez dute adinez nagusiak ez diren pertsonak onartzen.
- Adin txikikoentzat interesgarrien eta motzen izan daitezkeen moduluek plaza guztiak beteta izan ditzakete eta horrek adin txikiko horiek bertan matrikulatzea galarazten du;
- Zenbait kasutan, lanerako baimenaren zain dauden bitartean, komenigarria izan daiteke praktikak luzatzea...

Kontua ez da haientzako erantzun zehatzak sortzea, adin txikiko horietako askoren hezkuntza-premia bereziak kontuan hartuta, irizpide jakinak berrikustea eta malgutztea baino, beste premia berezi batzuen kasuan egiten den moduan. Askotan, beharrezkoa izango da baliabideak egokitzea haien pertsona, gizarte eta kultura mailako garapenari mesede egiteko eta jatorrizko eta harrera-tokiko hezkuntza-sistemaren arteko egokitzapena gauzatzeko.

Beharizan horiek, ikasturtea hasita denean askotan sortzen diren eskolatze-eskaerak, zentro batean edo gutxi batzuetan pilatutako arriskuak eta, azkenik, bere beharrezanekin

bat datorren hezkuntza mailako erantzuna lortzeko zailtasunak kontuan hartuta, badirudi beharrezkoa dela lurralde bakoitzeko harrera-zentroek eta bertako hezitzaileek, gutxienez, hezkuntza-administrazioan baliagarria izan daitekeen hizketakide bat izatea.

24. Profil profesional berrien beharra

Adin txikiko atzerritarren eskolatze egokia oso zaila izan daiteke, batez ere, lehen aipatu ditugun adinari dagozkion ezaugarriak betetzen dituen edo hezkuntzarako oinarrikoa den hizkuntza behar bezala ez ezagutzean, eta aurreikusi gabeko neurri berritzaileak hartzea eska dezake horrek.

Harrera-zentroetan, arabieraren eta jatorrizko herrialdeen kulturaren ezagutza duten hezitzaileak barneratzea eskatu den bezala, egoera jakinetan, elkarrizketa erraz dezakeen eta profil hori duen profesional bat hezkuntza sistemara sartzea beharrezkoa izan daiteke. Bestela, edo beste zereginetarako, ziur aski, interpretazio-zerbitzu bat izatea edo beste elkarte edo talderen batekin laguntza-hitzarmen bat izatea nahikoa izango da. Edonola ere, eskumen edo profil berriak dituzten profesional berriak hezkuntza sisteman sartzeaz edo horiek sisteman parte hartzeaz ari gara.

Beraz, ez da baztertu behar adin txikikoaren intereserako beste neurri batzuk ezartzea: aholkularitza, jatorrizko herrialdeko profesionalak kontratatzea edo arreta hobea eskain dezaketen herrialdeen arteko beste lankidetzeta mota batzuk.

OSASUN-ARRETARI DAGOKIONEZ

25. Osasun-sistemak adin txikiko horien oinarriko beharrezaneiei eman beharreko erantzuna bermatzea

Osasun-sistemak adin txikikoaren osasun eskubidea bermatu behar du, bai maila psikologikoan, baita maila fisikoan ere, eta haien egoera juridikoarekin lotutako partaidetza eskatzen duten beharrezko izapideak azkar, arin eta berehala betetzen lagundu behar du.

Txostenak argi erakusten du osasun-sistemak erantzun desberdinak ematen dituela, ondorengo faktoreen arabera: adin txikikoak harreran hartu dituen lurraldea, adin txikikoek duten beharrezko mota, edo Osakidetzaren eta dagokion babes-zentro edo babes-erakundearen artean laguntza-hitzarmena (formalizatua edo formalizatu gabea) izatea edo ez izatea.

Egoera hori konpontzea beharrezkoa eta premiazkoa da. Osasun-sistema publikoak adin txikiko horien osasun-eskubidea bermatu behar du, egoera edozein dela ere. Horretarako, esaterako, harreran hartutako adin txikikoen hasierako osasun-egoera nolakoa den aztertu behar da, txertoen egutegi bat osatu behar da, adin txikiko bakoitzari dagozkion Osasun Identifikazio Txartela eman behar zaio, beharrezkoak izan daitezkeen eta laguntza katalogoei dagozkien medikazioen edo esku-hartzeen gastuak onartu behar dira... Konpondu ez den beste beharrezko zehatz bat ez dago osasunarekin lotuta, do-

kumentazioa bideratzearekin baizik. Zenbait izapide egiteko, araudiak eskatzen dituen mediku-agiriak bidali behar dira.

26. Buruko osasun arazoaren eta drogen gehiegizko kontsumoaren gaineko arreta zehatza

Txosten hau burutzeko egin den informazio bilketan, bereziki zentroetako zuzendaritzak eta hezitzaileek, hazten doazen bi beharrian azaldu dizkigute eta, haien ustez, osasun-sistemak ez die erantzun nahikoa ematen. Batzuetan, elkartuta agertzen dira bi arazoak, baina berezko garrantzia dute:

- Buruko osasun arazoak;
- Osasunean eragin larriak dituzten eta droga kontsumoarekin lotura duten arazoak

Lehen kasuan, osasun-sistema publikoaren erantzuna guztiz eskasa dela ikus daiteke. Bigarrenean –gure artean baztertuak dauden kontsumoak, disolbagarriena bezala– ez dago erantzunik. Horren eraginez, beharrezkoa da arreta beste komunitate batzuetara bideratzea, Kataluniara edo Nafarroara esaterako, baita sistema publikotik kanpo laguntzak bilatzea ere.

Beharrek, arazoak agerian azaltzen direnean, adin txikikoen harreran eragina dute, baina baita informazioan eta prebentzioan, arazo horien antzematean, eta horien azterketan eta espezializazioan ere.

Agian, gomendio honetan eta aurrekoan adierazitako zenbait arazoren erantzun egokia Osakidetzarekin hitzarmen zehatz bat egiten datza. Lurralde historikoetako batean, berriki, abian jarri da laguntza zehatzetarako lankidetzeta-formula.

Gogoratzeko modukoa da, osasun-arretari dagokionez, Immigrazioaren Euskal Planak eta tokian tokiko beste zenbaitek osasunaren eta immigrazioaren arloan egin duten aurreikuspena; horren bidez, kultura arteko arloan ezagutza duten osasun eragile formalek edo ez-formalek bitartekari gisa parte hartzea ahalbidetzen da. Era berean, aipatzekoak dira, modu kontzeptualean eta kulturari dagokionez, osasun-sistema etorkinengana, hurrengana eta nerabeengana hurbiltzeko diseinatutako beste zenbait ekintza, nesken egoerak kontuan hartzen dituztenak.

EMANTZIPAZIO-AUKEREI DAGOKIENEZ

27. Autonomia-programak eta egoitza-baliabideak handitzea

Azken urteetan eta hilabeteetan ere, bereziki Bizkaian, nolabaiteko babes- eta tutoretza-maila duen etxebizitza-sare bat garatzen joan da; bakarrik dauden adin txikiko atzeritarrei, 18 urte betetzean, emantzipazioa errazteko helburua dute etxebizitza horiek. Zenbait kasutan, zerbitzu edo erakunde arduradunek bultzatzen dituzten programak edo baliabideak dira (bai babesekoak, baita gizarteratzeakoak ere). Bestetan, harrera-

zentroek kudeatzen dituzten zuzendaritzek edo elkarteek bultzatutako ekimenak dira, zentroan gauzaturiko hezkuntza-programa bukatu gabe geratuko bailitzateke, eta hori adin txikikoak gizarteratzea lortzeko eskasa izango litzatekeelako.

Arartekoaren ustez, adin txikikoen berehalako etorkizunerako esperentziarik positiboenetakoa da. Autonomia izateko prestatzen ditu eta haien egoera administratiboa erregulatu ezin izan duten eta oraingoz lan-merkatuan barneratzeko aukerarik ez duten gazteentzako benetako bermea da.

Esperientzia horiek bultzatu eta ebaluatu egin behar dira, ondorengo gaiak aztertuz: kanpoko hezitzaileen presentzia, jarraipen edo laguntza maila; adin txikikoak etxebizitzetan sartzeko erabilitako irizpideak; etxebizitzetan, bertako eta atzerriko adin txikikoak elkarrekin egotearen ondorioz sortzen den elkarbizitza; mantenuari buruzko irizpide ekonomikoak; erakundeen eta elkarten inplikazioa... Ziur aski, bi elementu elkartzea beharrezkoa da: batetik, guztientzako antzekoak diren oinarrizko zenbait irizpide, bultzatzen dituen erakundea edo elkarteak kontuan hartu gabe; bestetik, baliabideak dibertsifikatzeko beharra, eskakizun, kanpoko laguntza eta autonomia maila desberdinen arabera.

Hemen, lehenago aipatu den arriskua ez ahaztea komenigarria da: formula mota horiek –gure ustez, oso positiboak– lurralde bakar batean erabiltzen badira, baina ez besteetan, edo asko lurralde batean eta besteetan gutxi erabiltzen badira, lurralde horrek, bere lan onaren eraginez, eskaera gehiago izango ditu. Egokia izango litzateke emantzipatzeko aukerak guztietan batera garatzea.

28. Gizarteratzeko aukera ematen duten baimenak lortu arte erakundeen babesa mantentzea

Aurreko gomendioan, batez ere, ostatuaren gaia jorratu dugu, oinarrizko beharrezana eta, era berean, interes handiko esperientzia delako. Arartekoaren ustez, erakundeen konpromisoa behar duten beste bi beharrezan daude gutxienez. Laguntza ekonomikoari eta laguntza juridiko edo baimenen kudeaketen laguntzari buruz ari gara.

Datuek adierazten dutenez, harreran hartutako bakarrik dauden adin txikiko atzerritar askok, 18 urtera iristean, oraindik ez dute lan kontratazioa baimenduko liekeen egoitza- eta lan-baimenik lortu. Zenbait kasutan, harreran egondako denbora nahikoa izan ez delako horiek lortzeko; bestetan, izapidea behar baino gehiago luzatu delako.

Kasu horietan, erakundeek adin txikiko horiekiko duten konpromisoak autonomia ahalbidetuko dieten baldintzak bete arte jarraitu behar duela uste dugu. Horren bidez, geratuko litzatekeen bide bakarra ekidingo litzateke: bizimodua ateratzea eta delinkuentziara bideratuko lituzkeen dinamikan sartzeta.

ADIN TXIKIKO ATZERRITAR LEGE-HAUSLEEI DAGOKIENEZ

29. Babes-arduradunek eta gazte-justiziak arazoa elkarrekin aztertzea

Bakarrik dauden adin txikiko atzerritar gehienek ez dute justiziarekin arazorik eta ez dira inongo neurri judizialen xede. Hori gogoan izan behar da, haiei buruzko irudi publikoa, batzuetan, distortsionatua izaten baita; hala ere, zenbaitek badituzte arazo horiek –atzerritarrek ez diren beste nerabe edo gazte askok bezala–, normalean lapurreten edo erasoen bidez egindakoak, eta azken urteetan, barneratze-zentroetan haien kopurua edo proportzioa handituz joan da.

Datu hori kezkatzeko eta aztertzeko moduko elementu gisa hartu behar da. Baina, gainera, 4. gomendioan azaldu dugun moduan, babes sistemen arduradunen (foru aldundiak) eta gazte-justizia sistemaren (Eusko Jaurlaritza) arteko lankidetzak eskatzen du.

Arartekoaren ustez, elkarrekin egin beharreko azterketak bateratu egin beharko lituzke erreforman dauden adin txikiko atzerritarren hazkundearen arrazoiak eta bi sistemen arteko loturan orain arte antzemandako arazoak; gainera, aurreko txostenetan azaldu diren efektu kaltegarriak ekidin beharko lituzke, esaterako, ustez aukera eta itxaropen handiagoak eman ditzakeen erreforma-zentro batean sartzeko arauak urratzeko tentazioa, edo neurria bete ondoren erreforman jarraitzen saiatzea, hori guztia adin txikikoaren ezaugarriei egokitutako “irteera” bat ez izateagatik.

30. Esku-hartzeen jarraipena eta koherentzia bermatzea

Aurreko gomendioan planteatutako arrazoiak eta arazoak azterketaz gain, bi sistemetako (babesekoa eta erreformakoa) arduradunen, zerbitzuen eta zentroen arteko lankidetzak beharrezkoa da, adin txikiko bakoitzarekin gauzatzen diren esku-hartzeen jarraipena eta koherentzia bermatzeko.

Ikuspuntu horretatik, badirudi beharrezkoa dela informazio-elkartrukea eta prozesu judizialen azkartasuna hobetzea kasu bakoitzean; erreferentziazko pertsona edo pertsonak (tutore edo tutoreak) nor diren argitzea; “irteera” edo emantzipazioa elkarrekin lantzea; aurrerapen nahikoarekin, beti erabiliko diren tokiak edo baliabideak zehaztea (adibidez, aste bukaeretakoa irteeretakoa edo, barneraketa-neurria bukatuta, adin txikikoa babes sistemara itzultzen denerako); erabilgarri dauden zentroetatik edo baliabideetatik, kasu bakoitzaren beharrian eta ibilbiderako egokiena zein den zehazteko garaian irizpideak eta iritziak elkartrukatzeara...

BABESIK GABEKO ADIN TXIKIKO ATZERRITARREI DAGOKIENEZ

31. Neska adin txikikoak erabiltzen dituzten prostituzio-sareen polizia-ikerketa

Txosten honetan, bere aukerak eta mugak kontuan hartuta, harreran hartu diren eta bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera aztertu da. Harreran hartu ez diren

edo erakundeek harreran hartu ez dituzten adin txikikoak ez dira aztertu. Hala ere, baliteke, –eta txostenak horri buruzko zenbait zantzu jasotzen ditu– ezkutuko edo arretarik gabeko babesgabetasun egoerak egotea. Zentzu horretan, harreran hartutako neska atzerritarren kopuru eskasa deigarria da. Bestalde, jakina eta nabarmena da gure inguruan, prostituzioan diharduten emakume gehienek jatorri atzerritarra dutela eta horietako batzuk, itxuraz, oso gazteak direla.

Adin txikiko horien ahultasun eta babesgabetasun egoera zenbait txosten zehatzetik eta jendearen salaketetatik ondorioztatzen da. Oro har, kopuruari, iristeko moduari, egoerari eta beste hainbat ezaugarri buruzko daturik ez dago, bai horien ikusezintasunagatik, bai poliziaren jarraipena ekiditen duten mafiak daudelako. Hala ere, jardunbide desegokiei buruzko ezagutza badago: benetako adina ezkutatu eta, horren, ondorioz, zigorrezko ondorioak ekiditeko dokumentazioa faltsutzea. Horrela, prostituziorako eta neska adin txikikoen trafikatzailerak saretarako hartzen dira, eta horrek erakusten du haien egoeraren larritasuna. Jardunbide horiekin batera, jatorrizko herrialdean familiakoei mehatxuak egiten zaizkie. Beraz, haien ahultasunaz gain, haien familiekiko ardurak dute. Askotan, jatorrizko herrialdean, familiaren segurtasuna eta ongizatea hemen duten jarreraren menpe dago.

Gure ustez, zantzu eta praktika horiek poliziak prostituzio sareak aztertu beharko lituzkeela erakusten dute, gehiegikeria kasuak antzemateko eta adin txikikoen borondatearen aurka haiek erabiltzea ekiditeko, baita behar duten babes emateko ere.

32. Kalean, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei jarraipena egitea eta haiekin ahal den neurrian esku hartzea

Txostenak babesik gabeko beste egoera posiblei buruzko aztarnak agertu ditu: zentroetan ordu batzuk edo egun batzuk soilik igarotzen dituzten adin txikikoak, eta dirudienez, droga-salerosketan eta bizimodua beren kabuz ateratzen dihardutenak; beste nazionalitate batzuetako adin txikikoak (adibidez, Ekialdeko zenbait herrialdetakoak), kalean leku esanguratsua dutenak baina babes-zentroetan urriak direnak...

Kasu horietan ere –aurreko gomendioan planteatutako nesken kasuan bezala–, beharrezkoa izango litzateke poliziaren ikerketa edo daukagun informazio guztiaren azterketa gauzatzea; egoera horien jarraipena egitea eta ezagutza handiagoa izatea programen edo kaleko hezitzaileen bidez, arazo mota hori gehien pilatzen den tokietan, gutxienez.

33. Adin txikikoen eskubideen aurrean poliziaren errespetuzko trataera

Txostena eratzerakoan eskubide-urratze larriak detektatu ez den arren, azken urteetan, Arartekoa kezkatuta agertu da eta zenbait polizia-jardunen gainean esku hartu du: polizia-etxeke egonaldietan adin txikikoak atxilotuta daudeneko baldintzak, aldaketak gertatzen direneko baldintzak; taldeko ezagutza saioan erabilitako irizpideak; adin txikikoei buruzko datuen erabilera baina beren ezagutzarako ez diren helburuetarako... Horietako zenbait jardura zuzenduz joan dira, Ertzaintzaren jarduerarekin lotuta. Hala ere, txosten hau eratzeko egin diren bileretan, harrerako zerbitzuetako arduradunek eta profesionalek

haien kezka azaltzen jarraitu dute. Gaur egun, duela gutxi Arartekoaren aurrean aurkeztutako keza bat bideratzen ari da. Keza adin txikiko atzerritar batek aipatu poliziako agenteen eskutik tratatu txarrak jaso zituelako aurkeztu da.

Horregatik, babeseko ikuspuntu batetik, Arartekoak poliziaren ardura duten administrazioei hauxe adierazi nahi die: langileen aldetik, adin txikiko atzerritarrekiko indarkeriazko edo tratatu txarreko jarrerak ekiditeko. Adin txikikoekin harremanetan egongo direnen trebakuntza espezializatua eta adin txikiko pertsonen eskubideak urratzen dituen edozein jokoera aztertzea eta behar izatekotan, zuzentzea beharrezko kautelak eta bermeak dira, eta beharrezkotzat hartzen dira administrazioetarako nazioarteko hitzarmenetatik eta indarrean dagoen arauditik eratorritako konpromisoak betetzeko.

Beraz, harreran, harremanean, zaintzan eta beste edozein jardueretan edo esku-hartzean, Ertzaintzaren, Udaltzaingoareneko edo beste edozein polizia-agenteren jardueretan gogoratu behar dugu adin txikikoaren interes gorenak eta hartzen den edozein neurriren hezkuntza-izaerak garrantzia izan behar duela. Horren eraginez, adin txikikoei ematen zaien trataeran kontu handiagoa izan beharra dago.

Beraz, poliziak ustez adin txikikoa den pertsonaren bat aurkitzen duenean, babeserakundeek, osasun-zerbitzuen eta Fiskaltzaren koordinazio-protokoloak jarri behar dira martxan. Dauden agintaritzek haien interesak zaindu behar dituzte eta adin txikikoak ahalik eta kalterik txikienak jasan ditzan ahalegindu beharra dago, bere adina zehaztu eta babes-baliabide batean lekua egiten zaion arte, edonola ere, polizia-etxeko egonaldia luzatzea ekidinda.

INFORMAZIOAREN TRATAMENDUARI ETA BEHARREZKO GIZARTE MAILAKO SENTSIBILIZAZIOARI DAGOKIONEZ

34. Komunikabideetan berriei emandako trataerari buruzko kode deontologikoa

Talde zehatz batek gizarte mailan duen irudia sortzean eragin ukaezina dute komunikabideek. Lantzen ari garen gai honetan, gainera, adin txikiko pertsonen hitz egiten ari gara, eta hori dela eta, babes berezia dute beren irudiari dagokionez.

Arartekoak, txostena egiten ari zen bitartean eta lehenago, keza eta kezka-adierazpen ugari jaso ditu, zenbaitetan, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrekin lotutako gaiari komunikabideetan ematen zaien trataeragatik.

Bere garaian (2000. urtea), Euskal Herrian ezarritako komunikabide guztiek edo nagusiek, Immigrazioa Gizarteratzeko Foroak onartutako estilo-liburu bat idatzi zuten. Ez zituen zehazki adin txikiko atzerritarrei buruzko berriak aipatzen, atzerritar jatorri zuten edozein pertsonarenak baizik, baina, bertan lantzen ari garen gaiari dagokionez, guztiz baliagarriak eta aplikagarriak diren zenbait irizpide zeuden proposatuta. Bertan ezarritako irizpideen –komunikabideetako arduradunek adostutakoak– eta zenbait albisteek duten trataeraren arteko aldea izugarria da. Hori dela eta, gomendio honen bidez,

proposamen hori berriz ere hartu behar dela eta horrek indarrean jarraitu behar duela adierazi nahi da.

35. Polizia-iturriek eskaintako datuen jarraipena

Informazio jakin bati komunikabide zehatz batean ematen zaion trataera, betiere, berri-emaileen ardura izango da. Hala ere, zenbait datuk eta informaziok polizia-iturria dute jatorri bakar gisa.

Horri dagokionez, erakunde honek aurreko gomendio orokorretako batean aipatu duen bezala, ustezko arau-urratzaileei buruzko informazioa emateko garaian, beharrezko ez diren datuak (nazionalitatea, esaterako) ematea ekidin behar da, horrek taldearekiko efektu estigmatizatzailea duelako. Informazio mota horiek pisu handia dute jendearen iritzian eta bai Administrazioak, bai gizarte-erakundeek arrazakeriaren eta nazio edo etnia jatorriaren araberrako bazterkeria mota ororen kontra egiten dituzten ahaleginak kaltetu ditzakete.

Beraz, beharrezkoa da poliziako zerbitzuen agintari arduradunek irizpide argiak ezartzea haien iturriek eskaini behar dituzten datuen gainean, eta horiek behar bezala betetzen direla jakiteko horren jarraipen sistematikoa egin beharra dago.

36. Gizarte mailako sentsibilizazioa sustatzea

Atal honen hasieran azaldu dugun moduan, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren babesari dagokionez –beste gutxiengo taldeei edo bazterketa arriskuan daudenei dago-kienez bezala– gizarte mailako sentsibilizazioa beharrezkoa gertatzen da.

Zenbaitetan, administrazio arduradunek jasan izan dute ulermen eza edo ukazioa, adin txikiko horiei eskaintako harrera hobetzeraz zuzendutako ekimenak edo jarduerak proposatzeagatik: aurrekontua handitzeko aitzakiak, baliabide berriak irekitzeko ukazioa, bizilagunen kexak...

Aurreiritzi eta estereotipoak gainditzeak, beti, informazio egokia eta zenbait talderen edo pertsonen arteko ezagutza edo harremana erraztea eskatzen du. Arartekoaren ustez, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoerari dagokionez, horien egoera lantzea eta hobetzea beharrezkoa da

Alde batetik, beharrezkoa da haurren Konbentzioari buruzko eta adin txikikoen babes-araudiari buruzko sentsibilizazio eta hedapen handiagoa izatea, horrek gizarte mailako kontzientzia handitu eta gehiegikeriak eta tratu txarrak ekiditen lagunduko du eta.

Bestalde, gizarte mailako sentsibilizatorako ekimenak martxan jartzea beharrezkoa da. Horiek, populazio sektore hori talde homogeneoa eta gatazkatsua dela pentsarazten diguten estereotipo eta aurreiritziak gainditzea dute helburu. Iritzi hori ez dator bat adin txikiko guztien jarrerekin, askoz jota, egoera oso zehatzak bizi izan dituztenen jarrerekin baizik. Horri guztiari esker, harrera-ingurua hobetuko litzateke eta azken urteetan

bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei sarritan eman zaien informazio-trataeraren ondorioz dagoen gizarte mailako alarma baretuko litzateke.

**TXOSTEN HAU EGITEKO ERABILI
DIREN INFORMAZIO-ITURRIAK**

6. TXOSTEN HAU EGITEKO ERABILI DIREN INFORMAZIO-ITURRIAK

6.1. Harrera-zentroetarako eta zerbitzuetarako bisitak

2004ko maiatzaren eta uztailaren artean, Arartekoko langileak berriro bisitatu zituen berariak adin txikiko atzerritar arduradun gabeei zuzendutako egoitzazko zentro edo zerbitzu guztiak.

- Zabaltzen Zentroa, Araban.
- Zabaloetxe Zentroa (Loiu) eta Sagrada Familia (Bilbo), Bizkaian; eta baita Basauriko, San Inazioko eta San Adriango elkarbizitza-unitateak eta etxe funtzionalak (Bilbo), Urduñako Gabriel Maria de Ibarra Zentroa itxi ondoren data horietan ireki zirenak.
- Larrialdietarako Harrera-zentroa (Urnieta) eta Adin txikiko atzerritar arduradun gabeentzako egoitza (Martutene), Gipuzkoan.

Bisitaldi guztietan ikerketa-taldean aurretiaz ezarritako antzeko prozedura jarraitu zen; prozedura horretan, ad hoc diseinatutako tresnen laguntzaz ondoko egiteko hauek egin ziren:

- Zentroko oinarrizko dokumentazioa berrikustea: antolakuntza- eta funtzionamenduko ildoak, heziketa-proiektua, elkarbizitzarako arauak, memoriak,...
- Zentroko oinarrizko datuak biltzea eta eguneratzea.
- Zentroko langileei buruzko datuak biltzea.
- Zerbitzuen erabiltzaile diren adin txikikoei buruzko datuak biltzea eta eguneratzea.
- Zuzendariak elkarrizketatzea.
- Taldeko beste kideak elkarrizketatzea.
- Instalazioak bisitatzea eta bisitaldiaren emaitza erregistratzea, zenbait adierazleren arabera,
- Bisita egin zeneko unean zentroan hartuta zeuden zenbait adin txikiko elkarrizketatzea.
- Adin txikikoen espedienteen lagin bateko datuak berrikustea eta ateratzea.

Txosten honetako 1, 2 eta 3 eranskinetan horretarako erabilitako tresna batzuk biltzen dira. Hain zuzen ere:

- Instalazioak bisitatu ondoren eta zuzendariak nahiz hezitzaileak elkarrizketatu ondoren aztertutako eta berrikusitako elementuen zerrenda (1. eranskina).
- Adin txikikoei egindako elkarrizketak egituratzeko aurreikusitako sei eremuak (2. eranskina).
- Espedienteen informazioa aztertzeke eta husteko datu-bilketaren fitxa (3. eranskina).

Aztertutako espediente- eta elkarrizketa-kopuruei dagokienez, kasuan kasu zentroaren tamainaren eta unean uneko aukeren arabera (hezitzaileen txandak; bisita egin zen unean bertan zeuden adin txikikoak,...) doitzen joan ziren, beti kopuru horiek eta ordezkapen-maila nahikoak izatea bilatzen.

Nolanahi ere, bertan zeuden hezitzaileei eta adin txikikoei Arartekoko langileekin pribatuan elkarrizketatzeko aukera eman zitzaizen, betiere hala nahi izanez gero eta elkarrizketatu beharreko pertsonen lagunean hautatuak izan ala ez.

Elkarbizitza-unitate txikietan, zuzendaririk ez dagoenez eta modu kolegiatuan funtzionatzen dutenez, talde osoarekin egin ziren bilerak. Bestalde, zenbait zentroetan, bisita egin zen unean oso adin txikiko gutxi zeuden bertan, eta, ondorioz, beste hitzordu batzuk zehaztu ziren, elkarrizketa gehiago egiteko.

Bisitaldien ondoren, behin horiek idatzi ondoren, zentro bakoitzean ikusitako egoera deskribatzen eta baloratzen duten txosten-zatiak igorri zitzaizkien, egoki irizitako zuzenketak edo ñabardurak proposatu zitzaizkien. Hemen eskaintzen diren testuak, Txosteneko 3. kapitulukoak (3.2.3., 3.3.3. eta 3.4.3.), bide horretatik jasotako oharra edo iradokizunak biltzen dituzte.

Nolanahi ere, argi eduki behar da, Bizkaiko elkarbizitza-unitateak bezalako egoitzazko baliabide oso berriei buruz izan ezik, bazela lehendik ere zentro horiei buruzko ezagutza oso zabal bat, aurreko urteetan egin ziren aldizkako bisitaldien ondorio.

6.2. Ahozko iturriak: elkarrizketak eta bilkurak

Aurreko atalean zehaztu den bezala, zentroetara edo egoitzazko baliabideetara egin ziren bisitaldietan, zuzendariak, hezitzaileak (normalean txanda desberdinetakoak edo funtzio eta ardura desberdinetakoak) eta hartutako adin txikikoen lagin zabal bat (guztira 38: 33 mutil eta 5 neska) elkarrizketatu ziren. 1. eta 2. eranskinak ere aipatu dira, eta horietan elkarrizketetan landutako elementuak eta eremuak jasotzen dira.

Elkarrizketen ondorioz jasotako informazioaren gainean txosten honetan egiten den aprobeitxamenduari dagokionez, aprobeitxamendu hori bikoitza izan da:

- Zenbait kasutan, txostenak zehazki islatzen du eskuratutako informazioa, informazio horri berezko izaera emanaz. Hori gertatzen da, adibidez, adin txikikoei egindako elkarrizketetan jasotako informazioaren zati handi batekin. Informazio hori txosten honetako 2.4 eta 3.7 ataletan eta 7. eranskinean laburbildu eta eskaini da, zenbait datu ezkutatu, adin txikikoak identifikatzea eragozteko.

- Beste kasu batzuetan, bereziki elkarrizketetan zehar egindako zerbitzuen balorazioei dagokienez, edo planteatutako hobekuntza-proposamenei dagokienez, oro har, txostenean ez dira halakotzat agertzen, zentro bati edo pertsona bati lotuak; izan ere, horiek balorazio orokorra egiteko (4. kapitulua) beste elementu bat gehiago edo gomendio bat gehiago (Txosteneko 5. kapitulua) bezala hartu dira kontuan.

Bisitaldietan zehar zentroetan egin diren elkarrizketa horiez guztiez gain, txostenaren prestatze-prozesuaren amaieran (2004ko abendua) hainbat bilkura deitu ziren, Arartekoak gomendio moduan egin nahi zituen hobekuntza-proposamenen egokitasuna edo bideragarritasuna kontrastatzeko xedez.

Abenduan zehar, hain zuzen ere, hiru bilkura egin ziren helburu horrekin. Bilkura horietara beren ezagupenengatik, esperientziagatik edo adin txikiko atzerritar arduradun gabeeekin inplikazio zuzena izateagatik hautatuak izan ziren zenbait pertsona deitu ziren. Hiru bilkuren helburua berdina bazen ere, hiru ikuspegi desberdinetatik heldu nahi zitzaion gaiari. Funtsean: harrera-zentroetako zuzendariena, zerbitzu eta elkarte desberdinetako hezitzaileena, eta erakundeetako edo programa eta zerbitzu desberdinetako arduradunena.

Deitutako pertsonak, bilkuretan parte hartu zutenak, ondoko hauek izan ziren:

- Nerea Fernández (Gipuzkoako harrera-zentroetako zuzendari-koordinatzailea)
- Carlos Sagardoy (Bizkaiko Zabaloetxe Zentroko zuzendaria)
- Eduardo Echavarrri (Arabako Zabaltzen Zentroko zuzendaria)
- Marta Saiz (Loiuko Zabaltzen Zentroko hezitzailea)
- Diego de Cristóbal (Arabako Zabaltzen Zentroko hezitzailea)
- Olatz Mendizabal (Urnietako Larrialdietarako Harrera-zentroko hezitzailea)
- Amaia Tomé (Goiztiri Elkarteak kudeatzen duen emantzipazio-etxebizitza batetako hezitzailea)
- Aitor Zaldua (Zumarragako Ibaiondo Zentroko hezitzailea)
- Nortzu Marcos (Erandioko LHZko irakaslea)
- Gorka Saitua (Bizkaian dokumentazioa izapidetzen duen Bizgarri erakundeko langilea)
- Moulay Driss Sadik (Bilboko komunitate marokoarreko ordezkaria)
- Iñigo Pombo (Bizkaiko Foru Aldundiko Haurren, Emakumeen eta Ezinduen zuzendaria)
- Francisco Sandin (Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietako zuzendaria)
- Isabel Gros (Arabako Foru Aldundiko Adin Txikikoaren eta Familiaren zuzendariorde teknikoa)
- Patxi Agiriano (Gipuzkoako Foru Aldundiko Haurren, Gazteen eta Garapenerako Kooperazioaren zerbitziburua)
- Alberto Agirreazaldeggi (Inmigrazio-programaren arduraduna, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean)
- Patxi López Cabello (Eusko Jaurlaritzako Gazteriaren Justiziako zerbitziburua)

Ez zuten bertaraterik izan, arrazoi desberdinak direla-eta, zenbait alorretan (adin txikikoen fiskaltza; Magrebko komunitateekiko harremana; elkarbizitza-unitate txikietako

lana; Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentua) duten espezializazioari edo erantzukizunari gonbidatuak izan ziren lau pertsona.

Ararteko erakundearen aldetik ondoko hauek parte hartu dute: Arartekoak berak, Iñigo Lamarca, Julia Hernandez albokoak eta txostena prestatzearen arduradun den Fermín Barcelók. Bilkura guztietan parte hartu zuen baita ere Isabel Berganzak, Ararteko erakundearen laguntzaile gisa lan honetan. Jaume Funesek, Kataluniako adin txikikoaren eskubideentzako Sindic de Greuges delakoko albokoak, berriz, bilkura batean parte hartu zuen.

Bilkurei esker, aurreikusitako hogeita hamar gomendioen inguruan eztabaidatu eta hitz egin zen, eta horiei buruzko zehaztasunak egin ziren. Gomendio horien zerrenda aurretiaz igorri baitzen deitutako pertsona guztiei, nahikoa aurrerapenekin. Baina horrez gain, hasiera batean aurreikusita ez zegoen beste hobekuntza-proposamenen bat jasotzeko aukera ere izan zen, gomendioren bati beste batzuen gainean ematen zitzaion garrantzia azpimarratzeko, edo, parte hartzaileen iritziz, behar bezala jasota ez zeuden arazo batzuk nabarmentzeko.

Jorratu diren ideia asko Txosten honetako 5. kapituluaren (“Gomendioak”) behin betiko idazketan sartu nahi izan dira.

6.3. **Kontsultatu diren dokumentazio-iturriak**

ARARTEKO

- EUSKADI. Arartekoa. *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuak EAEn*. Gasteiz: Arartekoa 1997. Eskuragarri: www.ararteko.net
- EUSKADI. Arartekoa. 1.1.6. EAEn babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako laguntza kontrolatzeko jardueren jarraipena. Eusko Legebiltzarrarentzako 1998. urteko txostenean. Gasteiz: Arartekoa, 1999. Eskuragarri: www.ararteko.net
- EUSKADI. Arartekoa. 1.1.5. EAEn babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako laguntza kontrolatzeko jardueren jarraipena. Eusko Legebiltzarrarentzako 1999. urteko txostenean. Gasteiz: Arartekoa, 2000. Eskuragarri: www.ararteko.net
- EUSKADI. Arartekoa. 1.1.5. EAEn babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako laguntza kontrolatzeko jardueren jarraipena. Eusko Legebiltzarrarentzako 2000. urteko txostenean. Gasteiz: Arartekoa, 2001. Eskuragarri: www.ararteko.net
- EUSKADI. Arartekoa. 1.1.5. EAEn babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako arreta kontrolatzeko jarduketan jarraipena. Eusko Legebiltzarrarentzako 2001. urteko txostenean. Gasteiz: Arartekoa, 2002. Eskuragarri: www.ararteko.net
- EUSKADI. Arartekoa. 1.1.5. EAEn babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako laguntza kontrolatzeko jardueren jarraipena. Eusko Legebiltzarrarentzako 2002. urteko txostenean. Gasteiz: Arartekoa, 2003. Eskuragarri: www.ararteko.net
- EUSKADI. Arartekoa. 1.1.5. EAEn babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako laguntza kontrolatzeko jardueren jarraipena. Eusko Legebiltzarrarentzako 2003. urteko txostenean. Gasteiz: Arartekoa, 2004. Eskuragarri: www.ararteko.net

Bestelako dokumentuak

- EUSKADI. Arartekoa. Espedienteak:
 - 51/1999/09O espedientea, *Adin txikiko arau-hausleekin esku-hartzea* txostenean jasotako gomendioen jarraipenari buruzkoa. Arartekoa, 1999ko azaroak 19.
 - 33/2000/09O espedientea, adin txikiko arau-hausleen eskolatzeari buruzkoa. Arartekoa, 2000ko azaroak 13.
 - 43/2000/09O espedientea, adin txikiko arduradun gabeei buruzkoa. Arartekoa, 2000ko uztailak 14.
 - 44/2000/09O espedientea, adin txikiko arduradun gabeen arretari buruzkoa. Arartekoa, 2000ko uztailak 28.
 - 5/2001/09O espedientea, adin txikiko arduradun gabeei buruzkoa. Arartekoa, 2001eko ekainak 15.
 - 6/2001/09O espedientea, Zabalotxe Zentroari buruzkoa. Arartekoa, 2001eko ekainak 15.
 - 43/2001/09O espedientea, “Gabriel Maria de Ibarra” eta “Zabalotxe” zentroetako hezkuntza-beharrei buruzkoa. Arartekoa, 2001eko irailak 14.
 - 47/2001/09O espedientea, *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza-zerbitzuak* txostenaren jarraipenari buruzkoa. Arartekoa, 2001eko urriak 29.
 - 48/2001/09O espedientea, *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza-zerbitzuak* txostenaren jarraipenari buruzkoa. Arartekoa, 2001eko urriak 29.
 - 49/2001/09O espedientea, *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza-zerbitzuak* txostenaren jarraipenari buruzkoa. Arartekoa, 2001eko urriak 29.
 - 50/2001/09O espedientea, *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza-zerbitzuak* txostenaren jarraipenari buruzkoa. Arartekoa, 2001eko urriak 29.
 - 51/2001/09O espedientea, *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza-zerbitzuak* txostenaren jarraipenari buruzkoa. Arartekoa, 2001eko urriak 29.
 - 2/2003/09O espedientea, adin txikiko atzerritar arduradun gabeen eskolatzeari buruzkoa. Arartekoa, 2003ko urtarrilak 15.
 - 3/2003/09O espedientea, adin txikiko atzerritar arduradun gabeei buruzkoa. Arartekoa, 2003ko urtarrilak 15.
 - 10/2003/09O espedientea, agirien izapidetzerako irizpideei buruzkoa (Gipuzkoako Foru Aldundia). Arartekoa, 2003ko martxoak 6.
- EUSKADI. Arartekoa. *Zabalotxe Egoitzazko Zentroaren tutoretzapeko sei marrokarri, salbuespeneko egoerak direla-eta, egoitza-baimenak emateari buruzko ofizioa* (Bizkaiko Gobernuaren Ordezkaritza, Bilbo, 2003-04-11).
- EUSKADI. Arartekoa. Galdetegia – harreran hartutako adin txikikoei elkarrizketak.
- EUSKADI. Arartekoa. “Arrisku egoeran edo babesik gabe dauden adin txikikoentzako egoitzazko zerbitzuen ebaluazioa” galdetegia.
- EUSKADI. Arartekoa. Harreran hartutako adin txikiko desberdinek salbuespenezko egoeratan egoitza-baimenak lortzeari buruzko dokumentazioa eta idatziak.

LURRALDE HISTORIKOAK

- ARABA. Foru Aldundia. *Arabako Lurralde Historikoan hurrei zuzendutako Gizarte-zerbitzuentzako jarduketa-gida*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 2004.
- BIZKAIA. Foru Aldundia. *Gizartekintza Saila. Haurrentzako plana, babesik gabe dauden hurrei laguntzekoa*. [Bilbo]: Bizkaiko Foru Aldundia, 2000 LD.
- BIZKAIA. Foru Aldundia. *Umeen Zerbitzua. 2004ko programak, zerbitzuak eta prestazioak*. [Bizkaia]: Bizkaiko Foru Aldundia, Umeen Zerbitzua, [2005].
- BIZKAIA. Foru Aldundia, *Gizartekintza Saila. 2004-2007 Plan estrategikoa* [sarean]. Eskuragarri: www.bizkaia.net/gizartekintza/pdf/ca_plan2004.pdf
- BIZKAIA. Foru Aldundia. *Gizartekintza Saila. Atzerriko adin txikikoekin egiten diren programak* [sarean]. Eskuragarri: www.eskuar.bizkaia.net/Gizartekintza/Haurrak/cae_h62.htm
- GIPUZKOA. *Gizarte Politikarako Departamentua. Babesik gabeko egoeran dauden haur eta gazteak zaintzeko plana* [sarean]. Eskuragarri: www.gipuzkoa.net

Bestelako dokumentuak

- ARABA. Foru Aldundia. *2002. urtean Arabako Lurralde Historikoan zerbitzua jaso duten adin txikiko atzerritar arduradun gabeei buruzko txostena*. Gasteiz, 2003.
- ARABA. Foru Aldundia, *Gizarte Gaietako Saila. Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak 2004ko maiatzaren 13an Arartekoak egin zion eskaerari erantzunez igorri zuen txostena*, adin txikiko atzerritar arduradun gabeek Arabako Lurralde Historikoan duten egoerari buruzkoa. Gasteiz, 2004ko ekainak 28 (planteatutako 12 gaiei erantzuna eta eranskinak).
- ARABA. Foru Aldundia, *Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea*. “Adin txikiko atzerritar arduradun gabeen egoitzazko harrerarako programa” (2003ko ekainean, Zabaltzen Zentroa ireki zenean, egindako agiria).
- BIZKAIA. Foru Aldundia, *Gizartekintza Saila. Umeen zerbitzuburuaren txostena, 2004ko azaroaren 30ekoa, adin txikiko atzerritarren egoitzazko harrerarako Bizkaiko Zentroei dagozkien testuei buruzkoa*.
- BIZKAIA. Foru Aldundia, *Gizartekintza Saila*. “Adin txikiko atzerritar arduradun gabeen protokoloa” (Haurren Behatokiak onetsitako “Adin txikiko atzerritar arduradun gabeentzako protokoloaren” zehaztapena; Bizkaiko Foru Aldundiko Umeen Zerbitzuak egina, harrerarako egoitzazko zentroetako zuzendariekin eta Foru Aldundiko dokumentazio-taldearekin lankidetzan). Barne-dokumentua. 2004.
- BIZKAIA. Foru Aldundia, *Gizartekintza Saila. Hezkuntza-proiektua. Adin txikiko atzerritar arduradun gabeiei arreta eskaintzeko elkarbizitza-unitate txikiak*. Barne-dokumentua, 2004.
- BIZKAIA. Foru Aldundia, *Gizartekinza Saila. Arartekoak adin txikiko atzerritar arduradun gabeiei buruzko azterketa monografikoa egiteko datuei buruz egindako informazio-eskaerari erantzuna*. Bilbo, 2004 (Arartekoak 2004ko maiatzaren 13an igorritako idatzian planteatutako 12 galderei erantzuna, eta eranskinak).

- BIZKAIA. Foru Aldundia, Gizartekintza Saila. *Adin txikiko atzerritar arduradun gabeiei arreta eskaintzeko elkarbizitza-unitate txikiak. Barne-erregimeneko araudia. Barne-dokumentua. 2004.*
- LARRIALDIETARAKO HARRERA ZENTROA. (ADIN TXIKIKO ATZERRITAR ARDURADUN GABEAK – URNIETA). *Espainiako Gurutze Gorriko gizarte-zailtasunetan dauden adin txikoen eta gazteen egoitzazko harrerarako adierazleak, memoria eta proiektuak, 2002. urtea.*
- GABRIEL MARIA DE IBARRA EGOITZAZKO ZENTROA. *“Gabriel Maria de Ibarra” zentroak 2001. urtean izan duen okupazioari buruzko txostena. Urduña, 2002.*
- GABRIEL MARIA DE IBARRA EGOITZAZKO ZENTROA. *Adin txikiko atzerritarren proiektua. 2002ko memoria.*
- ZABALOETXE EGOITZAZKO ZENTROA. *Dokumentazioa, 2001. urtea:*
 - Egoera 2001eko martxoan.
 - Erandioko Ertzaintzarekiko bilkura.
 - Fiskaltzaren dokumentua.
 - Arartekoaren txostena eta erantzuna.
 - 1996-2000 bitarteko bilakaeraren txostena.
 - San Jose Artisaua Zentroa berregituratzeko eta portaera-arazo larriak dituzten adin txikikoentzat eta adin txikiko atzerritar arduradun gabeentzat egoitzazko unitate bereziak sortzeko proposamena.
 - *Hirugarrendar Kaputxinoekiko 2000. urteko hitzarmena.*
 - Hezkuntza-proiektua, barne-erregimeneko araudia, erregistro-orriak, egiten ari diren protokoloak.
 - 2001. urterako hitzarmenerako aldaketa-proposamena. Hitzarmen berrirako proposamena.
 - Portaera-arazo larriak dituzten adin txikikoak hartzen dituzten moduluetan hartutako adin txikikoen profil laburra.
 - Adin txikikoekiko gatazka- eta eraso-arazoei heltzeari buruzko oinarrizko dokumentazioa.
 - Aztertzen ari diren protokoloak.
- ZABALOETXE EGOITZAZKO ZENTROA. *Dokumentazioa, 2004. urtea:*
 - Egoera edo gatazka larrien aurrean jarduteko berariazko gela.
 - Adin txikiko atzerritar arduradun gabeen protokoloa.
 - Administrazio-prozedura (ez behin betikoa).
 - Ihesetarako protokoloa.
 - Zitazio judizialerako protokoloa.
 - Gizarte- eta hezkuntza-harrerarako eta esku-hartzerako prozesua.
 - Beharren zerrenda (2004ko otsaila).
- ZABALOETXE EGOITZAZKO ZENTROA. *2001eko Zabaloetxe Egoitzazko Zentroaren “Adin txikiko atzerritarren programaren” memoria, 2001. urtekoa. Loiu, 2002.*

- ZABALOETXE EGOITZAZKO ZENTROA. *2001eko Zabaloetxe Egoitzazko Zentroaren “Adin txikiko atzerritarren programaren” memoria, 2002. urtekoa.* Loiu, 2003.
- ZABALOETXE EGOITZAZKO ZENTROA. *2001eko Zabaloetxe Egoitzazko Zentroaren “Adin txikiko atzerritarren programaren” memoria, 2003. urtekoa.* Loiu, 2004.
- ZABALOETXE EGOITZAZKO ZENTROA. *2001eko Zabaloetxe Egoitzazko Zentroaren “Adin txikiko atzerritarren programaren” memoria, 2004. urtekoa.* Loiu, 2005.
- ZABALOETXE EGOITZAZKO ZENTROA ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. *Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea. Adin txikiko atzerritarren proiektua. 2001eko memoria.* Loiu.
- SAN JOSE ARTISAUA IKASTETXEA
 - Loiu San Jose Artisaua Zentroko hezkuntza-proiektuaren zirriborria.
 - Loiu San Jose Artisaua Zentroko barne-erregimeneko araudiaren zirriborria.
 - 1996. urtean Loiu San Jose Artisaua Zentroan hartutako nerabe atzerritarren zerrenda.
 - 1997. urtean Loiu San Jose Artisaua Zentroan hartutako nerabe atzerritarren zerrenda.
 - 1998. urtean Loiu San Jose Artisaua Zentroan hartutako nerabe atzerritarren zerrenda.
 - 1999. urtean Loiu San Jose Artisaua Zentroan hartutako nerabe atzerritarren zerrenda.
- GURUTZE GORRIA (Gipuzkoa). *Gipuzkoako adin txikiko atzerritar arduradun gabeentzako zentroari buruzko datuak, 1996., 1997., 1998. eta 1999. urtekoak.*
- GURUTZE GORRIA (Gipuzkoa). *2003ko memoria.* M.E.N.A.
- GIPUZKOA. *Gizarte Zerbitzuen Departamentua. 2002. urteko egoitzazko harre-
raren ebaluazioa.*
- GIPUZKOA. *Gizarte Politikarako Departamentua. Adin txikiko atzerritar arduradun gabeei buruzko informazioa (2004ko abuztuak 18an mendekotasunaren eta babesgabetasunaren arretarako bulegoko Zuzendari Orokorrak Arartekoak 2004ko maiatzaren 13an igorritako eskaerari erantzunez bidalitakoa).*
- GIPUZKOA. *Gizarte Politikarako Departamentua. Gipuzkoako 2001. urteko adin txikiko arduradun gabeei buruzko datuak.* Donostia, 2002.
- GIPUZKOA. *Gizarte Politikarako Departamentua. Adin txikiko arduradun gabeak. II. Funtzionamendu-irizpideak.* Donostia, 2003.
- GIPUZKOA. *Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzerako Departamentua. Adin txikiko atzerritar arduradun gabeekiko jardueri buruzko txostena (2004ko ekainaren 30ekoa, Arartekoak 2004ko maiatzaren 13an egin zuen eskaerari erantzunez Haurren, Gazteen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak egina).*
- GIPUZKOA. *Laguntza Teknikoko Zerbitzua. Egoitzazko Harrera Sistemaren Urteko Ebaluazioa (2. zatia), 2002.*
- GIPUZKOA, *Laguntza Teknikoko Zerbitzua. Beharren eta baliabideen ebaluazioa. M.E.N.A.- Gurutze Gorria, 2002.*

- ADIN TXIKIKO ATZERRITAR ARDURADUN GABEENTZAKO EGOITZA TXIKIA (Martutene). *Espainiako Gurutze Gorriko gizarte-zailtasunetan dauden adin txikoen eta gazteen egoitzazko harrerarako adierazleak, memoria eta proiektuak, 2002. urtea.*
- SAGRADA FAMILIA EGOITZA. *Hezkuntza-proiektua.* 1997.

Erreferentziako araudia

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren urtarrilaren 30eko 4/2001 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko gizarte-zerbitzuen sistema arautzen duena (GAO 31 zk., 2001eko otsailaren 13koa).
- Bizkaiko Foru Aldundiko otsailaren 6ko 17/2001 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailaren Araudi Organikoa onesten duena (BAO, 36 zk., 2001eko otsailaren 20koa)
- Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 20ko 67/2004 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailaren Araudi Organikoa onesten duena (BAO, 80 zk., 2004ko apirilaren 29koa)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak eta laneratzeko Bilboko Landalan Elkarteak izenpetuko duten lankidetza hitzarmena onartzea, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei laguntza zerbitzua emateko. (BAO, 226 zk., 2004ko azaroaren 23koa)
- Bizkaiko Foru Aldundia, Gizartekintza Saila eta TAMAZIGHT elkarte (orain AZRAF Marokoko Etorकिन Elkaratea Euskadin) elkartearen eta Iniciativa Gitana elkartearen arteko lankidetza-hitzarmena, jatorri magrebtarra eduki eta bakarrik dauden atzerriko adin txikikoekin Esku hartzeko Proiektua (BAO 40 zk., 2003ko otsailak 27)
- 2002ko martxoaren 6an Foru Diputatuaren eta Hirugarrendar Kaputxinoen Kongregazioaren artean sinatutako hitzarmena, Zabaloetxe Egoitzazko Zentroa kudeatzeko.
- Laguntzarik gabeko adingabe atzerritarrak etxeetan hartzeko programa garatzen laguntzeko lankidetza-hitzarmena (ALHAO 143 zk., 2003ko abenduak 10).
- Bizkaiko Foru Aldundiaren -Gizartekintza Saila- eta Hirugarrendar Kaputxinoen probintziako kongregazioaren arteko lankidetza-hitzarmenaren hamaikagarren klausularen aldaketa, eta Hitzarmena 2004ko ekitaldira arte luzatzea (2003ko abenduak 30).

EUSKADI - EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

- EUSKADI. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Inmigratioari buruzko Euskal Plana 2003-2005 [sarean]. Eskuragarri: <http://www.gizartegaiak.ej-gv.net/GizarteGaiakContenidos/pdf/PLANVASCOINMIGRACION.pdf>
- EUSKADI. Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza Saila. *Gazteriaren Justizia Zerbitzuaren lanaren memoria: 2003. urtean Adin Txikikoen Epaitegiek EAEn ezarritako neurrien burutzapenaren azterketa.* Gasteiz, 2004.

Bestelako dokumentuak

- EUSKADI. Osakidetza. *Loiuko Zabaloetxe adin txikikoen harrera-zentroko etorkinei osasun-arreta eskaintzeko protokoloa* (Barne-dokumentua, eguneratzea: 2004ko maiatza).
- EUSKADI. Etxebizitza eta Gizarte Gaiak Saila. EAeko HELDU sarea (2003ko urriaren 23ko dokumentua).

Erreferentziako araudia

- Azaroaren 25eko 27/1983 LEGEA, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremanei Buruzkoa. (EHAA 182 zk., 1983ko abenduak 10) [sarean]. Eskuragarri: www.parlamento.euskadi.net
- 5/1996 LEGEA, urriaren 18koa, Gizarte Zerbitzuena (EHAA 218 zk., 1996ko azaroak 12) [sarean]. Eskuragarri: www.parlamento.euskadi.net
- 3/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko. (EHAA 59. zk., 2005eko martxoak 30) [sarean]. Eskuragarri: www.parlamento.euskadi.net
- 155/2001 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, gizarte-zerbitzuen alorreko egitekoak zehazteko dena. (EHAA, 165 zk., 2001eko abuztuak 27).
- 64/2004 DEKRETUA, apirilaren 6koa, zeinaren bidez onartu baita euskal autonomia erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharraren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea. (EHAA, 76. zk., 2004ko apirilak 23).
- Euskal Autonomia Erkidegoko adin txikikoen epaitegiek ezarritako neurriak gauzatzeko plana 2004-2007, Gobernuaren Kontseiluak 2004ko azaroaren 4an onetsia, eta Eusko Legebiltzarreko Erakunde eta Herrizaingo Batzordeak proposamenekin 2005eko otsailaren 9an onetsia [sarean]. Eskuragarri: www.parlamento.euskadi.net

BESTE AUTONOMIA ERKIDEGOAK

- ANDALUZIA. Haurren eta Familiaren Zuzendaritza Nagusia. *Informe: menores extranjeros no acompañados*. Sevilla: Andaluziako Junta, Gizarte Gaietarako Kontseilaritza, 2001.
- MADRIL. Madrilgo Erkidegoko Herriaren Defendatzailea. La integración de los menores de origen extranjero de la Comunidad de Madrid: Necesidades, derechos y actuaciones [sarean]. *Estudios e Investigaciones*, 2002. Eskuragarri: www.dmenor-mad.es/pdf2002/parte7.pdf

GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK

- NAZIOARTEKO AMNISTIA. Espainiako atala. *España: Los menores extranjeros no acompañados y sin papeles están en riesgo. Preocupación por una instrucción*

- discriminatoria del Fiscal General del Estado que viola la Convención de Derechos del Niño y vulnera derechos fundamentales de los menores (noviembre 2003)* [sarean]. Eskuragarri: www.amnesty.org
- NAZIOARTEKO AMNISTIA eta BELAOUNI, Benaissa. *España: Racismo y malos tratos. Malos tratos bajo custodia de la policía. Malos tratos por motivos raciales en España* [sarean]. Eskuragarri: www.amnesty.org/library/print/ESLEUR410032002
 - ERREFUXIATUARI LAGUNTZA EMATEKO ESPAINIAKO BATZORDEA. *Informe sobre la situación de la determinación de la edad a menores no acompañados en España*. Madril, 2002.
 - ERREFUXIATUARI LAGUNTZA EMATEKO ESPAINIAKO BATZORDEA. *Menores extranjeros no acompañados y solicitantes de asilo: Compatibilidad entre su regularización y el derecho de asilo* (Errefuxiatuari Laguntza Emateko Batzordearen dokumentua, "Protección jurídica de los menores extranjeros no acompañados" mintegian emana, Madril 2004-09-24).
 - SOS-ARRAZAKERIA FEDERAZIOA. *Menores en las fronteras: De los retornos efectuados sin garantías a menores marroquíes y de los malos tratos sufridos* [sarean], 2004. Eskuragarri: www.udg.es/congres_immigracio/meses/taula04/comunicacions/M4C-Ruiz.PDF
 - HUMAN RIGHTS WATCH. *España y Marruecos, callejón sin salida: Abusos cometidos por las autoridades españolas y marroquíes contra niños migrantes* [sarean]. *Human rights Watch*, 15. alea, 4(D) zk. (2002ko maiatza). Eskuragarri: www.hrw.org/spanish/informes/2002/callejon.html
 - HAURREN ERAKUNDEEN PLATAFORMA. *Informe sobre la situación de los menores de origen extranjero en la Comunidad de Madrid*. Madril, 2003.
 - HAURREN ERAKUNDEEN PLATAFORMA. *Propuestas para una estrategia de protección social a la infancia. Conferencia de Infancia 2003*. Madril, 2004.
 - SAVE THE CHILDREN. *Menores no acompañados. Informe sobre la situación de los menores no acompañados en España*. Madril, 2004.

HERRIAREN DEFENDATZAILEAK

- ANDALUZIA. Defensor del Menor de Andalucía-Defensor del Pueblo Andaluz. *Menores inmigrantes en Andalucía: la atención en los centros de protección de menores* [sarean]. Sevilla: Andaluziako herriaren defendatzailea, 2003. Eskuragarri: www.defensor-and.es/informes/ie-menores_inmigrantes.htm
- KANARIAR IRLAK. Diputado del Común. *Estudio sobre la situación de los menores nacionales y extranjeros no acompañados en el centro de acogida inmediata de La Cuesta (Tenerife)* [sarean]. 2004. Eskuragarri: www.diputadodelcomun.com/v2/estudioCAI.pdf
- KATALUNIA. Síndic de Greuges. *Informe extraordinari del Síndic de Greuges al Parlament de Catalunya sobre els centres d'acolliment per a infants i adolescents deseparats de Catalunya, any 1999 (Tram.360-00001/06)* [sarean]. (Butlletí Oficial del Parlament de Catalunya, 12. zk., 2000ko ekainak 5). Eskuragarri: www.sindicgreugescat.org

- ESPAINIA. Defensor del Pueblo. Menores extranjeros no acompañados. *Informe a las Cortes Generales 2004* txostenaren barruan [sarean]. Madril: Herriaren defendatzailea, 2005. Eskuragarri: www.defensordelpueblo.es/index.asp?destino=informes1.asp
- ESPAINIA. Defensor del Pueblo. Menores extranjeros no acompañados. *Informe a las Cortes Generales 2003* txostenaren barruan [sarean]. Madril: Herriaren defendatzailea, 2004. Eskuragarri: www.defensordelpueblo.es/index.asp?destino=informes1.asp
- ESPAINIA. Defensor del Pueblo. Menores extranjeros no acompañados. *Informe a las Cortes Generales 2002* txostenaren barruan [sarean]. Madril: Herriaren defendatzailea, 2003. Eskuragarri: www.defensordelpueblo.es/index.asp?destino=informes1.asp
- ESPAINIA. Defensor del Pueblo. Recomendación sobre documentación de menores extranjeros no acompañados y sobre la forma en que se debe actuar cuando estos llegan a la mayoría de edad sin haber sido documentados a la Delegación del Gobierno en la Ciudad Autónoma de Melilla. *Informe a las Cortes Generales 2004* txostenaren barruan [sarean]. Madril: Herriaren defendatzailea, 2005. Eskuragarri: www.defensordelpueblo.es/index.asp?destino=informes1.asp

Bestelako dokumentuak

- ESPAINIA. Defensor del Pueblo. *Oficio a la Consejera de Bienestar Social y Sanidad sobre menores extranjeros no acompañados en la Comunidad Autónoma de Ceuta y Melilla*. Madril, 2002.
- ESPAINIA. Defensor del Pueblo. *Oficio al Delegado del Gobierno en Melilla sobre menores extranjeros no acompañados en la Comunidad Autónoma de Ceuta y Melilla*. Madril, 2002.

ESTATUKO ARAUDIA

- 1978ko abenduaren 27ko Konstituzioa. (EAO 311 zk., 1978ko abenduak 29).
- 1996ko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, adin txikikoaren babes juridikoari eta Kode Zibilaren eta Auziperatze Zibilaren Legearen aldaketa partzialari buruzkoa (EAO, 15 zk., 1996ko urtarrilak 17).
- 2000ko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa, adin txikikoen erantzukizun penala arautzen duena (EAO, 11 zk., 2000ko urtarrilak 13).
- 1981eko maiatzaren 13ko 11/1981 Legea, Kode Zibila filiazioaren, guraso-agintearen eta matrimonioaren araubide ekonomikoari dagokienez aldatzen duena (EAO 119 zk., 1981eko maiatzak 19).
- 1984ko martxoaren 26ko 5/1984 Legea, 9/1994 Legeak aldarazia (EAO 122 zk., 1994ko maiatzak 23), asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzen dituen (EAO 74 zk., 1984ko martxoak 27).
- 1987ko azaroaren 11ko 21/1987 Legea, Kode Zibileko eta Auziperatze Zibileko Legeko zenbait artikulua aldarazten dituen, adopzioari eta adin txikikoak babesteko beste moduei dagokienez (EAO 275 zk., 1987ko azaroak 17).

- 2000ko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, 8/2000 Lege Organikoak (EAO 20 zk., 2000ko urtarrilak 24) eta 14/2003 legeak (EAO 279 zk., 2003ko azaroak 21) aldarazia, atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzkoa (EAO 10 zk., 2000ko urtarrilak 12).
- 2003ko abenduaren 30eko 62/2003 Legea, zerga-, administrazio- eta gizarte-alorreko neurriena, hirugarren kapituluan, tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeko neurriei buruzkoan (EAO 313 zk., 2003ko abenduak 31).
- 2005eko otsailak 18ko 3/2005 Legea, haurrei eta nerabeei arreta eta babesaren ematekoa (EAO, 68. zk., 2005eko martxoak 21).
- 1995eko otsailak 10eko 203/1995 Errege Dekretua, asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzen dituen 5/1984 Legea aplikatzeko araudia onesten duena (EAO 52 zk., 1995eko martxoak 2).
- 2001eko uztailaren 20ko 864/2001 Errege Dekretua, atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei eta horien integrazioari buruzko 4/2000 Lege Organikoa gauzatzeko araudia onesten duena (EAO 174 zk., 2001eko uztailak 21).
- 2001eko uztailak 20ko 865/2001 Errege Dekretua, Herrigabearen Estatutua aitortzeko araudia onesten duena (EAO 174 zk., 2001eko uztailak 21).
- 2003ko otsailaren 14ko 178/2003 Errege Dekretua, Europako Batasuneko kide diren estatuetak nazionalak eta Europako Espazio Ekonomikoari buruzko hitzarmena osatzen duten beste estatuetak nazionalak Espainiara sartzeari eta bertan geratzeari buruzkoa (EAO 46 zk., 2003ko otsailak 22).
- Abenduak 30eko 2393/2004 Errege Dekretua, atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei eta beraien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Araudia onesten duena (EAO 6 zk., 2005eko urtarrilak 7).
- 1998ko azaroaren 11ko ebazpena, Barne Ministerioak eta Kanpo Arazoetako Ministerioak emana, adin txikiko atzerritarrei buruzkoa, non babesik gabeko egoeran dauden adin txikiko atzerritarrak aberriatzeari buruzko sei jarraibide orokor eman ziren, 155/96 EDko 13. artikuluko 1b) atalaren garapenean.
- *ESPAINIA. Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioa. Haurren Behatokia. Adin Txikiko Atzerritar Arduradun Gabeen Protokoloa, Ministerio arteko eta Autonomia arteko Behatokiak 2003ko abenduaren 12an izan zuen osoko bilkuran onetsia. Madril, 2004ko urtarrilak 14.*
- Estatuko Fiskaltza Nagusiaren ekainaren 28ko 2/2001 Jarraibidea, atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoko egungo 35. artikulua interpretazioaren gainekoa (Justizia Ministerioaren informazio-aldizkaria, 1212 zk., 2002ko martxoak 1).
- Abenduaren 21eko 3/2001 zirkularra, Ministerio Fiskala atzerritarren alorrean jardutekoa (Justizia Ministerioaren informazio-aldizkaria, 1912 zk., 2002ko martxoak 1).
- Urriaren 23ko 3/2003 jarraibidea, Estatuko Fiskaltza Nagusiarena, Espainian legez kontra sartu nahi duten adin txikiko atzerritarrak beren jatorrizko herrialdeetara itzularaztea egokia den adierazten duena, horiek babesik gabeko egoera juridikoan aurkitzen ez direnean (Fiskaltzaren Zirkularrak, 33. zk., 2003ko urria).
- Azaroaren 26ko 6/2004 jarraibidea, Estatuko Fiskaltza Nagusiarena, adin txikiko atzerritar etorkin arduradun gabeen tratamendu juridikoari buruzkoa (Fiskaltzaren Zirkularrak, 2004).

- Espainiako Erreinuaren eta Marokoko Erreinuaren arteko laguntasunari, bizikidetasun egokiari eta lankidetzari buruzko hitzarmena (EAO 49 zk., 1993ko otsailaren 26koa).
- Espainiako babes-sistematari dauden adin txikiko arduradun gabeen herriratze lagunduari buruzko Maroko eta Espainia arteko elkar ulertze memorandumua, 2003ko abenduaren 24koa.

MAROKOKO LEGEDIA

- Loi 02-03 de 16 de janvier de 2003 sur l'entree et le sejour des etrangers et la migration clandestine.

NAZIOARTEKO ZUZENBIDE PRIBATUARI BURUZKO HAGAKO KONFERENTZIA

- Adin txikikoen babesaren eremuan agintariak dituzten eskumenei eta aplikagarri den legeari buruzko hitzarmena, Hagako Konferentziak 1961eko urriaren 5ean onetsia.
- Haurren babesaren eremuan eta gurasoen erantzukizunen eremuan dituzten eskumenei, aplikagarri den legeari, aitortzari, burutzapenari eta kooperazioari buruzko hitzarmena, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko Hagako Konferentziak 1996ko urriaren 19an onetsia.

NBE

- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, Batzar Orokorrak 1948ko abenduaren 10eko 217 A (III) ebazpenean onartua eta aldarrikatua.
- Eskubide Ekonomikoei, Sozialei eta Kulturei buruzko Nazioarteko Ituna, Batzar Orokorrak 1966ko abenduaren 16ko 2200 A (XXI) ebazpenean onartua.
- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, Batzar Orokorrak 1966ko abenduaren 16ko 2200 A (XXI) ebazpenean onartua.
- Haurren Eskubideei buruzko hitzarmena, Batzar Orokorrak 1989ko azaroaren 20ko 44/25 ebazpenean onartua.
- Haurren Eskubideei buruzko hitzarmenaren protokolo fakultatiboa, haurrek gatazka armatuetan duten parte-hartzeari buruzkoa, Batzar Orokorrak 2000ko maiatzaren 25eko A/RES/54/263 ebazpenean onartua.
- Haurren Eskubideei buruzko hitzarmenaren protokolo fakultatiboa, haurren salmentari, prostituzioari eta horiek pornografian erabiltzeari buruzkoa, Batzar Orokorrak 2000ko maiatzaren 25eko A/RES/54/263 ebazpenean onartua.
- Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudelen, ankerren edo umiliagarrien aurkako hitzarmena, Batzar Orokorrak 1984ko abenduaren 10eko 39/46 ebazpenean onartua.
- Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Hitzarmena, 1951ko uztailaren 28an onetsia, eta Errefuxiatuen Estatutuari buruzko protokoloa.

- Herrigabeen Estatutuari buruzko Hitzarmena, 1954ko irailaren 28an onetsia.
- Irakaskuntzaren alorreko diskriminazioen aurkako borrokari buruzko hitzarmena, 1960ko abenduaren 14koa.
- Herrigabeen kasuak murrizteko hitzarmena, 1961eko abuztuaren 31n onetsia.
- Adin txikikoen justizia-administrazioek bete beharreko Nazio Batuen gutxieneko arauak (“Beijingo Arauak”), Batzar Orokorrak 1985eko azaroaren 28an hartu zuen 40/33 ebazpenaren bidez onetsiak.
- Nazio Batuen arauak, askatasun gabetutako egoeran dauden adin txikikoak babestekoak, Batzar Orokorrak 1990eko abenduaren 14ko 45/113 ebazpenaren bidez onetsiak.
- Giza Eskubideen Batzordearen 1999/46 ebazpena. Ebazpen horren bidez kide diren estatu guztiei haur eta emakume migratzaileak prostituzioaren eta esklabutzaren antzeko beste praktiken bidezko esplotazioaren aurka babesteko neurri egokiak hartzeko gonbita luzatzen zaie. Era berean, helburu horiek ezartzeko organo nazionalak sortzeko aukera aipatzen da. Eskuragarri: www.unhchr.ch/Huridocda/Huridoca.nsf/0/2f104bf1930b96598025676d00552556?Opendocument
- NBE. Haurren eskubideen batzordea. *Estatuak aurkeztutako txostenen azterketa, Hitzarmenaren 44. artikulua arabera: Haurren Eskubideen Batzordearen azken oharra*. Espainia, 94/10/24 (CRC/C/15/Add.28).
- NBE. Haurren eskubideen batzordea. *Estatuak aurkeztutako txostenen azterketa, Hitzarmenaren 44. artikulua arabera: Haurren Eskubideen Batzordearen azken oharra*. Espainia, 02/06/13 (CRC/C/15/Add.185).
- NBE. Giza Eskubideen Batzordea. *Kontalari Berezi den Gabriela Rodriguez Pizarro andreak, Espainiara egindako bisitaldiaren ondoren aurkeztutako txostena*. (E/CN.4/2004/76/Add.2).
- NBE. Giza Eskubideen Batzordea. *Migratzaileen giza eskubideen gaineko kontalari berezia. Gobernuetara igorritako komunikazioak eta jasotako erantzunak*. 2005eko otsailaren 4ko E/CN.4/2005/85/Add.1.
- NBE. *Haurren eskubideei buruzko liburuxka informatiboa*, 10. zk.

ERREFUXIATUENTZAKO NAZIO BATUETAKO GOI-KOMISARIOA

- Adin txikiko arduradun gabeak Europan. *Jardunbide egokien agiria*. Save the children/ACNUR, 2004 [sarean]. Eskuragarri: www.savethechildren.net/separated_children_sp/good_practice/SGP_3ed_sp_print.pdf
- ACNUR jarraibideak, asiloa eskatzen duten adin txikiko arduradun gabeiei arreta eskaintzeko politikari eta prozedurei buruzko gida, 1997. [sarean]. Eskuragarri: www.unhcr.ch/cgi-bin/texis/vtx/home/openssl.pdf?tbl=MEDIA&id=3d4f91cf4&page=publ

EUROPAKO KONTSEILUA

- Giza Eskubideen Europako Hitzarmena, 1950eko azaroaren 4an onetsia.

- Europako Kontseiluaren Parlamentu-biltzarraren 1121. gomendia (1990), haurren eskubideei buruzkoa (1990eko otsailak 1).
- Europako Kontseiluaren Parlamentu-biltzarraren 1286. gomendia (1996), haurrentzako estrategia europarrari buruzkoa (ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz) (1996ko urtarrilak 24).

EUROPAKO BATASUNA

- Europako Batasunaren 1989ko abenduaren 9ko agiria, langileen funtsezko gizarte-eskubideei buruzkoa.
- Europako Batasunaren 1992ko uztailaren 18ko agiria, Haurren Eskubideei buruzkoa (1992.09.21eko DO 241)
- Europako Batasuneko funtsezko eskubideen agiria (2000/C 364/01) (DO 364/9, 2000ko abenduaren 18koa).
- Kontseiluaren 2201/2003 zk.-ko Araudia (CE), 2003ko azaroaren 27koa, ezkontzako gaietako eta guraso-erantzukizuneko eskumenei, aitortzari eta ebazpen judizialak gauzatzeari buruzkoa, zeinaren bidez 1347/2000 zk.-ko Araudia (CE) indargabetzen den. (DO L 338, 2003ko abenduak 23)
- Europako Parlamentuaren C148/37 ebazpena, 1986ko ekainaren 16koa, Ospitaleratutako Haurren Itun Europarrari buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren 1991ko abenduaren 13ko ebazpena, haurrek Europako Batasunean dituzten arazoei buruzkoa (1991ko abenduaren 13ko DO).
- Europako parlamentuaren A3-0172/92 ebazpena, Haurren Eskubideen Europako Gutuna onesten duena. (1992ko uztailaren 8ko DO).
- Europako Kontseiluaren 1995eko ekaiaren 20ko ebazpena, asilo-prozeduretarako gutxienerako bermeei buruzkoa (1996ko irailaren 19ko 274 DO C).
- Europako Kontseiluaren 1997ko ekainaren 26ko 97/C 221/03 ebazpena, beste estatuetak nazionalak diren adin txikiko arduradun gabeei buruzkoa.
- Europako Kontseiluaren 1992ko martxoaren 31ko 92/241/CEE Gomendia, haurren zaintzari buruzkoa (1992ko maiatzaren 8ko 123. DO L).

BIBLIOGRAFIA

- AJA, Eliseo. *Informe sobre la situación dels menors immigrants del carrer a Barcelona* [sarean]. Barcelona: Institut d'Infància i Món Urbà, 2001. Eskuragarri: www.ciimu.org/arxiu/ciimu2.pdf
- ÁLVAREZ LÓPEZ, Pablo. La concesión de la autorización de residencia a menores extranjeros no acompañados. Comentario a varias sentencias del TSJ de Castilla-La Mancha. *Actualidad Administrativa*, 17. zk. (2004ko urria).
- ANSOTEGI, Ricardo. Atención a los menores extranjeros no acompañados. *La inmigración en la UE: situación y perspectivas para Euskadi*. Mugimendu Euro-pazalearen Euskal Kontseilua, 2003.

- BERGANZA SETIEN, ISABEL. *Los menores extranjeros no acompañados en Bizkaia. Situación actual y propuesta de mejora*. Bilbao, 2003 (Deustuko Unibertsitatean aurkeztutako tesina. Argitaratu gabea).
- CAMPUZANO DÍAZ, Beatriz. Los menores marroquíes no acompañados: el derecho a la realidad [sarean]. CONGRESO SOBRE LA INMIGRACIÓN EN ESPAÑA (4.a, 2004, Girona). *Ciudadanía y participación*. Eskuragarri: www.udg.es/congres_immigracio/meses/taula04/comunicacions/M4C-Campuzano.PDF
- CARRIÓN SAMPEDRO, A. La actitud de la Fiscalía General del Estado ante la protección jurídica del menor extranjero. Consideración crítica de la Instrucción 3/2003. *Diario La Ley*, 2004ko apirilaren 23a.
- ELÍAS MÉNDEZ, Cristina. *La protección del menor inmigrante desde una perspectiva constitucional*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2002.
- ESTEBAN DE LA ROSA, Gloria. Inmigrantes menores de edad y su situación jurídica en España: algunas cuestiones controvertidas. *Diario La Ley*, 5714. zk. (2003).
- JIMÉNEZ ÁLVAREZ, Mercedes. *Análisis transnacional de los procesos migratorios de los menores marroquíes no acompañados en Andalucía* [sarean]. Tanger: Colectivo Al Jaima, 2003. Eskuragarri: estrecho.indymedia.org/newswire/display/2026/index.php
- LOPEZ-MUÑIZ GOÑI, Manuel. *La nueva ley de extranjería: Guía práctica y Jurisprudencia*. Madril: COLEX, 2001
- PALMA DEL TESO, Mari Ángeles. La protección de menores por las administraciones públicas. *Revista Jurídica de Catalunya*, 2. zk. (2004)
- PASCUAL LAMAZA, Carmelo. *El menor extranjero y la legislación de extranjería*. En Jornadas sobre menores (2002, Donostia-San Sebastián).
- RUIZ LEGAZPI, Ana. Los problemas jurídicos de la repatriación y expulsión de los menores extranjeros [sarean]. CONGRESO SOBRE LA INMIGRACIÓN EN ESPAÑA (4.a, 2004, Girona). *Ciudadanía y participación*. Eskuragarri: www.udg.es/congres_immigracio/meses/taula04/comunicacions/M4C-Ruiz.PDF

PRENTSAKO DOKUMENTUAK

- Menores del internado de Loiu atacan a un vigilante y educador en apenas dos días (El Correo, 2001eko ekainaren 19a).
- La Diputación quiere repatriar a 19 jóvenes inmigrantes violentos (Deia, 2001eko ekainaren 27a).
- SOS Racismo y CC OO critican la repatriación de menores de Loiu (El País, 2001eko ekainaren 28a).
- Tenemos miedo (El Correo, 2002ko urtarrilaren 8a).
- La afluencia de menores inmigrantes a Vizcaya causa problemas de acogida (El País, 2002ko urtarrilaren 13a).
- Inmigrantes sin edad (El Diario Vasco, 2002ko ekainaren 10a).
- Masificación en Zabaloetxe (El País, 2003ko irailaren 28a).
- Un duro camino lleno de espinas (El Mundo, 2003ko urriaren 20a).

- Continúa la llegada masiva de menores en patera a las costas del sur de España (ABC, 2003ko urriaren 24a).
- Menores inmigrantes (El País, 2003ko urriaren 24a).
- La entrada de menores inmigrantes se triplica en los últimos cuatro años (El País, 2003ko urriaren 27a).
- La Fiscalía ordena repatriar a todos los inmigrantes ilegales a partir de 16 años (El Correo, 2003ko urriaren 27a).
- Denuncian la falta de tutela para menores extranjeros (Deia, 2003ko urriaren 29a).
- El Defensor del Pueblo reclama que no se expulse a los menores inmigrantes (El Correo, 2003ko urriaren 31).
- EUSKADI. Ararteko. Nota de prensa “*La Ararteko muestra su preocupación ante la instrucción sobre repatriación de menores extranjeros no acompañados*” (Ararteko, 2003ko urriaren 31).
- Gobierno Vasco y Ararteko critican la repatriación de menores (El Diario Vasco, 2003ko azaroaren 1a).
- Instituciones vascas critican la decisión de la Fiscalía de repatriar a los menores (El Periódico de Álava, 2003ko azaroaren 1a).
- Preocupación de la Ararteko por la repatriación de menores (Deia, 2003ko azaroaren 1a).
- Acebes se compromete a cumplir la orden de Cardenal de repatriar menores” (El Correo, 2003ko azaroaren 4a).
- El Gobierno anuncia un nuevo procedimiento para repatriar a menores (El País, 2003ko azaroaren 4a).
- Interior aplicará la instrucción de Cardenal de repatriar a los menores no acompañados (El Diario Vasco, 2003ko azaroaren 4a).
- Interior habilitará mecanismos para expulsar a inmigrantes ilegales menores de edad (Diario de Navarra, 2003ko azaroaren 4a).
- Menores inmigrantes (El País, 2003ko azaroaren 12a).
- La Diputación acogerá a menores en pisos para evitar conflictos en los centros de Loiu y Orduña (El Mundo, 2003ko azaroaren 15a).
- Los menores inmigrantes serán alojados en pisos (Gara, 2003ko azaroaren 15a).
- Marruecos aceptará a sus menores pero no a subsaharianos (El Mundo, 2003ko abenduaren 4a).
- La Administración no ve factible una expulsión rápida de los 120 menores marroquíes acogidos (El País, 2003ko abenduaren 27a).
- Aumentan los menores inmigrantes y solos (El Mundo, 2003ko abenduaren 28a).
- LAB pide el alojamiento de menores en pisos tras otro incidente en La Muera. Uno de los internos originó graves altercados en el centro foral de acogida de Urduña. Acción social asegura que continúa buscando viviendas y negociando para crear una red (Gara, 2004ko urtarrilaren 29a).
- Bizkaia abrirá en junio el primer piso para menores inmigrantes (Deia, 2004ko otsailaren 19a).

- La Diputación abrirá en junio el primer piso para acoger a menores inmigrantes (Deia, 2004ko otsailaren 19a).
- 13 menores serán trasladados al nuevo centro de Nanclares: El lugar de acogida que sustituye al de la Cruz Roja, será atendido por salesianos (Diario de Noticias de Álava, 2004ko otsailaren 26a).
- A Bizkaia llegaron 231 menores no acompañados en 2003 (Deia, 2004ko martxoaren 11).
- Otro incidente en el centro de menores de La Muera (Gara, 2004ko martxoaren 23a).
- Detenidos siete menores tras arrasar el centro foral de Orduña y amenazar al personal (Deia, 2004ko martxoaren 24a).
- Jóvenes del centro de acogida de Orduña se amotinaron de madrugada y arrasan el edificio (El Correo, 2004ko martxoaren 24a).
- Petición sindical de cierre de La Muera tras un nuevo incidente (Gara, 2004ko martxoaren 24a).
- El juez envía a un reformatorio a seis de los menores de La Muera detenidos. Acción social anuncia medidas para mejorar el proceso de inserción de los jóvenes internos (Gara, 2004ko martxoaren 25a).
- El juez ordena el internamiento de seis de los menores que se amotinaron en Orduña (El Correo, 2004ko martxoaren 25a).
- Diputación creará un centro para menores extranjeros conflictivos. Aburto quiere destinar el centro de Orduña a otros usos e impulsar los pisos (Deia, 2004ko martxoaren 31).
- Aburto advierte de que el Centro de Orduña no se cerrará “mañana”. El diputado de Acción Social quiere abrir el primer hogar funcional en verano (Deia, 2004ko apirilaren 1a).
- La Diputación sustituirá el centro de menores de Orduña por pisos (El País, 2004ko apirilaren 1a).
- LAB duda de los actuales planes forales para acoger a los menores extranjeros. El sindicato abertzale reclama coordinación entre las diferentes instituciones implicadas. Acusan a Aburto de actuar “sólo ante la alarma social” frente a una grave problemática (Gara, 2004ko apirilaren 1a).
- Menores en el ojo del huracán. La Diputación de Vizcaya busca un nuevo centro para jóvenes conflictivos tras verse obligada a cerrar el de Orduña (El País, 2004ko apirilaren 3a).
- Tjamal Oualik. Urduñako Zentroan egondako gaztea. “Zentrokoak ez ginen hain bereziak” (Berria, 2004ko apirilaren 4a).
- Bizkaiko Aldundiak itxi egin du Urduñako adingabeen Zentroa. Bertan ziren 21 nerabe atzerritarrak hiru etxebizitzatan sartu dituzte (Berria, 2004ko ekainaren 30a).
- Cierran el Centro de Orduña y llevan a los menores a tres pisos. La Diputación Foral sorprendió ayer con el cierre del Centro de Menores Inmigrantes de Orduña y el traslado de los adolescentes a pisos tutelados (Metro, 2004ko ekainaren 30a).
- La Diputación cierra el centro de Orduña y traslada a los menores a pisos: Los inmigrantes residirán en tres viviendas, cada una de ellas con capacidad para siete personas (El Correo, 2004ko ekainaren 30a).

- La Diputación traslada a 21 menores extranjeros de Urduña a tres viviendas. Acción Social internará a los jóvenes con problemas de conducta en un centro específico (Gara, 2004ko ekainaren 30a).
- Vizcaya distribuye en tres pisos a los 21 inmigrantes del centro de Orduña cerrado (El País, 2004ko ekainaren 30a).
- Etxeetan sartu dituzte Urduñan zeuden adin txikiko atzerritarrak. Bizkaiko Gizartekin-tza foru diputatuak nabarmendu du zentroan izandako istiluek ez dutela leku aldaketa azkartu; hezitzaileek, baina, bestelako iritzia dute eta politikoen “utzikeria” salatu dute (Berria, 2004ko uztailaren 13a).
- La llegada de menores inmigrantes “sin papeles” se estabiliza en 400: El Ararteko prepara un informe para tratar a fondo el problema (El País, 2004ko urriaren 4a).
- Dos nuevos pisos para inmigrantes y un centro para los conflictivos (El Correo, 2004ko azaroaren 12a).
- Cerca del 10% de los jóvenes inmigrantes que llegan a la CAV carecen de estudios. Según el Gobierno Vasco, el 2,3% son analfabetos y 6,8% no tiene estudios (Deia, 2004ko azaroaren 21a).
- Denuncian la desaparición de un polizón de 17 años tras su llegada a Pasajes. La Comisión de Ayuda al Refugiado cree que se fugó del Hospital Donostia (El Diario Vasco, 2004ko abenduaren 28a).
- Desaparece un polizón que arribó a Pasaia (Gara, 2004ko abenduaren 28a).
- CEAR denuncia ante la Fiscalía de Menores y el Defensor del Pueblo la desaparición de un polizón menor (Deia, 2004ko abenduaren 30a).
- Una juez de San Sebastián ve inconstitucional negar la asistencia letrada a polizones (El País, 2004ko abenduaren 30a).

ERANSKINAK

1. Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren zentroetako bisitaldiak. Aztertu beharreko elementuak.
2. Adin txikikoekin izandako elkarrizketak. Esparruak.
3. Espedienteak aztertzeko fitxa (informazio-hustuketa).
4. Bakarrik dauden atzerritar adin txikikoen egoeraren jarraipena lurralde bakoi-tzean, 2000. urtea (Arartekoak Eusko Legebiltzarrari aurkezturiko urteko txostenetik).
5. Bakarrik dauden atzerritar adin txikikoen egoeraren jarraipena lurralde bakoi-tzean, 2001. urtea (Arartekoak Eusko Legebiltzarrari aurkezturiko urteko txostenetik).
6. Bakarrik dauden atzerritar adin txikikoen egoeraren jarraipena lurralde bakoi-tzean, 2002. urtea (Arartekoak Eusko Legebiltzarrari aurkezturiko urteko txostenetik).
7. Elkarrizketatutako 38 adin txikikoek jasotako harreraren gainean egindako balorazioak (testigantzen laburpena).

1. ERANSKINA

BAKARRIK DAUDEN ADIN TXIKIKO ATZERRITARREN ZENTROETAKO BISITALDIAK

- Aztertu beharreko elementuak -

1. Adin txikikoen sarreren/uzteen/egonaldien eta abarren gaineko datuak

- Azken urteetako garapena
- Plaza-kopurua gainditzeko aukerak
- Adin txikikoen profilak-tipologiak (jatorria, aukera, sexua)
- Zentroan sartzeko eta hura uzteko arrazoiak
- Zentroaren jarrera ihesaldien aurrean

2. Datu/adierazle esanguratsuenak (dokumentazioa, gizarteratzea...)

- Lortutako egoitza-baimenak
- Egikarituriko tutoretzak
- Familiak berriz biltzea
- 18 urtera baliabideekin iritsi diren adin txikikoak
- Ohiko sarean eskolatutakoak
- Lortutako lan-baimenak
- Lanean
- Berriz egoitzan sartzea (berriz jausi direnak)

3. Hezkuntza-jarduera arloko tresnak

- Zentroaren hezkuntza-programa
- Barne erregimeneko araudia (elkarbizitza-arauak)
- Elkarbizitza-arazoen aurrean egingadako esku-hartzeak
- Bakarkako planak
- Jarraipen-sistemak
- Aldizkako berrikuspenak

4. Alderdien arteko adostasunez finkaturiko jarduera-irizpideak

- Agiri formala (baldin badago) Jarduera-protokoloa
- Lege edo arau mailako aldaketen araberako egokitzapenak
- Aldundiaren- Fiskaltzaren- Gobernuaren Ordezkariordeztzaren- Poliziaren eta abarren parte-hartzea.

5. Zentroaren egitura-baldintzak eta hobekuntza posibleak (adin txikiko horien beharretara egokitzea)

- Kokapena eta ingurua
- Zentroaren diseinua
- Itxura orokorra, dekorazioa eta altzariak
- Bakarkako erabilerako guneak
- Aisialdirako eta elkarrekin gauzatzeko jardueretarako guneak
- Segurtasun-sistemak
- Mugak ezabatzea
- Aurreikusitako hobekuntzak
- Beharrezko hobekuntzak

6. Kudeaketa-eredua eta zentroko langileak

- Hitzarmenaren ezaugarriak (aldizkakotasuna/ partiden banakapena...)
- Txantiloia: profilak, trebakuntza, ardura...
- Ikuskaritza-mekanismoak eta langileei laguntzeko mekanismoak

7. Zentroak beste instantzia batzuekin duen lotura

- Aldundia
- Adin Txikikoen Fiskaltza
- Gobernu Ordezkariordeztza- Atzerri-
tarren arloa
- Udala
- Hezkuntza-sistema
- Osasun-sistema
- Polizia-zerbitzuak
- Zerbitzu judizialak
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
- Laguntza-elkarteak

8. Oinarrizko eskubideak

- Hezkuntza
- Osasuna
- Intimitatea-Pribatutasuna
- Parte-hartzea (erabakiak hartze-
rakoan)
- Konfidentziasuna
- Kexa-prozedura
- Informazioa (informazio-liburuxka)

9. Desberdintasunarekiko errespetua

- Elikadura
- Erlijioa
- Hizkuntza
- Ohiturak

10. Denbora erabiltzeko baliabideak (jarduerak)

- Bertako baliabideak
- Baliabide komunitarioen aprobe-
txamendua

11. Harreran hartutako taldea/ harreran hartu ez diren talde posibleak eta beste aukera batzuk (esaterako: neskek)**12. Gizarte mailako giroaren pertzepzioa (auzokoak/ albisteen tratamendua...)**

2. ERANSKINA

ADIN TXIKIKOEKIN IZANDAKO ELKARRIZKETAK

ESPARRUAK

1. Egoera jatorrizko herrialdean

- Familiaren egoera
- Hezkuntza – lana
- Egoera ekonomikoa

2. Migrazio-ibilbidea

- Emigratzeko erabakia
- Lekuak, denbora, erakundeak...
- Euskadira heltzeko unea

3. Migrazio-proiektua/ Asmoak

- Lehen asmoak
- Asmo-aldaketa
- Asmoak betetzea

4. Egungo egoeraren gaineko balorazioa

- Izandako harreraren gaineko balorazioa- dokumentazioa lortzeko bidea
- Zentroaren instalazioen gaineko balorazioa
- Zentroan dituen harremanen gaineko balorazioa (hezitzaileekin, gainerako neska-mutilekin...).
- Gauzatzen dituen jardueren gaineko balorazioa
- Desberdintasunarekiko errespetuaren gaineko balorazioa
- Harrera-gizartearekiko harremanaren gaineko balorazioa

5. Etorkizunerako planak

6. Hobekuntza-proposamenak

4. ERANSKINA

BAKARRIK DAUDEN ATZERRITAR ADIN TXIKIKOEN EGOERAREN JARRAIPENA LURRALDE BAKOITZEAN, 2000. URTEA

(Arartekoak Eusko Legebiltzarrari aurkezturiko urteko txostenetik)

A) Laguntzarik gabe iritsitako atzerritar adin txikikoak

Babesik gabe dauden adin txikikoen taldearen barruan, ezaugarri eta beharrian bereziak dituen multzoa dago, atzerritar adin txikikoena (familiarik eta agiririk ez duten adin txikikoena). Azken urte honetan, Ararteko erakundeak arreta berezia jarri dio talde horri, hain zuzen ere, lurralde bakoitzean talde horretara bideraturiko zerbitzuei. Ondoren, bakoitzaren egoeraren laburpena eskaintzen da.

a) **Gipuzkoa**

Talde honen arazoak, batez ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoan biltzen dira; izan ere, bertan halako adin txikikoen sarrera kopuruak gorakada handia izan du azken urteotan:

- 1996: 2 sartzeko (2 adin txikiko)
- 1997: 29 sartzeko (28 adin txikiko)
- 1998: 97 sartzeko (82 adin txikiko)
- 1999: 268 sartzeko (103 adin txikiko)
- 2000: 148 sartzeko (85 adin txikiko)
- Guztira (1996-2000): 544 sartzeko, 300 adin txikiko

Adin txikiko horietatik gehienak Magrebetik datoz (guztizkoaren %70, gutxi gorabehera), eta, neurri txikiagoan, Europako, Afrikako eta Asiako beste herri batzuetatik. Babes zerbitzuen esku-hartzea, gehienetan, poliziaren ekimenez gertatzen da, horiek atxilotuak izaten direnean (kalean, muga, Pasaiako portuan...).

Ikusitako arazoak kontuan hartuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak talde horretarako egoitza txiki berezia prestatzea erabaki zuen. Zerbitzu hori 1997ko irailean abiatu zen, eta, harrezkero, Gurutze Gorriak kudeatzen du, Aldundiarekin urtero sinaturiko hitzarmen baten bidez.

Urte hauetako esperientziak, bestalde, egoera eta helburu oso desberdinak argi bereizteko aukera eman du. Egoitzako arretaren aldetik, gutxienez, bi talde hauek bereiztu behar dira:

- Lurraldean egon baina beste nonbaitera edo beste herriren batera joateko asmoa dutenak.
- Lurraldean bertan gelditzeko eta integratzeko asmoa dutenak.

Arazo bikoitz hori ikusita, erantzunak bereiztu eta beste zerbitzu bat sortu zen, 2000ko abuztutik aurrera, hori ere Gurutze Gorriak kudeatuta.

1999an, Arartekoaren langileak Martuteneko Zentroa ikustera joan ziren (atzerritar adin txikikoak hartzeko zentroa), eta datuak eta informazioak eskatu zizkioten Gipuzkoako

Gizarte Zerbitzuen Sailari (Gizartekintza). Zentrora egindako bisitaldiak eta Aldundian ofizios aurkezturiko espedienteak, bestalde, zerbitzuaren ezaugarriak ezagutzeko aukera eman zuten, baita halako kasuetarako erakundeen artean ezarritako protokoloa (Foru Aldundia, Adin Txikikoen Fiskaltza, Gobernuko Ordezkaritza) eta Aldundiaren babespeko kasu kopurua (7 adin txikiko) ezagutzeko aukera ere.

Joan den azaroaren 9an bigarren bisitaldia egin zen, Martuteneko Zentrora, eta Iruneko zerbitzu berria ere ikusi genuen. Egindako bisitaldietatik ondorio hauexek atera daitezke:

- Iruneko baliabide berria irekitzearen ondorioz, egoitzetan zaintzeko aukerek gorakada izan dute (8 leku Irunen eta 9 Martutenen); gainera, nolabaiteko dibertsifikazioa eragin du (lehenengo harrera nahiz balorazioa Irunen, eta harrera egonkorragoa eta luzeagoa Martutenen). Izan ere, Iruneko Zentroa abian jarri zenetik beti egon da lekua halako adin txikikoentzat. Bisitaldia egin den unean, Irunen 6 adin txikiko zeuden eta Martutenen 8.
- Baliabide bakoitzaren baldintzek eta egiturak (neurri arrunteko etxebizitza Irunen, hiru solairu erabilgarri dituen etxea Martutenen) aukera nahiko desberdinak eskaintzen dituzte, gelen intimitateari (4 leku gela bakoitzean, Irunen) edo gela komunak erabilerari (komunak, egongela...) dagokionez.
- Hobekuntza materialei dagokienez, irunen konponketa txiki bat egiten ari dira sukaldeko eramateetan, eta sutearen aurkako segurtasunaren arazoa konpondu barik zegoen. Martutenen hobekuntza lanak egingo dira eramateetan, komunetan eta leihoetan.
- Zerbitzuen kudeaketa hitzarmenaren bidez adjudikatzeari dagokionez, erakunde honen iritziz, pausoak eman behar dira oraingo mugetariko batzuk gainditzeko, kalitatean eta emandako zerbitzuaren bermeetan eragina duten arloetan. Horrela, esate baterako: elikadura bezalako oinarriko beharrezanetarako gutxieneko partidak zehaztea; profesionalen ezaugarriak eta heziketa; ikuskapenerako mekanismoak...
- Bertan hartutako adin txikikoen kultur ezaugarriak errespetatzeko kezka handia dago, adibidez, erlijio errituari eta elikadurari dagokionez. Euren jatorrizko hizkuntzan mintzatzeko aukerari dagokionez, zoritxarrez orain langileen artean ez dago hori egiteko gaitasunik duenik, baldintza hori betetzen zuen bakarrak lana utzi baitu.
- Denbora betetzeari eta elkarteko beste baliabide batzuk eskuratzeko aukerari gagozkiola, egoera oso desberdina da zentro batetik bestera:
 - Irunen aukerak oso mugatuak dira: boluntarioek ordu jakinetan emandako gaztelaniako eskolak, udaleko polikiroldegia erabiltzeko aukera mugatua.
 - Martutenen, adin txikiko guztiak, bat izan ezik (tramitean, bisitaldia egin zenean) eskolaturik daude, bertatik nahiko hurbil dauden ikastetxeetan, edo lana lortzeko aukera ematen duten ikastetxeetan.

Irunen kasuan, egotaldia mugatua izatearen ondoriozko arazoak egon arren, beharrezkoa da jarduerak egiteko aukerak handitzea, bai bertako baliabideak edo bai komunitateko baliabideak erabiliz.

- Hezkuntza edo osasun zerbitzuen inplikazioa behar duten egoerak konpontzeko orduan ez dago arazo berezirik. Beste alde batetik, langileen ustez, zentroein inplikaziorik handiena duten erakundeekin dituzten harremanak oso onak dira (Gipuzkoako Foru Aldundia, Adin Txikikoen Fiskaltza, Gobernuko Ordezkaritza-Atzerritarrak).

- Zentroek euren lana modu programatuan eta berme batzuekin egiteko behar diren hezkuntza tresna guztiak dituzte: barne araubideko arautegia, jarraipen orriak, banakako planak, aldian behingo ikuskapenak... Dirudienez ez dago horri buruzko arazorik. Hala eta guztiz ere, erakunde honen ustez, beharrezkoa izango litzateke erakunde arduradunek (Gipuzkoako Foru Aldundia...) arautegien edukiak ikuskatzea eta horien aplikazioa kontrolatzea.
- Sartzeei, irtetei, egotaldiei... buruzko datuek adierazitakoaren arabera, bertan dauden adin txikikoen kopuru nahiko handia ez da lurraldean gelditzen, ezta zentroan bertan ere. Horrela, adibidez, 1999an 24 adin txikiko sartu eta zentroa behin eta berriro utzi zuten (adin txikiko bakoitzak 6 bider, batez beste). Poliziak atxilotzearen ondoriozko sartzeak eta norberak nahita egindako irteteak dira. Datuok gutxi ezagutzen den errealitatea jartzen dute agerian: atzerritar adin txikikoen taldea, inolako famili edo erakunde babesik ez duena, eta bizimodua kalean ateratzen duena. Erakunde honen iritiz, beharrezkoa da arazo hori konpontzea, oraingo zentroek horien itxaropenei erantzunik ez ematearen zergatiak aztertzea eta beste mota bateko erantzunak eman beharra planteatzea.

Zentro horiek bisitatu eta Gizarte Ongizateko foru diputatuarekin bilera bat egin ondoren, Ararteko erakundeak ofiziozko espedientea hasi zuen abenduan, Gipuzkoako Foru Aldundian; bertan, aurreko ondorioak jaso eta alderdi arazotsuenak edo konpontzeko modukoak azpimarratzen ziren.

Foru diputatuaren erantzuna joan den otsailaren 7an jaso zen; bertan, erakundeak hobekuntza proposamenak ikertzeko hartu duen konpromisoa adierazten da, baita ikusitako akatsak konpontzeko behar diren neurriak hartzeko konpromisoa ere; horrela, arazo zehatzenen artean, hauxe adierazten da:

- *“Gurutze Gorriarekin sinaturiko hitzarmenaren edukia, Irungo zentroaren egiturazko baldintzak eta zentro horretan dauden adin txikikoen egindako jarduera kopurua handitzeko aukera berrikusiko dira”.*
- Halako zentroen ikuskapen eta kontrol lana indartu nahi da, egoitzan hartzeko laguntzarako zerbitzu teknikoak kontratatzearen bitartez.
- Adin txikiko horiekiko jarduera protokoloa berrikusten ari da, eta hori kasuan kasuko fiskaltzarekiko bileran aztertuko da.

Idazkian, halaber, biztanleri sektore horrekiko lanaren arazoak eta zentroetako hezitzaileen ahalegina aipatzen dira, baita inplikaturiko erakunde edo elkarte guztiak koordinatu beharra ere, agiri edo babesik ezari loturiko arazo jakin batzuk konpondu ahal izateko.

b) **Bizkaia**

Adin txikikoen talde horri emandako erantzuna, Bizkaian, horientzako zerbitzu berezia irekitzean oinarritu da; horretarako, Loiuko Zabaloetxe Egoitzako lokalak erabili dira; lokal horiek, lehen, babes zentro arruntzat erabiltzen ziren, San José Artesano izenarekin.

Talde horrek urteotan izandako bilakaerari buruzko datuak honako hauek dira:

- 1996: 5 sartze (5 adin txikiko)
- 1997: 15 sartze (12 adin txikiko)

- 1998: 23 sartze (23 adin txikiko)
- 1999: 48 sartze (30 adin txikiko)
- 2000: 59 sartze (52 adin txikiko)
- Guztira (1996-2000): 150 sartze, 122 adin txikikorena; egotaldiaren batez besteko denbora 6,2 hilabete.

Lurralde horretan, halaber, adin txikikorik gehienak Magrebetik iritsitakoak dira (%55 Marokotik eta %17 Aljeriatik) eta, neurri txikiagoan, Afrikako beste herri batzuetatik (harik eta guztizkoaren %89ra iritsi arte), Hego Amerikatik (%4), Europako Ekialdetik (%4) eta Asiatik (3 kasu).

Zentroko leku kopuruari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak 18 lekuko behin-behineko aurreikuspena egin zuen; horiek bi modulutan antolaturik daude, eta moduluotako bakoitzak 9 adin txikiko jasotzeko eta zaintzeko gaitasuna dauka. Adin txikiko neskek hartu behar izanez gero (orain arte salbuespenezko kasua), sareko beste zentro bat erabiltzen da. Zentroaren kudeaketa Kaputxino Hirugarrendarrek egiten dute.

Arartekoaren langileek azaroaren 17an joan ziren zentroa ikustera; egun horretan, famili babesik gabeko atzerritar gazteen kopurua 26koa zen; horren eraginez, hasierako aurreikuspenak berrikusi egin behar izan ziren, eta hirugarren talde bat antolatu behar izan zen beste modulu batean, egoitzak eskainitako aukerak aprobeztatzuz; gainera, giza baliabideak ugaritu behar izan ziren. Gero, bertan harturiko ume kopurua 33raino handitu da, 2000. urteko azkenetan.

Gogoratu behar da Loiuako Zabaloetxe Egoitzan era askotako baliabideak eta zerbitzuak daudela. Kapitulu honetako beste atal batean, beste zerbitzu horietariko baten elementu aipagarrienak azpimarratu dira (jokabide arazoak dituzten nerabeentzako zerbitzuaren ezaugarriak); horietariko batzuk (adibidez, instalazioei edo hazkuntza proiektuari buruzkoak) baliozkoak dira, oinarri-oinarrian, familiarik gabe iritsitako atzerritar gazteentzako zerbitzu honetarako.

Egindako bisitalditik eta lorturiko informaziotik, ondoko elementuok atera daitezke:

- Zentroak hezkuntza proiektu egokia garatu du, adin txikiko hauen ezaugarrien arabera proiektua, eta horrek jarduera guztien erreferentziatzat balio du: laguntzako jarduerak, aurreikuspenekoak, gizarte-hezkuntzako arretakoak, gizarteratzen nahiz laneratzen laguntzekoak....
- Adin txikikoen administrazio egoeren arauketak, bestalde, ahalegin handia eskatzen du; baina emaitza pozgarriak lortzen ari dira, batez ere aurten 4/2000 Lege Organikoak (atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei nahiz askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko legea) sustaturiko arauketa aldiaren barruan.
Izan ere, urtean zehar hauxe lortu da: pasaporteak, bizitzeko nahiz lan egiteko baimena, 12 kasutan; pasaporteak eta bizitzeko baimena, 15 kasutan; pasaporteak eta bizitzeko baimenaren eskabidea, 8 kasutan; beste 8 kasutan, eskabideen erantzunaren zain geunden edo familiako agiriak noiz jasoko zain.
Hurbileko etorkizunari begira, alderdien arteko adostasuna lortuta, jarduera protokoloa egin nahi da, eta bertan pausoak, denborak, erantzukizunak... finkatuko dira, parte hartzen duten erakundeek dagokienez: Bizkaiko Foru Aldundia, Adin Txikikoen Fis-

kaltza, Gobernuko Ordezkaritza, kontsulatuak... Nolanahi ere, zentroko arduradunen ustez, erakunde horiekiko harremanak eta koordinazioa onak dira.

- Bertatik hurbil dauden udalerrietako baliabide komunitarioak ondo aprobetxatu dira. Horrela, esate baterako:
 - Eskolara joateko adinean dauden adin txikikoak eskolaratzeari dagokionez, bertan dauden aukera guztiak aprobetxatzen dira: lanean hasteko ikastaroak bertako LHletan (Konpentsazio Hezkuntzako ikastetxeak), gaztelania ikasteko ikastaroak atzeritarrentzat (DBHko zentroetan). Horretarako, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren lankidetzat dago. Bisitaldia egin zenean, adin txikiko bi (zentrorat sartu berriak) gaztelania bertako ikasgela batean ikasten ari ziren, oraindik ere kanpoko ikastetxeetara joan barik. Aurten, hala eta guztiz ere, 2000-2001 ikasturtearen hasieran, Konpentsazio Hezkuntzan egin den eskabide kopurua uste baino nahiko handiagoa izan da eta hori kezagarria da.
 - Kirol ekipamenduei edo aisialdirako baliabideei dagokionez, gazteen zentroetan eta bertako taldeetan parte hartzen ari dira; gainera, bertatik hurbil dauden udalerrien instalazioak erabiltzen ari dira.
- Aurreko aukera guztiei, gainera, zentroko bertako baliabideen aprobetxamendua gehitu behar zaie: ikasgelak, kirol aldeak, jolas aldeak... Horri dagokionez, egoitza berregituratu egin da, zenbait zerbitzuri erantzuna emateko; horren eraginez, talde honek lantegiak erabiltzeko aukera galdu du, eta hori ez da ona.
- Harturiko adin txikikoen kultur ezaugarriak erabat errespetatzen dira, adibidez, elikaduran (menu bikoitza) eta erlijio errituak (Ramadanen ordutegietara egokitu...).
- Kasu honetan ere zentroko langileek ez dakite adin txikikoen talde ugariaren hizkuntza.
- Aurten 11 babes eta 22 zaintza egin dira. Aditzera eman behar da ekainetik aurrera ez dela babesik egin, eta horrenbestez, iritzia aldatu egin da, ordura arteko egoereri zegokienez.
- Zentroan hartutako atzeritar adin txikikoen arteko zazpik kanpoan lan egiten dute, kontratu eta guzti. Hala ere, adin txikiko batzuek 18 urtera iristean emantzipaziorako dituzten aukerak oso kezagarriak dira, eta proiektu berriak aztertzen ari dira, SAIO programaren oraingo eskaintza nahikoa ez delakoan.
- Gipuzkoan ikusitakoaren alderantziz, bildutako datuak aztertuta, ezin daiteke ondorioztatatu halako adin txikiko kopuru handia kalean arretarik gabe dabilenik. Izan ere, hemen berriro sartzen direnen kopurua askoz ere txikiagoa da. Bisitaldia egin ondoren, eta Gizarte Ongizateko foru diputatuarekin bilera bat egin ostean, abenduan ofiziozko espedientea hasi zen Bizkaiko Foru Aldundian; bertan, hemen aztertu eta hobetzeko modukoak diren alderdiak jaso ziren.

Gizartekintza Sailaren erantzuna 2001eko otsailaren 22an jaso zen. Bertan, hauxe adierazten da:

- Lantegien kokapen berria bilatzen ari da.
- Babesik eza ez da irizpide aldaketa baten ondorioa, administrazio tramitazioan lanak duen asetunaren ondorioa baizik, eta hori konpontzeko ahaleginean ari gara. Horri dagokionez, zenbait ekimen jasotzen dira, esate baterako, haurtzaro, gaztaro, famili

eta emakume zerbitzua berrantolatzea, hurrek jasotzen duten babesik ezako egoerei laguntzeko eskuliburua egitea edo protokolo berezia lantzea, laguntzarik gabe iritsitako adin txikiko atzerritarrak hartzeko prozesuak formalizatzeko.

- Emantzipazio aukerei dagokienez, horren zailtasunak eta SAIO programa gogoratzeaz gain, zenbait ekimen adierazten dira, adibidez, zentrotik kanpoko etxebizitza baten proiektua egitea, banakako neurriak hartzea edo atzerritarrei laguntzeko erakundeekin harremanak edukitzea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren idazkian, zentroen ezaugarriak arautzen dituen legeria autonomikorik ez egotea azpimarratzen da; Ararteko erakundeak behin eta berriro planteatu du arazo hori eta Aldundiak berak ere hori aztertzeko asmoa dauka Haurtzaro Planean.

c) **Araba**

Arabian, urte hauetan zaindu diren adin txikikoen proportzioa (famili babesik gabeko adin txikikoak) gainerako lurraldeetan baino askoz ere txikiagoa da. Hona hemen datuen laburpena:

- 1996: sartzerik ez
- 1997: 12 sartze (10 adin txikiko)
- 1998: 11 sartze (8 adin txikiko)
- 1999: 19 sartze (17 adin txikiko)
- 2000: 10 sartze (7 adin txikiko)

Zaindu diren adin txikikorik gehienak mutilak izan dira, Marokotik eta Aljeriatik iritsitakoak; kasu gutxi batzuetan, alde honetan gelditzea eta gizarteratzea erabaki dute. Izan ere, babesa bi adin txikikorekin baino ez da hartu, egoitza baimena lortu eta lan merkatura sartu dira.

Oro har, salbuespen gutxi batzuk kenduta, nerabe edo gazte hauek, aurtan, Hazaldi larrialdiko harrera zentroan hartu dira; zentro hori Arabako Foru Aldundiaren menpekoa da eta Karitatearen Alabek kudeatzen dute. Lekuei dagokienez, ez da inolako arazorik egon.

Arartekoaren langileak azaroaren 28an joan ziren zentrora. Garai hartan laguntzarik gabeko atzerritar gazte bi zeuden zentroan: bata 18 egun lehenago iritsi zen eta bestea bezperan iritsitakoa zen.

2000ko abenduaren 1etik Arabako Foru Aldundiak, hitzarmen baten bidez, baliabide sarea indartzeko erabakia hartu du; horretarako, zazpi lekuko zerbitzu berria ezarri du (Bosco Etxea) eta bertan, besteak beste, Arabara babesik gabe iristen diren gazte atzerritarrak zainduko dira.

Bisitaren eraginez aztertutako alderdiak, beste alde batetik, aurreko ataletan adierazitakoak dira: zentroaren baldintzak nahiz baliabideak, beste erakunde eskudunetako harremanak, oinarrizko eskubideen estaldura, desberdintasunarekiko errespetua, jarduera protokoloak, hezkuntza proiektua, bizikidetzara arauak... Kasu honetan, ez dugu aipatzeko moduko alderdirik aurkitu.

* * *

Berton bildutako datuek gure artean gero eta agerikoagoa den errealitatea adierazten dute; errealitate horrek lurralde bakoitzean eragin eta erantzun desberdina dauka, eta

horri aurre egiteko, babesik gabeko adin txikikoak zaintzeko sareak baliabide berriak sartu behar dira. Ararteko erakundeak aurrerantzean ere arreta berezia jarriko dio adin txikikoen talde honi eskainitako erantzunari (talde horrek beharizan zehatzak ditu, sustrairik ezaren, familiarik ez izateari, administrazio egoeraren, hizkuntzaren, ingurua ez ezagutzearen eta abarren eraginez). 2000. urtean ofizioz hasitako jarduerak agerian jartzen dute lehentasunezko arretarako gogoia dagoela.

5. ERANSKINA

BAKARRIK DAUDEN ATZERRITAR ADIN TXIKIKOEN EGOERAREN JARRAIPENA LURRALDE BAKOITZEAN, 2001. URTEA

(Arartekoak Eusko Legebiltzarrari aurkezturiko urteko txostenetik)

2/ **Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren berariazko egoera**

Babesik gabeko adin txikikoen kolektiboaren barruan, ezaugarri eta beharrian desberdinak dituen talde bat dago, bakarrik dauden eta dokumentaziorik ez duten adin txikiko atzerritarrena, hain zuzen. Azkeneko bi urteetan, Ararteko erakundeak arreta berezia jarri du kolektibo horrengan eta, zehazkiago, lurralde historiko bakoitzean kolektibo horretaz beren beregi arduratzen diren zerbitzuetan. Egoera oso desberdina da lurralde batetik bestera, beraz, hemen lurraldez lurralde aztertuko dugu.

A) **Arabako Lurralde Historikoa**

Gaineko lurraldeen aldean, Araban kolektibo honek ez du hazkunde esanguratsurik izan 2001. urtean. Dena dela, eskaeraren jarraipena egiten da, bere hazkundeak beste zentro edo zerbitzu espezifikoak zabaltzea gomendatzen duen ikusteko.

2001eko otsailean, 12tik 18ra arteko nerabeentzako Bosco Etxea Larrialdiak eta Harrera Zentroa zabaldu zen, kolektibo honen alderako orientazio espezifikoarekin. 7 plazekin eman zitzaion hasiera, gerora 10 plazetara zabaltzea aurreikusten bada ere, ondorioz langileak ere gehituko direlarik.

Azken urteko datu esanguratsuenen aldetik, ondoko hauetan laburbildu daitezke:

- 11 mutil artatu dira, Magreb (6), Jugoslavia (2), Kroazia (1), Senegal (1) eta jatorri ezezagunetakoak (1).
- Euretako bat bakarrik sartu da berriro.
- Zentroan egin duten denbora honako hau izan da:
 - 8 kasutan, aste bat baino gutxiago;
 - kasu batean, hilabete baino gutxiago;
 - 2 kasutan, hilabete bat baino gehiago.
- Abenduaren 31n, 2 pertsona zeuden bertan.
- Ez da inongo tutoretzarik egin urtean zehar.
- Dokumentazioari dagokionez, 5ek dokumentuak zeuzkaten eta 6k ez zeukaten dokumenturik.

B) **Bizkaiko Lurralde Historikoa**

Zalantzarik gabe, 2001. urtean inor gabeko adin txikiko atzerritarren arazoa batez ere Bizkaian bildu da. Hasierako datu bat hori frogatzeko: aurten 349 adin txikiko hartu ziren (370 sarrera), aurreko urteko kopuruak –hazkunde handia ere izan zuelarik- 52 adin txikiko hartu eta 59 sarrera izan zirenean. Beste modu batera esateko, hartzeko beharrak edo eskabideak ia sei aldiz biderkatu dira urte bakar batean.

Datuen bilakaera, urtez urte, ondoko hau izan da:

- 1996: 5 adin txikiko (5 sarrera).
- 1997: 12 adin txikiko (15 sarrera).
- 1998: 23 adin txikiko (23 sarrera).
- 1999: 30 adin txikiko (48 sarrera).
- 2000: 52 adin txikiko (59 sarrera).
- 2001: 349 adin txikiko (370 sarrera).
- Guztira (1996-2001): 471 adin txikiko; 520 sarrera eta batez beste 5,1 hilabeteko egonaldia.

Hazkunde honek gainditu egin ditu erabat aurretiko ikuspenak. Kontutan hartu Bizkaiko Foru Aldundiak aurreko urterako 18 plaza aurreikusita zituela Loiuako Zabalotxe egoitzan. Plaza hauei beste plaza batzuk gehitu zitzaizkien beharren arabera, zentroaren okupazio ahalmen guztietara iritsi eta gainditzearaino ere.

Urteko lehen zatian zehar, Zabalotxe Zentroarekin jarraitu zen kolektibo honetarako zegoen baliabide bakar gisa funtzionatzen. Ekainean, zentroak 99 adin txikiko hartzera iritsi zen. Auzokideen kexak izan ziren eta zabalkunde handia izateko moduan planifikatutako atentatu bat jasan zuen ere (erasotzaileek beraiek deitutako telebista kamerak ziren bertan).

Hilabete horretan bertan, behin eskola ikasturtea amaitu ondoren, 30 adin txikikoak, Urduñan dagoen Gabriel M^a De Ibarra Zentrora eramane ziren. Lekuz aldaketa hau ez zen tentsioz libre izan eta, hasieran behintzat, Loiu zegoen liskar arriskua eta gainezka egiteko egoera arintzea ekarri zuen.

Hala ere, handik gutxira, Zabalotxeren hartzeko eskabideek aurreikuspen guztiak gainditu zituzten. Sarrerak batez beste hileko 40 adin txikiko izatera pasa zen, lehenengo hilabetetan 20koa izan zenean. Ikus ditzagun joan zen urtean zehar, hilez hile, izandako bilakaeraren datuak:

HILA	SARRERAK	IRTEERAK	HILEAN HARTUTAKOAK	GUZTIRA HILAREN AZKENEAN
2000/12/31n				32
URTARRILA	20	6	50	44
OTSAILA	20	10	64	54
MARTXOA	16	9	71	62
APIRILA	25	16	87	71
MAIATZA	22	22	92	70
EKAINA	29	61	99	38
UZTAILA	27	14	65	51
ABUZTUA	44	36	95	59
IRAILA	40	27	99	72
URRIA	52	45	124	79
AZAROA	31	27	110	83
ABENDUA	44	30	127	97
GUZTIRA	370	303	1.083	780
HILEAN, BATEZ BESTE	31	25	90	60

Zenbatekoak ematen dira, errealitatea islatzeko duten balioagatik ez eze, izatez, eskaini ahal izan den erakundearen arreta urte osoan baldintzatu dutelako.

Erakunde honek egoeraren jarraipen zehatza egin du. Joan zen urtean ere egin zuen, eta zentroetako hainbat alderdi aztertu zituen: zentroetako baldintza fisikoak, hezkuntza proiektuak, jarduerako protokoloak, egoera administratiboak arautzearen aldetik lortutako emaitzak (dokumentazioa), tutoretzaren jarduera, bitarteko komunitarioen aprobetxamendua (hezkuntza, medikoak, kirolak, lanbide hastapenak...), norberaren ezaugarri kulturalen errespetua, emantzipazio eta lanean hasteko aukerak... Horretaz guztiak kontua eman zen joan zen urteko txostenean (ikus 2000ko txostenaren "Inor gabeko adin txikiko atzerritarrak. Bizkaia" 1.1.5 atalean).

Azken urtean zehar, Ararteko erakundearen esku hartzea kontu honetan eta Bizkaiko Lurralde Historikoan puntu hauetan zehaztu da:

- Gizarte Ekintzako Foru Diputatuarekin eta zerbitzuen arduradunekin egindako bilerak.
- Jarduera irizpideei buruzko dokumentu eta proposamen ugariren azterketa: tutoretzak, dokumentazioa, Ertzaintzaren esku hartzea...
- Loiu eta Urduñako harrera zentroei egindako bisitak.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren aurrean ofizioz egindako jarduerak.
- Erandio eta Laudioko Ertzaintza etxeei egindako bisitak.
- Fiskal buruekin egindako bilera eta Bizkaiko Adin txikikoen Fiskalarekin informazioa trukitzea.
- Zentroetako zuzendaritzarekin eta atzerriko jatorrizko pertsonak laguntzeko elkarteekin aldizkako harremanak (Harresiak Apurtuz, AZRAF...).

Burututako jarduera eta lortutako informazioetatik ondoko elementu hauek nabarmen daitezke:

- Bizkaiko Foru Aldundiak nabarmen gehitu ditu, euren beharren bilakaeraren arabera, adin txikiko hauei erakundeen erantzuna eskaintzeko baliabideak. Ahalegin hau hainbat jardueratan mamitu da:
 - Kaputxino Hirugarrendarren Kongregazioarekin Zabalotxen adin txikikoak hartu, hezi eta integratzeko dagoen hitzarmena 54 zenbatekoraino zabaltzea eta emantzipazio prozesuan daudenak 8raino (salbuespen gisa kopurua 87 plazaraino gehitzeko aukerarekin).
 - Urduñako Gabriel M^a Ibarra Zentroa berrantolatzea, ezaugarri hauetako 30 adin txikikoen harrerarako erabiltzeko.
 - Hirugarren harrera zentro bat erosi eta zabaltzeko gestioak.
 - AZRAF Marokoko Etorkinek Elkartearekin elkar lanean jarduteko hitzarmena (2001ko azken aldera egina).
 - 18 urte betetzen dituzten emantzipazio baliabideak potentziatzea (Zabalotxe eta Goiztiriren menpeko etxebizitzak).
- Hartutako adin txikikoen ezaugarriak –adina eta jatorriaren aldetik- ondoko datu hauetan laburbil daitezke:
 - Adin txikikoek beraiek sartzean aitortu duten adinak gora egin du 13,5 urtetik (1996) 16,2 urtetara (2001). 11 eta 17 urte artean ibiltzen da eta 16 edo 17 urte dituztela diotenak dira nagusi.

- Kasu erdietan baino gehiagotan aitortutako adina ez dator bat hezur frogen edo dokumentuen bidez egiaztatzea lortzen direnekin. Adierazitako adina egiaztatutakoa baino urte bat edo bi txikiagoa izan ohi da.
 - 2001. urteko egiaztapenen arabera, hartutako % 43a adinduak ziren (egiaztatutako 272 kasuei buruz lortutako portzentaia).
 - Azken urtean zehar jatorria 15 herri desberdinetan dauzkaten adin txikikoak hartu dira. Gehiengo zabala (349tik 315) Marokotik dator, aurreko urteetan bezala.
 - Jatorrizko herriak honako hauek izan dira: Angola (1), Aljeria (13), Bosnia (1), Ekuador (1), Egipto (1), Etiopia (2), Frantzia (1), Ghana (2), Ginea Bissau (1), Maroko (315), Moldavia (2), Nigeria (1), Palestina (6), Portugal (1), Jugoslavia (1).
- Harrera zentroan izan diren denborari dagokionez –tutoretza, dokumentazioa, heziketa eta lanean hasteari dagokionez lor daitezkeen helburuak baloratzeko ezinbesteko datua-, azken urteko datuek honako hau islatzen dute:
- 78 adin txikikoak (% 22) 1 eta 6 egun artean izan dira zentroan.
 - 112 adin txikikoak (% 32), 7 egunetik 30era.
 - 98 adin txikikoak (% 28), 31 egunetik 90era.
 - 61 adin txikikoak (% 18), hiru hilabete baino gehiago.
- Bizkaiko zerbitzuetan harrera izan duten kolektiboaren ezaugarrien artean, ondoko ezaugarri hauek nabarmentzen dira:
- Adin txikiko nerabeak, 11 eta 17 urte artekoak, inor gabeko atzerritarrak, dokumentaziorik eta helbiderik gabe: % 57 .
 - 18 eta 24 urte arteko gazteak, adin txikiko gisa izaten direnak: % 43.
 - Familiako erabateko babes falta.
 - Inguruaren ezagutza ia erabatekoa.
 - Oso jatorri desberdinak (24 herri), baina marokoarren portzentaia handia (10etatik 9) eta afrikarren ia nagusitasun osoa (% 97).
 - Euren herrietatik modu desberdinetara ihes egin dute. Sarrerako unean familiaren eta norberaren eta, askotan, hizkuntzaren ezagutzarik eza.
 - Kultura balio desberdinak eta askotan errealitatetik kanpoko itxaropenak.
 - Dokumentaziorik eza eta, askotan, mesfidantza eta datuak ezkutatzea.
 - Heziketa urria.
 - Kasu batzuetan, jarrera liskartsua eta gizartearen kontrakoak.
- Ezaugarri hauek finkatzen dituzte arretaren beharrak: babesaren neurria, heziketa, dokumentazioaren tramitazioa, gizarte trebetasunen garapena, inguruko baliabideen ezagutza, jatorrizko familiarekin kontaktua...
- Datu batzuk hartutako babes neurrien edo adin txikiko hauen integrazioarako lortu diren emaitzen adierazletzat har daitezke. Erakunde honek arreta berezia jarri du horietako batzuetan, egindako tutoretza. edo lortutako dokumentazioetan esaterako. Horrela, azken urte honetan:
- 113 tutoretza eta 213 zaintza egin dira.
 - 29 gaztek lan baimena tramitatu dute: horietako 13k erregularizazio prozesuaren bidez lortu dute eta 16k errotze prozesuaz.
 - 19 gaztek lana topatu dute (9 lan sektoretan).

- 98k hainbat kanpoko heziketa jardueratan parte hartu dute (araututako hezkuntza, lanbidekoa...)
 - 20 gazte harrera saretik atera dira, etxebizitza babestuetara (4) zein alokairuko etxebizitzetara (16).
 - Adin txikiko eta gazteen % 77,3k (270) dokumentazioa jaso dute, eta euren egoera erregularizatzeko behar izan diren tramiteak egin dira. % 22,6k ez dituzte lortu pasaporte eskuratzeko eskatzen diren dokumentuak.
 - 2001. urteko dokumentazio datuak honela laburbil daitezke:
 - Pasaporte, egoitza baimena eta lana: 17
 - Pasaporte eta egoitza baimena: 29
 - Pasaporte eta egoitza eskabidea: 178
 - Pasaporte eta egoitza eskabideak: 15
 - Bere familiako dokumentuak: 31
- Foru diputatuarekin eta Gizartekintza Saileko beste arduradunekin martxoaren 27an egindako bileran, kolektibo honen egoeraz eta lurraldean diren berehalako proiektuez jarduteaz gainera, dokumentazio ugaria eman ziguten. Dokumentuak (protokoloak, proposamenak, hitzarmenak, egoera azterketak...) etorkizuneko egoerak aurreikusi eta arautzea, eta erakunde eta zerbitzu desberdinen arteko jardura irizpide bateratuak finkatzeko helburua zeukaten. Erakunde honek oso positibotzat jo zituen erregularizatzeko ahalegina eta sartutako hobekuntzak eta xehetasunaz aztertu zituen proposamen desberdinak. Eskubideen bermeen ikuspegitik, hau da, erakunde honi dagokion ikuspegitik, arazo eta iradokizun sail bat aurkeztu zituen lau gairi buruz:
1. Erandioko Ertzain-etxeko arduradunekin adostutako irizpide batzuek (sarrerren komunikazioak, zerrendak bidaltzea edo argazkiak igortzea).
 2. Tutoretza onartzeko irizpideak eta dokumentazioa lortzeko jarraitu beharreko tramiteak.
 3. Harrera zerbitzuen jarraipena eta balorazioa.
 4. Oraindik egiten ari diren protokoloak.
- Foru agintariei jakinarazi zitzaizkien kezka eragiten duten motiboetako batzuk eta Harresiak Apurtuz Koordinadorak planteatutakoak, gaiari buruz horiekin bildu bainkinen aurretik (dokumentazioa, elkarlanerako aukerak, arabiar hizkuntza ezagutzen duten pertsonak kontratatzea...).
- Urduñako Gabriel M^a de Ibarra Zentrora irailean egindako bisitak zentroan bertan dauden jardura mailari buruz erakundearen berehalako jardura gomendatzen zuten hainbat muga edo akats ezagutzeko bidea eman zuen: inguruaren hezkuntza baliabideen erabilera (lotu gabe, ikasturtea hasita zegoen arren), magrebtarrak ez ziren bi adin txikikoen kontrako jazarpen egoera edo polizia etxetan egindako salaketak. Arazo hauek planteatu ziren ofiziozko espedienteen bidez zein Gizarte Ekintza Saileko arduradun nagusiei zuzenean.
 - Poliziaren esku hartzeari buruz aipatutako arazoetako batzuk (elkarrekin jarduteko irizpideak, adin txikikoen kontra ezarritako salaketak, Loiuko ibilgailuaren eraso eta erreketaren gaineko ikerketa) aztertu eta informazio trukatzeko gai izan ziren erakunde honen partaideek Erandio eta Laudioko Ertzaintza Etxeetara egindako bisitetan (ikus txosten honetan bertan 1.1.11 atala).

- Urduñako Gabriel M^a de Ibarra Zentroa ekainaren 28tik aurrera adin txikiko hauen harrerarako erabiltzeari dagokionez, egun horretan bertara aldatu baitziren Zabaloetxetik 25 adin txikiko, esan daiteke okupazio osoa izan duela (30 plaza) urtearen gainerako denboran, baja (adinez nagusitzeagatik) eta sarrera gutxiarekin. Guztira 2001. urtean 35 sarrera izan dira eta 5 baja.
- Zabaloetxe Egoitzak egin duen 2001. urteko memoriak kontutan hartzea komeni den konklusio sail bat ateratzen du. Hortaz:
 1. Hartutakoen % 43a adin gutxiak ez izateak, benetako adina finkatzeko sarrera prozesuan esku hartzen duten erakundeek behar adineko bitartekoak ez dituztela erakusten du. Baita ere, gazte hauek adinez nagusiak direnentzako dauden baliabideak erabili beharra ere. Honek gutziak hartutako adin gutxikoei ematen zaien zerbitzuaren kalitatean eragin negatiboa dauka.
 2. Dokumentazioa eskuratzeko garrantzia azpimarratzen da, sarrera kopurua igotzean horrek daukan eragina (euren beharretako bati erantzuten zaiola frogatzean) eta lanean hastea bezalako beste helburu batzuk lortzeko horren behar osoa.
 3. Gaztelaniaz ikasteari dagokionez, ezinbestekotzat jotzen da EPA zentroak erabiltzen jarraitzea (40 adin txikiko joaten dira horietara), bai eta zentroan bertan baliabide gehiago edukitzea ere, ikasketan emandako ordu kopurua handitu ahal izateko.
 4. Lanaren aurretiko ikasketari dagokionez (50 inguru adin txikikok parte hartu dute 20 ikastaro desberdinetan; % 80k nekazaritza edo eraikuntza alorretan), ikastaro laburrak edukitzea komeni dela ikusten da, hiru edo lau hilabetekoak, ikastaro trinkoak eta lan irteera argikoak –nekazaritza eta eraikuntza alorrekoak izan daitezkeen bezala-, non laneko praktikak enpresetan egitea aurreikusten den eta laneko eskaintzak eman zaizkien (aurre kontratuak), horrela dagokien lan baimena eskatu ahal izateko.
 5. Zentrotik etxebizitza batera igarotzeari dagokionez, gazte hauen emantzipazio bidean, inmobiliaria eta etxe jabeen aldetik arazo ugari topatu dira alokairua lortzeko orduan; etxebizitza tutoretza pekoak eta alokairukoak edukitzearen beharra ikusten da, holakorik ez egotearen arriskuak markatzen dira (kriminalitatearen igoera), eta ezinbestekotzat jotzen da integrazio politika bat erakundeen aldetik.
 6. Instituzio, erakunde eta inguruarekiko harremanei dagokienez, ezinbestekotzat jotzen da harreman onak eta koordinatuak edukitzea Herrizaingo, Justizia, Osasuna, Hezkuntza, Gizarte eta Enplegu sailekin, bai eta etorkinekin lanean diharduten erakunde desberdinekin ere. Halaber, ezinbestekoa da Udalarekiko harremanak hobetzea eta inguru gertuenean hezkuntzaren presentzia indartzea ere, auzokideen onarpen egokia eta elkarren arteko kolaborazio ona lortzeko.
Erakunde honen iritziz, aipatutako proposamen edo jarduera ildoak erabakigarriak dira adin txikiko hauen arreta hobetzeko orduan, eta behin eta berriro jardun beharko da puntu hauetaz.

C) Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Lurralde honetan ere, 2001ean sarrerak eta adin txikiko atzerritarrak gehiago izan dira, Bizkaian baino askoz ere gutxiago izan badira ere. Hona hemen bilakaerako datuak, laburbilduta:

- 1996: 2 adin txikiko (2 sarrera)
- 1997: 28 adin txikiko (29 sarrera)
- 1998: 82 adin txikiko (97 sarrera)
- 1999: 103 adin txikiko (268 sarrera)
- 2000: 85 adin txikiko (148 sarrera)
- 2001: 159 adin txikiko (182 sarrera)
- Guztira (1996-2001): 459 adin txikiko (726 sarrera)

lazko harrera sarea mantendu da, Irunen pisu bat eta Martuteneko egoitza dituen, biak Gurutze Gorriak kudeatuta. Lehenengo kasuan, bidean dauden adin txikiko atzerritarrak artatzen dira, bigarrenean, kolektibo egonkorragoa edo gelditzea aukeratzen duena hartzen dute. Errealitate bikoitz hau zentro bietako bakoitzean azkeneko urtean artatutako adin txikikoen kopuruan ikusten da, baita bakoitzean izandako batez besteko egonaldian ere:

- Irun: 114 adin txikiko artatu dira; batez besteko egonaldia: 7 egun.
- Martutene: 16 adin txikiko artatu dira; batez besteko egonaldia: 126 egun.

Aurreko urtean erakunde honen txostenean islatu zen egoeraren jarraipena egin zuen (ikus "Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak. Gipuzkoa", 2000ko txosteneko 1.1.5 atala). Honako alderdietan tematzen ginen:

- Irungo pisuak egitura eta jardueretan zeuzkan mugetan;
- langileen artera atzerritarren hizkuntza eta kultura ezagutzen zituzten hezitzaileak sartzeko komeni zela;
- ikuskatu, kontrolatu eta bermatzeko mekanismoak hobetzea;
- kalean bizi diren babesik gabeko adin txikiko atzerritarren kolektiboaren arazoei aurre egin beharrean (sarrera eta irteeren datuek bazirela erakusten baitzuten)...

Azkeneko urtean, erakunde honetako langileak Irun eta Martuteneko Zentroak ikustera joan ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailari informazioa eskatu zioten eta zentroetako zuzendariari datuak eskatu zizkieten.

Orain arte oso informazio gutxi jaso dugu. Edonola ere, bisitetatik eta lortutako informaziotik ondoko elementu hauek azpimarra daitezke:

- Martuteneko instalazioen baldintzak hobetu dira, bereziki inguruan izandako atentatu baten ondorioz apurtutakoak konpontzeko lanak eginez.
- Irungo instalazioek jada iaz esandako mugak dauzkate oraindik ere. Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2002ko urtarrilaren 11ko bere idatzian, jakinarazi zuen "*aurreikusita dagoela bakarrik dauden adin txikikoentzako Larrialdiko Harrera Zentroa beste herri batera eramatea, oraingoaren egitura fisikoak ez baitu egoitza eta hezkuntza jarduera egoki garatzen uzten, eta Irun, mugan dagoen herria izanik, ez baitu hartutakoan gizarte integrazioa errazten.*
- Adin txikiko hauekin jarraitzen zen jarduera protokoloa berrikusten ari da, sartutako arau aldarapenen arabera, eta Atzerritarren Brigadarekin eta Adin Txikikoen Fiskaltzarekin lankidetzan.
- Azkeneko urtean, adin txikiko horietako biren tutoretza soilik egin da.
- Hartutako adin txikiak, abenduaren 31n, 8 ziren.
- Martuteneko Zentroan hartutako adin txikikoen kolektiboa egonkor eta ingurunean integratuta mantentzen da (prestakuntza edota lan jarduerak).

Hona hemen Gurutze Gorriak emandako 2001eko Memoriako datuak:

	LARRIALDIKO HARRERA (Irun)	EGOITZA (Martutene)
Sarrera/irteerak	187/186 = 1	16/9 = 7
Adin txikikoak	114	16
Batez besteko egonaldia	7,02 egun	126,31 egun
Berresleak	19 adin txikiko = 83 sarrera Batez beste, sarrerak m/b: 4,36 bider	-
Jatorriak	Magreb: 148 (% 79,14) Europa: 13 (% 6,95) África: 21 (% 11,22) Hegoamerika: 2 (% 1,06) Asia: 3 (% 1,60)	16 (% 100)
Adinez nagusiak	11 (% 5,88)	5 (% 2,76)
Egun bateko egonaldia	87 (% 46,52)	-
Dokumentazioaren izapidearen hasiera (egoitza baimena)	0	8
Dokumentazioa lortzea (egoitza baimena)	0	3
Beren kabuz bizi direnak	-	5

6. ERANSKINA

BAKARRIK DAUDEN ATZERRITAR ADIN TXIKIKOEN EGOERAREN JARRAIPENA LURRALDE BAKOITZEAN, 2002. URTEA

(Arartekoak Eusko Legebiltzarrari aurkezturiko urteko txostenetik)

1. Bakarrik dauden adingabe atzerritarren berariazko egoera

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak, babesik gabeko adingabeen kolektiboaren barruan, ezaugarri eta behar desberdineko taldea dira. Azkeneko urteetan, Ararteko erakundeak arreta berezia jarri dio kolektibo honi eta, zehazkiago, kolektibo horri lurralde historiko bakoitzean xedatutako berariazko zerbitzuei. Egoera aldatuz joan da urtetik urtera, eta lurraldeen artean alde handiak daude. Azken aldian, Bizkaian ugariak dira halako adingabeak, Gipuzkoan gutxiago eta, gero eta gehiago diren arren, Araban oso gutxi daude. Ez da erraza etorkizunerako aurreikuspenik egitea eta, horien arabera, beharrei aurrea hartu edo behar diren baliabideak programatzea.

Izan ere, adingabe hauen fluxuak (presentzia handiago edo txikiagoko uneak, lurralde batetik bestera joateak...) oso faktore aldakorren arabekoak dira: muga igarotzeko izatezko ahalbideak, atzerritarren gaietako araudia, harrera zerbitzuen egoera Erkidego bakoitzean, ez oso denbora luzean dokumentazioa lortzeko erraztasuna edo zailtasuna... Sarritan, halako faktoreek azaltzen dute zergatik, une jakin batean, lurralde jakin batean, harrera beharrak gehitu ala gutxitzen diren.

Gure Erkidegoan, erakunde arduradunek, ia kasu guztietan, beraientzat beren beregi prestatutako zerbitzuetan hartzea erabaki dute. Jarraian lurralde bakoitzean jasotako informazioa laburbilduko dugu.

A) Arabako Lurralde Historikoa

Beste lurraldeetan ez bezala, Araban kolektibo horrek ez zuen hazkunde nabarmenik izan azkeneko urteetan. Hartara, esaterako, 2001ean guztira 10 adingabe atzerritar artatu zen, eta horietatik 8 zentroan astebete baino gutxiago egon ziren. Ez zen, beraz, beraienzako berariazko zerbitzurik sortzeko beharrik ikusten.

2001ean Arabako Foru Aldundiak Bosco Etxea, Larraldietako Harrera Gunea ireki zuen, 12 urtetik 18 urtera bitarteko nerabeentzat, eta kolektibo horretan sor litezkeen harrera beharretara ere zabalik. 7 tokirekin hasi zen, 10eraino hedatzeko pentsamenduaz. Arartekoa eta bere erakundeko langileak joan den abenduaren 16an izan ziren bertan. Egun horretan 11 adingabe zegoen zentroan: 7 mutil eta 4 neska. Zazpi mutilak atzerritarrak ziren (magrebtarrak) eta nesketako bat kolonbiarra zen.

Zentroaren ezaugarri fisikoei dagokienez, funtsean, obran erositako bi pisu bat egin eta berregituratzearen emaitza da eta horri lurraren parean dauden hainbat toki gehitu behar zaizkio, non hainbat zerbitzu erkide dauden (arropa-armairua, jaki-tokia, berogailua,

trastelekua). Goiko solairuan antzeko banaketako bi modulu daude (4 logela- biko hiru eta bateko bat-, egongela eta bi bainu gela modu bakoitzean), beste espazio erkide batzuez gain: sukaldea, jaki-tokia, jantokia, egongela eta hezitzaileen bulegoa. Kanpoko sarrera independentea da, eta antzeman genion gabezia bakarra ke igarlerik edo larrialdi sistematik ez zuela izan zen (su itzalgailuak bazeuzkan).

Zentroa hamar nerabe hartzeko pentsatuta dago, baina azkeneko urteko beharrak ikusita, sarritan hamaika edo hamabi ere izaten dituzte. Datu horiek kontuan hartuta, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako berariazko zentroa sortu beharraz pentsatzen ari dira. Izan ere, bisita egunean, zentroan hartutako 8ez gain, beste bi adingabe atzerritar zeuden, Hazaldin hartuta.

Kudeaketa ereduari dagokionez, itunpeko zentroa da, 6 hezitzaile (gehi laguntzeko beste bat 10 toki baino gehiago hartuta daudenean), gaueko 4 begirale, txanda bakoitzeko zaindari bat, sukalderako pertsona bat eta garbiketa enpresa bateko langileak ari direlarik. Ohikoena da txanda bakoitzean hezitzaile gizonezko bat eta hezitzaile emakumezko bat egon daitezen bermatzea. Eskari edo proposamen bat egin da talde horretara arabieraz mintzatzen den hezitzailearen bat sartzeko.

Erkidegoko baliabideen eta zerbitzu normalizatuen erabilpenak zabala eta arazorik gabea dirudi: partaidetza herritarren zentroetan (udaleko norbanakoentzako txartelaren bidez), osasun artapena (TISen bidez), eskolatzea Hezkuntza Sailaren bidez... Helburua denak eskola edo lan sisteman sar daitezen lortzea da. Bisitaren egunean Konpentsaziozko Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako zentroetan eta Tailer Eskoletan eskolatutako adingabeak zeuden. Enpresa batean lanean ari zen beste bat ere bazegoen.

Zentroko hezkuntza proiektua eta bizikidetasun proiektua berrikusten ari ziren. Kultura edo erlijio desberdintasunak kontuan hartzen dira otordu, hizkuntzen erabilpeneko irizpideetan, ordutegietan eta halakoetan (esaterako, Ramadan hilean).

Azkeneko hiletako bilakaera aztertuz gero, gero eta etorrera gehiago izateko joera ikusten da, geratzeko asmoz datozenak, batzutan beste toki batzuetatik datozenak (Katalunia, Bizkaia), edo beren jatorrizko herriko pertsonaren batekin datozenak...

Paperik gabekoen adina zehazteko hezur frogei dagokienez, hamar bat egun irauten dute. Bertan bizitzeko baimenaren izapideak ahal bezain laster hasten dira, eta baimenak eman arte 3 edo 4 hilabete joaten dira. (Bertan bizitzeko izapidetutako 4 baimenetatik ordura arte hiru lortuak zituzten; baita lanerako baimen bat ere).

Azkeneko urteko daturik esanguratsuenak, Arabako Foru Aldundiak emandakoak, honelaxe laburbil ditzakegu:

- Hona hemen urtez urteko datuen bilakaera:
 - 1997: 8 adingabe (10 sarrera)
 - 1998: 7 adingabe (10 sarrera)
 - 1999: 14 adingabe (17 sarrera)
 - 2000: 6 adingabe (9 sarrera)
 - 2001: 10 adingabe (11 sarrera)
 - 2002: 30 adingabe (31 sarrera)
 - Denera (1997-2002): 75 adingabe (88 sarrera)

- Sarrereren erdia ia (14) urteko azkeneko hiru hiletan izan dira.
- Hartutako adingabeen ezaugarriei dagokienez (adina, jatorria, sexua), hauek dira datuak, laburbilduta:
 - Mutilak: 27 ; neskak: 3
 - 13-14 urte: 1
 - 15-16 urte: 5
 - 16-17 urte: 16
 - 17-18 urte: 5
 - Adinik ez dakigu: 2
 - Adinez heldua: 1
 - Jatorriak: Marokko (20); Ekuador (2); Aljeria (2); Mauritania (1); Sahara (1); Nigeria (1); Bolivia (1); Errumania (1); Senegal (1).
- Jendearen egonaldiak oso desberdinak izan dira: egun batetik (8 adingabe), ia urte osoraino. Hilabetetik gora artatuta egon diren adingabeak 11 izan dira.
- Adingabearen Kontseiluak, 2002an, bakarrik zeuden 3 atzerritar adingabearen tutoretza bere gain hartu zuen.
- Sartutako 30 adingabeetatik, 3 adinez nagusi izan arte egon dira. Bi egonaldi osteko jarraipen programara sartu dira.
- 2002ko abenduaren 31n, 8 adingabek hezkuntza programetan sartuta jarraitzen zuten.

B) Bizkaiko Lurralde Historikoa

Iaz bezala, aurten ere bakarrik dauden adingabe atzerritarren arazoa bereziki Bizkaian kontzentratu da. 2001eko igoera ikaragarria (urte betean 59 sarrera izatetik 370 izatera igaro zen) moteldu egin da, baina erakundeen bidez erantzuteko beharrak ez dira jaitsi: 2002an 337 sarrera berri izan dira Zabaloetxe egoitzan (71 berritortakoak izan dira).

Hona hemen urtez urteko datuen bilakaera:

- 1996:	5 adingabe (5 sarrera)
- 1997:	12 adingabe (15 sarrera)
- 1998:	23 adingabe (23 sarrera)
- 1999:	30 adingabe (48 sarrera)
- 2000:	52 adingabe (59 sarrera)
- 2001:	349 adingabe (370 sarrera)
- 2002:	266 adingabe (337 sarrera)
- Denera (1996-2002):	737 adingabe (858 sarrera)

Bizkaiko Foru Aldundiak Urdulizen hirugarren zentro bat zabaltzeko ahalegin hutseginarean ostean –proiektuak herritarren aurkako erantzuna piztu zuen-, harrera beharren erantzuna lehendik zeuden bi zentrotara bideratu da (Zabaloetxe Loiu, eta Gabriel M^a de Ibarra Urduñan), eta buru jabetzen laguntzeko zenbait pisu abian jarri edo aprobe-tzatzeraz.

Loiuko Zentroa hasierako harrera gune gisa ari da eta, beraz, mugimendu handia dago (sarrera asko eta aldegitte asko). Urduñako zentroaren errealitatea, berriz, askoz ere

egonkorragoa da. Hemen artatutako herritarrak dauden 30 tokien inguruan mantentzen dira beti. Uzteak adinez nagusi izatera heltzen direnean gertatzen dira (5 kasu 2002an), ihes egiten dutelako (6 kasu), edo barnerapeneko neurri judizial bat betetzeagatik (beste 6 kasu). Sarrerak, normalean, Loiutik etortzen dira, leku aldaketen ondorioz (15 adingabe 2002an), eta pare bat kasutan, erreforma zentroetatik etorri dira.

Hona hemen Loiun 2002an zehar izandako datuen bilakaeraren laburpena:

HILA	SARRERAK	UZTEAK	HILEAN ARTATUAK	GUZTIRA HILAREN AZKENEAN
2001-12-31n				97
URTARRILA	49	67	146	79
OTSAILA	31	35	110	75
MARTXOA	28	27	103	76
APIRILA	22	22	98	76
MAIATZA	20	28	96	68
EKAINA	19	23	87	64
UZTAILA	21	26	85	59
ABUZTUA	27	20	86	66
IRAILA	29	23	95	72
URRIA	41	45	113	68
AZAROA	26	27	94	67
ABENDUA	24	20	91	71
GUZTIRA	337	363	1.204	938
HILEAN BATEZ BESTE	28	30	100	72

Iturria: 2002ko Memoria, Zabaloetxe egoitza

Urduñako Zentroko azkeneko urteko datuei dagokienez, 17 berri sartu ziren, 16k utzi zuten, hileko egonaldiak 351 izan ziren eta hilean artatutako adingabeak, batez beste, 29 baino gehixeago izan ziren.

Erakunde honek hainbat urte darama egoeraren jarraipen xehatua egiten. Jarraipena zentroen baldintza fisikoetara, hezkuntza proiektuetara, jarduera protokoloetara, administrazioeko egoeren erregularizatzeari dagokionez lortutako emaitzetara (dokumentazioa), tutoretzaren ariketara, baliabide erkideen aprobetxamendura (hezkuntza, osasun, kirol, lanbide hastapen eta abarretakoak), kultura desberdinen errespetura, buru jabetza eta laneratze aukeretara... bideratu da. Horren guztiaren berri lehenagoko txostenetan eman da (ikus, esaterako, "Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak. Bizkaiko Lurralde Historikoa", 2001eko Txosteneko 1.1.5 atalean).

Azkeneko urtean, Arartekoak kontu honetan izandako esku hartzea, Bizkaiko Lurralde Historikoan, ondokoetan oinarritu da:

- Loiun eta Urduñako harrera Zentroak bisitatzea.
- Adingabe lege urratzaileentzako barnerapen zentroetarako bisitak.
- Hainbat ertzain etxetarako bisitak.
- Azkeneko urteko dokumentazio eta datuen analisisia.
- Aldioroko harremanak zentroetako zuzendariekin, erakundeetako arduradunekin eta atzerritarrei laguntzeko elkarteekin.

Batzutan, gero ikusiko den bezala, ikusitako egoerek edo jasotako datuek Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailean edo Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean ofizioz jardutera eraman gaituzte.

Burututako jardueretatik eta ateratarako informazioetatik ondoko elementuak azpimarratuko genituzke:

- Bizkaiko Foru Aldundiak adingabe horientzako erakundeen erantzuna emateko baliabideak mantendu ditu. Hona hemen baliabide horiek zertan zehazten diren:
 - Zabaloetxe Zentroa, Kaputxino Hirugarrendarrek kudeatuta, zentroan bertan 54 adingabe hartu, prestatu eta gizarteratzeko, eta besteren batzuk buru jabetza prozesu edo baliabideetan sartuta edukitzeko.
 - Urduñako Gabriel M^a Ibarra Zentroaren erabilpena, halako ezaugarrietako 30 gazte hartzeko modukoa.
 - Lankidetzeta Ituna Etorkin Magrebtarren AZRAF Elkartearekin.
 - Buru jabetzeko baliabideak bultzatzea, 18 urte betetzen dituztenentzat (2002 urtean 11 gazte tutoretzapeko pisuetan eta 23 gazte alokairuko pisuetan).
- Hona hemen hartutako adingabeen ezaugarriak –adin eta jatorriak-, laburbilduta:
 - Sartzean adingabeek adierazitako adina, batez beste, 16 urtekoa izan da. 12 urtetik 17ra bitartean egoten da, eta gehienak 16 edo 17 urte dauzkatela diotenak dira.
 - Kasu askotan, esandako adina ez dator ondoren hezur edo dokumentu frogen bidez egiaztatuta ahal izaten denarekin bat. Esandakoa gutxiengo izaten da. 2002 urtean egiaztatutako adinen batez bestekoa 16 urte eta 6 hilabetekoa izan da.
 - 2001eko egiaztapenen arabera, hartutako %43 adinez nagusiak ziren. Azkeneko urtean portzentaje hori %20raino jaitsi da.
 - Azkeneko urtean 8 herrialde desberdinetatik zetozen adingabeak hartu dira. Gehien-gehienak (266tik gutxienez 241) Marokotik datoz, aurreko urteetan bezala, eta ia erdia Tangerretik dator.
 - Hona hemen gazte horien jatorrizko lurraldeak: Aljeria (13), Bielorrusia (1), Ginea Bissau (1), Marokko (241), Moldavia (1), Palestina (7), Errumania (1), Sri Lanka (1).
- Harrera zentroko egonaldiaren arabera –datu gakoa tutoretza, dokumentazio, prestakuntza edo laneratze kontuetan iristeko moduko xedeak baloratzeko orduan, Zabaloetxe egoitzan azkeneko urtean izandako sarrerak hauxe adierazten dute:
 - 104 adingabek zentroak 1 egunetik 6ra arte eman dutela.
 - 75 adingabek, 7 egunetik 30era.
 - 49 adingabek, 31 egunetik 90era.
 - 38 adingabek, hiru hilabetetik gora.
 Aurreko urtearen aldean, sarrera berrien batez besteko egonaldia nabarmen jaitsi da.

Urduñako Zentroa urtean zehar utzi dutenen adingabeen batez besteko egonaldia, ordea, ia hamaika hilabetekoa izan zen. Urte amaieran, adingabeen ia erdiak (14 zentroan 2001ean hasi zenetik zeramatzen (hau da, 18 hilabete).

Komeni da esatea, kasu askotan, adingabe hauek antzeko beste harrera zentro batzuetan ere egon direla (Andaluzian, Katalunian, Madrilan...) Bizkaira etorri baino lehen.

- Bizkaiko zerbitzuetan azkeneko urtean hartutako kolektiboaren ezaugarrien artean, ondoko hazpegiak nabarmentzen dira:
 - Nerabe adingabeak, 14 urtetik 17ra bitartean, bakarrik dauden atzerritarrak, paperik eta etxerik gabeak: %78.
 - Gazteak, 18 urtetik 24ra bitartean, adingabe gisa pasatzen direnak: %22.
 - Familiaren erabateko babes gabezia, askok familiarekin urruneko harremanak izan arren.
 - Ingurunea ia bat ere ez ezagutzea.
 - Jatorri desberdinak, baina marokkoar proportzio handia (10etik gutxienez 9), eta afrikarrak ia guztiak (%96).
 - Beren herrialdeetatik modu desberdinetan ihes egin dutenak.
 - Sartzen direnean beren familia eta pertsona mailako egoera ez ezagutzea.
 - Hizkuntza ez jakitea, askotan.
 - Kultura balio desberdinak eta sarritan irrealak diren igurikapenak.
 - Dokumentaziorik ez, eta sarritan, mesfidantza eta datuak ezkutatzea.
 - Prestakuntza gutxi eta oinarritzko ikasketen beharra.
 - Zenbaitetan, jokatibide arazotsu eta giza harremanen aurkakoak.

Ezaugarri horiek dira zer artapen behar duten zehazten dutenak: babesa, prestakuntza, dokumentazioa izapidetzea, gizarte trebeziak garatzea, inguruneko baliabideak ezagutzea, jatorrizko familiarekin harremanetan jartzea, laneratzeko ikaskuntza eta esperientziak...

- Zenbait datu hartutako babes neurrien edo adingabeok gizarteratzeko iritsitako lorpenen adierazle gisa har daitezke. Hartara, azkeneko urtean, Zabalotxen hartutako adingabeei dagokienez:
 - Hamar adingabekotik bederatzirengan tutoretza egin da.
 - 30 gaztek lan baimena lortu dute: 6k erregularizatze prozesuaren bidez, 16k errotze prozesuaren bidez eta 8k ez-ohiko arazoiengatik.
 - 45 gaztek lan esperientziaren bat izan dute, eta horietatik 41ek lanean segitzen dute.
 - 122k lan aurreko prestakuntzako jarduera desberdinetan parte hartu dute (ikastaroak eta praktikaaldiak).
 - 34 gazte harrera saretik irten dira, tutoretzapeko pisuetara (11) zein alokairuko pisuetara (23).

Urduñan hartutako adingabeei dagokienez, azkeneko urtean:

- Berton bizitzeko 10 baimen eskatu ziren, 4 izapidetzea eta 12 berritzea lortu zen;
- 32 gaztek lanbide hastapeneko ikastaroak egin dituzte, 1ek konpentsazio hezkuntzakoak eta 7k alfabetatzekoak (EPA);
- 4 lan baimen lortu direnez, 4 gazte laneratzea lortu da;
- 3 gazte tutoretzapeko pisuetara joan dira eta 1 alokairuko pisu batera.

Zentroetako baten urteko memorian jasotzen den bezala, gizarte eta lan mailako integrazioa *“lan prozesuaren azkeneko fasea da baina sarritan ondo burutzen zailena ere bai, sortzen diren zailtasunen eta denbora premiaren ondorioz. Adingabeen lanaren eta ahaleginaren benetako helburua da, eta kasu askotan ez da erabat*

amaitzera heltzen, oztopo ugari sortzen direlako, eta prozesuaren arrakasta ziurta dezaten baliabideak urriak direlako.”

- Lege aldeko egoeraren eta dokumentazio prozesu eta lorpenaren gainean, gehien-goarentzat (Zabaloetxen hartutakoak), azkeneko bi urteetako datuen konparazioak azkeneko urtea nabarmen okerragoa izan dela erakusten du, bereziki bertan bizitzeko baimenen eskariei dagokienez:
 - Lan baimenak: 17 2001ean; 30 2002an.
 - Berton bizitzeko baimenak: 29 2001ean; 55 2002an.
 - Berton bizitzeko baimen eskariak: 193 2001ean; 24 2002an.
 - Pasaporteak: 224 2001ean; 36 2002an.
 - Pasaporte eskariak: 15 2001ean; 31 2002an.

Laburpen orokor gisa, esan daiteke 2002 urtean adingabe eta gazte paperik gabeen proportzioa %56koa izan dela (138 adingabe), 2001ean izandako %77,36en aldean (270 paperdun), eta datu horrek egoera legezatzeko ondorengo izapideak baldintzatzen ditu.

Bestalde, azkeneko urtean izapidetutako berton bizitzeko baimenen 24 eskarietatik 8 baino ez dira lortu. Eta izapidetu diren 31 pasaporte eskarietatik 17 lortu dira. Gai honi geroago berriro helduko diogu.

- Loiuako Zentrora (Zabaloetxe) abenduaren 11n joan ginen, eta Urduñakora (Gabriel M^a de Ibarra) biharamunean. Bi zentroak beren ahalbideen mugaraino erabiltzen ari ziren: 30 toki Urduñan eta itunpeko 54 toki Loiuin. Horri buru jabetzeko pisuetako tokiak gehitu behar zaizkio. Guztiak mutilentzat (neskarik bat ere ez).

Taldean egitura eta zentroen barruko antolamendua funtsean berdin mantentzen zen: txanda desberdinetan hezitzaile magrebtarrak sartuak ziren, Urduñako Zentroaren zuzendaritzan aldaketaren bat izan zen, aurreko zuzendaria hil zelako.

Behin datu guztiak aztertu ondoren (instalazioen egoera, langilierien egoera, zentroek eskariei erantzuteko ahalmena, esku hartzeko irizpideak, beste instantzia batzuekiko koordinaketa, dokumentazioen izapideak; buru jabetzeko aukerak, gatazka egoerak...), esan dezakegu ikusi ditugun arazo nagusiak hauek direla:

1. Bizkaiko Foru Aldundiak adingabeen dokumentazioaren izapideetarako ezarritako irizpidea eta bere ondorio larri ezkorrak.

Aurreko urteetan ez bezala, zeinetan berton bizitzeko baimenaren izapidea zentroak berak eta ahal zen bezain laster egiten baitzuten, 2002an Bizkaiko Foru Aldundiak izapideak adingabea hartu eta 9 hilabete beranduagora arte ez hasteko irizpidea ezarri zuen, eta zerbitzua zentroekin zerikusirik ez zeukan elkarte bati kontratatu zion.

Irizpide aldaketa otsail aldera izan zen, eta horren berri zabaltzean, iturri guztien arabera, harrera eskariak eta egonaldiak nabarmen jaitsi ziren. izan ere, 2002ko otsailetik azarora bitartean, irizpidea eta prozedura aldatu zirenez, ez zen berton bizitzeko baimen bat ere izapidetu. Haurren Zerbitzuak zentroetara bidalitako idatzian honelaxe dio:

“Adingabea Bizkaiko Foru Aldundiaren eskuetan jarri denetik 9 hilabetera, behin jatorrizko bere familiarengana itzultzen saiatu ondoren, halakorik lortu ez bada, 4/2000 Lege Organikoaren 35.4 artikulua hizpide duen bertan bizitzeko baimena izapidetzeari ekingo zaio, Gizarte Ekintzako Foru Diputatuaren Aginduaren bidez.”

Elkarrizketatutako profesionalen iritziz, irizpide aldaketa horrek azkeneko urteko lan gutzia eta igurikapenak baldintzatu ditu. Ondorio txarren artean (baimenak lortzeko ageriko atzerapenez gain), beste hauek ere aipatzen dira:

- adingabeek motibazioa galtzea eta motibazioa hezitzaileen esku hartzeko elementu gisa baliatu ezina;
- beste toki batzuetara ihes egitea, edo delinkuentzia egoeretara igarotzea;
- kontraesana babes zein erreformako beste zerbitzu batzuetan erabilitako irizpideekin (horrek zerbitzuen arteko lekualdaketak eragiten ditu);
- atzerapena buru jabetzako prozesuetan (lan eskaintza zehatzak izan arren, baimenak lortzeko atzerapenaren ondorioz onartu ezin dituzten adingabeak).
- taldeen barruko bizikidetasuna eta ingurunearekiko harremanak hondatzea...

Gai honen gainean, bi zentroetara eta erreformako beste zentro batzuetara egindako bisiten ondoren, Arartekoak, duen garrantziak jabetuta, 2003ko urtarrilean Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailean ofiziozko espedientea hasi du, non erabilitako irizpidearen aurka dagoela adierazten duen eta informazio eta datu gehiago eskatzen duen. Txosten hau ixteko orduan oraindik ez dugu inolako erantzunik jaso.

2. Hezkuntza Administrazioak ere ez du behar beste laguntzen adingabe hauek eskolatzeko arazoak ondo konpondu ahal izateko.

Iaz, jada, Urduñako zentrorra egindako bisita baten ondoren, erakunde honek ofiziozko espediente bat abiatu zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarentzat. Sailak 2001eko urriaren 15ean erantzun zigunarekin, pentsarazi zigun igarritako arazoak konponduta zeudela. Ez zen, ordea, horrela eta, gainera, arazo batzuk larriagotu ere egin ziren.

Egiaz, alde honetan izandako bilakaera ona izan da, harrera zentroetako zuzendari-tek eta hezitzaile taldeek hartutako adingabe asko eskolatzera lortu dute, baina aha-lerin handia eginez, eta eskolekin harreman zuzenean egonez. batzuetan gertuen dauden ikastegiekin, beste batzuetan urrunago egon arren adingabe hauen beharrei erantzuteko prest dauden edo programa egokiagoak dituzten zentroetan.

Hartara, esaterako, azaroan, Zabaloetxen hartutako 76 adingabe atzerritarrek eskola erantzunen bat izana zuten: 27k harrera zentroan bertan, bertoko baliabideekin edo eskola sistemaz kanpoko irakasleak zuzenean kontratatuta; 49 ikastegi (gehienetan CIP) eta herri desberdinetan: Portugalete, Erandio, Santutxu, Errekalde, Urtuella, Mungia, Trapagara, Larrondo, Leioa, Ollargan, Amurrio, Arrigorriaga...

Urduñan hartutako adingabeen kasuan, geografiaren ikuspegia kontuan hartuta, hezkuntzarako erantzuna Bizkaian zein Araban bilatzen da (Laudion eta Amurrio).

Baina jasotako informazioen arabera:

- Oraindik ere arazoak daude Administrazioarekin edo hezkuntza zerbitzuekin hitz egiteko orduan (Ordezkaritza, Ikuskaritza, Berritzeguneak).
- Hizkuntza ikasteko hasierako beharrei ez zaie erakundeetatik erantzuten.

- Administrazioak ukatu egin ditu gertuko ikastegiak erabiltzeko edo horietan berariazko baliabideren bat sortzeko proposamen batzuk.
- Hezkuntza Sailaren mendekoa den eta tradizioz Zabaloetxera adingabe ez-atzerritarrei eskolak ematera joan izan diren irakasleak ez ziren izendatu, edo gutxienez ez ziren zentroan abenduaren 9ra arte agertu.

Gai horiek guztiak planteatu zaizkio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, 2003ko urtarrilaren 17ko ofiziozko espediente berrian, eta txosten hau idazten ari garenean sailaren erantzunaren zain gaude.

3. Babes sistemaren eta erreforma sistemaren arteko lotura.

Kezkagarria da babesteko hartutako adingabeetatik barnerapen zentroetan amaitzen dutenak hainbeste izatea, bereziki bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuan (txosten honetan, 1.1.6 atalean zenbait datu ikus daiteke). Zenbakizko datuaz aparte, berez babes sistemak zer bait huts egiten ari delako zantzua izan daitekeena, zentro desberdinetara egindako bisitetan beste arazo batzuk ere ikusi ahal izan ditugu, zerbitzuen arteko koordinaketan, sistema batetik bestera igarotzean hezkuntzako esku hartzeetan jarraitasunik ezean, neurria amaitzean alternatibarik ez edukitzean (buru jabetzarako bitartekoak), edo dokumentazioak izapidetzean (atzerapenak, dokumentazioa iraungita, irizpideak bat ez etortzea dokumentuen izapideetan...). Lau arazo horiek neurri handiago edo txikiagoan ageri ohi dira zerbitzu guztietan.

Txosten hau idazteko orduan, Ararteko erakundea ofiziozko jarduerak abiatzeaz edo erakunde arduradunei gomendioren bat egiteaz pentsatzen ari da: hiru Foru Aldundietako Gizarte Ekintza Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailari.

4. Baliabide mugatuak daude (bereziki egoitzetan), adingabe hauek buru jabetzeko prozesuak sustatzeko.

Babesteko edozein esku hartzeren amaierako helburuak autonomia lortzea izan behar du, gizarteratze normalizatua iristea. Helburu hori lortzeko, sarritan, batez ere egoera bereziki ahuletan, buru jabetzara arian-arian heltzeko prozesua behar izaten da. Prozesu hori lortzeko berariazko baliabide mugatuak izatea da, antza, gure sistemaren defizitetako bat, gure txosten askotan behin eta berriro seinaltatu izan duguna.

Eskuartean daukagun kasuan, 2002aren amaieran, erabilitako baliabideak, funtsean, tutoretzapeko pisuak eta alokairuko pisuak ziren. Ordura arte, lehenago harrera zentroan artatutako adingabe edo gazte atzerritarretatik gutxienez 34 pisuetara joanak ziren bizitzera, autonomia handiago ala txikiagoz: zenbait kasutan (23), alokairuzko pisuetara, zentroak zuzenean kudeatuta eta zentrotako hezitzaileen jarraipenarekin; beste batzutan (11 gazte), elkarte edo erakunde desberdinek (Goiztiri, Elkarbanatuz, Gurutze Gorria y Cáritas) kudeatutako pisuetara. Hiru kasutan familiekin bizitzera joanak ziren.

Bide horiez egiten den balorazioa, oro har, oso ona da. Hala ere, dauden baliabideei gutxiegi irizten zaie dauden beharrei erantzuteko. Are gehiago baimenak lortzeko atzerapenaren ondorioz, nahikoa prestakuntza ona eta enplegu eskaintza sendoak dauzkaten pertsonak, lan egin lezaketanak eta diru aldetik erabat autonomo izan litezkeenak, ezin dituzte kontratatu, eta gizarteratzeko dituzten benetako aukerak baldintzatuta geratzen dira.

5. Hezur frogetako atzerapenen ondoriozko arazoak.

Egun, hezur frogen emaitzak zentroan sartu eta 15 edo 20 egunetara jakiten diren. Emaitzak gaztea adinez nagusia dela adierazten badu, zentrotik bota egin behar da, eta horrek tentsioak eta auziak sortzen ditu. Onena litzateke frogak zentroan sartu aurretik egin ahal izatea edo bestela, oso tarte laburrean.

Bestalde, azkeneko urteetan frogetatik ateratako emaitzei dagokienez, zenbait kasutan emaitzak adinez nagusiak direla esan eta, eskatutako dokumentazioa helitzean, adingabea dela ikustea gertatu izan da, eta horrek erabakiak hartzea zailago egiten du (hartzea – botatzea - berriro hartzea).

Ikusi edo jaso ditugun beste arazo batzuek ondoko gaietara buruzkoak dira:

- Atzerapenak osasun txartelak eskuratzeko (6 hilabete ere) eta zailtasunak zenbait izapide egin ahal izateko exijitzen diren egiaztagiri medikoak lortzeko.
 - Erreparoen edo tentsio egoerak berehalako inguruneko pertsonekin.
 - Zabalotxeko instalazioan eragindako sutearen eta izandako erasoaldiaren Ertzaintzaren ikerketa gelditzea edo emaitzarik ez lortzea.
 - Urduñako Zentroan apropos apurtutakoak eta instalazioen egoera.
 - Aldaketak sarri (gaixo egoera, uzte edo ordezkapenengatik) hezitzaileen taldeetan, eta langile gehiago sartzeko eskariak.
 - Informatizatze beharrak, eta garraio beharrak...
- Zabalotxe egoitzak egindako 2002ko memoriak, bertatik hartu ditugu aurreko datu asko eta asko, azkeneko atalean hemen jorrotutako gaitako askoren gaineko hainbat ondorio bildu ditu: dokumentazioa, hizkuntza ikastea, laneratzea, etxebizitza partekatuetara sartu ahal izatea, ingurunean txertatzea, harrera epearen osteko jarraipenak... Gai horietako bakoitzaren gainean eskaini eta aztertzen ditu urteko datuak, bai lorpenak bai arazoak, eta konpondu edo hobetzeko balizko bideak iradokitzen ditu. Datu eta proposamen horietako batzuk berriro jorrotu dira, arestiko lerroetan, Gabriel M^e de Ibarra Zentroak prestatutako memorian jasotako beste hainbat datu eta proposamen bezala.

Badirudi garbi dagoela erakundeen ahalegin guztiak adingabe horiek gizarteratzea erraztera bideratu behar dira. Errazte hori, funtsean, “paperak” eskuratzean zehazten da, eta lan mundura laster sartzeko eta buru jabea izateko behar diren ikaskuntzetan. Horrela baino ez baita nahi ez diren egoerak edo delinkuentzia kasuak gehitzea saihestu ahal izango.

C) Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Lurralde honetan, 2002an, sarrerak eta adingabe atzerritarrak pixka bat gutxitu dira aurreko urtearen aldean. Hona hemen bilakaeraren datuak, laburbilduta:

- 1996:	2 adingabe (2 sarrera)
- 1997:	28 adingabe (29 sarrera)
- 1998:	82 adingabe (97 sarrera)
- 1999:	103 adingabe (268 sarrera)
- 2000:	85 adingabe (148 sarrera)
- 2001:	159 adingabe (182 sarrera)
- 2002:	117 adingabe (149 sarrera)
- Denera (1996-2002):	576 adingabe (875 sarrera)

Adingabe hauentzako berariazko zentroi dagokienez, azkeneko urteetan Irunen dagoen pisu bat eduki da (larrialdiko harrera), eta Martuteneko egoitza ere bai, biak Gurutze Gorriak kudeatuta. Lehenengo kasuan, beste toki batzuetarako bidean zihoazen edo, gutxienez, horren esperantzan zeuden adingabeak hartzen ziren; bigarrenean kolektiborik egonkorrena edo hemen gelditzea aukeratzen duena hartzen da. Errealitate bikoitz hori zentroetako bakoitzean hartutako adingabeen kopuruan eta bakoitzeko batez besteko egonaldietan islatzen da. 2001 urteko datuetan:

- Irun: 114 adingabe artatuta; egonaldia, batez beste: 7 egun.
- Martutene: 16 adingabe artatuta; egonaldia, batez beste: 126 egun.

Azkeneko bi urteetan (ikus “Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak”, 2000ko zein 2001eko txosteneko 1.1.5 atala), erakunde honek behin eta berriro azpimarratu ditu ondorengoak bezalako kontuak: Irungo pisuaren mugak, hezitzaileen taldean atzerritarren kultura eta hizkuntza ezagutzen dituztenak sartu behar direla, ikuskatu, kontrolatu eta bermatzeko mekanismoak hobetu behar direla, kalean bizi diren adingabe atzerritar babesgabeen kolektiboaren arazoei aurre egin behar zaiela...

Artapen sareari dagokionez, aurtengo berritasunik aipagarriena Irungo pisua itxi dela eta Urnietan zentro berria zabaldu dela izan da, Gipuzkoako Foru Aldundiak Arartekoari 2002ko urtarrilaren 11ko idatzian aurreratu zion bezala: “*Aurreikusita daukagu bakarrik dauden adingabeen Larrialdietako Harrera Zentroa berehala lekuz aldatzea, Irundik beste herri batera, oraingoaren egitura fisikoak ez baitu egoitzaren hezkuntza jarduera egokiro garatzeko aukerarik ematen, eta Irun, muga hiri izanik, artatuen gizarteratzea errazten ez duen tokia dela uste dugulako*”.

Aurtengo jarraipena zentro berrira eta Martuteneko Zentrora egindako bisitetara bideratu da, eta Gipuzkoako Gurutze Gorriak bere gain hartuta dauzkan bi zentroetako zuzendaritza edo koordinatzaileari datuak eskatzera. Hemen bisitetan edo jasotako datu eta informazioetan ikusitako alderdirik garrantzitsuetan islatu ditugu.

Arartekoa bera eta gure erakundeko beste langile batzuk abenduaren 5ean joan ziren Urnietan dagoen larrialdietako harrera zentro berria ikustera. Irundik hara otsailaren 13an aldatu ziren, eta egun horretan 4 adingabe zeuzkaten zentroan hartuta.

Zentroaren instalazioei eta harrera ahalmenari dagokienez, aldaketak hobekuntza nabarmena ekarri du. Bizitza bakarreko etxea da, alokairuan hartuta, bi solairu dituena: sarrera, sukaldea, egongela, bainu gela eta hezitzaileentzako logela bainu gelarekin, beheko solairuan; goian birentzako lau logela eta bainugela bat; horri tailer modura erabil litezkeen garaje handia gehituta.

Txandaka ari diren 5 hezitzaile, egun erdiz laguntzeko dagoen pertsona bat, sukaldari bat, eta zentro horren eta Martutenekoaren koordinaketaz arduratzen den pertsona dira bertoko langileria. Zentroaren helburua hasierako harrera egitea da eta, jarraitzen duten adingabeen kasuan, hiru bat hilabeteko behaketa eta balorazi epea aurreikusten da. Izan ere, zentroaren erabilpenaren datuek mugikortasun handia adierazten dute: urtean zehar 117 adingabe igaro dira bertatik (149 sarrera); gehienak beste toki batzuetara joaten dira eta 4 besterik ez dira Martuteneko Zentrora igaro. Gehienak Tangerretik

datoz eta ia guztiak lehenago Bartzelonan edo Kataluniako beste nonbaiten egon dira (adingabeen %90 edo).

Kudeaketa eredu eta lan baldintzak lan hitzarmenaren urteroko berritzearen mende daude: sinatu zen azkeneko hitzarmenean langile gehiago hartzea lortu zen eta, soldatei dagokienez, irakaskuntza pribatuko hitzarmenaren %80 ingurukoak dira.

Bisitan zehar erakunde honen ardurako eskubideen defentsaren ikuspegitik ohikoak izaten elementu desberdinak ikuskatu ziren: instantzia eskudun desberdinen arteko koordinaketa, oinarrizko eskubideen estaldura (hezkuntza, osasuna...); intimitatea eta desberdinen errespetua; erkidegoaren baliabideen erabilpena eta ingurunean integrazioa; zentroaren beraren antolamenduaren elementuak...

Hona hemen gai horien inguruko zenbait alderdi adierazgarri:

- Jarduera irizpide bateraturik ez izateak, edo baliabideen prestutasunean dauden diferentziek adingabeak lurralde batzuetatik bestera ibiltzea eragiten dute: lurralde batetik nahita zein halabeharrez aldatutakoak, plazak goraino beteta egotearen arazoak, edo zentroen artean dokumentazioa izapidetzeko orduan koordinazio arazoak... Kasu honetan, Kataluniatik etorritakoak dira, baina baita Bizkaitik ere.
- Zentroa zabaldu zenean, hasieran, harrera arazoak izan zituztenez, eta herriko udaltzain eta agintariek ere desegoki tratatu zituztenez, etxearen jabeek alokatzeaz zalantzak izan zituzten. Informazioa baliatu zen amore eman ez zezaten eta, zenbait kasutan, aldioroko koordinaketako bilerak egin ziren.
- Alde desberdinen jarduera irizpideak finkatzen zituen protokoloa edo dokumentua berrikusi da (Aldundia, fiskaltzak...).
- Hezur frogak, aldeak adostuta, zentro pribatu batean egiten dira, eta emaitzan egun gutxitan jasotzen dira.
- Aldundiak ulertzen du ez duela tutoretza izapidetzen hasi behar harik eta adingabea hartu denetik bederatzita hilabete igaro arte. Irizpide horrek ondore txarrak ditu adingabearen dokumentazioari dagokionez, prozesu guztia atzeratzen baita.
- Zentroetako baliabideekin emandako gaztelania eskolak mantentzen dira, edo eskolatze ondoretarako CIPrekin harreman zuzena izatea, baina Hezkuntza Sailarekin hitz egiteko eta beharrei azkar erantzutea lortzeko arazoak daude.
- Baliabide erkideak ondo aprobetxatzen dira (ludoteka, kiroldegia, gaztelekua...).
- Hezkuntza jarduerarako bitartekorik gehienak (zentroko proiektuak, arautegia, bizikidetasun arauak, banan-banako planak....) berrikusten ari dira.
- Dokumentazioa lortzea da arazo nagusia.
- Polizia desberdinekiko harremani dagokienez, Ertzaintzarekin nolabaiteko koordinaketa mantentzen da, batzuetan hainbat eskariri (ihes edo lekualdaketen kasuetan) erantzuterik ez daukan arren. Donostiako udaltzainen jarduerari buruzko kexa nahikoa jasotzen da: ezagupen birak, biluzarazteak, hitzeko probokazioak, eskuburdirak erabiltzea...

Martutenerako azkeneko bisita 2003ko otsailaren 6an egin genuen. Egun horretan 7 adingabe zeuden zentroan, guztiak eskolatuta edo kanpoko ikasketa, edo lan jardueretan sartuta. Langileek 5 hezitzaile izaten jarraitzen dute, eta zentroaren ezaugarriak eta dinamika aurreko urteetako oso antzekoa da (aurreko txostenetan islatu ditugu).

Zentroak dauden tokiak 9 dira orain ere, eta normalean denak edo ia gehienak beteta egoten dira.

2002ko Memoriako datuak, Gurutze Gorriak emandakoak, hauek dira:

	LARRIALDIKO HARRERA (Urnieta)	EGOITZA (Martutene)
Sarrerak urte osoan	149	8
Artatuko adingabeak	117 (10 neska)	15 (1 neska)
Egonaldia, batez beste	3 egun	-
Berriro etorritakoak	19 adingabe	-
Jatorriak	Magreb: 83 Europa: 14 Afrika Subsah.: 8 Hegoamerika: 3 Asia: 3 Besterik: 4	Magreb: 13 Afrika Subsah.: 1 Hegoamerika: 1
Adinez nagusiak (hezur gragaren arabera)	14	-
Dokumentazioa izapidetzen	0	3
Berton bizitzeko baimena	0	4
Lan baimena	0	2
Buru jabeak	0	4

Jasotako datu eta informazio guztiak kontuan hartuta, esan daiteke Bizkairako aztertu ditugun arazoetako asko hemen ere badaudela. Bereziki, ondokoei buruzkoak:

- Tutoretzak hartzeko eta dokumentazioa izapidetzeko erabiltzen diren irizpideak.
- Irteera ahalbideak eta buru jabetza errazteko baliabide gutxi.
- Babes sistemaren eta erreforma sistemaren arteko lotura.

Lehenengo gaiari dagokionez, berak baldintzatzen baititu lan guztia eta integrazio ahalbideak, Foru Aldundiak adingabea hartu denetik bederatzi hilabete igaro arte tutoretza bere gain hartzeko irizpideak ez hasteko irizpideari eusten dio. Eta denbora hori igaro ostean soilik, behin tutoretza onartu denean, hasten dira bertan bizitzeko baimena lortzeko irizpideak, beste 8 edo 9 hilabetez luzatzen direnak. Datuen koadroan azkeneko urtean izapidetu edo lortutako dokumentazioaren gaineko hainbat jaso dira. Eta Bizkaiari dagokion atalean (B) irizpide horri eustearen ondorio okerrak eta Arartekoaren desadostasuna agerrarazi dira. Hartara, bada, kasu honetan ere, Arartekoak ofiziozko jarduerak abiatu ditu, gai horrengatik, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Sailean.

Zentroetan hartuta egon gabe, bere kabuz eta, ziurrenik, legez kanpoko kontuetatik bizi diren bakarrik dauden adingabeen arazoei dagokienez -Gipuzkoakoa, beren beregi-, ez da erraza informazio fidagarririk izatea. Gainerako arazoei buruz, Bizkaiko Lurralde Historikorako esandakoari begiratu.

7. ERANSKINA

ELKARRIZKETATUTAKO 38 ADINGABEEK JASOTAKO HARRERAREN GAINEAN EGINDAKO BALORAZIOAK

(testigantzen laburpena)

B-1 kasua

Izandako harreraren gainean egin duen balorazioa oso ona da (planteatu zaizkion ia gauza guztietan):

- Dokumentazio guztia lortu du, lan-baimena izan ezik.
- Harreman ona du hezitzaileekin eta bere gisako beste adin txikikoekin.
- Pozik ari da zurgintza ikasten.

Ez die garrantzi handirik eman zentroaren baldintza fisikoei. Bakarkako logela duen arren, nahiago izango luke beste norbaitekin logela partekatzea, etxebizitza batean bizitzeko prestatzeko.

Zenbaitek oso logela txikia (6m²) partekatu behar izateaz eta lurrian botatuko koltxoi batean lo egin behar izateaz ondorengo esan du: *“Kalean baino hobeto”*. Gainera, adin txikiko batzuk kalean bizi direla esan du, bai, *“baina haiek hori nahi dutelako”*.

Ez du inolako hobekuntzarik proposatu. Guztia ongi iruditzen zaio. Ados dago zentroaren zuzendaritzarekin. Konfiantza du zuzendariarekin.

B-2 kasua

Oro har, balorazio ona egin du zentroan izandako harreraren gainean, baina arazo batzuk edo hobetu daitezkeen gauza batzuk aipatu ditu:

- Jende ugari dago zentroan eta baliabideak ez dira nahikoak guztientzat.
- Gauzak hautsi egiten dira.
- Herriak jarrera itxia du haiekiko, *“Bilbon, hobeto”*...

Hainbat hobekuntza proposatu du: kristalak, sofak erostea; garbitasun handiagoa. *“Harreraren beste talde bat behar da: batzuetan egongelan egin behar dute lo”*.

B-3 kasua

Zentroaren instalazioen gaineko balorazio ona egin du, batik bat autonomiari dagokionez. Hezitzaileekiko harremanak onak direla esan du, baina, halaber, haiekin bilerarik ez dutela egiten eta ez dutela galdetzen adin txikikoek zer duten gogoko.

B-4 kasua

Autonomia fasean logela partekatzea positibotzat jo du, logela garbi mantendu beharra baitakar horrek, baina ez zaio gustatzen beste adin txikiko batzuek logelen gunean erretzea, txistua botatzea...

Hezitzaileekiko harremanaren gainean, berriz, ondorengo adierazi du: *“batzuetan ona da eta beste batzuetan, berriz, ez”*. Ez du txartzat jotzen egiten duten zerbaiten eraginez ordainsaria kenduko dietela esatea, baina, bere ustez, ziur jakin beharra dago norbaitek zerbait egin duela eta ezin zaio inori errua egotzi seguru jakin gabe. Azpimarratu eta eskertu egin ditu hezitzaileengandik jasotako aholkuak; batzuk gehiago hartzen ditu erreferente gisa beste batzuk baino. Aztertzekeo gairen bat dagoela uste duenean biltzen da hezitzaileekin.

Ondorengo hobekuntzak proposatu ditu: harreraren, txikienak beste leku batera eramatea, lurrian koltxoi gainean lo egin behar izan ez dezaten, horiek baitira zentroan denbora gehien emango dutenak. Ikastaro gehiago ere eskatu ditu, aurten pertsona asko gelditu baitira ezertxo ere egiteko aukerarik gabe. Gainera, kirolaz eta aisial-

diaz soilik arduratuko den hezitzaile bat izatea egokia izango litzatekeela azpimarratu du. Kirol-instalazioetara joan ahal izateko finantzazioa eskatu du, orain adin txikikoek ordaindu behar baitituzte horiek.

B-5 kasua

Ez du kezarik zentroan izandako harreraren gainean. Esan duenez, *“adin txikikoaren arabera da, lan bila badabil bide egokitik joko du; ona ez bada, ez du ezertxo ere lortuko”*. Baieztapen bera egin du hezitzaileekiko harremanari dagokionez, izan ere, *“zenbait adin txikikok ez daki zertarako dauden hezitzaileak”*.

Autonomia fasean dago bera ongien. Gelak handiak dira eta hara heltzen direnek ez dute arazorik sortzen, badakite zertan dabilzan.

“Etxebizitzan erlaxatuago egon zaitezke, lasaiago; bizitza beste modu batean ikusten duzu”.

B-6 kasua

Zentroan izandako harrera ona dela uste du, batik bat zuzendariarengandik jasotakoa. Ez du gauza bera uste gero partekatutako emantzipazio-etxebizitzaren gainean. Zentrotik atera ziren adin txikikoentzako arau zorrotzegiak zeudela uste du. Gainera, ez omen zieten azaltzen arau horiek zergatik zeuden ezarrita. Kritikatu egin du, halaber, adin txikikoek dirua zertan gastatzen zuten kontrolatzen zutela eta zenbaitetan adin txikikoak paperak izan gabe botatzen zituztela.

Hobekuntza posible gisa, harreratik jarduerak gauzatzen hasia proposatu du, esaterako, ikastaroetan parte hartzea eta adin txikikoek ordainsariren bat ematea; izan ere, esan duenaren arabera, *“aisialdiko denbora gehiegi izateak arazoak ekartzen ditu”*.

B-7 kasua

Bere egungo egoera eta orain dela aste batzuk arte Urduñan izandakoa alderatu ditu: *“Hemen askoz ere hobeto nago: janaria prestatzen ikas dezakezu, erratzaz garbitu behar duzu, etxebizitza batean bizitzera ohitu zaitezke...”* Eta Urduñari dagokionez, zenbaiten eragin kaltegarria eta horrek guztiengan izandako ondorioak nabarmendu ditu (*“Urduñan arazoak sortzen dituzten lau edo bost adin txikiko daude eta jendeak ondorengoa esaten die: Muera-koak...”* “ez digute lorik egiten uzten lanera behar bezala joateko”...), baita drogekin dauden arazoak ere (*“oraindik laguntza behar dute”*, *“drogetan aditua den hezitzaile bereziren bat beharko lukete harekin hitz egin ahal izateko”*, *“bakarrik ezin ezingo dute inoiz droga alde batera utzi”*).

Oso positibotzat jo ditu hezitzaileekiko, etxeoandareekiko, zainzaileekiko eta beste adin txikikoekiko harremanak. Guztia ongi iruditzen zaio, toki-arazoak izan ezik: dutxa bat soilik, leku gutxi logelan... *“Gehien amorratzen nauena: jangela. Batzuetan ezin duzu bertatik irten, gainontzekoek amaitu arte itxaron behar duzu”*.

B-8 kasua

Bizkaira iritsi zenean, zentro batean hartu zuten harreraren eta hiru hilabete egin zituen bertan. Kritika bakarra egin du: *“5 euroko ordainsaria ematen ziguten eta hori ez da nahikoa ezertarako”*; baina zentroko zuzendariaren borondatea eta ahalegina nabarmendu ditu. Ondoren, beste zentro batera aldatu zen eta bederatzi hilabete igaro zituen bertan: *“hasieran ez nuen zentro horretara joan nahi eta behartu egin ninduten; baina gero ongi joan zen guztia”*. Hauxe da egin duen balorazioa: *“Ongi bizi ginen han, irteteko baimenak ematen zizkiguten... baina arazoak ere bazeuden”*. Zuzendariaren gaineko keak ditu: *“Ez dut sekula harekin hitz egin, ez du gugan pentsatzen”*. Elkarrizketa egin dugun unean, hiru aste daramatza ireki berria den etxebizitza funtzional batean bizitzen. Pozik dago aldatzarekin: *“Hemen oso ongi nago, lehen zarata handia zegoen”*; hala ere, logelan pertsona gehiegi daudela azpimarratu du (beste bi pertsonarekin partekatzen du gela). Pisuaren tamaina ikusita, gehiegi daudela esan du. Bestalde, oraindik bertan denbora gutxi daramatela esan du, eta ikusteko dagoela gauzak nola doazen: *“askotan hezitzaileek ere ez dakite eta itxaroteko esaten didate, hau berria dela”*.

1. neska

Izan duen harrera eta egiten dituen jarduerak oso modu positiboan baloratu ditu.

2. neska

Zentroan jaso duen harrera oso ona dela uste du, baita hezitzaileekin duen harremana ere; hala ere, ondorengo zehaztu du: *“batzuekin beste batzuekin baino hobeto”*. Orduategien gaineko irizpideek ez diote kezkarik sortzen. Taldez aldatu berri dute eta orain lehen baino gusturago dago. Ohera goizegi joaten direla nabarmendu du eta, askotan, iritsi, afaldu, platerak garbitu eta ohera joaten direla. Zentroa *“konplexu”*tzat jo du; *“hezitzaileek pazientzia handia izan behar dute”*.

Zentroan arabieraz idatzitako liburuak izatea gustatuko litzaioke.

3. neska

Positibotzat jo ditu izan duen harrera eta hezitzaileekiko harremanak: *“ez zait ezertxo ere falta”*.

4. neska

Pozik dago bai izan duen harrerarekin, bai hezitzaileekin duen harremanarekin. *“Ongi portatzen bazara, hezitzaileak ere bai; gaizki portatzen bazara, hezitzaileak ere gaizki portatzen dira”*.

5. neska

Zentroan izan duen harrera ona izan dela uste du, baita hezitzaileekin duen harremana ere.

G-1 kasua

Oro har, ez du beste adin txikikoekiko, janariarekiko edo kanpoko jardueretik kexarik. Hezitzaileen gainean berriz, hauxe esan du: *“egun batzuetan ongi, beste batzuetan gaizki; batzuk oso urduri egoten dira”*.

Zentroari dagokionez, hainbat hobekuntza proposatu du: aisialdiko denboran ordu erdi gehiago izatea, egongelako aulkiak aldatzea, egurrezko kutxatilak (armairuak) jartzea. Gainera, uste du guztientzat komun bakarra izatea ez dela nahikoa.

G-2 kasua

2003. urtetik, babes-familia bat du hemen eta asteburuetan haiekin bizi da. Dokumentazioa bideratzen, ikasketetan eta abar laguntzen diote. Aparteko egoera da eta asko baloratzen du hori: *“Ni hobeto sentitzen naiz haiekin”*.

Hezitzaileekin *“oso ongi”* moldatzen dela esan du, beste adin txikikoekin *“nahiko ongi”* eta tutorearekin *“ongi”*.

Zentroan egin daitezkeen hobekuntzen gainean galdetu diogunean, baten bat aipatu du: gehiago ateratzea, aisialdiko denbora gehiago izatea, kutxatilak aldatzea (*“hautsita daude; lapurtu egiten dizute haietatik”*). Baina ez dio garrantzi handiegirik eman. *“Guztia gustatzen zait”*, esan du.

G-3 kasua

Zentroaren instalazioen gaineko balorazio positiboa egin du. Hezitzaileekin duen harremanari dagokionez, berriz, batzuekin ona dela esan du eta beste batzuekin, berriz, ezetz. Kritikatu egin du ordainsaririk ez jasotzea,

aisialdiko denboran ezin baitute ezertxo ere egin, alde zaharrean ibiltzea baino ez, “ezin duzu kafe bat ere hartu”. Gainera, adin txikikoek aisialdiko denbora gehiago izatea eskatu du.

G-4 kasua

Zentroaren eta izan duen harreraren gaineko balorazio ona egin du, baina errumaniarra izateak arazoak ekarri dizkiola esan du; ez du ia harremanik zentroko gainerako adin txikikoekin. Hezitzaileekin duen harremana ona da.

G-5 kasua

Ondorengoa nabarmendu du: “*Hezitzaileek ez dute pazientzia handiegirik eta batzuetan ez diote jaramonik egiten nik eskatzen diedanari*” (jantziak, haginlariarengana joatea...). “*Hauxe esaten didate beti: itxaron, itxaron*”. Hala ere, batzuekin konfiantza baduela esan du. Aisialdiko denboran ordu gehiago izatea eskatu du eta zentroak antolatzen dituen ekintzetan adin txikikoei galde diezaietela nora joan nahi duten.

G-6 kasua

Ordainsari handiagoa eta beranduago itzultzeko aukera izatea eskatu du, beste adin txikiko batzuen moduan; ez dago ados hezitzaile-taldearen kontrako erabakiarekin: “*Nahi dutena egiten dute*” esanez protesta egin du.

Lau tutore izan ditu azken 8 hilabeteetan eta guztiekin gaizki moldatu dela esan du.

Hobekuntza-proposamenei dagokienez, bere kexen ildoari jarraitu dio: “*Zigor gutxiago*”, “*jendeari normal bizitzen uztea*”, “*seme baten moduan tratatzea*”...

G-7 kasua

(...) Aldiz, oso kritikoa izan da zentroaren funtzionamenduarekin eta hezitzaileekin: “*Ez naiz oso ongi moldatzen*”, “*hezitzaile batzuekin ongi moldatzen naiz, beste batzuekin ez*”.

Hobekuntza-proposamenei edo egingo litzuzkeen aldaketen gainean galdetu diogunean, ondorengoa planteatu du: “*Adin txikikoekin gehiago hitz egitea; gauzak uler ditzakete*”, “*arauak kentzea*”, “*ordutegiak aldatzea; udan, gaueko bederatzietan...*”, “*paperak eta lana lortzen laguntzea*”.

Zentroan zigor asko jartzen direla uste du, “*baina jasan beharra dago zerbait lortu ahal izateko*”.

G-8 kasua

Zentroan izan duen harrera ez du txartzat jo, baina arauak oso zorrotzak direla azpimarratu du “*badirudi hemengoak baino gehiago zaintzen gaituztela*”. Larunbatetan irteteko duten ordutegi murrizaren gaineko kritika egin du batik bat.

G-9 kasua

Zentroen gaineko balorazioari dagokionez, “*gutxi gorabehera ongi*” esan du. Elikadura, etxebizitza eta antzeko oinarrizko beharrienei dagokienez, zentroak ongi asetzen dituela nabarmendu du, baina lan egiteko moduari buruzko kritika egin du. “*Hezitzaileen jarrerak aldatu egin beharko luke*”. Arauen eta luzeegi jotzen duen agiriaren lorpenaren gaineko kexak ditu. “*Bi urte daramatzat arauak betetzen eta zigorrak gogorregiak dira (...). Nazkatuta nago zigorrak betetzeaz*”. Hezitzaileek eta adin txikikoek gehiago hitz egin behar dutela esan du. Zigorrak erabakitzeko bileretan parte hartzeko aukera izatea gustatuko litzaioke. Jantzi gehiago izateko eskaera ere egin du.

G-10 kasua

Zentroa modu positiboan baloratu du eta hezitzaileekin harreman ona du, baina arau gehiegi daudela eta ordutegiak zorrotzeiak direla azpimarratu du.

A-1 kasua

Zentroa dela-eta, tokiari eta egonaldiari dagokienez dituen mugak nabarmendu ditu: gaueko bederatzia arte kalean, bertara joan ezinik; iaz 13 pertsona ere egon ziren lotan zortzi pertsonarentzako moduko logela batean; ez dago ikasteko inolako lekurik... *“Beste lekuren bat bilatzea, hobe”, adierazi du.*

Harremani dagokienez, ondorengo azpimarratu du: tutorearekin duena ona da, hezitzaileekin, berriz, *“batzuekin ona eta beste batzuekin, berriz, txarra”*. Gainera, hezitzaile batekin eta zaintzailearekin berriki izandako arazoren bat kontatu digu.

A-2 kasua

Izandako harreraz eta zigorrez kexu da etengabe: *“Ez dute ezer egiten uzten”, “ez didate ezer erosten”, “ez dugu autobus-txartelik”, “egun osoa kalean ematen dut”...*

Edonola ere, bere tutorearekin, beste adin txikikoekin eta auzoko neska-mutilekin duen harremana ona dela esan du: *“ez dut arazorik”*. Bere kexak hezitzaile jakin batzuen gainekoak dira, baita zuzendarienganakoak ere, bere kexei jaramonik egin ez dielako.

Hezitzaile batzuekin duen harreman txarraren gainean egiten duen analisia ondorengo esaldi honetan laburbil daiteke: *“Haiek ongi hartzen bagaituzte, guk haiek ere bai. Haiek gaizki hartzen bagaituzte, guk ere bai”*.

A-3 kasua

Hobeto non dagoen galdetu diogu, Gurutze Gorriaren lokaletan lehen, edo orain aterpetxean, eta hainbat arazo komun aipatu du (zerbitzu horietara sartzeko ordutegi murriztua), baina aterpetxea nahiago duela esan du: *“Hemen hobeto. Han zarata handia dago gauetan lo egin ahal izateko”*. Asteburuetan izan ezik, orduan, Gurutze Gorriaren lokaletan lo gehiago egin daitekeelako eta ez dagoelako goiz jaiki beharrik.

Udari dagokionez, iazkoari buruzko kexa bat adierazi du: *“soilik urtegiak- Gamarra; Gamarra- urtegiak”*. Gainera, egunen batean bere neskalagunaren izebarekin joateko baimenik ez diotela ematen esan du. Eta iazko udan zortzi pertsonarentzako moduko gela batean 13 izan zirela nabarmendu du: beroa, kiratsa... *“Ni oso gaizki jarri nintzen”*, aipatu du.

A-4 kasua

Duen kexa bakarra ondorengo hau da: zentrorra itzuli ahal izan gabe ordu asko igaro behar izaten dituela. Baina gainerako adin txikikoekin eta hezitzaileekin duen harremanaren eta zentroaren gainean hauxe erantzun du: *“Ez dut arazorik. Guztia ongi doa”*.

A-5 kasua

Oso kritikoa da zentroan izaten duen harrerarekiko. Hezitzaile askok adin txikikoekin lan egiten ez dakitela esan du eta ez dietela jaramonik egiten haien eskaerei (*“ez naute medikuarengana eramaten”, “galtzetinak eskatu nituen eta ez dizkidate eman”*). Gainera, batzuek hauxe esaten omen diete: *“jo nazazu, jo nazazu”*.

Bere tutorearekin harreman ona du, *“berak niri jaramon egiten dit eta nik berari ere bai”*. Oso txartzat jo du guera arte zentroan egoten ez uztea eta hainbeste ordu kalean pasatu behar izatea. Gainera, ez zaio gustatzen egunero jatetxeren batean bazkaldu behar izatea.

Zentroaren instalazioei dagokienez, ondorengo hauxe esan du: *“kartzela dirudi, bederatzia gaude logela bakarrean... kartzelan baino okerrago... gelan sartu eta kirats izugarria izaten da, elurra egiten duenean hotz egiten du, ez dago berogailurik gauez, itzali egiten dute gainontzekoek eraikinetik alde egiten dutenean...”*. Adin txikiko atzerritarrentzako eta bertakoentzako zentroak alderatu ditu, bertakoek etxebizitza bat baitute haientzat bakarrik, eta ez du ulertzen zein den ezberdintasuna: *“zergatik ezin dut etxebizitza horretan bizi?”*, *“haiekin irteerak egiten dituzte, gurekin ezertxo ere ez”*. Gainera, dokumentazioa lortzeko bidea oso motela dela adierazi du.

A-6 kasua

Izaten duen harrera oso positibotzat jo du.

A-7 kasua

Zentroan izaten duen harrera *“hala-moduzkoa”* moduan definitu du. Hezitzaileekin harreman ona du, baina tutorearekin, berriz, txarra: *“Ez dit laguntzarik ematen, ez dit paperen gainean ezertxo ere esaten, ez dit ikastarorik bilatzen”*.

Ondorengo hobekuntza-proposamenak egin ditu: irtenaldiak egitea eta hezitzaileek *“adin txikikoak ongi hartzea; ez dute ez aitarik, ez amarik”*. Gainera, ondorengo baieztatu du: *“Hezitzaile batzuek ongi hartzen gaituzte, beste batzuek berriz, gaizki; mehatxatu egiten gaituzte eta garrasi egiten digute”*.

A-8 kasua (etxebizitza)

Izandako harrera oso ontzat jo du, baita instalazioak eta hezitzaileekin eta harreran hartutako gainerako adin txikikoekin duen harremana ere.

A-9 kasua (zentroa uztear)

Zentroan izaten duen harrera ona dela uste du, baina kritikatu egin du kalean hainbeste denbora igaro behar izatea, gauera arte ezin baitute zentrorra jo. Hezitzaileekin harreman ona du, baita beste adin txikikoekin ere. Zentrotik irteera gehiago egin daitezen eskatu du, baita ondorengo hauxe ere: *“nire urtebetetzea ospatzeko zerbait egitea; duela gutxi bete nituen urteak eta ez zuten ezertxo ere egin”*.

A-10 kasua (etxebizitza)

Positibotzat jo du. Harreman ona du hezitzaileekin eta gainerako adin txikikoekin.

A-11 kasua (etxebizitza)

Zentroan izan zuen harrera oso ona izan zela esan du, baina ondorengo hau baieztatu du: *“Jendearen araberakoa da. Batzuk ongi portatzen dira eta beste batzuk, berriz, gaizki”*. Hezitzaileekin harreman ona izan du, eta orain ere ona da. Egun osoan zentrorra jo ezin izana hotz egiten duenean gogorragoa egiten dela esan du, baina berarentzat hori ez dela arazo handiegia izan azpimarratu du.

R-1 kasua

Zenbait zentrotan izan dituen bizipenen eraginez, erkaketak egin ditzake eta bakoitzaren alderik onenak eta txarrenak nabarmentzeko aukera izan du. Esaterako:

- *“Gaizki”*. *“Jendeak lurrean egiten du lo”*. *“Janaria, gaizki”*. (Loiu)
- *“Ongi, baina zuzendaria ez da ongi portatzen adin txikikoekin”*. (Urduña)
- *“Ongi, baina ez dituzte paperak bideratzen”* (Urnieta)...

Dagoeneko itxita dagoen Urduñako Zentroari dagokionez, martxoaren 22an gertaturikoaren eraginez barneratze-neurri judizialak betetzen ari delarik, datu ugari eman du: gertakarien gainean, zentroan zegoen giroari buruz, Ertzaintzaren esku-hartzearen inguruan, gertakariak zergatik gertatu ziren...

Zuzendaritzaren jarrera erabakigarria izan zela esan du, bai giro orokorrari, bai gertakariak eragin zituen arrazoiari (gazte batzuek hurrengo egunean zentroa utzi behar zutela zioen jakinarazpena) dagokienez; nahasmenduetan guztiak hartu zutela parte esan du eta Ertzaintzak disolbatzailea hartu zutenak soilik atxilotu zituela; poliziaren jarreraren gaineko kekek ditu (*"Jendea jo egin dute"*)...

Deigarria da ezagutu dituen zentro guztietatik hau (erreforma-zentroa) hartzen duela *"hoberena"* gisa. *"Hemen lan egin dezakezu"*, azpimarratu du.

R-2 kasua

Bere bizipenen arabera, hainbat zentro alderatu ditu. Esaterako, Loiu Urduñan baino hobeto egon zela nabarmendu du: paperen eraginez. *"Han ez dut arazorik sortu"*, aipatu du.

Urduñako Zentroari dagokionez, bi garai bereiztu ditu eta barneratutako aldaketen eta azken zuzendariaren jokabidearen gaineko kekek adierazi ditu.

Barneratze-neurria bete behar izatea ekarri zuten gertakarien gainean, gertakariak azaltzeaz gain, Ertzaintzaren jokabidea kritikatu du, bai zentroan izandako esku-hartzea, bai polizia-etxean igarotako denbora-tartea: kolpeak, mespretxuzko esaldiak eta janari desegokia (ogitartekoak).

Bere ustez, atxilotu egin zuten berarekin *"hezitzaileek beti arazoak dituztelako. Salaketak egin nahi dituzte"*. Eta, oro har, disolbatzailea hartu zutenak edo nabarmenenak zirenak atxilotu zituzten soilik. *"Zentroa erre zutenak kalean daude"* esanez amaitu du eta hori badakitenen izenak aipatu ditu.

R-3 kasua

Lehen zentroan izandako harrera oso ona izan zela uste du. Lan egiten ez ziotela utzi esan du kexa moduan, baina bertan izan zenean zuen adina kontuan hartuta, legez ezinezkoa zen.

Bestalde, bigarren zentroari dagokionez, zuzendariaren gaineko kekek aipatu ditu: *"ez du adin txikikoekin hitz egiten, jendea ez du ongi hartzen, ez die Marokora joaten uzten"*. Hezitzaileen gaineko balorazio ona egin du.

"Pozik eta haserre nago; ez naiz sekula giltzaperatuta egon, baina orain ongi nago".

R-4 kasua

Lehen zentroan gaztelania ikasten aritu zen. Pozik egon zen hezitzaileek egiten zioten harrerarekin.

Bigarren zentroan, denbora gehien igaro zuen arren, ez zen gustura egon. *"Hezitzaileak gaiztoak dira, ez zaituzte herrira eramaten, 'etorri oinez' esaten dizute"*. Bere tutoreari dagokionez, berriz, hauxe aipatu du: *"oso gaizki, bai bera nirekin, bai ni berarekin"*.

Gaur egun, zentro itxi batean dago eta aurrekoan baino gusturago dagoela esan du. Hezitzaileekin duen harremana ona dela nabarmendu du.